LEGAZPIKO
UDALA

# legazpi 1936

Iñaki Iurrebaso Biteri (koor.)

**2007ko udazkenean** Legazpiko udal gobernuak 36ko gerran gertatutakoa ikertzeko eta zabaltzeko asmoa jakinarazi zion gure herrian memoria historikoa gordetzeko beharra argi zuen legazpiar talde bati. Hala, 2008. urte hasieran *Legazpi 1936* proiektua sortu zen, eta Gerra Zibilean gure herrian gertatutakoa ikertzen hasi ziren, Udal Artxibategian zeuden agiri ugariak aztertuz eta gertaera haiek bertatik bertara bizi izan zituzten legazpiarrei elkarrizketak eginez. Lanean jarraitu zuten eta hiru urte geroago, legazpiar askoren ekarpen eskuzabalari esker eta Euskal Memoria Fundazioaren laguntzaz, ikertutako gaiarekiko lehen hurbilpen bat aurkezten dugu argitalpen honetan.

Argitalpen honek bi zati ditu: lehenengoan, Gerra Zibilean gure herrian izandako gertaera historikoak labur berregiteko saioa egin dugu eta, bigarrenean, gerran hildako 58 legazpiarrak eta Legazpin gerraren ondorioz hildako 29 kanpotarrak aurkeztu ditugu.

Lan hau izan dadila gure iragana ezagutzeko ekarpen xumea. Eta izan dadila, era berean, omenaldi bero bat faxismoaren biktima legazpiar guztiei, gerra galdu zuten guztiei, eta hainbat hamarkadatan mina isilpean gorde behar izan duten hildakoen, espetxeratuen, torturatuen, zapalduen… senide guztiei.

En otoño del 2007 el gobierno municipal de Legazpi trasladó su intención de investigar y divulgar los sucesos acaecidos en la guerra del 36 a un grupo de legazpiarras sensible a la necesidad de preservar la memoria histórica en nuestro municipio. Así, a comienzos del 2008 nació el proyecto *Legazpi 1936* y se empezó a investigar lo sucedido en nuestro pueblo durante la guerra, consultando la abundante documentación existente en el Archivo Municipal y realizando las primeras entrevistas con algunos vecinos que vivieron aquellos hechos en primera persona. El trabajo continuó y tres años más tarde, gracias a la aportación desinteresada de numerosos legazpiarras y con la colaboración de Euskal Memoria Fundazioa presentamos en esta publicación una primera aproximación al tema investigado.

Esta publicación consta de dos partes: en la primera de ellas, tratamos de reconstruir brevemente los hechos históricos sucedidos en nuestro municipio durante la Guerra Civil y en la segunda, presentamos a los 58 legazpiarras fallecidos a consecuencia de la contienda, así como a las 29 personas de fuera de Legazpi que perdieron la vida en nuestro municipio

Sirva este trabajo como una humilde aportación al conocimiento de nuestro pasado. Y sirva también como un sentido homenaje a todas las víctimas legazpiarras del fascismo, a todos los perdedores de la guerra y a todas las familias de los muertos, encarcelados, torturados, reprimidos… que durante décadas han tenido que llevar su dolor en silencio.

LEGAZPIKO UDALA

herri minez hiltzen direnak, hilezkor bihurtzen dira *

* Esaldi hori Estanislao Gisasolak, Legazpiko EAJko buruak, “Eguna” egunkarian argitaratu zuen 1937ko otsailaren 6an, gerra bete-betean. Ordurako gudari eta milizianoen hildakoen kopurua oso handia zen.

Esta frase (que traducida vendría a decir: “Las personas que mueren por amor a su pueblo, se vuelven inmortales”) fue publicada por Estanislao Gisasola, líder del PNV de Legazpi, en el periódico “Eguna” en plena guerra, el 6 de febrero de 1937. El número de gudaris y milicianos muertos para entonces era muy alto.

# legazp

Izenburua: Legazpi 1936
Koordinazioa: Iñaki Iurrebaso Biteri.
Egileak: Iñaki Iurrebaso Biteri, Aitor Ibañez de Garatxana Rojas eta Jose Luis Ugarte Garrido.
Laguntzaileak: Juan Mari Olaizola Aranburu, Mari Paz Aranguren Agirre, Anuntxi Andueza Ugarte eta Elena Aseginolaza Izagirre.
Diseinua eta maketazioa: KINAKA design.
Itzulpenak eta zuzenketak: Aitziber Iartza.
Argitaratzailea: Legazpiko Udala
Babeslea: Euskal Memoria Fundazioa.

Inprimaketa: Gertu inprimategia (Oñati)
ISBN: 978-84-606-5274-8
Lege-gordailua: SS-327-2011
2011ko martxoan inprimatua

Klororik gabe eta %100 paper birziklatuan inprimatua.Izenburua: Legazpi 1936

# i 1936


**Koordinazioa**: Iñaki Iurrebaso Biteri

**Egileak**: Iñaki Iurrebaso Biteri
Aitor Ibañez de Garatxana Rojas
Jose Luis Ugarte Garrido

**Laguntzaileak**: Juan Mari Olaizola Aranburu,
Mari Paz ArangurenAgirre, Anuntxi Andueza Ugarte
eta Elena Aseginolaza Izagirre.

# aurkibidea índice

gure esker ona eta maitasuna ..... 8-9 ..... nuestro reconocimiento y cariño
sarrera ..... 10-11 ..... introducción

## 1936ko gerra Legazpin: menderatutako herri baten kronika 16-17 la guerra de 1936 en Legazpi: crónica de un sometimiento

### gerra aurrea ..... 18-19 ..... la preguerra

Gerra aurreko Legazpi ..... 22 ..... Legazpi antes de la guerra

Testuingurua: gatazka giroa Europan, Espainian eta Euskal Herrian ..... 26 ..... El contexto: ambiente conflictivo en Europa, España y Euskal Herria

Legazpiarren joera politikoak: gehienak abertzaleak edo ezkertiarrak ..... 38 ..... Las tendencias políticas de los legazpiarras: mayoritariamente abertzales o de izquierdas

## gerra Legazpin; legazpiarrak gerran ..... 50-51 ..... la guerra en Legazpi; legazpiarras en la guerra


| | | |
|---|---|---|
| 1936ko uztailaren 18a: gerra hasiera | 54 | 18 de julio de 1936: comienza la guerra |
| Legazpiarren bat-bateko erantzuna estatu-kolpearen aurka | 57 | La inmediata respuesta de los legazpiarras al golpe de estado |
| Legazpiko udala gerran | 62 | El ayuntamiento de Legazpi en guerra |
| Legazpiko frontea (1936ko uztaila-iraila) | 67 | El frente de Legazpi (julio-septiembre de 1936) |
| Herritarren bizipenak 1936ko udaran: egunerokotasuna guztiz iraulita, errefuxiatuak Legazpin, eta urduritasuna, kezka eta beldurra nagusi | 80 | Vivencias del verano de 1936: vuelco de la cotidianidad, refugiados en Legazpi, nerviosismo, preocupación y miedo |
| Faxistak badatoz! Herritarrak Legazpitik ateratzea, irailaren 18 eta 19an, eta ehunka legazpiarren exodo luzearen hasiera | 82 | ¡Ya vienen los fascistas! Evacuación de Legazpi el 18 y 19 de septiembre: comienzo del largo éxodo para cientos de vecinos |
| 1936ko irailaren 19a: Legazpiren konkista odoltsuaren kronika laburra | 87 | 19 de septiembre de 1936: breve crónica de la sangrienta conquista de Legazpi |
| Gudariak eta milizianoak borrokan Legazpi defendatzeko; hainbat pasarte | 96 | Algunos episodios de la lucha de gudaris y milicianos en la defensa de Legazpi |
| Fusilamenduak Legazpin eta Legazpitik kanpo fusilatutako legazpiarrak | 102 | Fusilamientos en Legazpi y legazpiarras fusilados |
| Menpean hartutako herri bateko biztanleen bizipenak: ongi etorririk ez faxistei eta beldurra eta izua nagusi | 108 | Vivencias de un pueblo sometido: no hubo grandes bienvenidas; y el miedo y el pánico se adueñaron del pueblo |
| Agintari berriak Legazpiko Udalean; sinbologia berria herrian | 110 | Nuevas autoridades en el Ayuntamiento de Legazpi. Nueva simbología. |
| Legazpi faxisten esku erori ondoren beste bi urte eta erdi iraun zituen gerrak, 1939ko apirilean amaitu zen arte | 114 | Tras la toma de Legazpi, la guerra duró otros dos años y medio más, hasta que finalizó en abril de 1939 |
| Legazpiarrak gudari, legazpiarrak miliziano | 130 | Gudaris y milicianos legazpiarras |
| Legazpi faxisten esku, atzeguardian (1936ko irailaren 19tik 1939an gerra amaitu arte) | 138 | Legazpi en manos de los sublevados, en la retaguardia (desde el 19 de septiembre de 1936 hasta el final de la guerra en 1939) |

## gerraostea: galtzaileen herri bat, irabazleen esku .. 144-145 .. la posguerra: un pueblo de vencidos en manos de los vencedores

Irabazleak eta galtzaileak ...... 148 ..... Vencedores y vencidos

Francoren Espainia berria: bakarra, handia eta librea; katolikoa eta antikomunista; eskubide zibil eta politikorik gabea ...... 157 ..... La Nueva España de Franco: una, grande y libre; católica y anticomunista; sin derechos civiles ni políticos

Errepresio-aparatu faxista ...... 165 ..... El aparato represivo franquista

Legazpiko Udaleko zerrenda beltza ...... 171 ..... Listas negras en el Ayuntamiento de Legazpi

Legazpiarrak espetxean eta lan batailoietan ...... 175 ..... Legazpiarras en prisión y en batallones de trabajadores

Legazpiarrak erbestean ...... 187 ..... Legazpiarras en el exilio

Errepresaliatuen itzulera ...... 193 ..... El retorno de los represaliados

Legazpi 1936-2011: memoria eta ahaztura ...... 197 ..... Legazpi 1936-2011: entre la memoria y el olvido

## hildakoak gogoan 202-203 muertos pero no olvidados

## gerran hildako legazpiarrak ... 207 . .. legazpiarras muertos en la guerra

## gerraren ondorioz Legazpin hildako kanpoko herritarrak ... 285 ... personas foráneas muertas en Legazpi a consecuencia de la guerra



# gure esker ona eta maitasuna



**Xotero Plazaola**
Legazpiko alkatea

Dagoeneko hirurogeita hamabost (75) urte igaro dira mila bederatziehun eta hogeita hamaseiko (1936) gerra amaitu zenetik baina gertaera hark sakon aldatu zuen Legazpiren errealitatea. Honezkero gure artean gutxi izango dira urte haiek zuzenean bizi izan zuten legazpiarrak baina seguru gaude ez dutela gure herriaren etorkizuna su eta gar markatu zuen esperientzia ikaragarri hura ahaztu. Orain zuen eskuetan jartzen dugun lanean jaso diren datuek hemen esaten duguna egiaztatzen dute: berrogeita hamazortzi (58) izan ziren hildako legazpiarrak, gutxi gorabehera hirurehun (300) herritarrek alde egin zuten, berrehun eta berrogei ta hamar (250) baino gehiago kartzelaratuak izan ziren edo lan batailoietara bidaliak edo erbesteratuak edo zigortuak ..... eta kontuan izan gerra piztu zenean Legazpik ez zituela bi mila eta laurehun (2.400) biztanle baino gehiago. Kopuru horiek garbi adierazten dute gerraren ondorioz legazpiarrek jasan zuten tragedia eta, zuzenean edo zeharka, Legazpiko familia guztiak izan ziren tartean.

Faxisten erasoaren eta garaipenaren ondoren, errepresio-sistema frankistak isilarazi egin zuen gertatu zen guztia eta drama hura ezkutatuta geratzea bermatu zuen. Garai hartako ideologiaren arabera, gerra zibila

# nuestro reconocimiento y cariño

Han pasado 75 años desde que la guerra civil de 1936 transformara profunda y dramáticamente la realidad de Legazpi. Tal y como recordarán los pocos legazpiarras vivos que fueron protagonistas directos de aquellos hechos, la guerra fue una experiencia escalofriante que marcó a sangre y fuego el futuro de nuestro pueblo. Los datos que aporta el trabajo que ponemos en tus manos, son fiel reflejo de ello: fueron 58 los legazpiarras muertos, aproximadamente 300 los huidos, más de 250 las personas encarceladas, destinadas en batallones de trabajadores, exiliadas, multadas, depuradas… y todo ello en un pueblo que cuando estalló la guerra no alcanzaba todavía los 2.400 habitantes. Esas cifras ilustran la magnitud de la tragedia padecida por los legazpiarras a consecuencia de la guerra, que de forma directa o indirecta afectó a todas las familias de Legazpi.

Tras la agresión y el triunfo de los fascistas, un manto de silencio obligado y garantizado por el aparato represivo franquista cubrió aparentemente aquel drama. Según la ideología oficial de la época, la guerra civil

Espainia komunismotik eta separatismotik salbatu zuen gerra justua izan zen (*gurutzada santua*). Bando frankisten hildakoak omendu behar ziren eta ongiak gaizkia garaitu zuela ospatu behar zen. Bando galtzaileko pertsonen oinazeak zigor justua ziren nazioaren aurkako jarrera zutelako. Eta ezin zen horretaz hitz egin. Eta horrela, urte askotan, gerra galdu zutenek (nazionalistak, errepublikanoak, sozialistak,….), gerra galtzeaz gain eta eskubide zibil eta politikorik gabe estatu totalitario batean bizi behar izateaz gain, ezin izan zuten euren hildako seme-alabak, anai-arrebak, gurasoak, familiarrak eta lagunak deitoratu eta omendu.

Hirurogeita hamabost urte beranduago, Legazpiko Udalak gertatu zenaren memoria berreskuratzeko lanei eman die hasiera eta gerraren astakeriak jasan zuten Legazpiko gizon eta emakumeei omenaldi beroa eskaini nahi die. Korporazioak udalerriko memoria historikoa berreskuratu beharra dagoela eta berreskuratze hori datozen urteetan seriotasunarekin zabaldu beharreko lan-ildoa dela uste du.

Testuinguru horretan, Legazpiko Udalak legezkotasun demokratikoa adorez defendatu zuten Legazpiko seme eta alaben izen ona eta ohorea errebindikatu nahi du. Harrotasunez eta esker onez gogoratzen eta gogoratuko dugu, iritzi abertzale sakonek edo mundu justuaren aldeko ideiek bultzatuta, faxismoa geldiarazteko ausardiaz borrokatu zuen belaunaldi adoretsu, eskuzabal eta ameslaria. Modu berean, gure maitasuna azaldu nahi diegu, urte luze hauetan euren oinazea isilean eraman behar izan duten biktima legazpiarrei eta haien familiei.

Eta, azkenik, gure esker ona gaur egungo legazpiarren arbaso guztiei zabaldu nahi diegu, garai haietan Legazpin bizi ez baziren ere, hemendik kanpo, Bizkaian edo Nafarroan, Madrilen edo Aragoin, Extremaduran edo Gaztelan,…. faxismoaren aurka borrokatu zuten guztiei. Guztiontzat, beraz, gure esker ona eta maitasuna.

había sido una guerra justa (la *santa cruzada*) que salvó a España de los males del comunismo y del separatismo. Había que homenajear a los muertos del bando franquista y había que celebrar el triunfo del bien sobre el mal. Los padecimientos de las personas del bando perdedor constituían el justo castigo a sus comportamientos antipatrióticos. Y ni se debía ni se podía hablar de ello. Así, durante decenios, los perdedores de la guerra (nacionalistas, republicanos, socialistas…), además de perder la guerra y tener que vivir en un estado totalitario sin derechos civiles ni políticos, ni siquiera pudieron llorar ni honrar a sus hijos/as, hermanos/as, padres, familiares y amigos asesinados.

75 años después de aquellos hechos, el Ayuntamiento de Legazpi ha iniciado una serie de actuaciones para recuperar la memoria de los hechos sucedidos y reconocer y rendir sentido homenaje a los hombres y mujeres de Legazpi que sobrellevaron las atrocidades de la guerra. La corporación considera que la recuperación de la memoria histórica del municipio, debe de ser una línea de trabajo a abrir con seriedad durante los próximos años.

En ese contexto, el Ayuntamiento de Legazpi quiere reivindicar, el honor y el buen nombre de los hijos e hijas de Legazpi que defendieron valientemente la legalidad democrática. Recordamos y recordaremos con orgullo y agradecimiento a aquella generación valiente, generosa e idealista, que movida por sus profundas convicciones abertzales o por sus ideales de un mundo más justo luchó valientemente para detener al fascismo. Queremos mostrar, así mismo, nuestro cariño a todas las víctimas legazpiarras y a sus familias que durante tantos años han tenido que llevar su dolor en silencio.

Queremos, por último, hacer extensible este reconocimiento, como no, a todos los antepasados de los legazpiarras de hoy en día, que sin residir entonces en Legazpi lucharon contra el fascismo en Bizkaia o en Nafarroa, en Madrid o en Aragón, en Extremadura o en Castilla… Vaya nuestro reconocimiento y cariño también a todos ellos.

# sarrera

**2007ko udazkenean Legazpiko udal gobernuak** 36ko gerran gertatutakoa ikertzeko eta zabaltzeko asmoa jakinarazi zion gure herrian memoria historikoa gordetzeko beharra argi zuen legazpiar talde bati. Hala, 2008. urte hasieran *Legazpi 1936* proiektua sortu zen, eta Gerra Zibilean gure herrian gertatutakoa ikertzen hasi ziren, Udal Artxibategian zeuden agiri ugariak aztertuz eta gertaera haiek bertatik bertara bizi izan zituzten legazpiarrei elkarrizketak eginez. Lanean jarraitu zuten eta hiru urte geroago, legazpiar askoren ekarpen eskuzabalari esker eta Euskal Memoria Fundazioaren laguntzaz, ikertutako gaiarekiko lehen hurbilpen bat aurkezten dugu argitalpen honetan.

Argitalpen honek bi zati ditu: lehenengoan, Gerra Zibilean gure herrian izandako gertaera historikoak labur berregiteko saioa egin dugu eta, bigarrenean, gerran hildako 58 legazpiarrak eta Legazpin gerraren ondorioz hildako 29 kanpotarrak aurkeztu ditugu.

Edukiak aurkeztu aurretik, gure lanaren nondik norakoa hobe ulertzeko, erabilitako metodologiari buruz oinarrizko azalpena egin nahi dugu.

# introducción

**En otoño del 2007 el gobierno municipal de Legazpi** trasladó su intención de investigar y divulgar los sucesos acaecidos en la guerra del 36 a un grupo de legazpiarras sensible a la necesidad de preservar la memoria histórica en nuestro municipio. Así, a comienzos del 2008 nació el proyecto *Legazpi 1936* y se empezó a investigar lo sucedido en nuestro pueblo durante la guerra, consultando la abundante documentación existente en el Archivo Municipal y realizando las primeras entrevistas con algunos vecinos que vivieron aquellos hechos en primera persona. El trabajo continuó y tres años más tarde, gracias a la aportación desinteresada de numerosos legazpiarras y con la colaboración de Euskal Memoria Fundazioa presentamos en esta publicación una primera aproximación al tema investigado.

Esta publicación consta de dos partes: en la primera de ellas, tratamos de reconstruir brevemente los hechos históricos sucedidos en nuestro municipio durante la Guerra Civil y en la segunda, presentamos a los 58 legazpiarras fallecidos a consecuencia de la contienda, así como a las 29 personas de fuera de Legazpi que perdieron la vida en nuestro municipio

Antes de comenzar con la exposición de los contenidos, queremos presentar brevemente algunos aspectos metodológicos básicos para entender en qué ha consistido nuestro trabajo.

## Helburuak

Lan honen helburu nagusia Legazpin Gerra Zibilean gertatutakoa nolabait argitzea da eta, bereziki, gerraren ondorioz hildako legazpiarren memoria berreskuratzea. Lanean hasi ginenean jakitun ginen gaiaren inguruan isiltasuna zela nagusi. Egindako bideak uste hori berretsi digu, izan ere, gaia aipatzerakoan oraindik legazpiar askoren artean eragozpena, zuhurtzia eta beldurra dira nagusi.

Beraz, oinarrizko helburua gertaerak argitzea da, gaia iluntasunetik ateratzeko lehen urratsa ematea, inolaz ere ez gaiari buruzko azken hitza esatea. Aitzitik, etorkizunean egingo diren beste ikerketa batzuek orain aurkezten dugun lana zaharkitua uztea (gainditzea) espero dugu.

## Zeharkako iturriak

Gure abiapuntua Legazpin Gerra Zibilaren garaian gertatutakoari buruzko informazioa izan zezaketen liburuak, erregistroak, artxiboak, datu baseak eta abar ikertzea izan da. Horretarako, Legazpiko Udal Artxibategian, erregistro zibilean, elizaren artxibategian eta hainbat udaletxetan aritu gara.

Gerra Zibilarekin zuzenean lotutako beste iturri batzuk ere erabili ditugu, eta oso baliagarriak izan zaizkigu Aranzadi Zientzia Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak, Sabino Arana Fundazioak eta Lau Haizeetara Gogoanen koordinatutako taldeek emandako informazioa, eta baita Iñaki Egañak emandakoa ere, *1936, Gerra Zibila Euskal Herrian* entziklopediatik hartua.

Erabilitako bibliografia zabalean bereziki aipatu nahi dugu Jose Mari Urcelay legazpiarraren "*Legazpi siglo XX: hitos en el camino hacia la modernidad*" lana, oso lagungarria izan baita guretzat.

## Objetivos

El objetivo principal de este trabajo consiste en aportar algo de luz al transcurso de la Guerra Civil en Legazpi, y ,en especial, en recuperar la memoria de los y las legazpiarras fallecidos a causa de la misma. Cuando comenzamos, éramos conscientes del silencio imperante sobre el tema. El camino recorrido ha corroborado dicha percepción, al observar los reparos, las cautelas y el miedo que todavía existen entre muchos legazpiarras a la hora de abordar el tema.

Así pues, partimos con el simple objetivo de aportar algo de luz al oscuro tema que nos ocupa, sin pretender en ningún caso decir la última palabra sobre el mismo. Al contrario, esperamos que investigaciones futuras completen el trabajo que ahora presentamos.

## Fuentes secundarias utilizadas

Nuestro punto de partida ha sido indagar en las fuentes bibliográficas, registros, archivos, bases de datos… existentes que nos pudieran aportar información sobre lo sucedido en Legazpi durante la Guerra Civil. Así, hemos acudido al Archivo Municipal de Legazpi, al registro civil, al archivo eclesiástico, y a diversos Ayuntamientos.

Hemos empleado también otras fuentes directamente relacionadas con la Guerra Civil. En este sentido, nos ha sido de gran ayuda la información facilitada por la Sociedad de Ciencias Aranzadi, por el Gobierno Vasco, por la Fundación Sabino Arana y por los colectivos coordinados en Lau Haizetara Gogoan, así como la aportada por Iñaki Egaña, proveniente de la enciclopedia "1936, *Gerra Zibila Euskal Herrian*" (Aise Liburuak, 2004).

Entre la abundante bibliografía analizada, queremos mencionar especialmente el trabajo "*Legazpi siglo XX: hitos en el camino hacia la modernidad*" del legazpiarra Jose Mari Urcelay que nos ha sido de gran ayuda.

### Protagonista zuzenekin eta haien senideekin elkarrizketak eta informazioa egiaztatzea

Dokumentazio eta artxibategi lanaz gain, aztertutako garairi buruz 80 legazpiarrek baino gehiagok azaldutako bizipenak, sentimenduak eta iritziak jaso eta aztertu ditugu. Elkarrizketatutako batzuk zuzenean Gerra Zibilaren lekuko izan ziren eta beste batzuk gerraren ondorioz hildako legazpiarren senideak. Erabili dugun informazioaren zatirik handiena *Legazpi 1936* proiektuko sare zabaleko kideek egindako elkarrizketen bidez jaso dugu. Prentsatik, liburuetatik eta abar hartutako lekukotasun batzuk ere aztertu ditugu. Ondoko orriko taulan ageri da guri informazioa eta argazkiak eman dizkiguten pertsonen zerrenda. Esan gabe doa pertsona horiek guztiek emandako informazioa oso baliagarria izan dela eta, beraz, eskerrik beroena eman nahi diegu gurekin hitz egin duten pertsona horiei, haiek gabe lan hau ezinezko zatekeen eta. Bereziki gogoan ditugu lana argitaratu aurretik hil diren elkarrizketatutako lagunak: Julian Garate, Garbiñe Gisasola, Jose Ibarnia, Anselma Makibar, Juanito Makibar, Eduardo Mendinueta, Gregorio Santa Agueda eta Rogelia Zubia.

### Analisia eta *Legazpi 1936* lanaren idazketa

Alde batetik eta bestetik informazioa jaso ondoren, alderatu eta orraztu egin dugu, kasu batzuetan iturri batzuen eta besteen artean zeuden kontraesanak argitzeko, ahal izan dugun heinean behintzat. Ez da lan erraza izan, aztertutako gertaeretatik 75 urte ez baitira alferrik pasatu.

Azkenik, idazketa eta itzulpen lana 2010eko abendua eta 2011ko otsaila bitarte egin dugu. Lehenago aurkeztutako gure helburuekin bat, azalpenetan teknizismoak saihesten ahalegindu gara, ulermen erraztasunari eta testuen ukitu dibulgatzaileari lehentasuna emanez.

### Kontuan hartu beharrekoak eta oharrak

Erabilitako metodologia, kontatutako gertaerak izan zirenetik igarotako denborak, frankistek duela 75 urte gertatutakoa estaltzeko eginiko saiakerak, garai hartako protagonista gehienak hilik egoteak, bizirautea lortu duten batzuek oraindik duten beldurrak... informazioa jasotzeko prozesua baldintzatu dute. Horregatik

### Entrevistas y contraste de información con protagonistas directos y familiares

Además del estudio documental y de archivo, hemos recabado y analizado la información facilitada por más de 80 legazpiarras que nos han trasladado sus vivencias, sentimientos y opiniones acerca de los temas analizados. Algunas de las personas entrevistadas vivieron directamente la Guerra Civil; otras son familiares de los legazpiarras fallecidos a causa de la misma. La mayor parte de la información utilizada ha sido recogida mediante entrevistas y diálogos realizadas por la red de colaboradores que hemos trabajado en el proyecto *Legazpi 1936*. También hemos analizado algunos testimonios, procedentes de entrevistas publicadas en prensa, libros, etc. En el cuadro de la siguiente página, se detalla la lista de personas a las que hemos acudido para recabar información y fotografías. Huelga decir que la información facilitada por todas esas personas nos han sido de gran valía. Vaya nuestro más sincero agradecimiento a todas ellas por su atención, ya que sin su contribución hubiera sido totalmente imposible realizar este trabajo. Vaya también nuestro recuerdo especial para las personas entrevistadas que han fallecido antes de ver publicado este trabajo: Julian Garate, Garbiñe Gisasola, José Ibarnia, Anselma Makibar, Juanito Makibar, Eduardo Mendinueta, Gregorio Santa Agueda y Rogelia Zubia.

### El análisis y la redacción de *Legazpi 1936*

Una vez recogida la información proveniente de unas y otras fuentes, la hemos cotejado y depurado, intentando aclarar, en la medida de lo posible, las contradicciones existentes, en algunos casos, entre la información proveniente de unas fuentes y otras. Esta tarea no ha resultado fácil; no en vano han transcurrido 75 años desde los hechos analizados.

La redacción y las traducciones, por último, las hemos realizado entre diciembre de 2010 y febrero del presente año 2011. En consonancia con los objetivos anteriormente planteados, hemos intentado evitar los tecnicismos en nuestra exposición, procurando primar la fácil comprensión y el tono divulgativo de los textos.

### Precauciones y aviso

La metodología empleada, el tiempo transcurrido desde los hechos que relatamos, los esfuerzos realizados por los franquistas para que lo sucedido hace 75 años cayera en el olvido, el hecho de que la mayoría de los protagonistas de la época hayan fallecido, así como el miedo que todavía coarta a algunos supervivientes han condicionado, lógicamente, la recogida de información. Todo ello, nos obliga a recomendar cautela a la hora de leer *Legazpi 1936*. Es probable que

guztiagatik, *Legazpi 1936* irakurtzerakoan zuhur jokatzea gomendatzen dugu. Litekeena da gure kontakizunean hainbat gertaera faltan izatea eta datu batzuk erabat zuzenak ez izatea. Azken ohar hori bereziki kontuan hartu beharrekoa da hildakoen atalari dagokionez, izan ere, hildako batzuen inguruan informazioa jasotzeko ez dugu berriemaile zuzenik topatu. Horregatik, barkamena eskatu nahi dugu aldez aurretik, egon daitekeen edozein hutsunerengatik edo akatsengatik. Espero dugu etorkizunean beste ikerketa batzuek guk hemen eman dugun informazioa orraztea eta osatzea.

Dena dela, datu konkretu batzuen inguruan egon daitezkeen akatsak akats, uste dugu argitalpen honetan emandako irudi orokorra (indar armatuek mendean hartutako, zapaldutako eta beldurtutako herriarena) legazpiarrek duela 75 urte jasandako errealitate gordinaren egiazko argazkia dela.

### Argazkiak

Erabilitako argazkiak bost bidetatik lortu ditugu, batez ere. Lehenik eta behin, gerran hildakoen senitartekoek argazki asko eman dizkigute. Beste batzuk zenbait legazpiarren artxibategi pribatuetakoak dira. Azkenik, Euskal Memoria Fundazioak, Gasteizko Udal Artxibategiak (Enrique Guinea Maquibarren bilduma) eta Lenbur Fundazioaren Dokumentazio Zentroak (Lucio Vergararen bilduma) adeitasunez utzitako argazkiak ere badaude. Legazpiko fronteko planoei dagokionez, Jose Mari Gonzalezen laguntza izan dugu.

### Eskertza

Gure esker ona adierazi nahi diegu lan honetan hain era eskuzabalean arreta eskaini diguten eta lagundu gaituzten aipatutako erakundeei eta pertsonei. Halaber, gure lana hobetzeko aholkuak, ekarpenak eta kritikak egin dizkiguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu: Patxi Juaristi (*UPV-EHU*ko irakaslea), Iñaki Goiogana (Sabino Arana Fundazioko kidea), Iñaki Egaña eta Joxean Agirre (Euskal Memoria fundazioko kideak), Amaia Elizagarate, Juan Inazio Arrieta eta Joxi Azpillaga. Eta, nola ez, bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu gertaera mingarri haien lekukotasuna eman diguten legazpiar guztiei.

Lan honek balio dezala gerra galdu zuen eta faxismoaren erasoaren ondorioak zuzenean jasan zituen belaunaldiari omenaldi xumea eta sakona eskaintzeko.

haya omisiones en nuestra presentación y que algunos de los datos que aportamos, no sean del todo correctos. Esta nota es especialmente pertinente para el apartado referido a los fallecidos. Ha habido casos de fallecidos, en los que no hemos encontrado informantes que nos aportaran información directa sobre el caso. Por ello, queremos pedir perdón de antemano, por cualquier omisión o error que pueda contenerse en esta publicación. Esperemos que futuras investigaciones vayan depurando y completando la información que nosotros aportamos en este trabajo.

En todo caso, independientemente de posibles errores que pueda haber en algunos de los datos concretos que presentamos, consideramos que la imagen general que ofrecemos (de un pueblo conquistado por la fuerza de las armas, aplastado, reprimido y amedrentado) es una foto que reproduce fielmente la horrible realidad que padecieron los legazpiarras hace 75 años.

### Fotografías

Las fotografías empleadas provienen fundamentalmente de cinco fuentes. Los propios familiares de los fallecidos en la guerra nos han facilitado gran cantidad de fotografías. Otras provienen de archivos particulares de vecinos de Legazpi. También incluimos fotografías amablemente cedidas por Euskal Memoria Fundazioa, por el Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz (fondo Enrique Guinea Maquibar) y por el Centro de Documentación de la Fundación Lenbur (Fondo Lucio Vergara). Para los planos referidos al frente de Legazpi, hemos contado con la colaboración de José Mari González.

### Agradecimientos

Vaya nuestro sincero agradecimiento a todas las instituciones y personas anteriormente mencionadas que tan desinteresadamente nos han atendido y ayudado en nuestro proyecto. Queremos agradecer también a todos aquellos que con sus consejos, aportaciones y críticas nos han ayudado a mejorar nuestro trabajo: Patxi Juaristi (profesor de la *UPV-EHU*), Iñaki Goiogana (de la *Fundación Sabino Arana*), Iñaki Egaña y Joxean Agirre (de la fundación *Euskal Memoria*), Amaia Elizagarate, Juan Inazio Arrieta y Joxi Azpillaga. Y cómo no, nuestro agradecimiento especial a todos los legazpiarras que nos han narrado sus vivencias sobre aquellos dolorosos hechos.

Sirva este trabajo como sentido homenaje a la generación que perdió la guerra y sufrió más directamente las consecuencias de la agresión fascista.

# harremanetan jarri eta elkarrizketatu ditugun pertsonak

# Personas entrevistadas y contactadas

*Legazpi 1936* proiektuan honako pertsonen laguntza izan dugu. Gehienak gerra bizi izan zuten legazpiarrak edo gerran hildakoen senideak ditugu. Batzuekin elkarrizketa luzeak izan ditugu, beste batzuekin daturen bat konfirmatzeko jarri gara harremanetan, beste batzuk euren senideen argazkiak eman dizkigute…
Eskerrik asko, zinez, guztiei.

En el proyecto *Legazpi 1936* hemos contado con la colaboración de las personas que a continuación enumeramos. La mayoría de ellas vivieron en primera persona la guerra o son familiares de personas fallecidas en la misma. Con algunas de estas personas hemos mantenido entrevistas prolongadas, con algunas otras hemos contactado para confirmar o pedir datos específicos, y otras nos han facilitado fotografías de sus familiares fallecidos.
Gracias, sinceramente, a todos y todas.

María Abasolo
Marcelino Agirre
Genaro Agirre
Ignacio Agirre
Juanita Agirre
Faustino Agirre
Juan Pedro Agirre
Ana Mari Alustiza
Garbiñe Amilibia
Felisa Andueza
Nekane Arin
Irene Arrazola
Luis Arrizabalaga
Sekun Arrizabalaga
Jose Angel Arrondo
Ignacio Arsuaga

Arantza Azurmendi
Joakin Balerdi
Mertxe Barandiaran
Xabier Barriola
Rosa Mari Belasko
Agustín Beloki
Kontxi Biteri
Inés Bergaretxe
Iñaki Errekabide
Pilar Etxeberria
Mariatxo Etxeberria
Edurne Etxeberria Mazkiaran
Edurne Etxeberria Mendia
Pedro Gabiria
Sinforosa Galfarsoro
Ana Mari Gaona

Julián Garate
Aitor Garitaonandia
Arrate Garcia
Garbiñe Gisasola
Satur Gonzalez de Langarika
Ignacio Gordoa
Asun Gordoa
Mari Ángeles Guridi
Eloi Iarza
José Ramón Ibeas
José Ibarnia
Dolores Igarza
Eusebio Igarzabal
Xele Inza
Juan Pedro Iñurritegi
Juanita Iñurritegi

Arantza Iturbe
Garbiñe Iturbe
Carmen Ituarte
Blas Kortazar
María Landa
Maribel Larrea
Ramón Leizeaga
Ricardo Lizarralde
Boni Madina
Pedro Madina
Jesús Maiztegi
Anselma Makibar
Juanito Makibar Murua
Maite Makibar Murua
Fernando Martínez de Albéniz
Javier Mendia
Eduardo Mendinueta
Miguel Mendinueta
Anastasio Mugika
Jaione Mujika
Ángel Murua
Elías Murua
Maite Murua
Dionisio Olabide
Luis Olabide
Gurutze Olabide
Jesús Otxoa
José Julián Pérez
Adelaida Prieto
Ascensio Ruiz De Arbulu
Oihana Ruiz del Portal
Gregorio Santa Agueda
Txaro Sarasola
Carlos Solatxi
José Luis Sologaistoa
Merche Sologaistoa
Rufino Telleria
Joxe Ugalde
Bixenta Ugarte
Isabel Ugarte
Pilar Ugarte
Encarna Urmeneta
Rosario Zabaleta
Romualdo Zabaleta
Luziano Zabaleta
Maite Zabaleta
Juan Zeberio
Rogelia Zubia
Pako Zufiria.

Guk zuzenean egindako kontaktuez gain, honako testigantzak eta elkarrizketak ere erabili ditugu lan hau osatzerakoan:
Además de los contactos directos que hemos propiciado, también hemos utilizado los siguientes testimonios y entrevistas:

**Sebastián Alustiza** (Euskaldunon Egunkarian eginiko elkarrizketa, KZ gehigarrian 1996/12/29an argitaratua; Josu Chuecak eta Luis Fernandezek idatzitako, “*Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*” liburuan argitaratutako elkarrizketa).

**Isidro Intxausti** (“*La guerra civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*” liburutik hartutako testigantza).

**Juanita Iñurritegi** (*Legazpiko ahotsak* proiektuan egindako elkarrizketa).

**Arantxa eta Garbiñe Iturbe** (*Ene Bada!* aldizkariaren 279. zenbakian eginiko elkarrizketa, 1997/01/30).

**Dionisio Olabide** (Eneko Solanak egin eta *Zingizangon* 2007/11/01an argitaratutako elkarrizketa).

**Juan Urzelai** (*Legazpiko ahotsak* proiektuan egindako elkarrizketa).

**Rafael Zubia** (*Ene Bada!* aldizkariaren 255. zenbakian eginiko elkarrizketa, 1996/06/06).



# 1936ko gerra legazpin:
# menderatutako herri baten kronika

## la guerra de 1936 en legazpi:
## crónica de un sometimiento



Lucio Vergara - Lenbur

## gerra aurrea
## la preguerra

gerra legazpin; legazpiarrak gerran
la guerra en legazpi; legazpiarras en la guerra

gerraostea: galtzaileen herri bat, irabazleen esku
la posguerra: un pueblo de vencidos en manos de los vencedores

*

## Legazpi gerra aurretik

Gerra aurreko argazki honetan (1930 ingurukoa) Luistarren talde handi bat ikus daiteke. Banderarekin Kontsejuko Eustakio Urzelai; aurrean eserita, Jose Antonio Larrea bikarioa eta Miguel Soroa abadea, ezkerretara Bittor Iartza, eta abar luze bat. Argazkiko mutil horietako asko, ordea, zorigaiztoko gerran hil ziren handik urte gutxira. Guk zazpi identifikatu ditugu, baina gehiago egon daitezke: 1. Damian Alustiza Agirre, 2. Paxifiko Irastorza Etxeberria, 3. Justo Andueza Ugarte, 4. Segundo Arrizabalaga Murgiondo, 5. Florentino Blanco Valdivielso, 6. Policarpo Garcia Alonso, 7. Fernando Irastorza Etxeberria.

## Legazpi antes de la guerra

En esta fotografía anterior a la guerra (de 1930 aproximadamente) se observa a un grupo de legazpiarras miembros de Los Luises. Porta la bandera Eustaquio Urzelai; sentado en la primera fila el vicario José Antonio Larrea y el sacerdote Miguel Soroa, a la izquierda Victor Iartza, etc. Muchos de los jóvenes de la fotografía, sin embargo, morirían en la guerra a los pocos años. Nosotros hemos identificado a siete, pero puede que sean más: 1. Damián Alustiza Agirre, 2. Paxifiko Irastorza Etxeberria, 3. Justo Anduela Ugarte, 4. Segundo Arrizabalaga Murgiondo, 5. Florentino Blanco Valdivielso, 6. Policarpo García Alonso, 7. Fernando Irastorza Etxeberria.





Artxibo partikularra

## 1 - Gerra aurreko Legazpi

Herri txikia zen gerra aurreko Legazpi: 2.400 biztanle baino gutxiago zituen. Hala ere, herria asko hazten ari zen 1920tik, jende asko etorri baitzen kanpotik (Gipuzkoako beste herrietatik, Arabatik eta Nafarroatik nagusiki) bertako industrietara lanera, Patrizio Etxeberriaren fabrikara, gehienbat. Industria indartuz zihoan eta nekazaritza jarduera behera, oraindik ere baserriak garai hartako Legazpin garrantzi handia zuen arren.

## 1 - Legazpi antes de la guerra

Antes de la guerra, Legazpi era un pequeño pueblo que no llegaba a los 2.400 habitantes. No obstante, desde 1920 en adelante, estaba creciendo de manera importante, gracias a la cantidad de personas que provenientes de otros pueblos de Gipuzkoa, de Araba y de Nafarroa principalmente, venían a trabajar a la localidad, a la fábrica Patricio Etxeberria en su mayoría. La industria estaba, pues, cobrando peso, pero el caserío era todavía muy importante en Legazpi.




Biztanleriaren bilakaera. Legazpi, 1857-2009.

Evolución de la población. Legazpi, 1857-2009.

Dantzariak herriko plazan

Dantzaris en la plaza



Lucio Vergara - Lenbur

Patricio Etxeberriaren lantegiaren eraikin zaharra

Edificio antiguo de la fábrica de Patricio Etxeberria.



Artxibo partikularra

Hirigintzari dagokionez ere, orduko Legazpik ez zuen gaur egungoarekin antz handirik. Kale Nagusia garai hartan hasi ziren eraikitzen, eta gaur egungo auzo eta kale jendetsuenak (Itxaropen, San Inazio, Arantzazu, Laubide eta Urtatza, adibidez) soro eta zelai ziren oraindik. Bitxikeria gisa, aipa daiteke garai hartan Legazpin 37 ibilgailu besterik ez zeudela.

Egitura ekonomikoa eta hirigintza aldatzen ari ziren, eta bizitza estiloan ere antzematen zen aldaketa. Hala ere, gizarte tradizionalaren aztarnak agerikoak ziren garai hartan: funtsezkoa eta oinarrizkoa zen familia, eta familia zabalaren ereduak garrantzi handia zuen. Zentzu berean, gerra aurreko herriaren argazkia egiterakoan, ezin dugu aipatu gabe utzi garaiko legazpiar gehienen erlijiotasun sakona eta, horrekin batera, eliza katolikoak herritarren bizitza arautzeko zuen boterea eta indarra. Hala ere, gutxiago ziren arren, orduko Legazpin baziren elizaren aurkako jarrera zuten herritarrak.

Herri euskalduna zen. Mendeetako joerari eutsiz, garai hartako legazpiar ia guztiek zekiten euskaraz, eta euskara zen eguneroko hizkuntza nagusia. Askok, gainera, ez zekiten edo nekez egiten zuten gaztelaniaz. Alabaina, lehen erdal etorkinak garai hartan hasi ziren iristen, eta horrek herriko egoera soziolinguistikoan eragina izan zuen.

Euskalduna ez ezik, herri euskaltzalea genuen Legazpi. 30eko hamarkadakoa dugu euskararen alde herrian egindako lehenengo kanpaina (*Euzkeraz!*), eta garaiko egunkarietan idazten zuten Legazpiko kronikagileen idazlanak irakurrita, nabaria da euskal kulturarekiko atxikimendua sendotzen eta euskaldun izatearen prestigio soziala handitzen ari zela.

Kultur arloan, garai biziak, dinamikoak, emankorrak, ilusioz beteak…ziren. Hitzaldiak, dantza taldea, antzerki taldea, kirol ekimenak… era guztietako ekimenak egin ohi ziren herrian eta herritar askok parte hartzen zuten era aktiboan. Mugimendu abertzalea hazten ari zen, osasuntsu zegoen, eta hain zuzen, batzokiaren inguruan antolatu zituzten ekintza horietako asko.

En cuanto al desarrollo urbano se refiere, el pueblo de aquella época no se parecía mucho al de hoy en día. La actual Kale Nagusia se empezó a construir poco antes de la guerra, y muchos de los barrios y calles más poblados en la actualidad (Itxaropen, San Ignacio, Arantzazu, Laubide, Urtatza…) no eran más que prados y campos todavía. Como muestra significativa del cambio, cabe reseñar que en aquella época en Legazpi solo había 37 vehículos de motor.

Los importantes cambios que a nivel urbanístico y de estructura económica estaban sucediendo en nuestro municipio, también se reflejaban en el estilo de vida de los legazpiarras. Sin embargo, todavía eran más que visibles los rasgos de la sociedad tradicional, y el modelo secular de familia extensa era aun muy importante. En la misma línea, hay que destacar la profunda religiosidad de la mayoría de legazpiarras de la época, y el poder y la fuerza que ejercía la iglesia católica a la hora de regular la vida de los vecinos. No obstante, aunque minoritarios, también existían en la Legazpi de la preguerra sectores opuestos a la iglesia.

Legazpi, siguiendo la tendencia de siglos, era un pueblo todavía muy euskaldun, donde casi todos los vecinos del pueblo conocían el euskera y algunos de ellos desconocían el castellano o lo hablaban con dificultad. Así, el euskera era el idioma utilizado habitualmente por la mayoría, si bien es verdad que la realidad sociolingüística del municipio había empezado a cambiar durante los últimos años con la llegada de los primeros emigrantes no vasco-parlantes.

Además de ser un pueblo mayoritariamente vasco-parlante, parece ser que la conciencia a favor del euskera estaba fortaleciéndose en la Legazpi de preguerra. Así, en los años 30 se realizó la primera campaña a favor de la lengua vasca en nuestro municipio (*Euzkeraz!*), y al leer los artículos de prensa de los cronistas locales de la época, es más que evidente que el apego hacia la cultura vasca y el prestigio social de ser euskaldun iban en aumento.

En el ámbito cultural eran tiempos dinámicos, fructíferos, llenos de ilusión… Había charlas, grupos de danza, de teatro, eventos deportivos… Se realizaban numerosas actividades de todo tipo en las que participaban y se implicaban activamente muchos legazpiarras. Gran parte de los actos de ese tipo se organizaban en torno al batzoki, impulsados por un vigoroso movimiento nacionalista que no dejaba de expandirse.

## 2 - Testuingurua: gatazka giroa Europan, Espainian eta Euskal Herrian

### Europa

Garai nahasiak ziren mundu osoan eta, bereziki, Europan. 1929ko krisi ekonomikoak eraginda, enpresek zailtasun handiak zituzten ekoitzitakoa merkaturatzeko eta etekinei eusteko; langabeziak gora egin zuen eta gatazka ekonomikoak eta sozialak areagotu egin ziren.

Krisia, ordea, ez zen soilik ekonomikoa izan, sistema politiko liberala ere krisian baitzegoen. Batetik, Europa gero eta industrialagoan, langile mugimendua indartu egin zen, eta garrantzia hartu zuten alderdi eta mugimendu komunistek, batez ere, 1917. urtean Errusian gertatutakoa eredutzat zutenak eta Europako herrietan iraultza egin nahi zutenak, boterea eskuratzea eta klaserik gabeko gizartea eraikitzea helburu.

Bestetik, eskuin muturrean, joera autoritarioak indartzen joan ziren, botere gune ekonomiko nagusien, burgesiaren eta eskuineko mugimendu politiko tradizionalen sektore garrantzitsuen babespean. Horrela, mugimendu faxistak sortu eta indartu ziren Europan, eta herritar askoren babesa lortu zuten han eta hemen, masa mugimendu indartsu bilakatuz. Faxismoak estatu ahalguztiduna du ardatz, eta haren ustez, estatu hori da herriaren ordezkaria; herritarrek ez

## 2 - El contexto: ambiente conflictivo en Europa, España y Euskal Herria

### Europa

Eran tiempos revueltos en todo el mundo, especialmente en Europa. La crisis económica de 1929 acarreó graves dificultades a las empresas para poder comercializar sus productos y de ese modo mantener los beneficios, el paro se incrementó notablemente, al tiempo que los conflictos económicos y sociales se extendían por doquier.

Pero la crisis no fue únicamente económica, ya que el sistema político liberal también entró en recesión. Por una parte, en una Europa cada vez más industrializada, el movimiento obrero se fortalecía, sobre todo los partidos y movimientos comunistas que, siguiendo la estela de lo sucedido en Rusia en 1917, pretendían encender la chispa de la revolución proletaria en Europa y tomar el poder en sus manos para construir una sociedad sin clases.

En el lado opuesto, en la extrema derecha, las tendencias más autoritarias iban acentuándose, y con el apoyo de importantes núcleos de poder económico, de amplias franjas de la burguesía y de amplios sectores de la derecha política, surgieron y se fortalecieron las organizaciones fascistas en Europa, convirtiéndose en poderosos movimientos de masas que recababan el apoyo de importantes sectores de la población. La forma de articular la convivencia pro-





Dachauko nazien kontzentrazio-esparruko biktimak.
Víctimas del campo de concentración nazi de Dachau.



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa

*

**Faxismoa** Indartsu hedatu ziren mugimendu faxistak Europan 30eko hamarkadan. Bai Espainiako Gerra Zibilean, eta baita Europako Bigarren Mundu Gerran ere, elkarrekin bat eginda aritu ziren Mussoliniren Italia, Hitlerren Alemania eta Francoren Espainia. Mugimendu bakoitzak besteen aldean berezitasunak zituen arren, antzekotasunak nabarmenak ziren. Bada, ordea, aipatu beharreko ezberdintasun nagusi bat: Mussolinik eta Hitlerrek gerra galdu zuten, Francok, ordea, irabazi, eta hil arte egon zen agintean Espainian, ia 40 urtez.

**Fascismo** En la Europa de los años 30 se extendieron con fuerza los movimientos fascistas. La Italia de Mussolini, la Alemania de Hitler y la España de Franco lucharon unidas tanto en la Guerra Civil española como en la Segunda Guerra Mundial. A pesar de las especificidades de cada modelo, los puntos en común resultan evidentes. Hay, sin embargo, una diferencia fundamental digna de mención: Mussolini y Hitler perdieron la guerra, Franco, en cambio, la ganó, y estuvo en el poder hasta su muerte, ocurrida casi 40 años más tarde.



Euskal Memoria Fundazioa

dute alderdi bakarraren esku dagoen estatutik kanpo ezer bilatu behar. Estatuak autoritatea biolentziaren, errepresioaren eta propagandaren bidez ezartzen du.

Mugimendu horien eredu argienak Mussoliniren Italiako erregimena, Alemanian Hitlerrek bultzatutakoa eta Espainian Francok gauzatutakoa izan ziren. Eredu bakoitzak besteen aldean berezitasunak zituen arren, antzekotasunak nabarmenak ziren. Eta ideologian ez ezik, praktikan ere antzera jokatu zuten erregimen faxistek, eta Europako herritarren artean milioika hildako eta kaltetu eragin zituzten.

Hortaz, 30eko hamarkada tentsio eta borroka garai gogorra izan zen Europan. Tentsio horiek guztiek eta Lehenengo Mundu Gerrak utzitako potentzien arteko lehiak Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) eragin zuten. Gerra hura izan da munduan heriotza gehien eragin dituena (60 milioi pertsona inguru). Espainiako Gerra Zibila ere Bigarren Mundu Gerraren prozesu orokorraren lehen pasarte gisa aztertzen dute hainbat historialarik.

## Espainia

Espainiako Estatuan ere tentsioa eta borroka ziren nagusi. 1931. urtean Alfonso XIII.aren erregetza amaitu eta Espainiako II. Errepublika indarrean jarri zutenetik, arazoak eta kontraesanak indartsu azaleratu ziren, eta gatazka giroa muturreraino iritsi zen.

pugnada por el fascismo se basaba en un estado todopoderoso y omnipresente, que era el representante del pueblo en última instancia. Así las cosas, los ciudadanos no deberían buscar nada más allá de lo establecido por el estado, que estaría a su vez en manos del partido único. El estado fascista extendería su autoridad mediante la violencia, la represión y la propaganda.

Los ejemplos más claros de esos movimientos fueron el régimen de Mussolini en Italia, el de Hitler en Alemania y el de Franco en España. Cada movimiento tuvo sus propias señas de identidad, pero las similitudes entre ellos eran innegables y, salvando las diferencias, los regímenes fascistas actuaron de manera similar, no solamente en cuanto a ideología se refiere, sino también en la práctica, provocando millones de muertos y damnificados por toda Europa.

Así pues, la década de los 30 fue una época de gran tensión y conflicto en el viejo continente. Todas aquellas tensiones así como las disputas entre potencias europeas heredadas de la Primera Guerra Mundial, desembocaron en la Segunda Guerra Mundial (1939-1945), que fue la guerra que más muertos ha provocado en la historia (alrededor de 60 millones de personas). No son pocos los historiadores que analizan precisamente la guerra civil española como capítulo primero del proceso bélico general que fue la Segunda Guerra Mundial.

## España

En el Estado español de la preguerra la tensión y el conflicto constituían la tónica general. Desde que en el año











Asturiaseko 1934ko iraultza ondoko errepresioa.

Represión posterior a la revolución de Asturias de 1934.

Liskar horien oinarrian zeuden kontraesanak azaltzerakoan, lehenik, klase gatazka gogorra aipatu behar da. Izan ere, esplotazioa eta bizi baldintza eskasak jasaten zituen langile eta nekazari multzo gero eta handiagoaren artean, indartsu ageri zen langile mugimendua, joera guztietan: sozialismoa, komunismoa, anarkismoa… Horien artean, gainera, joera iraultzaileenak indar handiz eta oldarkor agertu ziren: bai 1917ko sobietar iraultza eredu zuten komunistak eta baita botere ororen suntsipena aldarrikatzen zuten anarkistak ere. Iraultza ahalegin ugari izan ziren han eta hemen: 1934ko Asturiasko iraultza da ezagunena.

Joera horien aurrean, lurjabeek, aristokratek, eta oligarkia finantzarioak eta industrialak kolokan ikusi zituzten mendeetako pribilegioak eta nagusitasuna, eta ez ziren geldirik egon. Espainiako elizako hierarkia nagusia ere (eta elizaren zati garrantzitsuena) guztiz lerratuta zegoen joera iraultzaileen aurkako borrokan. Guztiarekin, polarizazio ideologikoa eta erlijiosoa handitu egin zen errepublika garaian eta liskar ugari izan ziren.

1936ko otsailean *Frente Popularrak*, ezkerreko koalizioak, irabazi zituen Espainiako Hauteskunde Orokorrak. II. Errepublikako azken hauteskundeak izan ziren. Izan ere, botere ekonomikoaren, eskuin politikoaren eta elizaren babesarekin, militar faxistek estatu-kolpea eman zuten, eta 1936ko Gerra Zibila piztu zen; ia hiru urte iraun zituen gerra luze eta odoltsua.

1931 terminó el reinado de Alfonso XIII y se instauró la II República, los conflictos y contradicciones subyacentes afloraron con fuerza, y el clima de confrontación se extendió por toda la península.

Entre esas contradicciones que afloraron hay que mencionar en primer lugar la lucha de clases, ya que las distintas expresiones del movimiento obrero (socialismo, comunismo, anarquismo…) eran secundadas por amplísimos sectores de trabajadores y campesinos que sufrían la explotación y las pésimas condiciones de vida de la España de los años 30. Es de destacar, en especial, la gran fortaleza de los movimientos más radicales, tanto de los comunistas, que tomaban como referencia la revolución soviética de 1917, como de los anarquistas, que propugnaban la destrucción de todo poder. De la mano de esos movimientos, hubo conatos de revolución en varios lugares, entre ellos la revolución de Asturias de 1934.

Ante esas tendencias que hacían peligrar sus privilegios y su hegemonía en España, los terratenientes, la aristocracia y la oligarquía financiera e industrial no se quedaron de brazos cruzados. La jerarquía de la iglesia española (y una gran parte de esa iglesia) también se posicionó claramente contra las tendencias revolucionarias. Por consiguiente, la polarización ideológica y religiosa y la confrontación política aumentaron de forma importante durante la II República.

En ese contexto, la coalición de izquierda *Frente Popular* ganó las Elecciones Generales de febrero de 1936. Fueron las últimas elecciones de la II. República, ya que los militares fascistas, apoyados por el poder económico, la derecha política y la iglesia, dieron un golpe de estado en julio de 1936, dando comienzo así a una sangrienta guerra civil que se prolongó durante casi tres largos años.

## Euskal Herria

Euskal Herrian ere indartsu zegoen langile mugimendua. Bereziki, Bizkaiko eta Gipuzkoako zonalde industrializatuenetan indartsu sortu eta hazi ziren langileen sindikatuak eta alderdi politikoak. Europa osoan bezala, klase gatazka puri-purian zegoen Euskal Herrian ere.

Horrez gain, nazio auzia zegoen. Sabino Aranak *Euzko Alderdi Jeltzalea* sortu zuen 1895ean eta, geroztik, abertzaletasunak gora egin zuen nabarmen, gero eta herritar sektore zabalagoengana helduz. Aldaketa garaia zen euskal herritarren kontzientzian. Oraindik karlismoa oso mugimendu indartsua zen Euskal Herrian. Baina hamarkada luzeetan karlista izandako askok abertzaletasunerako urratsa eman zuten, funtsean, eduki kristauari eta tradizionalistari eutsiz, baina Euskal Herria nazioa dela defendatuz eta Espainiarekiko harremanaz ikuspegi berri bat aldarrikatuz.

Politikan ez ezik, kultur arloan ere eragina izan zuen giro hark. *Euzko Pizkunde* gisa definitutakoa izan zen XIX. mende bukaeratik 1936ko gerrara arte, eta euskal kulturaren eta euskararen aldeko mugimenduek indarra hartu zuten. Lore-jokoak bultzatu zituzten, 1918an Eusko Ikaskuntza sortu zuten, urtebete geroago *Euskaltzaindia* osatu zuten eta beste hainbat mugimendu ere izan ziren.

Hala, II. Errepublikan abertzaletasuna indartu zela esan daiteke. EAJ izugarri hazi zen, EAE-ANV sortu zen 1930ean...

## Euskal Herria

En Euskal Herria el movimiento obrero también mostraba fortaleza, sobre todo en las zonas más industrializadas de Bizkaia y Gipuzkoa, donde los sindicatos de clase y los partidos políticos de izquierda eran realidades bien arraigadas y consolidadas. Como en toda Europa, pues, la lucha de clases era patente también en nuestro país.

Además de todo eso, estaba la cuestión nacional. Sabino Arana había fundado el *Partido Nacionalista Vasco* en 1895, y desde entonces en adelante, el nacionalismo vasco había crecido notablemente y su mensaje se extendía en sectores cada vez más amplios de la sociedad. Eran tiempos de cambio en la conciencia de los vascos. El carlismo era todavía un movimiento muy importante en Euskal Herria, pero franjas crecientes de la población que habían sido carlistas durante décadas dieron el salto hacia el nacionalismo, manteniendo en lo sustancial la esencia cristiana y tradicionalista de la ideología carlista, pero reivindicando que Euskal Herria es una nación, y defendiendo un nuevo punto de vista sobre la relación a mantener con España.

Ese ambiente político también se dejó notar en el ámbito cultural, y entre finales del siglo XIX y la guerra de 1936 se desarrolló un vigoroso movimiento a favor del euskera y de la cultura vasca que se denominó *Euzko Pizkundea*. Entre otras muchas y variadas iniciativas, se impulsaron los juegos florares, en 1918 se creó Eusko Ikaskuntza, un año más tarde surgió *Euskaltzaindia*, etc.

Euskal Herriaren erabakitze ahalmenaren eta entitate juridikoaren inguruko eztabaidak politikaren muin izaten jarraitu zuen. Zehazki, Euskal Herriaren autogobernua garatzeko estatutuaren inguruko eztabaida sutsua eta etengabea izan zen errepublika garaian. Eztabaida eta negoziaketa gatazkatsuak izan zituzten euskal abertzaleek Espainiako eskuindarrekin zein ezkertiarrekin. Ahaleginak ahalegin eta negoziaketak negoziaketa, azken hitza, beti Madrilek izan zuen, eta gerra aurreko Errepublika garaian ez zen Euskal Estatutua gauzatu.

Así pues, en la II. República el movimiento abertzale se fortaleció. El PNV creció de manera notoria y en 1930 nació ANV. La discusión pública en torno a la capacidad de decisión de los vascos y la entidad jurídica de Euskal Herria continuó siendo fundamental en el debate político del país. Así, la discusión sobre el estatuto de autonomía como fórmula para desarrollar el autogobierno en Euskal Herria fue una constante en los años anteriores a la guerra. Los nacionalistas vascos mantuvieron arduas discusiones sobre el tema, tanto con la derecha como con la izquierda española. Sin embargo, a pesar de todos los esfuerzos y negociaciones, la última palabra siempre la tuvo Madrid, y en tiempos de la República anterior a la guerra no llegó a materializarse el Estatuto Vasco.


GRAFICAS · LABORDE y LABAYEN · TOLOSA





Euskal Memoria Fundazioa

*

## Euskal abertzaletasunaren loraldia

Gerra aurreko garaietan euskal abertzaletasuna loratu eta indartu egin zen. Argazkian, Bilbon (1932) eta Iruñean (1935) egindako Aberri Eguneko ospakizun ekitaldiak.

## Primavera del nacionalismo vasco

Los tiempos anteriores a la guerra, fueron tiempos de despegue y fortalecimiento del nacionalismo vasco. En las fotografías, celebración del Aberri Eguna en Bilbo (1932) e Iruñea (1935).



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa

## 3 - Legazpiarren joera politikoak: gehienak abertzaleak edo ezkertiarrak

Espainian zein Euskal Herrian giro politikoa gori-gorian zegoen gerra aurreko urteetan. Gaur egungo ikuspegitik, harrigarria da garai hartan herritar talde zabalek zuten mobilizazio eta parte-hartze politikoa: mitinak, manifestazioak, grebak, manifestuak, adierazpenak, jaialdiak, diru-bilketak… politika arloko ekinbide eta jarduera ugari. Parte-hartze handiko garai haietan, idealak, ametsak, proiektu politikoak, konpromisoa eta militantzia bezalako baloreek indar handia zuten herritarren artean. Giroa oso politizatua zegoen, gaur egungoarekin alderatuta.

Gerra aurreko Legazpin ere bazegoen giro hura. Eta Gipuzkoa osoan bezala, hiru familia politiko nagusi zeuden herrian lehian: abertzaleak lehenik, errepublikazaleak eta ezkertiarrak bigarrenik, eta eskuin espainolista, azkenik.




Espainiako parlamenturako hauteskundeen emaitzak Legazpin, 1933-11-19
Resultados de las elecciones a las cortes generales españolas. Legazpi, 19-11-1933

Hauteskunde emaitzak irakurrita, Legazpiko ezaugarri nagusia abertzaletasunaren errotze izugarria da. Hala, Espainiako Parlamenturako 1933ko azaroko hauteskundeetan, hiru legazpiarretik bik (%67,6) EAJ-PNVko hautagaiei eman zieten botoa eta beste %1,2k EAE-ANVkoei. Hegemonia abertzale hori, gainera, Gipuzkoakoa eta Euskal Herri osokoa baino dezente nabarmenagoa zen Legazpin. Nagusitasun hori Udalean ere antzeman zen, eta gerra aurreko azken Udalean bederatzi

## 3 - Las tendencias políticas de los legazpiarras: mayoritariamente abertzales o de izquierdas

Tanto en España como en Euskal Herria el ambiente político estaba al rojo vivo en los años que precedieron a la guerra. Desde el punto de vista actual resulta sorprendente el nivel de movilización y participación política de amplios sectores de la sociedad en sus más variadas expresiones: mítines, manifestaciones, huelgas, manifiestos, declaraciones, festivales, colectas... En aquella época de gran participación, los ideales, los sueños, los proyectos políticos, el compromiso y la militancia eran valores al alza entre la ciudadanía. El ambiente estaba muy politizado si lo comparamos con el de hoy en día.

Esa politización de los años 30 también se observaba en Legazpi. Al igual que en el resto de Gipuzkoa, en Legazpi había también tres familias políticas principales: los nacionalistas vascos en primer lugar, los republicanos e izquierdistas en segundo lugar y la derecha españolista por último.

Si nos ceñimos a los resultados electorales de Legazpi, salta a la vista como dato destacado el gran arraigo del



Lucio Vergara – Lenbur

Sabino Aranaren heriotzaren urteurrenaren ospakizuna San Migel Ermitan, 1931ko azaroaren 22an. Egun horretarako, Josepa Arsuagak, Xele Iturbek, Emilia Etxeberriak eta Amparo Agirrezabalek ikurrina egin zuten. Ikurrinarekin, Pablo Lizarazu. Tartean hauek daude, besteak beste: Emilia Etxeberria, Celestina Iturbe, Facundo Urzelai, Maria Aranguren, Anttoni Galarza, Catalina Mendia, Jose Mari Rivas, Amparo Agirrezabal, Benita Agirre, Julita Agirrezabal, Encarnación Mendia, Zoilo Aldasoro, Consuelo Rivas, Angelita Rivas, Tomas Aseginolaza, Damian Alustiza, Jose Arzuaga, Josefa Arsuaga...

Acto de homenaje en el aniversario de la muerte de Sabino Arana en San Miguel, el 22 de noviembre de 1931. Para ese día Josefa Arsuaga, Xele Iturbe, Emilia Etxeberria y Amparo Agirrezabal habían hecho una ikurriña. En la foto, Pablo Lizarazu con la ikurriña entre Emilia Etxeberria, Celestina Iturbe, Facundo Urzelai, María Aranguren, Anttoni Galarza, Catalina Mendia, José Mari Rivas, Amparo Agirrezabal, Benita Agirre, Julita Agirrezabal, Encarnación Mendia, Zoilo Aldasoro, Consuelo Rivas, Angelita Rivas, Tomás Aseginolaza, Damián Alustiza, José Arzuaga, Josefa Arsuaga...



Lucio Vergara - Lenbur

**Ezkerrean**: Ikurrinarekin Sanmigeletxeberri baserriaren atzean. (Ezkerretara, atzean) 1. Maria Aranguren / (Ezkerretara, aurrean) 2. Emilia Etxeberria / 3. Celestina Iturbe / 4. Pablo Lizarazu / (Eskuinetara) 5. America Mendiola / 6. Amparo Agirrezabal.

**Behean**: Legazpiko hainbat gazte abertzale Errezilen. (Atzean) 1. Iñaki Errekabide / 2. Martin Ugarte "Saletxe" / 4. Ciriaco Amilibia / 5. Joakin Etxeberria / 6. Daniel Aranguren / 7. Roman Olea / 8. Juan Elorza / 10. Sebastian Alustiza / (Pikotxean) Rojo (Urretxu).

**Eskuinean**: Batzokia inauguratu zuten egunean ateratako argazkia (1933-07-09). Mitinean Telesforo Monzonek hitz egin zuen.

**Izquierda**: Con la ikurriña en la parte trasera de caserío Sanmigeletxeberri. (A la izquierda, en la parte trasera) 1. María Aranguren/ (a la izquierda, en la parte delantera) 2. Emilia Etxeberria / 3. Celestina Iturbe / 4. Pablo Lizarazu / (a la derecha) 5. América Mendiola / 6. Amparo Agirrezabal.

**Abajo**: Jóvenes abertzales legazpiarras en Errezil.

**Derecha**: Foto tomada el día de la inauguración del Batzoki (09-07-1933). En el mitin intervino Telesforo Monzón.



Artxibo partikularra



Lucio Vergara - Lenbur



Artxibo partikularra

Legazpiko abertzaleak bazkari batean. (Aurreko jarlekuan) 2. Estanislao Gisasola / 3. Daniel Aranguren / 4. Rufino Etxeberria / 5. Segundo Biteri

Abertzales de Legazpi en una comida. (En el banco delantero) 2. Estanislao Gisasola / 3. Daniel Aranguren / 4. Rufino Etxeberria / 5. Segundo Biteri.



Lucio Vergara - Lenbur

Antzerki emanaldia Batzokian (1935-05-05).

Representación teatral en el Batzoki (05-05-1935)

zinegotzietatik zazpi EAJkoak ziren: Eugenio Elorza, Juan Mantxola, Julian Ojanguren, Jose Aztiria, Jose Mari Agirrezabal, Isidro Olabide, eta Ubaldo Segura Makibar, diktadura aurreko Legazpiko azken alkatea.

Hauteskundeetan ez ezik, herri mailan ere indartsu zegoen EAJ. Sabino Aranak sortutakoa alderdiak oinarri zabala, aktiboa, askotarikoa eta klase artekoa zuen gerra aurreko Legazpin. Horrela, baserritar eta langile xumeetatik hasi eta herriko hainbat enpresarietara (Seguratarrak eta Elorzatarrak tartean) iristen zen EAJren mezua. Bi batzoki zituzten herrian (kalean, bata, eta Brinkolan, bestea) eta, alderdiaren beraren jarduera politiko eta instituzional indartsuaz gain, masa mugimendu zabala eta dinamikoa zegoen antolatua EAJren inguruan: emakumeen antolakundea (*Emakume Abertzale Batza*), ELA-STV sindikatua, baserritarren erakundea (*Euzko Nekazarien Bazkuna*), *Euzko Gaztedi Kiroltzalea* … Ehunka legazpiar abertzalek parte hartu zuten mugimendu horietan; politikan, kulturan, sindikalgintzan… eta beste hainbat arlotan.

Gainerako joera abertzaleei dagokienez, Legazpin bazeuden *Jagi Jagiren* eta EAE-ANVren jarraitzaileak. EAE-ANVkoak 1933. urtean hasi ziren Legazpin antolatzen. Etxetorren egiten zituzten bilerak (10-15 lagun inguru), eta geroz eta jende gehiago ari zitzaien hurbiltzen. Pablo López de Gereñu Elorza *"El hereje"* zen Legazpiko gerra aurreko EAE-ANVko buruzagi karismatikoena. Hala ere, inolako zalantzarik gabe, garaiko legazpiar abertzale gehienentzat EAJ zen erreferente politiko nagusia.

nacionalismo vasco en nuestro municipio, ya que, por ejemplo, en las elecciones al Parlamento de España de noviembre de 1933, dos de cada tres legazpiarras con derecho a voto (67,6%) votaron a favor de los candidatos del PNV y un 1,2% a los de ANV. Esa hegemonía abertzale era, además, considerablemente más amplia en Legazpi que en el resto de Gipuzkoa y Euskal Herria. Esa mayoría también se dejaba notar en el ayuntamiento, y en el último consistorio anterior a la guerra siete de los nueve concejales que constituían la corporación municipal eran del PNV: Eugenio Elorza, Juan Mantxola, Julián Ojanguren, José Aztiria, José Mari Agirrezabal, Isidro Olabide y Ubaldo Segura Makibar, último alcalde de Legazpi antes de la dictadura.

Pero más allá de la intervención institucional, la impronta del PNV se dejaba notar con fuerza también en otros ámbitos de la vida social legazpiarra. Así, el partido fundado por Sabino Arana, contaba en Legazpi con una amplia base social, activa, plural e interclasista, donde compartían proyecto político desde humildes obreros y baserritarras hasta importantes empresarios del municipio (los Segura y los Elorza por ejemplo). Disponían de dos batzokis (uno en el centro de la localidad y otro en Brinkola) y, sin menoscabo de su importante actividad política e institucional, en torno al PNV se articulaba un amplio y dinámico movimiento de masas, con la organización femenina *Emakume Abertzale Batza*, el sindicato ELA-STV, la organización agraria *Euzko Nekazarien Bazkuna*, *Euzko Gaztedi Kiroltzalea*…. Cientos de legazpiarras tomaban parte activa en todas esas expresiones políticas, culturales, sindicales etc. del movimiento nacionalista en Legazpi.

En cuanto al resto de tendencias abertzales se refiere, tenemos constancia de que también había en Legazpi seguidores de *Jagi Jagi* y de EAE-ANV. Los de EAE-ANV comenzaron a organizarse en Legazpi en 1933. Realizaban sus reu-

**Eskuinean**: Guipuzcoa obrera.

**Behean, ezkerrean**: Ezkerretara Batzokiaren eraikina; eskuinetara, Zentro Republikanoa.

**Behean, eskuinean**: Gerra aurretik Zentro Republikanoa Kale Nagusian zegoen, ondoren Sagastume egon zen eraikinean (2008an eraitsi zuten eraikina). Bilera eta jarduera ugari egiten zituzten bertan Legazpiko errepublikazale eta ezkertiar askok. Errepublikanoek beste zentro bat zuten Brinkolako Patxinean.

**Derecha**: Guipuzcoa obrera.

**Abajo, izquierda**: A la izquierda el Batzoki y a la derecha el Centro Republicano.

**Abajo, derecha**: El Centro Republicano se ubicaba en la actual Kale Nagusia, en el edificio derribado en 2008 donde estaba Sagastume. Era un centro de reunión y de actividades donde se juntaban muchos de los republicanos e izquierdistas de Legazpi. Los republicanos tenían otro centro en Brinkola.


Nuestro máximo afán: ¡AMNISTIA!

Guipúzcoa Obrera

Organo de la Unión General de Trabajadores y del Partido Socialista

Guipúzcoa dará al Frente Popular

CUATRO DIPUTADOS

¡LA MUJER, INTELIGENTE Y VALEROSA, HA DECIDIDO LA BATALLA POR LA LIBERTAD!

Legazpiko Udal Artxiboa


Artxibo partikularra


Argazkia: JLU

Errepublikazaleak eta ezkertiarrak abertzaleak baino gutxiago ziren, hauteskunde emaitzei jaramon eginez gero. 1933ko hauteskundeetan, kasu, botoen %8,1 eskuratu zituen *Coalición Republicanak* eta beste %4,0 PSOEk (biak batuta botoen %12,1). Hala ere, gutxiengo dinamikoa zen eta esku hartze gaitasun handikoa. Bi "Zentro Errepublikano" zituzten herrian (bata, gaur egungo Kale Nagusian eta bestea, Brinkolan) eta Udalean bi zinegotzi zituzten: Anselmo Zabaleta eta Domingo Iñurritegi. Errepublikazaleen oinarri soziala, gainera, uste izan dena baino zabalagoa eta askotarikoagoa zen Legazpin: gehienak, industriako langileak ziren, baina baita merkatariak eta baserritarrak ere. UGT sindikatu sozialista bazen garai hartan herrian. Azkenik, gerra piztu zenean, legazpiarrak zein batailoietan jardun zuten ikusita, agerikoa da komunistak eta anarkistak bazirela herritarren artean.

Hirugarren familia politiko nagusia gerra piztutakoan matxinadarekin bat egin zuten joera eta talde eskuindar ugarik osatu zuten Gipuzkoan: karlistak, tradizionalistak, monarkikoak, falangistak, CEDAkoak… Gipuzkoako herri gehienetan bezala, horien artean karlistak ziren indartsuenak Legazpin. Aipatutako 1933ko hauteskundeetan, eskuindarrak elkarrekin aurkeztu ziren hauteskundeetara, eta legazpiarren botoen %19,1 bereganatu zituzten. Hortaz, herritar talde garrantzitsu bat joera horrekin bat zetorren.

Kontraesankorra da talde horrek herrian zuen eragina. Alde batetik, ez zen oso talde dinamikoa alor publikoari dagokionean: gerra aurreko azken Udalean ez zuten zinegotzirik izan, eta herri mailan ere ez dirudi jarduera publiko handiegirik zutenik. Beste aldetik, ordea, botere gune politikoan eta ekonomikoan aspalditik garrantzia zuten herriko per-

niones en Etxetorre (10-15 personas) y parece ser que cada vez congregaban a más seguidores. Pablo López de Gereñu Elorza "*El Hereje*" fue el dirigente más carismático de ANV de Legazpi de antes de la guerra. De todas formas, no cabe duda de que para la mayoría de abertzales de Legazpi el referente político principal era el PNV.

Tomando como referencia nuevamente los resultados electorales de Legazpi, observamos que los partidos republicanos o de izquierda recababan menos apoyos que los nacionalistas vascos. Así, en las elecciones de 1933 *Coalición Republicana* obtuvo el 8,1% de los votos y el PSOE el 4,0% (el 12,1% entre los dos). Sin embargo, constituían una minoría muy dinámica y de poderosa incidencia en el municipio. Tenían dos Centros Republicanos (uno en la actual Kale Nagusia y otro en Brinkola) y dos concejales en el ayuntamiento: Anselmo Zabaleta y Domingo Iñurritegi. Además, la base social republicana en Legazpi era más amplia y plural de lo que se ha solido pensar, ya que si bien es cierto que muchos de sus seguidores eran obreros industriales, también contaban en sus filas con la presencia de otros sectores sociales como comerciantes y baserritarras. En aquella época también el sindicato UGT estaba implantado en el municipio. Por último, observando en qué batallones lucharon los legazpiarras cuando comenzó la guerra, parece evidente que también había comunistas y anarquistas entre los vecinos de Legazpi.

La tercera familia política de Gipuzkoa, la constituía todo la amalgama de grupos y corrientes de derechas que más adelante se sumarían a la sublevación: carlistas, tradicionalistas, monárquicos, falangistas, los de la CEDA... De entre todas esas corrientes, al igual que en la mayoría de los municipios de la provincia, los carlistas eran sin duda los que

tsona ugari ziren eremu politiko horretakoak: alkate eta zinegotzi ohiak, Udaleko idazkaria, enpresari batzuk, Patrizio Etxeberria bera tartean... Eta beharrezko iruditu zitzaienean, 1936ko otsaileko Hauteskunde Orokorretan kasu (ikusi hurrengo orrialdeko agiria), euren baliabideak ederki baliatzen jakin zuten.

Espainiako eta Euskal Herriko beste hainbat tokitako gogortasunera iritsi gabe, Legazpin ere gatazkatsuak izan ziren hiru talde horien arteko harremanak.

Gerra aurreko Legazpiren argazki politikoa are gehiago sinplifikatuz, 1933ko hauteskundeetako datuak gerra piztu zenean alderdi bakoitzak hartu zuen bidea kontuan hartuta sailkatuz gero, esan dezakegu bost legazpiarretatik lauk Errepublikarekiko leial jarraitu zuten alderdiei eman zietela botoa (abertzaleei, errepublikanoei eta ezkertiarrei), eta bostetik bakarrak besterik ez estatu-kolpearekin bat egin zutenei. Ondorioa argia da: Legazpiko garaiko soziologia oso lerratua dago ondoren gerra galdu zutenen aldera.

Gerra aurrean Legazpiko mugimendu abertzaleko eta ezkerreko mugimenduko belaunaldi gazteak —politikan, langile mugimenduan, euskalgintzan, kulturgintzan hain inplikatua zegoenak— sufritu zuen bortitzen gerraren gogortasuna. Euskal Herri askea, Errepublika eraginkorra edo klaserik gabeko gizartea amesten zuten gazte eskuzabal askok eman baitzuten onena gure mendietan faxismoari aurre egiten, baita bizitza bera ere, askotan. Galdu egin zuten, ordea. Azkenean, gerrak eta frankismoak, kolpetik eten zituen Legazpiko abertzale zein ezkertiarren ametsak, epe luze baterako, bederen.

tenían mayor implantación en Legazpi. Estos grupos de derecha se presentaron unidos a las citadas elecciones de 1933 y consiguieron el 19,1% de los sufragios de los legazpiarras. Una parte importante del vecindario, pues, se identificaba con esa familia política.

Resulta contradictoria la capacidad de incidir en el panorama político de Legazpi de estos grupos de derecha. Aparentemente, no era una familia política especialmente dinámica en el ámbito público. No dispusieron de ningún concejal en la corporación surgida de las últimas elecciones municipales anteriores a la guerra y parece ser que tampoco desarrollaron una actividad pública importante en la Legazpi de aquellos años. Sin embargo, muchos legazpiarras destacados por pertenecer a las familias más poderosas del municipio o por haberse situado en las estructuras del poder político y económico, pertenecían a ese sector político: ex alcaldes y ex concejales, el secretario del Ayuntamiento, y algunos empresarios, el propio Patricio Etxeberria entre otros… En situaciones especiales, como en las elecciones de febrero de 1936 (ver documento de la página siguiente), este sector político supo emplear eficazmente sus poderosos recursos de intervención en el municipio.

Pese a que el clima de confrontación política no llegara a los extremos de otros lugares de España y de Euskal Herria, la relación entre las tres tendencias mencionadas fue también conflictiva y difícil en la Legazpi de los años 30.

Si simplificamos aún más la radiografía política de Legazpi anterior a la guerra, y analizamos los resultados electorales antes mencionados en función del camino que tomarían las tendencias políticas que recibieron los votos de los legazpiarras, observamos que cuatro de cada cinco legazpiarras habían votado a los partidos que optarían por mantenerse fieles a la república (abertzales, republicanos e izquierdistas), mientras que tan solo uno de cada cinco votó a los que se unieron al pronunciamiento militar. La conclusión es evidente: la sociología de aquella Legazpi estaba claramente escorada hacia el bando que acabaría perdiendo la guerra.

La joven generación de legazpiarras que antes de la guerra integraban el movimiento abertzale o las opciones de izquierdas, esa generación que tanto se implicó en política, en el movimiento obrero, en la lucha a favor del euskera y de la cultura vasca, fue la que sufriría en sus propias carnes de manera más directa los crueles efectos de la guerra. Y es que muchos de estos jóvenes generosos e implicados, que soñaban con una Euskal Herria libre, con una República eficaz o con una sociedad sin clases, dieron en nuestros montes lo mejor de sí mismos haciendo frente al fascismo, incluso la vida en muchos casos. Pero fueron vencidos. Y la guerra y el franquismo cortaron de raíz, para una larga temporada por lo menos, los sueños de esos abertzales e izquierdistas de la Legazpi de los años 30.

*

**1936ko otsaileko hauteskundeak zetozela eta**, herriko industrialari ugari elkartu ziren, Saturnino Telleriak deituta, herritarrengan, batez ere euren enpresetako langileengan, eragiteko. Helburua Coalición Contrarrevolucionaria eskuindarra indartzea eta EAJ zein ezkerreko Fronte Popularra ahultzea zen. Bilera horren ondorio izan zen, nonbait, Legazpiko herritarren artean banatu zuten honako panfletoa. Erantzun gisa, aldamenean ikus daitekeenez, ezkerreko egunkari batek enpresari horien jarrera gogor kritikatu zuen.

Edonola ere, 1936ko hauteskundeak eskuin espainolistak irabazi zituen Legazpin, aurreko hauteskundeetako joera hautsita. Ikus daitekeenez, Legazpiko eskuin espainolistak abagune hartan eraginkorra izaten jakin zuen.

**Ante las elecciones de febrero de 1936**, un grupo de empresarios del pueblo se reunió, por iniciativa de Saturnino Telleria, para incidir sobre el comportamiento electoral de los vecinos en general, y de los trabajadores de sus fábricas en particular. El objetivo era favorecer a la derechista Coalición Contrarrevolucionaria y debilitar al PNV y al izquierdista Frente Popular. Al parecer, fruto de aquella reunión es el panfleto que repartieron entre los vecinos y que aquí reproducimos. Como respuesta a aquel escrito, un diario de izquierda criticó duramente a dichos empresarios, tal y como se puede apreciar en el texto contiguo.

La derecha españolista ganó las elecciones de 1936 en Legazpi, rompiendo la tendencia imperante hasta ese momento. Salta a la vista que la derecha españolista supo ser eficaz en aquel momento político.



gerra aurrea
la preguerra

**gerra legazpin; legazpiarrak gerran**
**la guerra en legazpi; legazpiarras en la guerra**

gerraostea: galtzaileen herri bat, irabazleen esku
la posguerra: un pueblo de vencidos en manos de los vencedores

# Gerra hasiera Gipuzkoan Lehen egunetan Donostian hartutako irudiak
# Comienzo de la guerra en Gipuzkoa Imágenes de los primeros días en Donostia.

Barrikadak Donostian.

Barricadas en Donostia.



Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa

1936ko uztailaren 21ean, milizianoek desfilea egin zuten Bulebarretik Loiola inguruaino. Argazkian, Mandasko dukearen kalean.

El 21 de julio de 1936 los milicianos desfilaron desde el Boulevard hasta Loiola. En la foto, los milicianos en la calle Duque de Mandas.



Euskal Memoria Fundazioa

Boluntario errepublikazaleak Donostiako Gipuzkoa plazan.

Voluntarios republicanos en la plaza de Gipuzkoa de Donostia.

Milizianoak Donostiako Loiola auzoko kuartelean, 1936ko udan.

Milicianos en el cuartel del barrio donostiarra de Loiola, en el verano de 1936.



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa

Milizianoak Donostiako Bulebarretik hurbil.

Milicianos cerca del Boulevard donostiarra.

## 4 - 1936ko uztailaren 18a: gerra hasiera

Hainbat hilabetetan prestatzen aritu ondoren, 1936ko uztailaren 18an Espainiako Armadako militar faxistak estatu-kolpea ematen ahalegindu ziren, eta horretan lagun izan zituzten Espainiako lurjabe handiak, oligarkia industrial eta finantzarioa eta burgeseriaren multzo nagusia. Alde izan zituzten, halaber, Eliza katolikoaren hierarkia eta Espainiako eskuin politiko ia osoa. Nazioartean ere, Alemaniako eta Italiako faxisten babesa eta laguntza izan zuten.

Estatu-kolpe ahalegina, ordea, ez zitzaien espero bezain ondo atera. Batetik, Armadako hainbat militar Errepublikarekiko leial mantendu zirelako eta, bestetik, ezkerreko alderdiek eta sindikatuek azkar eta irmo erantzun zutelako, hainbat eta hainbat zonaldetan (Madril, Bartzelona eta Bilbo, esaterako), armak eskutan, matxinatuen asmoak zapuztuz.

Gauzak horrela, estatu-kolpe ahalegin gisa hasi zena, gerra bihurtu zen, ia hiru urteko gerra, Errepublikaren aldekoen eta Espainiako faxisten artekoa.

Hego Euskal Herriari dagokionez, probintzien arteko aldea nabarmena izan zen. Nafarroan, Emilio Mola jeneralaren gidaritzapean, Espainiako Armadako indarrek eta erreketeek (karlisten antolaketa paramilitarra) bat eginik, kolpistak berehala nagusitu ziren. Errepresioa beldurgarria izan zen. Estatu-kolpearen hurrengo egunetan, Nafarroako bide

## 4 - 18 de julio de 1936: comienza la guerra

Después de meses de preparación, el 18 de julio de 1936 los militares fascistas del ejército español intentaron dar un golpe de estado. Contaban con el apoyo de los grandes terratenientes, la oligarquía industrial y financiera y de amplios sectores de la burguesía española. También se vieron respaldados por la jerarquía de la Iglesia Católica y la derecha política española, casi en su totalidad. A nivel internacional disponían del apoyo y la colaboración de los fascistas alemanes e italianos.

Pero el intento no fue todo lo exitoso que esperaban sus impulsores (no lograron imponerse en Madrid, Barcelona y Bilbao, por ejemplo), gracias a que algunos militares se mantuvieron fieles a la República y a que partidos y sindicatos de izquierdas respondieron rápida y decididamente, y sus seguidores con las armas en la mano lograron detener los intentos de sublevación en muchos lugares claves.

Así las cosas, lo que comenzó como un intento de golpe de estado se convirtió en una guerra que duró casi tres años entre los partidarios de la República y los fascistas españoles.

En lo que al sur de Euskal Herria respecta, los acontecimientos se sucedieron de forma bien diferente en las distintas provincias. En Nafarroa, los sublevados del ejército contaron con la importantísima colaboración de los reque-

bazterrak eta hilerriak milaka ezkertiarren eta abertzaleen odolarekin gorritu ziren: 3.000 lagunetik gora hil zituzten Nafarroan, gehienak fusilatuta.

Nafarroan bezala, Araban ere azkar nagusitu ziren bando nazionalaren aldekoak, Camilo Alonso Vega kapitain nagusia buru zela, karlisten laguntzarekin. Araban ere latza izan zen lehen unetik bertatik faxistek ezarritako errepresioa.

Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, gauzak oso bestela izan ziren. Bizkaia, Bilbo bereziki, estatu-kolpearen aurkako gune garrantzitsuenetako bat izan zen, eta berehala lortu zuten matxinada geldiaraztea.

Gipuzkoari dagokionez, Donostiako soldadu-talde batzuek estatu-kolpearekin bat egin zuten. Espainia osoan bezala, bertako eskuin espainolistaren babesa eta laguntza izan zuten, baina miliziano ezkertiarrek aurre egin zieten lehen unetik. Borroka gogorrak izan ziren. Horrela hasi ziren Gipuzkoan 1936ko udara osoan etenik izan ez zuten borrokaldiak eta tiroketak. Hantxe gertatu ziren, halaber, Gipuzkoako lehen hildakoak. Gogor borrokatuta eta bidean hildako lagunak utzita, milizia sozialistek eta anarkistek Irungo eta Donostiako kaleak hartu



tés (organización paramilitar carlista) y los golpistas, capitaneados por el general Emilio Mola, se impusieron de inmediato. La represión fue brutal, y en los días posteriores al golpe las cunetas y cementerios navarros se vieron enrojecidas con la sangre de miles de vecinos de izquierdas y abertzales. Los rebeldes mataron a más de 3.000 personas en Nafarroa, la mayoría de ellas fusiladas.

En Araba también se impusieron enseguida los partidarios de la sublevación, con el capitán general Camilo Alonso Vega a la cabeza y el espaldarazo de los carlistas. También fue implacable la represión ejercida por los sublevados en territorio alavés.

Los acontecimientos se sucedieron de forma muy diferente en Bizkaia y Gipuzkoa. Bizkaia, sobre todo Bilbao, fue un núcleo importante en la lucha contra el golpe de estado, y las fuerzas rebeldes vieron abortadas sus intenciones de inmediato.

Por lo que a Gipuzkoa respecta, grupos de soldados y militares de Donostia se unieron al golpe de estado. Como en toda España, contaban con el apoyo y ayuda de la derecha españolista local, pero los milicianos izquierdistas les hicieron frente desde el primer momento y tuvieron lugar en Donostia duros enfrentamientos armados. Así comenzaron las batallas y tiroteos que se sucederían en Gipuzkoa durante todo el verano de 1936. Tras continuos enfrentamientos, y dejando en el camino a no pocos compañeros muertos, las milicias socialistas y anarquistas tomaron las calles de

zituzten, eta matxinatuak Loiolako kuartelean errenditzea lortu zuten. Kolpisten hasierako asmoak zapuztuta, defentsa antolatzen hasi ziren herritarrak Gipuzkoan.

Hasieran, beraz, Hego Euskal Herria bitan zatituta geratu zen: matxinada nagusitu zen Nafarroan eta Araban, eta aurkakoak, Bizkaian eta Gipuzkoan. Estatu-kolpearekin bat egin zutenek beste probintziak erasotzeari ekin zioten eta, hasiera hasieratik, Nafarroatik Gipuzkoa hartzeko erasoaldia nabarmena izan zen.

Irun y Donostia, y consiguieron la rendición de los militares sublevados acuartelados en Loiola. Una vez neutralizado el primer intento fascista, se emprendió la organización de la defensa de Gipuzkoa.

Por lo tanto, Hego Euskal Herria quedó dividida en dos: en Nafarroa y Araba se impuso el bando rebelde y los leales a la república tomaron el control de Bizkaia y Gipuzkoa. Desde el comienzo, los rebeldes comenzaron a atacar a las zonas que todavía no obraban en su poder y en concreto hicieron un gran esfuerzo para conquistar Gipuzkoa desde Nafarroa.



Euskal Memoria Fundazioa

Lakarreko Tertzioa Gipuzkoara bidean.

El tercio de Lakar camino a Gipuzkoa.

## 5 - Legazpiarren bat-bateko erantzuna estatu-kolpearen aurka

Lehen une horietan, Legazpin ez zen matxinatuen aldeko inolako mugimendurik edo ahaleginik izan, baina Legazpin ere baziren estatu-kolpeak arrakasta izatea desio zuten herritarrak. Lehen egun horietan, ordea, ez zuten ezer egin matxinada Legazpira hedatzeko, ez publikoki behintzat.

Aitzitik, berehalakoa izan zen faxisten aurkako erantzuna herriko ordezkarien, Legazpiko erakunde politiko eta sindikal abertzaleen eta ezkertiarren eta, oro har, herritar xumeen artean. Militarrak matxinatu eta biharamuneko arratsaldean bertan (uztailaren 19), sindikatuek eta ezkerreko alderdiek matxinatuei aurre egiteko antolatutako greba orokorrarekin bat egin zuten legazpiarrek, eta bertako lantegietan ez zuten lanik egin ondorengo egunetan.

Gerra piztu eta bi egunera, Legazpiko *Frente Popularreko* Batzordeak antolatua zuen herriaren eta inguruen defentsa. Egun horretan bertan, uztailaren 20an, zaintza eta defentsa lanak hasi ziren herriko inguruetan. Bat-batean, egun batetik bestera, gudari eta miliziano bihurtu ziren Legazpiko abertzale eta ezkertiar ugari. Ohiko zereginak albo batera utzita eta eskura zituzten arma urriak eskutan hartuta, faxistei aurre egiteko prestatzen hasi ziren. Ez zekiten zein garai beltzak zetozen!

Beste legazpiar batzuek borroka gogorrenak zeuden tokietara jo zuten, bereziki, Donostia ingurura, matxinatuei aurre egitera, boluntario. Tartean zen **Eloy Zufiaurre Garcia** gazte legazpiarra, faxistek hildako legazpiarren zerrenda luzeko lehena. Gerra hasi eta sei egunera hil zuten Donostian.

## 5 - La inmediata respuesta de los legazpiarras al golpe de estado

En aquellos primeros momentos, no hubo en Legazpi ningún intento por extender la sublevación a nuestro municipio. Es evidente que en Legazpi también había vecinos deseosos de que los rebeldes triunfaran. Sin embargo, aquellos días no hicieron nada para apoyar la sublevación, no al menos públicamente.

Por contra, la respuesta contra el golpe de estado de los representantes institucionales locales, de las organizaciones políticas y sindicales abertzales y de izquierdas, y de los legazpiarras en general fue inmediata. Así, en las industrias locales no se trabajó los días posteriores al golpe militar, ya que los legazpiarras secundaron masivamente la convocatoria de huelga general realizada por los sindicatos y partidos de izquierda el día posterior al mismo, la tarde del 19 de julio.

Dos días después del inicio de la guerra, el Comité del *Frente Popular* había organizado ya la defensa del pueblo y los alrededores. Ese mismo día, el 20 de julio, comenzaron los trabajos de vigilancia y defensa. De un día para otro, muchos legazpiarras abertzales o de izquierda se habían convertido en gudaris o milicianos, habían dejado de lado sus quehaceres habituales y, con las pocas armas que tenían a su disposición, iniciaron los preparativos para hacer frente a un posible ataque de los sublevados. ¡No se imaginaban en ese momento los oscuros meses que se les avecinaban!



Pag 45 del Tomo IV
habla de Legazpia
"Los sellos"
101

N. Y L. VILLA DE LEGAZPIA

N.º

El Frente Popular de esta solicita autorización para transportar a esta villa armamento apropiado para probar chapa blindada y al mismo tiempo para defensa de la fábrica donde se produc[e] dicha chapa.

Legazpia 29 de julio de 1936

POR EL FRENTE POPULAR DE LEGAZPIA

Jesus Medina



43/16
3



EL FRENTE POPULAR DE LEGAZPIA, autoriza a D. Félix Echa[...]
para que pueda trasladarse a Zumarraga, con el objeto [...]
entregar la camioneta marca Ford, matricula S.S.7.866, e[...]
Garage Lescurain de Zumarraga, para arreglar, la corona [...]
el piñon de ataque, y rodamiento cónico de piñón de ata[...]
Dicho coste pueden cargar al Frente Popular.

Legazpia 11 de Agosto de 1936.
P. EL COMITE FRENTE POPULAR;

Angel Chaparro

verria
de
n el
con
que.

MADERAS Y CARBONES

**JOSE MARIA AGUIRREZABAL**
BRINCOLA (Guipúzcoa)

COMESTIBLES
VINOS Y LICORES
ALMACEN DE GRANOS

Brincola 19 de Agosto de 1936

anotó

Relación de raciones facilitadas al Frente Popular.

| | | |
|---|---|---|
| Agosto 6 | 10 litros de vino. | |
| 7 | 8 | |
| 7 | 10 " " " | 8 |
| 8 | 15 " " " | 6 |
| 9 | 10 " " " | 8 |
| 10 | 8 " " " | 12 |
| 11 | 8 " " " | 8 |
| 12 | 10 " " " | 6 |
| 13 | 18 " " " | 6 |
| 14 | " " " | 8 |
| 15 | 18 ranchos á 1,75 ptas cada una. | 14 |
| 17 | 15 litros de vino. | 31 |
| 18 | 4 ranchos á 1,25 ptas cada una. | 12 |
| | 36 " " " " " " | 5 |
| | | 46 |
| | Total Ptas. | 171 |

Comité Frente Popular de Brincola

CENTRO REPUBLICANO DE BRINCOLA

El Frente Popular de esta villa ha recibido del de Zumarraga en el dia de hoy 50 paquetes de cartuchos cargados del calibre 12 y 20 cartuchos cargados del calibre 16 , con destino a las fuerzas que operan en esta localidad.

Legazpia 24 de julio de 1936.

P. EL COMITE DEL FRENTE POPULAR

Gudariak. (Goiko ilaran) 1. Teodoro Agirre Zaldua / 2. Francisco Andueza Zangitu / 3. Eugenio Zabaleta Oiarbide / 4. Paco Gordoa / 5. José Zangitu Arsuaga / 6. Pedro Arsuaga (mikeletea) / (Erdiko ilaran) 7. Doroteo Gibelalde Aranguren / 8. Juan Zangitu Arsuaga / 9. Angel Murua Alkorta / 10. Bixente Gibelalde Aranguren / (Beheko ilaran) 11. Remigio "Naparra" / 12. Valentín Andueza / 13. Tomás Murua Sasieta



Artxibo partikularra

Lehenengo gerra egun horietan, matxinatuen esku ez zeuden lurraldeetan, bertako faxisten aurkako jazarpena hasi zuten Errepublikarekiko leial iraun zuten indarrek, ezkertiarrek bereziki, estatu-kolpearen aldeko lan oro eragoztea helburu. Legazpin ere, hainbat lagun atxilotu zituzten; hala nola, Saturnino Telleria "*Mediku Zaharra*" eta Pedro Alzelai "*Fleta*". Egun batzuk eman zituzten atxilotuta herriko eskola publikoan.

Atxiloketen edota bestelako erasoen beldur, beste hainbat legazpiar ezkutatu egin ziren. Horietako bat izan zen Patrizio Etxeberria. Hasieran, Arantzazura jo zuen, ezkutuan, frantziskotar mozorrotuta, ondoren, Urbian ezkutatu zen eta, azkenik, Gabirian, harik eta bando nazionalekoek Legazpi konkistatutakoan herrira itzuli zen arte.

Otros vecinos de la localidad se dirigieron voluntariamente a luchar contra el fascismo allí donde más se les necesitaba y donde las peleas eran más duras. Es el caso del joven **Eloy Zufiaurre García**, el primero de la larga lista de legazpiarras muertos en la guerra. Lo mataron en Donostia a los seis días de haber comenzado ésta.

Aquellos primeros días, en las zonas que no habían caído en manos de los sublevados, las fuerzas leales a la República, principalmente las izquierdistas, comenzaron la persecución de los elementos locales sospechosos de trabajar para los sublevados, tratando así de impedir cualquier movimiento a favor del golpe. En Legazpi también fueron detenidos algunas personas, como Saturnino Telleria *"Mediku Zaharra"* y Pedro Altzelai *"Fleta"*, que permanecieron detenidas unos días en la escuela pública municipal.

Otros legazpiarras se ocultaron por miedo a esas detenciones o a alguna represalia o agresión de otro tipo. Uno de ellos fue Patricio Etxeberria, que en un primer momento se dirigió a Arantzazu disfrazado de franciscano, para posteriormente esconderse en Urbia y, finalmente, en Gabiria, hasta que volvió a Legazpi, toda vez que las tropas del bando nacional conquistaron el pueblo.

## 6 - Legazpiko Udala gerran

Defentsa antolaketa, hein handi batean, *Frente Popularraren* batzordearen esku geratu bazen ere, Legazpiko Udalak parte-hartze zuzena izan zuen estatu-kolpearen aurkako borrokan. Matxinada izan eta bi egunera (uztailaren 20an), gerraren logikarekin lotutako hainbat erabaki hartu eta betearazi zituen Udalak. Neurri horien artean, etxeetako arma guztiak berehala, 2 orduko epean, udaletxera eramateko agindu zien herritarrei. Ildo berean, auto zein kamioi jabeei haiek alkatetzaren zerbitzura jar zitzaten deia egin zien. Aipagarri da, halaber, Legazpiko alkateak deialdia egin ziela Errepublikaren alde zeuden 35 urtetik beherako gizonezko guztiei izena eman zezaten, herriko defentsan parte hartzeko.

Uztailaren 23an, gerra hasi eta bost egunera, alkateak deia egin zien izen eman zuten guztiei berehala herriko plazara etor zitezen, faxisten aurka borrokara joateko Tolosara. Horrela, Angel Murua Alkorta "*Kabo Xaharra*" mikelete kaboaren aginduetara, mikelete eta boluntario talde bat joan zen Tolosara.

Uztailaren 24an, ez ohiko Udalbatza egin zuten Legazpiko udaletxean. Bertan, estatu-kolpearen aurkako adierazpen argia onartu zuten Legazpiko herri ordezkari legitimoek aho batez, zinegotzi jeltzaleek eta errepublikanoek bat eginda. Faxisten asmoa diktadura ezartzea zela eta horren aurka, printzipio demokratikoak, herritarren eskubideak zein Euskal Herriarenak aldarrikatuz, argi adierazi zuten Legazpiko Udalaren konpromiso instituzionala Errepublika defendatzeko eta kolpistei aurre egiteko.

## 6 - El Ayuntamiento de Legazpi en guerra

La organización de la defensa recayó principalmente en manos de la Comisión del *Frente Popular*, pero el Ayuntamiento de Legazpi también participó directamente en la lucha contra la sublevación. A los dos días de la asonada (20 de julio), el Ayuntamiento acordó y ejecutó toda una serie de decisiones relacionadas con la lógica de la guerra. Así, el alcalde ordenó a todos los vecinos que dispusieran de armas, que las entregaran rápidamente en el ayuntamiento, en el plazo máximo de dos horas. Asimismo, ordenó a los dueños de coches y camiones que los pusieran a disposición de la alcaldía. Cabe destacar también el llamamiento realizado a todos los hombres menores de 35 años favorables a la República para que se inscribieran en el ayuntamiento para tomar parte en la defensa del pueblo.

El 23 de julio, cinco días después del comienzo de la guerra, el alcalde llamó a todos los que se habían inscrito, para que se presentaran a la plaza del pueblo para ir a Tolosa a luchar contra los fascistas. Así, a las órdenes del cabo de Miqueletes Ángel Murua Alkorta *Kabo Xaharra*, un grupo compuesto por miqueletes y voluntarios legazpiarras se dirigió a Tolosa.

El 24 de julio se celebró un pleno extraordinario en el ayuntamiento de Legazpi y los legítimos representantes del pueblo aprobaron por unanimidad una declaración contra el golpe de estado, con el voto favorable tanto de los concejales del Partido Nacionalista Vasco como de los republicanos. En la declaración denunciaron que la intención de los

Frankisten agirien arabera, gerra hasi zenetik Legazpiren okupaziora bitarte, Errepublikaren aldeko indarrek ez zuten inor hil Legazpin. Antza denez, ez zuten pertsonen aurkako biolentzia erabili edo bestelako ekintza bortitzik egin, hala nola su ematea edo arpilatzea.

Según la propia documentación de los franquistas, durante el período comprendido entre el inicio de la guerra y la ocupación de Legazpi, las fuerzas favorables a la república no mataron a nadie en Legazpi. Parece ser que tampoco utilizaron violencia contra personas ni realizaron otros hechos violentos tales como incendios o saqueos.


RAMO NUMERO OCHENTA Y UNO.

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPIA.

RELACION de personas residentes en este término municipal, que durante la dominación roja fueron muertas violentamente o desaparecieron, y se cree fueran asesinadas:

NINGUNA.

RELACION de cadáveres recogidos en este término municipal, de personas no reconocidas como residentes en él, que fueron muertas violentamente durante la dominación roja:

NINGUNO.

RELACION de tormentos, torturas, incendios de edificios, destrucciones de iglesias y objetos de culto, saqueos, profanaciones y otros hechos delictivos, que fueron cometidos en este término municipal durante la dominación roja:

NINGUNO.

Y en cumplimiento de lo ordenado por el Ilmo. Sr. Fiscal Instructor Delegado de esta Causa General, se extiende la presente con el Visto Bueno de dicho Sr. Fiscal, en San Sebastian a diez y ocho de Octubre de mil novecientos cuarenta y cinco.

Vº. Bº.
EL FISCAL INSTRUCTOR DELEGADO,

EL SECRETARIO,

Artxibo partikularra



Don Ubaldo de Segura, Alcalde de esta villa de Legazpia.

HAGO SABER : Es público y notorio que sobre el Comité del Frente Popular de esta localidad pesan cuantiosos gastos causados durante el desarrollo de los sucesos provocados por elementos facciosos , en la vigilancia del término, su abastecimiento , transportes , etc, y a fin de satisfacerlos aunque sea en parte , apelo a la generosidad del vecindario para que todos los vecinos con arreglo a sus recursos contribuyan a la suscripción que a tal efecto queda abierta en este Ayuntamiento , locales de Euzko-Batzokia y de Izqda Republicana en esta villa y en el del Centro Republicano de Brincola, en que se admitirán donativos tanto en metálico como en especie comestible.

Legazpia 24 de agosto 1936.

U. de Segura.

Legazpiko udal artxibategia



Don Ubaldo de Segura, Alcalde de esta villa de
Legazpia.

HAGO SABER : En el preciso término
horas los de la calle y en el de cuatro los d
rural se presentarán en la Casa Consistorial t
alistados como voluntarios y los varones qu
haberse inscrito cuenten con menos de 35 años ,
efectuar los servicios que se les designe en de
de los intereses municipales y de la República.

A los que incumplan esta orden se les
que por la Superioridad se estudia la implantac
del servicio obligatorio

Legazpia 29 de julio de 1936.

Legazpiko udal artxibategia

*

## Legazpiko Udala estatu-kolpearen aurka

Herriko alderdi politikoak, sindikatuak, Udala, herritarrak… lanean faxismoa gelditzeko.

## El Ayuntamiento de Legazpi en contra del golpe de estado

Los partidos políticos de Legazpi, los sindicatos, el Ayuntamiento, los vecinos… trabajando para detener el fascismo.

de dos
e la zona
odos los
e sin
. para
fensa

previéné
ión

Don Ubaldo de Segura, Alcalde de esta villa de Legazpia.

HAGO SABER : Por la presente requiero a todos los vecinos de esta localidad que posean armas de fuego en esta Alcaldias las entreguen sin excusa mi pretexto en el término improrrogable de dos horas , previniendo que los que no lo hicieran sufrirán las consecuencias a que por su desobediencia se hicieran acreedores.

Legazpia 21 de julio de 1936.

Legazpiko udal artxibategia

Ubaldo de Segura, Alcalde de esta villa de Legazpia

HAGO SABER : Que todos los alistados en esta localidad para luchar contra las fuerzas facciosas se presenten inmediatamente en la plaza de la villa provistos del armamemto que tienen en su poder para ir seguidamente a Tolosa.

Legazpia 23 de Julio de 1936.

Legazpiko udal artxibategia

Don Ubaldo de Segura, Alcalde de esta villa de Legazpia

HAGO SABER : Que el vecindario de esta villa debe vivir prevenido contra los falsos rumores que propalan los enemigos del regimen para sembrar el terror en estas poblaciones.

Esos rumores anunciando la inminente entrada en esta villa de tropas facciosas procedentes de Navarra motivaron el bando dictado ayer por esta Alcaldia que queda rectificado en el sentido de que los vecinos de Legazpia como los del resto de la nación se hallen ébligados a impedir por todos los medios y sin reparar en sacrificios , que las tropas desleales al régimen republicano y enemigos de las libertades del puеblo consigan los criminales propósitos que persiguen con el actual movimiento faccioso

Legazpia 23 de Julio de 1936.

Legazpiko udal artxibategia

Legazpiko Udalak, hortaz, zuzenean parte hartu zuen faxisten aurkako borrokan. Hala ere, aipagarria da, Gipuzkoa osoan bezala, Legazpin ere tentsioak izan zirela estatu-kolpearen aurka borrokan ari ziren taldeen artean, bereziki, herriko alderdi nagusi zen eta alkatetza zuen EAJren eta gainerakoen artean (errepublikazaleak, EAE-ANV, CNT, UGT…). Ezkertiarren ustez, EAJk eta alderdi horretako alkate Ubaldo Segurak "bigunegi" jokatu zuten matxinadaren alde ezkutuan lanean ari ziren hainbat herritarrekin.

Orokorrean, Euskal Herri osoan (eta baita Espainian ere) Errepublikaren alde borrokatu zirenen arteko kohesio falta nabaria izan zen, eta horrek ez zuen lagundu matxinatuen aurkako borrokan.

sublevados era imponer la dictadura, y, frente a ello, reivindicaron los principios democráticos y los derechos de los ciudadanos y de Euskal Herria, dejando claro su compromiso institucional para defender la República y hacer frente a los sublevados.

Por lo tanto, el Ayuntamiento de Legazpi participó directamente en la lucha contra los rebeldes, si bien cabe mencionar que, como en el resto de Gipuzkoa, en Legazpi también hubo importantes tensiones entre los grupos contrarios a la sublevación, sobre todo entre el partido mayoritario en el pueblo, el PNV, al que pertenecía el alcalde, y los demás partidos y organizaciones (republicanos, ANV, CNT, UGT...). Según esas organizaciones, el PNV y el alcalde Ubaldo Segura, fueron demasiado benévolos con los elementos del pueblo que trabajaban en secreto a favor de los militares alzados en armas.

En general, en todo Euskal Herria (y también en España) fue notoria la falta de cohesión entre los grupos favorables a la República, lo cual constituyó una dificultad añadida en la lucha contra los sublevados.



Artxibo partikularra

Legazpiko udalbatza 1933an. (Ezkerretik eskuinera) 1. Juan Mantxola, 2. Jose Aztiria, 3. Eugenio Elorza, 4. Ubaldo Segura (alkatea), 5. Angel Enparanza (idazkaria), 6. Jose Mª Agirrezabal, 7. Isidro Olabide eta 8. Anselmo Zabaleta.

Pleno del Ayuntamiento de Legazpi. (De izquierda a derecha) 1. Juan Mantxola, 2. José Aztiria, 3. Eugenio Elorza, 4. Ubaldo Segura (alcalde), 5. Angel Enparanza (secretario), 6. José Mª Agirrezabal, 7. Isidro Olabide y 8. Anselmo Zabaleta.

## 7 - Legazpiko frontea (1936ko uztaila-iraila)

Gerra piztu zenean, Errepublikarekiko leial jokatu zuten indarren esku gelditu zen Legazpi, eta hala jarraitu zuen hurrengo bi hilabeteetan, harik eta irailaren 19an matxinatuek herria mendean hartu zuten arte. Ez ziren hilabete lasaiak izan, ez horixe.

Uztailaren 18an bertan, Molaren agindupean zihardutenak posizioak hartzen hasi ziren eta egun gutxitan definitu zen Gipuzkoako gerra mapa. Leku batzuk faxisten menpe zeuden eta beste batzuk Errepublikaren aldekoen esku. Tartean, fronte-lerroa.

Gure herriari dagokionez, estatu-kolpe saioa gertatu eta sei egun eskasera, Legazpiko mugetaraino iritsi ziren matxinatuak. Nafarroatik abiatuta, Gipuzkoa hegoaldera etorri eta uztailaren 24an, Zegama, eta Zerain hartu zituzten, besteak beste. Ondorengo egunetan, Goierriko herri ugari menpean hartu zituzten: Idiazabal, Segura, Ataun, Lazkao, Zaldibi, Beasain... Horrela, Gipuzkoako fronte-lerroaren zati bat Legazpiko hego-ekialdean ezarri zen, eta hantxe egon zen, aldaketa handirik gabe, ondorengo bi hilabeteetan.

Bi hilabete horietako giroa ez zen lasai egoteko modukoa. Etsaiak edozein unetan egin zezakeen eraso, eta Legazpi inguruko mendietako posizioak zaintzen aritu ziren gudariak eta milizianoak, uztailaren 20tik. Besteak beste, Atagoitin,

## 7 - El frente de Legazpi (julio-septiembre de 1936)

Cuando comenzó la guerra, Legazpi quedó en manos de las fuerzas fieles a la República y así continuó durante dos meses, hasta que el 19 de septiembre los rebeldes conquistaron el pueblo. No fueron, precisamente, meses tranquilos para los legazpiarras.

El mismo 18 de julio las tropas a las órdenes de Mola comenzaron a tomar posiciones y a los pocos días, quedaba definido el mapa de guerra de Gipuzkoa: algunos lugares quedaron en manos de los sublevados y otros en manos de los defensores de la legalidad. En medio, la línea del frente.

En cuanto a Legazpi se refiere, a los seis días del intento golpista, los sublevados llegaron hasta los límites de la localidad. Partiendo desde Nafarroa, habían llegado al sur de Gipuzkoa y el 24 de julio conquistaron Zegama y Zerain, entre otros pueblos. Los días posteriores tomaron buena parte del Goierri: Idiazabal, Segura, Ataun, Lazkao, Zaldibi, Beasain... De esa manera, una parte de la línea de frente de Gipuzkoa se situó al sureste de Legazpi, y ahí se mantuvo, sin grandes cambios, durante prácticamente dos meses.

El ambiente de esos dos meses fue de inquietud generalizada. El enemigo podía atacar en cualquier momento y los gudaris y milicianos vigilaron las posiciones de los montes cercanos a Legazpi desde el propio 20 de julio. Sus pues-

## Gerra Gipuzkoan
## La guerra en Gipuzkoa



Aztirin, Larrosainen eta Ormakion finkatu zituzten euren posizioak eta defentsa guneak. Guztien artean Ormakioko defentsa gunea zen estrategikoena, faxisten esku zegoen Zegamarekin muga eremua delako. Defentsa lanetan, kanpotik etorritako milizianoen laguntza izan zuten; hala nola, Araotz, Zumarraga, Eibar, Arrasate eta Altsasutik etorritakoena, eta baita, Bizkaitik, Kantabriatik eta Asturiasetik etorritakoena ere.

Zaintza eta defentsa lanez gain, Ormakioko lubakiak eraiki eta gune militar garrantzitsuetako bideak konpondu zituzten udaran. Legazpiar ugari aritu ziren langintza horietan guztietan: lubakiak eraikitzen, bideak konpontzen eta, armak eskutan, posizioak zaintzen eta defenditzen.

1936ko udaran, Gipuzkoako frontean, Irun eta Donostia bereganatzea zen faxisten lehentasuna, inolako zalantzarik gabe. Gipuzkoako hiriburua mendean hartzea eta Frantziako Estatuarekiko muga bereganatzea (eta Errepublikaren aldekoei muga horretarako bidea oztopatzea) estrategikoa zen faxistentzat. Irun eta Donostia inguruetan egin zituzten, ondorioz, ahaleginik handienak gerrako lehenengo bi hilabeteetan, eta bertan izan ziren Gipuzkoako borrokarik gogorrenak. Bestelako mugimendu batzuk ere izan ziren udaran Gipuzkoako fronte eratu berrian. Adibidez, Tolosa eta Andoain hartu zituzten faxistek abuztuaren 11n eta 17an, hurrenez hurren.

Beasain eta Brinkola arteko frontea, ordea, ez zen oso fronte aktiboa izan. Faxistentzat ez zen lehentasuna. Bertan ziharduten milizianoek eta gudariek, berriz, arma gutxi eta munizio urria zuten, ez behintzat etsaien kontra jotzeko

tos de vigilancia y zonas de defensa los establecieron, entre otros lugares, en Atagoiti, Larrosain, Aztiri y Ormakio. Entre todas esas zonas la más estratégica era la de Ormakio, por ser fronteriza con Zegama, localidad ya en poder de los fascistas. Para la defensa contaron con ayuda de milicianos llegados de otros lugares, como Araotz, Zumarraga, Eibar, Arrasate y Altsasu. También llegaron refuerzos desde Bizkaia, Cantabria y Asturias.

Además de los trabajos de vigilancia y defensa, en verano se cavaron trincheras en Ormakio y se arreglaron los caminos más importantes de las zonas consideradas estratégicas desde el punto de vista militar. En esos dos meses, muchos legazpiarras colaboraron en las labores de defensa cavando trincheras, despejando pistas de monte o vigilando y defendiendo posiciones con las armas en la mano.

El objetivo principal de los sublevados en el verano de 1936 en el frente de Gipuzkoa, fue tomar Irun y Donostia. Dominar la capital de Gipuzkoa y controlar la frontera con el Estado francés (evitando así la salida hacia esa frontera de los partidarios de la República) constituían objetivos claves para sus intereses. Por consiguiente, durante los dos primeros meses de guerra, sus esfuerzos se centraron en los alrededores de Irun y Donostia, y allí tuvieron lugar las luchas más cruentas de Gipuzkoa. También hubo, sin embargo, otros movimientos en el frente de Gipuzkoa y, por ejemplo, los nacionales tomaron Tolosa y Andoain el 11 y el 17 de agosto, respectivamente.

*

# Gerra Frontea Legazpin
# Frente de guerra en Legazpi



Gudari talde bat. Zutik, bigarren ilaran, ezkerretik hirugarrena: Lorenzo Urzelai Gabiria.
Grupo de gudaris. De pie, en la segunda fila, el tercero por la izquierda: Lorenzo Urzelai Gabiria.



Artxibo partikularra.

eta Zegama edo inguruko posizioak berreskuratzen ahalegintzeko bezainbeste. Horrela bada, posizioak zaintzea izan zen euren ardura nagusia. Udaran zehar izan ziren borroka eta tiroketa isolatu batzuk, San Agustin egunean faxistek egin nahi izan zuten erasoaldia kasu (tiroak eta atxiloketak izan ziren egun horretan), baina borroka gogorrenak, Legazpiren konkistarekin batera gertatuko ziren, irailaren 18, 19 eta 20an.

El frente entre Beasain y Brinkola, en cambio, no fue muy activo. Para los fascistas no constituía una prioridad. Los milicianos y gudaris que defendían ese frente, por su lado, carecían de armas y munición suficientes como para hacer frente a los enemigos e intentar recuperar Zegama o alguna otra posición en manos de los sublevados. Por lo tanto, su cometido principal consistió en vigilar las posiciones. Durante ese verano hubo alguna que otro enfrentamiento, como la incursión de los rebeldes el día de San Agustín (ese día se produjeron disparos y apresamientos), pero los combates más duros no llegarían hasta la conquista de Legazpi, los días 18,19 y 20 de septiembre.



Argazkia: Iakobe Katarain, 2008-01-12 (Lehengo Aztiri liburutik).

Aztiriko Abadetxean gudari eta milizianoen kontrol-postua egon zen 1936ko udan. Bertatik, inguruko mendietan zeuden zaintza postuetara joaten ziren, hala nola: Atxubiko hegia, Aizpuru eta Larrosain.
En la casa cural de Aztiri se instaló un puesto de control de gudaris y milicianos durante el verano de 1936. Desde el mismo se coordinaban los puestos de vigilancia del entorno: Atxubiko hegia, Azipuru, Larrosain…

Zegamako harana Arranoaitz tontorretik begiratuta. El valle de Zegama desde la cima de Arranoaitz.



Argazkia: JLU



Euskal Memoria Fundazioa

Milizianoak gerra hasieran.

Milicianos al inicio de la guerra.



Euskal Memoria Fundazioa

*

## Gerra Gipuzkoan 1936ko udarako argazkiak.

## Guerra en Gipuzkoa Imágenes del verano de 1936.

* Legazpiko frontearen inguruko oso argazki gutxi lortu ditugu. 1936ko udara hura Gipuzkoako fronteko beste lekuetan nolakoa izan zen adierazten duten hainbat argazki ikus daitezke hemen.

* Apenas hemos conseguido fotografías relacionadas con el frente de Legazpi. Aquí aportamos imágenes de lo que fueron aquellos días del verano de 1936 en otros lugares del frente de Gipuzkoa.





Euskal Memoria Fundazioa

Boluntarioen lubakia Buruntzan, Andoain inguruan.

Trinchera de voluntarios en Buruntza, cerca de Andoain.

Boluntario errepublikanoak eta anarkosindikalistak Irungo frontean.

Voluntarios republicanos y anarcosindicalistas en el frente de Irun.



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa

Milizianoak
Irunen borrokan.
Milicianos
luchando en Irun.

Miliziano taldea, Alegiako frontean atsedenaldi batean.

Un grupo de milicianos durante un descanso en el frente de Alegia.



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa

Milizianoak Oiartzungo frontean, Molaren tropak noiz etorriko zain.

Milicianos en el frente de Oiartzun, aguardando la llegada de las tropas de Mola.

Milizianoak ukabila jasota, Alegiako posizioetara zihoazela.

Milicianos con el puño en alto, camino a las posiciones de Alegia.



Euskal Memoria Fundazioa

Miliziano gipuzkoar gehienek ez zituzten ordura arte armak erabili; igeltseroak, zurginak, nekazariak… ziren, eta ez zuten teknika militarra ezagutzen. Argazkian Donostiako boluntario talde bat.

La mayoría de los milicianos guipuzcoanos jamás había utilizado un arma hasta entonces, ya que eran albañiles, carpinteros, agricultores… y no conocían las técnicas militares. En la imagen un grupo de voluntarios donostiarras.



Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa

Fronteko su-lerroa Oiartzunen egon zen. Argazkian, miliziano taldea lubaki batean.

La línea de fuego del frente estuvo en Oiartzun. En la foto, un grupo de milicianos en una trinchera.

Milizianoak Irungo frontean, gerora Bartzelonara ebakuatu zituztenak.

Milicianos en el frente de Irun, posterior-mente fueron evacuados a Barcelona.


Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa

Frontea finkatu eta eginbehar nagusia Molaren erasoaldia galgatzea bihurtu zenean, lanak ugaritu egin ziren.

Cuando el frente ya estaba establecido y el quehacer más importante era frenar a Mola, los trabajos se multiplicaron.

Milizianoak Gipuzkoan.



Euskal Memoria Fundazioa

Milizianoak borrokan.



Euskal Memoria Fundazioa

## 8 - Herritarren bizipenak 1936ko udaran: egunerokotasuna guztiz iraulita, errefuxiatuak Legazpin, eta urduritasuna, kezka eta beldurra nagusi

Gerrak guztiz desitxuratu zuen Legazpi 1936ko udaran. Bat-batean, gerrak errotik eraldatu zuen legazpiarren egunerokotasuna, hasiera hasieratik. Lehen egunetan greba orokorra izan zen herrian eta defentsa antolatzeari ekin zioten herritarrek. Horretan jardun zuten buru belarri Legazpiko alderdi politikoetako eta sindikatuetako kide ugarik udara osoan. Herritar asko miliziano edo gudari zebilen Legazpin bertan. Aspaldi ez bezala, armak ikusi ziren herrian. Herriko gizonezkoak mobilizatuta, trintxerak zein bideak eraikitzen, guardiak egiten edo posizioak zaintzen. Egunak pasatu ahala, gainera, gazte askok alde egin zuten herritik, borrokari lotzeko prest: hasieran Donostia ingurura jo zutenez gain, Azpeitia aldera jo zutenak aipatu behar dira, EAJ abuztu hasieran bertan antolatzen hasia zen Eusko Gudarostera biltzera joandakoak, hain zuzen ere. Horren guztiaren ondorioz, urduritasuna eta kezka nagusi ziren herritarren artean.

Gerrak herrian beste ondorio zuzen bat izan zuen, faxistek menperatutako herrietatik ihesi errefuxiatu oldeak iritsi baitziren. Soilik Gipuzkoako inguruko herrietatik etorritakoak zenbatuta, ia 200 izan ziren, 1936ko iraila erdialdean Udalak egindako zenbaketaren arabera. Ez dugu daturik Nafarroatik eta Arabatik zenbat etorri ziren zehazteko, baina, ziurrenik, ez ziren gutxi izan. Ihesi etorritakoek sufrimendua eta beldurra zuten bidelagun, eta euren herrietan matxinatuek egindakoei buruz kontatzen zituztenak ez ziren lasai egoteko modukoak.

## 8 - Vivencias del verano de 1936: vuelco de la cotidianidad, refugiados en Legazpi, nerviosismo, preocupación y miedo

La guerra transformó por completo la vida cotidiana de los legazpiarras. Como ya hemos apuntado, los primeros días hubo huelga general, los vecinos comenzaron a organizar la defensa del pueblo y en ello se implicaron en cuerpo y alma un número considerable de militantes legazpiarras de los partidos políticos y sindicatos durante todo el verano. De la noche a la mañana, muchos se habían convertido en milicianos y gudaris, y en el pueblo volvían a verse armas como no se veían desde hacía mucho tiempo. Los hombres del pueblo estaban movilizados, cavando trincheras, haciendo guardias o vigilando posiciones. A medida que transcurrían los días, jóvenes del pueblo partían para incorporarse a la lucha contra los fascistas. Además de los que se dirigieron hacia Donostia, otros se fueron para Azpeitia, con el propósito de unirse al Euzko Gudarostea que el PNV estaba organizando desde principios de agosto. Con todo, el nerviosismo y la preocupación eran sensaciones generalizadas entre los vecinos de Legazpi.

La guerra tuvo otro efecto que trastocó profundamente la normalidad de Legazpi. Nos referimos a la afluencia de refugiados llegados al municipio procedentes de pueblos ocupados por los sublevados. Según el recuento realizado por el ayuntamiento a mediados de septiembre de 1936, en Legazpi residían en esa fecha 200 refugiados venidos de otros pueblos de Gipuzkoa. No disponemos de datos para conocer cuánta gente llegó desde Nafarroa o Araba, pero cabe pensar que no serían pocos. Los refugiados traían consigo el sufrimiento y el miedo metidos en el cuerpo, y lo que contaban sobre el modo de proceder de los golpistas en sus pueblos de procedencia, no ayudaba precisamente a conservar la calma.

Gerra pasarte gogorrenak oraindik gertatzeke zeuden herrian, baina beldurra hezurretaraino sartua zuten legazpiarrek. Gerra gordinen jasan zuten herrietatik eta faxistek menpean hartutakoetatik iritsitako berriak ez ziren lasaigarriak. Hurbil-hurbileko berri bat horren adierazle: gerra piztu eta 9 egunera, uztailaren 27an, faxistek Beasain hartu zutenean, dozenaka lagun fusilatu zituzten, tartean, Legazpin jaiotako **Evaristo Mendia Zabalo**, 53 urtekoa, eta fusilatzea nahikoa ez, eta seme zaharrenari aitaren gorpua lurperatzeko zuloa eginarazi omen zioten faxistek.

Gerrak egun batetik bestera aldatu zuen legazpiarren egunerokotasuna, eta etxe gehienetan nabari zen hori. Kolpistak Legazpiko mugetan zeuden jada, Zegaman bertan, guztiek zekiten hori. 1936ko udara osoa, faxisten erasoaren beldur igaro zuten legazpiarrek, eta halako batean iritsi zen erasoaldia.

Los episodios bélicos más duros todavía estaban por llegar a Legazpi, pero el miedo era ya un sentimiento muy extendido entre la población. Las noticias que llegaban desde los pueblos conquistados por los sublevados alimentaban ese sentimiento. Sirva como ejemplo una de esas noticias que indudablemente resultó cercana a los legazpiarras: a los nueve días del inicio de la guerra, el 27 de julio, los fascistas tomaron Beasain y esa misma noche fusilaron a docenas de personas. Entre ellas estaba **Evaristo Mendia Zabalo**, nacido en Legazpi y de 53 años de edad. Pero fusilarlo no debió parecerles suficiente, y obligaron al hijo mayor del difunto a cavar una fosa para enterrar a su padre.

La guerra cambió, pues, el día a día de los legazpiarras y eso se dejo notar en todas las familias del pueblo. Los golpistas estaban en los alrededores de Legazpi, en Zegama; todo el mundo lo sabía. El temor a un ataque era generalizado y duró todo el verano de 1936. Hasta que al final, a mediados de septiembre, llegó el temido ataque.



Euskal Memoria Fundazioa

## 9 - Faxistak badatoz! Herritarrak Legazpitik ateratzea, irailaren 18 eta 19an, eta ehunka legazpiarren exodo luzearen hasiera

Bidasoa, Irun eta Donostia inguruetako borroka gogorretan ehunka lagun hil ziren. Eta azkenean faxistek Irun eta Donostia mendean hartu zituztenean (1936ko irailaren 4an eta 13an, hurrenez hurren) alarma gorri guztiak piztu ziren Gipuzkoa osoan, denek baitzekiten Gipuzkoako gerraren giltzarria Donostia aldeko borroka zela.

Egun gutxira, irailaren 17an, faxistek Ormaiztegi eta Gabiria konkistatu zituztenean, begi bistakoa zen edozein unetan etor zitezkeela Legazpira, eta jendea herritik ateratzeko prestatzen hasi ziren, Angel Murua Alkorta Legazpiko mikelete kaboaren gidaritzapean. Horretarako, hainbat ibilgailu konfiskatu zituzten.

Legazpiar asko, gizonezkoak batez ere, ezkutatu egin ziren edo ihes egin zuten matxinatuek herria hartu baino egun edo ordu batzuk lehenago. Gehienak, egun edo aste batzuen buruan, egoera apur bat normaldutakoan, itzultzeko asmoz joan ziren.

Ezkutatze edo ihesaldi orokor horren inguruko pasadizo ugari entzun ditugu elkarrizketatuen ahotan. Faxistak sartu zirenean, Motxorroko eta Mirandaolako familia buruak (Jose Antonio Aranburu eta Isidro Olabide), adibidez, Korostiagako zulo batean ezkutatuta egon ziren astebetez, beldurrak jota. Ez zuten Legazpitik alde egin familia handia zutelako.

## 9 - ¡Ya vienen los fascistas! Evacuación de Legazpi el 18 y 19 de septiembre: comienzo del largo éxodo para cientos de vecinos

Cientos de personas perdieron la vida en las encarnizadas luchas de Donostia, Irun y Bidasoa. Cuando finalmente los sublevados tomaron Irun y Donostia (el 4 y el 13 de septiembre de 1936, respectivamente) se encendieron todas las alarmas en Gipuzkoa, ya que era por todos conocido que el desenlace de los enfrentamientos en torno a la capital e Irun constituían la clave de la guerra en Gipuzkoa.

A los pocos días, el 17 de septiembre, los fascistas conquistaron Ormaiztegi y Gabiria y resultó más que evidente que podían llegar a Legazpi en cualquier momento, por lo que se organizó la evacuación del municipio a las órdenes del cabo de Miqueletes Ángel Murua Alkorta. Para la evacuación fueron confiscados varios vehículos.

Fueron muchos los legazpiarras que ante la inminente llegada de los rebeldes optaron por huir o esconderse. La mayoría de los que huían o se escondían (varones fundamentalmente) lo hicieron con la intención de regresar días o semanas más tarde, cuando la situación se hubiera normalizado mínimamente.

Hemos escuchado numerosas anécdotas en boca de las personas entrevistadas relacionadas con aquel éxodo masivo y generalizado. Por citar un ejemplo, los cabeza de familia de Motxorro y Mirandaola (José Antonio Aranburu e

Ihesaren irudiak, Gipuzkoako herriren batean.
Imágenes del éxodo en algún lugar de Gipuzkoa.









Euskal Memoria Fundazioa

Lehen uneko ihesaldiaren edo ezkutatzearen neurriaz jabetzeko oso adierazgarria da Legazpiren konkistari buruzko informazioa jasotzeko elkarrizketatu ditugun lekukoek, behin eta berriz, esandakoa. Erreketeen eta falangisten buruek honela galdetzen omen zieten konkistatu berri zuten Legazpiko etxeetako eta baserrietako emakumezko izutuei, bertan ia gizonik ez zela ageri ikusita: *¿pero… donde están los hombres? (baina… non daude gizonak?)*. Hasieran, beraz, gizonezko gehienak (gazteak, bereziki) ezkutatu egin ziren edo ihes egin zuten Legazpitik. Gehienak hurrengo egunetan, asteetan edo hilabeteetan itzuli ziren herrira.

Beste askok, ordea, luzerako alde egin zuten. Horien artean ziren politikagintzan aritutako legazpiarrak —ezkertiarrak edo abertzaleak—, zinegotziak, alderdietako buruak eta militanteak... Batzuetan familiak ere eurekin eraman zituzten. Bestetik, ihesi joandako legazpiarren artean zeuden gudari edo miliziano aritzeko prest zeuden gazteak. Batzuen eta besteen artean, guztira, 300 inguruk (Udal Artxibategiko datuen arabera) alde egin zuten luzerako. Ez da kopuru txikia, Legazpik 2.400 biztanle baino ez zituela kontuan izanik.

Ehunka legazpiarrek, hortaz, ahal izan zituzten gauzak presaka bilduta eta aldean hartuta, senideak eta lagunak agurtu eta alde egin zuten herritik, kezkaz eta beldurrez. Hala hasi zen ehunka legazpiarren ihes luzea, minez eta



Euskal Memoria Fundazioa

Irungo biztanleen exodoa, Molaren tropak herrian sartu baino lehentxeago.

Éxodo de los habitantes de Irun, poco antes de que las tropas de Mola tomaran el pueblo.

Molaren tropen aurrerakadak milaka gipuzkoarren ihesa eragin zuen.

El avance de las tropas de Mola provocó la huída de miles de guipuzcoanos.



Euskal Memoria Fundazioa

Isidro Olabide), se escondieron en un agujero en Korostiaga, y allí estuvieron durante una semana presas del miedo. No habían huido de Legazpi por tener mucha familia a la que atender.

Para hacerse una idea de la dimensión de la desbandada de esos primeros momentos previos a la conquista, es un dato muy significativo el aportado por las personas que vivieron los momentos posteriores a la conquista en primera persona que hemos podido entrevistar. Muchas de esas personas nos han relatado que los requetés y falangistas que tomaron el pueblo, repetían la misma pregunta a las aterrorizadas mujeres que encontraron en las casas o caseríos de Legazpi: *"¿pero… dónde están los hombres?"* Y es que, una gran parte de los hombres (sobre todo los jóvenes) habían optado por huir o por esconderse en esos primeros días. La mayoría de ellos, volvería a los siguientes días, semanas o meses.

Otros, por el contrario, marcharon para largo. Entre esos últimos estaban los legazpiarras que más se habían implicado en política: concejales, cuadros dirigentes de partidos y sindicatos, y militantes de las organizaciones de izquierdas o nacionalistas. Algunas de estas personas partieron acompañados por sus familias. Entre los que marcharon para largo estaban también los legazpiarras que iban a luchar durante los meses siguientes como gudaris o milicianos. Entre unos y otros, alrededor de 300 personas huyeron para largo de Legazpi (según datos del Archivo Municipal). No es una cifra pequeña para un pueblo que sólo tenía en ese momento 2.400 habitantes.



Euskal Memoria Fundazioa

atsekabez betea, gehienetan. Lehenik, Urretxu-Zumarraga aldera joan ziren eta, handik, Azpeitirako bidea hartu zuten. Egun gutxiren buruan, Bizkaia aldera joan behar izan zuten.

300 legazpiar horietako asko, ez ziren inoiz itzuli Legazpira, fronteko borroketan, fusilatuta, espetxean edo erbestean hil ziren eta.

Así pues, cientos de legazpiarras recogieron a toda prisa lo más básico y huyeron con equipaje ligero, impulsados por la preocupación y el temor, después de despedirse de sus familiares y amigos. Así comenzó el largo éxodo para cientos de legazpiarras, un éxodo lleno de dolor y sufrimiento en la mayoría de los casos.

Los evacuados fueron conducidos a Urretxu-Zumarraga y de allí a Azpeitia, desde donde al cabo de unos días tuvieron que ir hacia Bizkaia.

Muchos de esos 300 legazpiarras que partieron antes de la llegada de los fascistas al pueblo, jamás regresarían a Legazpi ya que encontrarían la muerte en el frente de batalla, fusilados, en la cárcel o en el exilio.

## 10 - 1936ko irailaren 19a: Legazpiren konkista odoltsuaren kronika laburra

Irun eta Donostia menpean hartu ondoren, Gipuzkoa hartzera abiatu ziren faxistak, Errepublikaren aldekoen antolaketa eza eta moral baxua aprobetxatuz. Erasoaldiaren helburua Bilboraino iristea zen, eta horretarako, lehenbailehen, tarteko lurraldeak menperatu behar zituzten. Irailaren 15ean hasi zituzten operazioak Gipuzkoako fronte guztian.

Beasain-Brinkola fronte-lerroari dagokionez, matxinatuen menpe ziren ordurako Zegama, Segura, Zerain, Mutiloa, Idiazabal eta Beasain. Errepublikanoen esku ziren, oraindik, Ormaiztegi, Gabiria, eta Legazpi, eta baita Zumarraga, Urretxu eta Oñati ere.

Irailaren 18 eta 20 bitarte konkistatu zuten Legazpi, bi bidetatik etorritako bi taldek, Tejero eta Saleta kapitainen gidaritzapean.

Irailaren 17an faxisten armadako Tejero kapitainaren indarrak Beasainera eraman zituzten Donostiatik, eta egun horretan bertan hartu zituzten Ormaiztegi eta Gabiria. Irailaren 18an hartu zuten Legazpirako bidea, eta 19an, Gabiriatik Arrasetara eta Atagoitira iritsi ziren, eta handik Legazpira. Herrian zeudenek, bazetoztenen tiro hotsak entzun zituzten. Herrigunera goizeko hamarrak aldera sartu ziren, kale zaharretik barrena. Herriko adinduenek gogoan dituzte haien uniformeak, armak (izugarriak ordura arte gudarien eskutan ikusitakoekin alderatuta) eta banderak (karlistenak, falangiste-

## 10 - 19 de septiembre de 1936: breve crónica de la sangrienta conquista de Legazpi

Después de conquistar Irun y Donostia, los sublevados se dirigieron a tomar el resto de Gipuzkoa, aprovechando la falta de organización y la baja moral de los partidarios de la República. El objetivo era llegar hasta Bilbo y, para ello, debían tomar lo antes posible el terreno que les separaba de la capital de Bizkaia. Así, el 15 de septiembre comenzaron las operaciones en todos los frentes de Gipuzkoa.

Por lo que a la línea de frente de Beasain-Brinkola se refiere, Zerain, Mutiloa, Segura, Zegama, Idiazabal y Beasain estaban ya en poder de los golpistas. Por su parte, los partidarios de la República controlaban Ormaiztegi, Gabiria y Legazpi, así como Zumarraga, Urretxu y Oñati.

Entre el 18 y el 20 de septiembre dos grupos a las órdenes de los capitanes Tejero y Saleta, procedieron a conquistar Legazpi.

El 17 de septiembre las fuerzas del capitán Tejero fueron trasladadas desde Donostia a Beasain y ese mismo día conquistaron Ormaiztegi y Gabiria. El día siguiente (18 de septiembre) tomaron rumbo a Legazpi, y el 19 accedieron desde Gabiria a Arraseta y Atagoiti, y desde ahí a Legazpi. Los vecinos que no habían huido del pueblo escuchaban desde los montes los disparos de los que ya venían. Hacia las diez de la mañana de aquel día, entraron en el casco ur-



Kale zaharra, bertatik sartu ziren faxistak Legazpira

Calle vieja, por donde entraron los fascistas a Legazpi

Enrique Guinea Maquibar fondoa-Gasteizko Udala



nak eta gorri-horia). Gogoan dituzte, halaber, herriko sarreran, Etxealai inguruan, faxistek botatako tiroak eta bonbak eta bertako bizilagunek leihotik behera zabaldu zituzten izara zuriak.

Herrigunean ez zuten erresistentzi armaturik topatu; gudariak eta milizianoak joanak ziren ihesi mendebaldeko mendietara. Herrigunera iritsi bezain pronto, Kale Nagusiko batzokian arrapaladan sartu eta leihotik behera bota zituzten Sabino Aranaren irudia, ikurrina, pianoa, liburuak eta dokumentu ugari… Eta kale erdian su eman eta erre zituzten denak. Gauza bera egin zuten Errepublikanoen egoitzan, Errepublikako bandera, bertako liburu, irudi eta dokumentu ugarirekin. Hainbat etxe eta baserritara ere sartu ziren faxistak, abertzaleen eta ezkertiarren bila eta batzuk atxilotu egin zituzten. Gehienak, ordea, joanak ziren. Hutsik aurkitu zituzten etxe askotan (bertakoak alde eginda zeudelako) lapurretak egin zituzten.

Inbaditzaileen beste taldea, Saleta kapitainaren agindupean, Seguratik abiatu eta Aztiritik barrena etorri zen. Tiroketa gogorren ondoren, Brinkola eta Telleriarte menperatu zituen arratsaldeko zazpiak inguru. Ondoren, Legazpiko herrigunean Tejero kapitainaren indarrekin bat egin zuten. Telleriarte eta Brinkolako baserrietara joan eta janaria eta animaliak hartu zituzten bertatik, bizilagun izutuen aurrean. Brinkolan, ordura arte Batzokia eta Zentro Errepublikanoa izandakoak hartu eta bertan egin zuten lo matxinatuek. Telleriarteri dagokionez, bertako Korta baserrian egin zuten lo erreketeek gau horretan (14 oilasko afaldu omen zituzten); falangistek Errautegin egin zuten lo (4 arkume afalduta);

bano de Legazpi a través de la Calle Vieja. Los más mayores todavía recuerdan sus uniformes y armas (impresionantes en comparación con las que habían visto hasta entonces a gudaris y milicianos) y banderas (la carlista, la falangista y la rojigualda). También recuerdan cómo, en la entrada del pueblo, a la altura de Etxealai, los ocupantes abrieron fuego y lanzaron bombas, a lo que los vecinos respondieron desplegando sábanas blancas desde sus ventanas.

Cuando llegaron al casco urbano, no encontraron resistencia armada, ya que los milicianos habían huido hacia las montañas del oeste. Ya en el pueblo entraron violentamente en el batzoki que se situaba en la actual Kale Nagusia y tiraron por la ventana la imagen de Sabino Arana, la ikurriña, el piano, así como libros y documentos varios. Acto seguido, les prendieron fuego en mitad de la calle. Hicieron otro tanto en el Centro Republicano con la bandera republicana, los libros, las imágenes y una gran cantidad de documentos. También irrumpieron en varias casas en busca de personas abertzales e izquierdistas, deteniendo a varias de ellas. La gran mayoría, no obstante, había huido. Hubo también robos en varias casas que encontraron vacías (porque sus moradores habían huido ya del pueblo).

El otro grupo de invasores dirigido por el capitán Saleta, partió de Segura y se dirigió hacia Aztiri. Tras duros tiroteos, tomaron Brinkola y Telleriarte hacia las siete de la tarde. Posteriormente tomaron contacto con el grupo del capitán Tejero. El grupo de Saleta entró a los caseríos de Telleriarte y Brinkola y se apropiaron de comida y animales, ante la aterrada mirada de los vecinos. En Brinkola, los invasores ocuparon y pernoctaron en los que hasta entonces habían sido el Batzoki y el Centro Republicano. Por lo que se refiere a Telleriarte, los requetés durmieron en el caserío



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



# Konkista
# La conquista

* Bando nazionaleko indarrek 1936ko irailaren 19an hartu zuten Legazpi. Ez dugu gertaera hari buruzko argazkirik topatu. Argazki hauek Oiartzun, Irun, Donostia, Elgoibar eta beste zenbait herri mendean hartu zituztenekoak dira.

* El 19 de septiembre de 1936 las fuerzas del bando nacional tomaron Legazpi. No hemos encontrado ninguna fotografía del suceso. Estas fotografías corresponden a las conquistas de Oiartzun, Irun, Donostia, Elgoibar…



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa


Euskal Memoria Fundazioa

Nafarroako Falangearen Bigarren Bandera, Lizarrako soldaduek osatua. Argazkia Seguran hartua da.

Segunda Bandera de la Falange Navarra realizada por soldados de Lizarra. La foto fue tomada en Segura.



Euskal Memoria Fundazioa

soldadu arruntek kanpin dendetan egin zuten lo; eta buruek Elorregin, besteek ez bezala, ohean (2 arkume afaldu zituzten). Etxe horietako emakumeek ez zuten lasai lo egin gau horretan, beldurrak airean.

Horrela, Gipuzkoa osoko frontean hasitako erasoaldi arrakastatsuan Legazpi konkistatu zuten irailaren 19an, beste hainbat herri bezala. Langintza horretan, Espainiako Armadako militarrez gain, erreketeak eta falangistak ere aritu ziren, lekukoek ondo gogoan dutenez.

Biharamunean, euren erasoarekin jarraituz, Oñati aldera eta Urretxu-Zumarraga ingurura egin zuten faxistek, Saleta eta Tejeroren agindupean, hurrenez hurren. Hori bai, hartu berri zuten Legazpin militar faxisten taldea utzi zuten, hurrengo egunetako errepresioa bideratzeko. Ondorengo egunetan, jendea atxilotu eta fusilatu zuten.

Legazpiko erasoaldia ez zen Gipuzkoan gerra pasarte odoltsuenetakoa izan, baina tiroketak eta borrokak izan ziren inguruko mendietan. Horietan, inbaditzaileen artean izan ziren zaurituak, ez, ordea, hildakoak. Faxisten aurkako borrokan aritu zirenen artean, berriz, Legazpiren defentsan jardundako sei boluntario hil zituzten faxistek: hiru legazpiar eta Legazpitik kanpoko beste hiru lagun.

Korta (cuentan que se comieron 14 pollos); los falangistas en Errautegi (cenaron cuatro corderos), mientras que los soldados durmieron en tiendas de campaña. Los mandos militares, por último, pasaron la noche en Elorregi; a diferencia de la tropa durmieron en camas, y dieron cuenta de dos corderos. Las mujeres de las casas mencionadas pasaron la noche en vilo, con el miedo a flor de piel.

Legazpi cayó, por lo tanto, el 19 de septiembre de 1936 dentro de la ofensiva general desatada en toda Gipuzkoa. La conquista se materializó con la participación de tropas del ejército español, de los requetés y de los falangistas, como bien recuerdan los testigos.

Al día siguiente de la toma, los sublevados continuaron con su ofensiva y se dirigieron hacia Oñati y Urretxu-Zumarraga a las órdenes de Saleta y Tejero, respectivamente, pero dejaron una dotación militar en Legazpi que se encargó de dirigir la represión de los días posteriores a la conquista. Esos días, hubo detenciones y fusilamientos en Legazpi.

El ataque contra Legazpi no fue uno de los más sangrientos de Gipuzkoa, pero hubo duros tiroteos y numerosas luchas en los montes de alrededor. Según los datos que hemos podido recabar, en esos enfrentamientos no falleció ningún efectivo del bando ocupante, aunque sí resultaron heridos varios de ellos. Entre los que lucharon para defender Legazpi, en cambio, los fascistas mataron a seis voluntarios: tres legazpiarras y tres foráneos.

## 11 - Gudariak eta milizianoak borrokan Legazpi defendatzeko; hainbat pasarte

Legazpi defendatzen aritu ziren gudariak eta milizianoak ia armarik gabe eta militarki oso era ahulean antolatuta zeuden. Tomas Zubizarreta euskal milizietako kapitain urretxuarrari eman zioten azken unean Legazpiko defentsa antolatzearen ardura. Helburu bikoitza zuten: faxisten aurrerakada ahalik eta gehien zailtzea, batetik, eta Legazpitik jendea atera ahal izateko denbora lortzea, bestetik.

Legazpi konkistatzeko mugimenduak irailaren 18an hasi zituzten faxistek, Legazpiko frontean Errepublikaren aldekoek zituzten posizioak estutzen eta erasotzen. Atagoitiko tiroketetan hil zuten **Maximino Tapioles Llamas**, Bizkaitik etorritako milizianoa. Irailaren 18tik 19rako goizaldean hasi zen behin betiko erasoaldia. Liskar eta tiroketa latzak izan ziren Aztiri eta Ormakio bitarteko mendietan. Aztiri inguruan, **Alfonso Alonso Fernandez** legazpiarra hil zuten faxistek, lepoaldean tiro emanda. Bi hildako horiez gain, zauritu ugari izan ziren Atagoitin eta Aztirin.

Faxisten aurrerakada ez zen haiek uste bezain erraza izan. Gudarien eta milizianoen erresistentzia medio, ia egun osoa behar izan zuten Legazpiko posizioak hartzeko. Nagusitu egin ziren, ordea, eta faxistek aurrera egin ahala, atzera jo zuten milizianoek, mendebaldeko mendietara: Udanara, Korostiagara, Arrolamendi aldera...

## 11 - Algunos episodios de la lucha de gudaris y milicianos en la defensa de Legazpi

Los gudaris y milicianos que defendieron Legazpi lo hicieron sin apenas armas con que enfrentarse al enemigo y débilmente organizados. En el último momento, la responsabilidad de organizar la defensa del pueblo recayó en manos del capitán urretxuarra Tomás Zubizarreta, de las milicias vascas. Los resistentes tenían un doble objetivo: dificultar todo lo posible el avance de los fascistas y ganar tiempo para poder realizar la evacuación de Legazpi.

Las tropas sublevadas iniciaron los movimientos para conquistar Legazpi el 18 de septiembre, presionando y atacando las posiciones de los defensores de la República. Ese mismo día en los tiroteos de Atagoiti falleció **Maximino Tapioles Llamas**, miliciano llegado desde Bizkaia. En la madrugada entre el 18 y el 19 se desencadenó el ataque definitivo y se vivieron duros combates y tiroteos en los montes situados entre Aztiri y Ormakio. En las inmediaciones de Aztiri mataron al legazpiarra **Alfonso Alonso Fernández**, alcanzado por un disparo en el cuello. Además de esos dos fallecidos en Atagoiti y Aztiri, hubo un número de heridos que no hemos podido determinar.

Con todo, el avance de los ocupantes no fue seguramente tan fácil como ellos preveían, ya que debido a la resistencia de los milicianos necesitaron todo el día para hacerse con las posiciones de Legazpi. Finalmente, sin embargo, los fascistas se impusieron y a medida que avanzaban estos, los milicianos se replegaron hacia los montes del oeste, hacia Udana, Korostiaga y Arrolamendi.

Herrigunea hartzean ez ziren borrokak eta tiroketak bukatu. Adindu askok gogoan dute, oraindik, Udanan gertatutakoa. Irailaren 20an, Legazpi konkistatu eta biharamunean, Oñatitik milizianoz eta gudariz betetako kamioia iritsi zen, kolpistei aurre egiteko asmoz. Udana inguruan erreketeak azaldu ziren, eta tiroketa izan zen. Tiroketa hartan, kamioi gidaria, **Paciano Ituarte Corres** oñatiarra, zauritu eta atxilotu zuten. Handik egun batzuetara fusilatu zuten, berriro ere Udanara eramanda. Taldeko gainerakoek ihesari eman zioten, baina gazte bat, **Julian Perez Kareaga** legazpiarra, tiroz zauritu zuten ihesi zihoala, eta harrapatu eta hantxe bertan fusilatu zuten.

Udanatik ihes egitea lortu zutenek Korostiaga aldera jo zuten, eta bertan zeuden gudariekin eta milizianoekin bat egin. Matxinatuak haien atzetik Korostiagara iritsi eta mendia zorrotz arakatu zuten. Tiroketak izan ziren eta faxistak erraz nagusitu eta hamar gazte inguru atxilotu zituzten, horietako batzuk zaurituta. Atxilotuetako bat (Udanara kamioiz etorritako **Felix Ugarte Berasategi** oñatiarra), bederatzi egunez haien esku izan eta gero, Udanara eraman eta fusilatu egin zuten. Ihes egitea lortu zutenek, Oñati eta Antzuola aldera jo zuten.

Tomas Zubizarreta Gurrutxaga urretxuarra, EAE-ANVko kidea eta euskal milizietako kapitaina. Matxinatuen erasoaldia iristear zela, bera arduratu zen Legazpiko defentsa antolatzeaz.

El urretxuarra Tomás Zubizarreta Gurrutxaga, miembro de ANV y capitán de las milicias vascas. Cuando el ataque de los sublevados era inminente, asumió la responsabilidad de organizar la defensa de Legazpi.



Artxibo partikularra

Muchas personas mayores todavía recuerdan cómo los tiroteos no finalizaron con la toma del pueblo y recuerdan especialmente lo sucedido en Udana al día siguiente de la conquista de Legazpi, el 20 de septiembre de 1936. Ese día, venía desde Oñati hacia Legazpi un camión con milicianos y gudaris dispuestos a hacer frente a los golpistas, pero en las inmediaciones de Udana aparecieron los requetés y se entabló un tiroteo. En aquel tiroteo hirieron y detuvieron al conductor del camión, el oñatiarra **Paciano Ituarte Corres**. Al cabo de unos días lo llevaron nuevamente a Udana y lo fusilaron. El resto de milicianos consiguió huir, pero el joven legazpiarra **Julián Pérez Kareaga** recibió un disparo mientras huía. Poco después, fue apresado y lo fusilaron allí mismo.

Los que consiguieron huir de Udana se fueron hacia Korostiaga y allí se unieron a otros gudaris y milicianos. Los rebeldes llegaron tras sus pasos y realizaron batidas en busca de los huidos. Hubo tiroteos y escaramuzas en los que los ocupantes se impusieron con facilidad y detuvieron a unos diez jóvenes, algunos de ellos heridos. Uno de los de-



Legazpi, Gabiria, Oñati eta Mutiloako gudari eta milizianoak Ormakio inguruan.

Gudaris y milicianos de Legazpi, Gabiria, Oñati y Mutiloa en las inmediaciones de Ormakio.



Artxibo partikularra

Takolokoa eta Bengolea, Frailenea aldetik.



Artxibo partikularra

Aipatuko dugun azken pasartea, egun batzuk geroago Olaetxe-Bengolea-Takolokoa inguruan gertatutakoa da. Matxinatuek Legazpi hartu eta bi astera (urriaren 4aren eta 5aren arteko gauean), haien aurkako talde armatu bat etorri zen Legazpira, sabotaje bat egin asmoz: Patrizio Etxeberriaren fabrikari argindarra ematen zion Bengoleako turbina elektriko bat apurtu nahi omen zuten. Handik gertu, ordea, Takolokoan, militarrak zeuden kanpatuta, eta taldea tiroka hartu zuten. Tiroketa gogorrak izan ziren gau hartan, bi ordu edo iraun zutenak. Bertan hil zuten talde horrekin gidari gisa etorritako **Pedro Belasko Otsoa de Alda**, 22 urteko gazte legazpiarra.

tenidos, el gudari oñatiarra **Félix Ugarte Berasategi**, que había llegado en el camión de Udana, lo mantuvieron en sus manos durante nueve días para después llevarlo nuevamente a Udana y fusilarlo. Los milicianos que lograron escapar, partieron hacia Oñati y Antzuola.

El último suceso que vamos a comentar tuvo lugar días después en los alrededores de Olaetxe-Bengolea-Takolokoa. Dos semanas después de que los golpistas tomaran el pueblo (la noche entre el 4 y el 5 de octubre), un grupo de milicianos llegó a Legazpi con la intención, según parece, de realizar un sabotaje contra la turbina eléctrica ubicada en Bengolea y que suministraba electricidad a la fábrica de Patricio Etxeberria. Pero cerca de allí, en los alrededores de Takolokoa, estaban acampados los militares y recibieron al grupo antifascista a tiros. Los intensos tiroteos de aquella noche se prolongaron por espacio de dos horas, aproximadamente, y en ellos murió el joven legazpiarra de 22 años **Pedro Belasko Otsoa de Alda** que había llegado en ese grupo ejerciendo de guía.

## 12 - Fusilamenduak Legazpin eta Legazpitik kanpo fusilatutako legazpiarrak

Ordura arte hartutako gainerako herrietan bezala, faxistek Legazpi mendean hartu zutenean fusilamenduak izan ziren. Hauexek izan ziren Legazpi menperatu eta hurrengo egunetan fusilatu zituzten zazpi herritarrak, legazpiarrak batzuk eta legazpiarrak ez izan arren Legazpin fusilatuak beste batzuk:

## 12 - Fusilamientos en Legazpi y legazpiarras fusilados

Como en el resto de plazas tomadas por los sublevados, los fusilamientos en Legazpi comenzaron nada más tomar el pueblo. Estas fueron las siete personas fusiladas después de la conquista, legazpiarras unos y foráneos fusilados en Legazpi los restantes:

- **Julián Pérez Kareaga** legazpiarra. Legazpin fusilatua, 1936/09/20.
- **Paciano Ituarte Corres** oñatiarra. Legazpin fusilatua, 1936/09/21.
- **Aureliano Fernández Ruiz de Larrea** legazpiarra. Legazpin fusilatua, 1936/09/21.
- **Celestino Azurmendi Arrondo** legazpiarra. Aizpurutxon fusilatua, 1936/09/23.
- **Felix Ugarte Berasategi** oñatiarra. Legazpin fusilatua, 1936/09/29.
- **José Mari Mendiola Gutiérrez de la Concha** legazpiarra. Urretxu/Zumarraga inguruan fusilatua, 1936/09/…
- **Pako Bidaburu Aranburuzabala** arrasatearra. Legazpin fusilatua, 1936/10/04.




Legazpiko Udal Artxiboa

Sagastiberriko zubia, XX. mende hasierako plano batean, Frailenea eta Takolokoa bitartean.
El puente de Sagastiberri en un plano del siglo XX, entre Frailenea y Takolokoa.

Zazpi fusilamendu horiek bi asteko epean gertatu ziren, herria hartu eta oso egun gutxira gehienak. Fusilatuetako batzuk Jose Antonio Larrea herriko parrokoarengana eraman zituzten hil baino lehenago, gauez, konfesatzera. Hil behar zituztenak inolako errespeturik gabe eramaten omen zituzten apaizaren aurrera, *"aquí te traemos a otro pájaro"* (*"hemen dakarkizugu beste azeri bat"*) eta tankera horretakoak esanez. Parrokoak askotan entzun behar izan zituen hiltzera zihoazen gazteen azken hitzak; errugabetasun aitorpenak, emazteari edo senideei esan edo eman beharrekoei buruzko azalpenak... Ondoren, bertatik eramaten eta edozein bazterretan fusilatzen zituzten.


Euskal Memoria Fundazioa

Egun horietan gertatutako fusilamenduez gain, beste bost legazpiar fusilatu zituzten faxistek gerrak iraun bitartean, horietako bat Legazpin bertan eta gainerakoak kanpoan. Hona hemen horien izenak, fusilatze dataren araberako hurrenkeran:

Los siete fueron fusilados en el plazo de dos semanas, la mayoría a los pocos días de tomar el pueblo. Algunos de estos fusilados fueron llevados de noche ante José Antonio Larrea, párroco de Legazpi, para que fueran confesados antes de morir. Parece ser que los que iban a ser fusilados fueron tratados sin ningún tipo de respeto incluso delante del párroco, al que los captores se presentaban diciéndole "*aquí te traemos a otro pájaro*" y frases del estilo. El párroco tuvo que oír las últimas palabras de esos jóvenes poco antes de ser fusilados: confesiones de inocencia, explicaciones sobre lo que debía decirles o darles a los familiares, etc. Posteriormente, se los llevaban y los fusilaban en cualquier lugar.


Euskal Memoria Fundazioa

Además de los ejecutados esos primeros días, otros cinco legazpiarras fueron fusilados mientras duró la guerra; uno de ellos en Legazpi y los otros cuatro fuera del pueblo. He aquí sus nombres, ordenados en función de la fecha de ejecución:

- **Evaristo Mendia Zabalo**. Beasain, 1936/07/28.
- **José Larrañaga Lizarralde**. Legazpi, 1937/05/04.
- **Esteban Madina Aiastui**. Larrabetzu (Bizkaia), 1937/…/…
- **Jesús Peña Etxeberria**. Santander (Kantabria, Espainia), 1937/08/30.
- **Alejandro Gordoa Bengoetxea**. Bilbo (Bizkaia), 1939/…/…

Fusilatutako legazpiar batzuk etsaiaren esku eroritako gudariak edo milizianoak ziren, atxiloketa unean bertan edo geroago fusilatuak. Aipagarria da J**esus Peña** gudariaren kasua, ospitaleko ohetik altxarazi eta fusilatu baitzuten. **Alejandro Gordoa** milizianoa,berriz, Larrinagako espetxetik atera eta fusilatu omen zuten.

Gainerakoak euren jarduerengatik edo iritzi politikoengatik fusilatutakoak ditugu, abertzale edo ezkertiar izateagatik atxilotuak eta hotz-hotzean hildakoak. Badira arrazoi argiegirik gabe fusilatutako herritar xumeak ere, mendeku edo inbidi pertsonalak tarteko, ziurrenik. Azpimarratzekoa da fusilamendu horiek herrian gelditzea erabaki zutenen artean gertatu zirela, hots, beraien jarduera politikoagatik faxisten jomugan egon zitezkeela uste ez zuten herritarrak zirela, besteek Legazpitik ihes egin baitzuten ordurako.

Ez da erraza irudikatzea fusilamendu horiek guztiek herri txiki hartan eragin zuten zirrara, beldurra eta minaren neurria. Fusilatutako legazpiarren senideek azaldu digutenez, esperientzia izugarri gogorra izan zen. Kasurik gehienetan, gainera, beldurrak jota, ezin izan zieten euren senideei agur esan edo hiletarik egin.

Algunos legazpiarras fusilados eran gudaris o milicianos atrapados por el enemigo, que fueron pasados por las armas en el momento de la detención o a las horas o días de ser apresados. Cabe destacar el caso del gudari **Jesús Peña**, que fue sacado de la cama del hospital donde se encontraba herido para fusilarlo. Por lo que respecta al miliciano **Alejandro Gordoa** fue sacado de la prisión de Larrinaga en Bilbo para llevarlo al paredón.

El resto fue fusilado por sus actividades u opiniones políticas, detenidos por ser abertzales o izquierdistas y asesinados a sangre fría. También hay vecinos que fueron fusilados sin un claro motivo, movidos por la venganza o por envidias personales probablemente. Todas ellas eran personas del grupo de vecinos que no abandonaron Legazpi ante la llegada de los ocupantes, es decir, personas que no esperaban recibir castigo alguno por sus actividades políticas o de otro tipo, ya que los que pensaban lo contrario habían optado por abandonar el pueblo.

No es fácil imaginar la conmoción, el miedo y el dolor que todos esos fusilamientos causarían en el pueblo. Según nos han contado familiares de los legazpiarras fusilados, la experiencia fue increíblemente dura. En muchos casos, además, las familias no pudieron despedirse o hacer un funeral para sus seres queridos fallecidos.



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



*

**Fusilamenduak** 36ko gerran Hego Euskal Herrian 6.320 pertsona fusilatu zituztela uste da; 5.550 bando nazionalak hilak eta 769 bando errepublikanoak.

Legazpin bando errepublikanokoek ez zuten inor fusilatu, aitzitik, gerra garaian fusilatutako bederatzi legazpiarrak frankistek hil zituzten. Frankistek herrian beste bi oñatiar eta arrasatear bat ere fusilatu zituzten. Atal honetako argazkiak ez dira Legazpikoak.

**Fusilamientos** Se calcula que los fusilados en Hego Euskal Herria a lo largo de la guerra del 36 pudieron ser en torno a los 6.320: 5.550 realizados por el bando nacional y 769 por el bando republicano.

En Legazpi los del bando republicano no fusilaron a nadie. Los nueve fusilados legazpiarras durante la guerra, murieron todos ellos a manos de los franquistas. Tambien fueron obra suya los fusilamientos de dos oñatiarras y un arrasatearra sucedidos en nuestro municipio. Las fotografías de este capítulo no corresponden a Legazpi.

## 13 - Menpean hartutako herri bateko biztanleen bizipenak: ongi etorririk ez faxistei eta beldurra eta izua nagusi

Faxistak Legazpiko herrigunera iritsitakoan, inor gutxi atera zen kalera inbaditzaileei ongi etorria egitera eta txalotzera; herriko hamarnaka karlista batzuk besterik ez. Horiek guztiek eta etxeetan gelditu ziren beste zenbaitek pozez hartu zuten herria *"askatu"* izana.

Ez zen hori izan, ordea, legazpiar gehienen sentimendua. Herrian geratu ziren gehienak izuak hartuta zeuden, etxeetan babestuta. Faxistek erakutsitako jarrerarekin ikaratuta, eta eurei edo alde egin zuten seme-alabei, anai-arrebei, edo gainerako senideei edo lagunei egin ahal zietenaren beldur.

Egun horietan shock egoeran zegoen herria. Gerra piztu zenetik bi hilabete pasatu zirenean, faxistak Legazpira iritsiak ziren, armatuak, batetik bestera, bazterrak txikitzen eta herritarrak izutzen. Ez zen erraza ordu gutxitan gertatutako guztia barneratzea: ia egun batetik bestera, herritar asko falta ziren, ihesi edo gudara joanak; herriko ordezkariak eta elementu dinamikoak falta ziren, haiek ere ihesi joanak; etxe gehienetan falta zen norbait: semea, alaba, anaia, arreba, aita, ama, laguna… Tiro hotsak ere behin eta berriz entzun zituzten irailaren 18, 19 eta 20an herrian geratutakoek handik eta hemendik, Legazpi inguruko mendietatik. Eta gudariak eta milizianoak korrika ikusi zituzten, atzeraka, atzeraka... Erdi ezkutuan, berri gogorrak iritsi ziren, oso gogorrak, Legazpi bertatik: hildakoak, fusilatuak, atxilotuak, torturatuak…

## 13 - Vivencias de un pueblo sometido: no hubo grandes bienvenidas; y el miedo y el pánico se adueñaron del pueblo

Cuando los fascistas llegaron al pueblo apenas nadie acudió a dar la bienvenida o a aplaudir a los invasores, no más de algunas decenas de carlistas locales. No cabe duda de que esos pocos legazpiarras que salieron a la calle a recibir a los invasores y algunos más que se quedaron en sus casas se alegrarían por la "*liberación*" del pueblo.

Pero no fue ese el sentir mayoritario de los legazpiarras, y la mayoría de los que habían optado por quedarse en el pueblo se refugiaron en sus casas. Estaban atemorizados por la forma de actuar de los ocupantes y temían por lo que les pudieran hacer a ellos o a sus hijos, hermanos, familiares o amigos huidos.

Se puede decir que esos días el pueblo vivió una situación de shock. Dos meses después del comienzo de la guerra los sublevados habían llegado a Legazpi, armados, y ahí andaban de un lado para otro destrozando bienes y amedrentando a los vecinos. No era fácil asumir los cambios sucedidos en pocas horas: casi de la noche a la mañana faltaban muchos vecinos que habían huido; prácticamente no quedaba ningún representante del pueblo y los elementos más dinámicos también habían huido; en la mayoría de las casas faltaba un familiar o allegado cercano... Los vecinos que habían decidido quedarse en casa oyeron tiros, aquí y allá, en los días 18, 19 y 20, y vieron cómo los gudaris y milicianos del pueblo huían en retirada. Casi en secreto llegaban noticias terroríficas desde el propio pueblo: muertos, fusilados, detenidos, torturados...

Egia esan, ez da erraza Legazpiko etxe gehienetan egun haietan sentitutako samina, beldurra eta larritasuna irudikatzen.

No resulta fácil imaginar el dolor, el miedo y la angustia vivida aquellos días en la mayoría de las familias de Legazpi.

Legazpiko erreketeak.
Requetés de Legazpi.



Lucio Vergara - Lenbur

## 14 - Agintari berriak Legazpiko Udalean; sinbologia berria herrian

Indarrez lortutako boterea lehen unetik baliatu zuten inbaditzaileek. Legazpi hartu eta biharamunean bertan, herritarren ikuskatzea egin nahi izan zuten, eta plazara deitu zituzten herritarrak, Manuel Martín komandante militarraren aurrera.

Irailaren 22an, Legazpin (eta baita Urretxun, Zumarragan eta Ezkion ere) buru jardun zuen Manuel Martin komandanteak berak, Legazpiko Udal legitimoa (herritarrek aukeratua) ordezkatzeko batzorde bat eta alkate berria izendatu zituen. Jose Etxeberria Agirre (Patrizio Etxeberriaren semea) jarri zuen alkate. Honako herritarrek osatu zuten udal batzorde berria: Lucio Sarasola, Juan Plazaola, Hermogenes Arrizabalaga, Justo Urzelai, Pedro Galfarsoro, Jose Maria Bereziartu eta Segundo Odria. Arrazoi profesionalak tarteko, 1937ko martxoan alkate postua utzi zuen Jose Etxeberriak, eta Tomas Etxeberriak (Patrizio Etxeberriaren fabrikako gerentea) hartu zuen haren lekua.

Sinbologia aldetik ere, bat-batekoa izan zen aldaketa. Ikurrina eta bandera errepublikanoa debekatuta, Espainiako bandera gorri-horia inposatu zuten. Errepublika garaian toki publikoetatik at gelditu ziren ikur katolikoak ere (gurutzeak, zehazki) berriro jarri zituzten udaletxean, eskolan eta gainerako toki publikoetan. Eta, jakina, debekatu egin zituzten sindikatuen eta alderdi abertzaleen edo ezkertiarren ikur guztiak.


Artxibo partikularra

José Etxeberria Agirre

Tomás Etxeberria Elorza



Artxibo partikularra

## 14 - Nuevas autoridades en el Ayuntamiento de Legazpi. Nueva simbología.

Los conquistadores ejercieron desde el primer momento el poder conseguido por la fuerza de las armas. Al día siguiente de tomar Legazpi, pasaron revista a los vecinos, y los llamaron a comparecer ante Manuel Martín, comandante militar de la plaza. El 22 de septiembre el citado comandante (también al mando en Urretxu, Zumarraga y Ezkio) designó una gestora y un nuevo alcalde para sustituir a los representantes legítimos. Nombró alcalde a José Etxeberria Agirre (hijo de Patricio Etxeberria) y además del citado integraron la nueva gestora Lucio Sarasola, Juan Plazaola, Hermógenes Arrizabalaga, Justo Urzelai, Pedro Galfarsoro, José María Bereziartu y Segundo Odria. Alegando motivos profesionales, en marzo de 1937 José Etxeberria dejó la alcaldía y Tomás Etxeberria (gerente de la fábrica de Patricio Etxeberria) ocupó su lugar.

También se dio un cambio inmediato en lo que a la simbología se refiere: prohibieron la ikurriña y la bandera republicana, e impusieron la bandera rojigualda. Los símbolos católicos (sobre todo la cruz) que habían sido retirados en tiempos de la República, volvieron a ser colocados en el ayuntamiento, en la escuela y en los demás lugares públicos. Por último, también fueron prohibidos todos los símbolos de los sindicatos y partidos abertzales o de izquierda.



Lucio Vergara - Lenbur



*

## Manifestazioak Legazpin

Gerrak iraun zuen bitartean, manifestazioak antolatu zituzten frankistek, euren armadaren aurrerapenak ospatzeko edo bando nazionalean hildako martiriak gogoratzeko. Irudian, Legazpi hartu eta egun gutxitara gertatutako Alcazar de Toledoko garaipena ospatzen. Espiritu hark gerra bukatutakoan ere iraun zuen.

## Manifestaciones en Legazpi

Mientras duró la guerra los franquistas organizaron manifestaciones para celebrar el avance del ejército fascista y para homenajear a los mártires muertos del bando nacional. Imagen de la celebración de la toma del Alcázar de Toledo, pocos días después de la ocupación de Legazpi. Ese espíritu continuó también tras finalizar la guerra.

## 15 - Legazpi faxisten esku erori ondoren, beste bi urte eta erdi iraun zituen gerrak, 1939ko apirilean amaitu zen arte

Borrokaldi latzen ondoren, 1936ko irailean ia Gipuzkoa osoa faxisten menpe zegoen. Gipuzkoan aurrera egin ahala, geroz eta erresistentzi gogorragoa aurkitu zuten bidean. Ondorioz, faxistek ezin izan zuten Bilboraino iritsi eta Bizkaiko muga inguruan ezarri zen fronte-lerro berria: Ondarru (frankisten esku), Berriatua (errepublikanoen esku), Kalamendi, Kalamua eta Akondia mendiak; Eibar (errepublikanoen esku); Elgeta eta Intxorta mendatea; Udalatx, Memaia, Betsaide, Zabalandi, Urkiola eta Saibi.

Errepublikaren aldekoek Gipuzkoa galdu izanaren arrazoi nagusia bi bandoen arteko desoreka izan zen: faxistek egoki armatutako armada profesionala zuten bitartean, aurrez aurre arma gutxirekin jardun behar izan zuen miliziano boluntario multzoa zuten. Errepublikaren alde Gipuzkoan aritu ziren indarrei ere ez zieten bat ere lagundu beraien arteko barne zatiketek eta koordinazio ezak.

Gipuzkoa galdu eta berehala, 1936ko urriaren 1ean, Autonomia Estatutua onartu zuten Espainiako Gorteek. Urteak zeramatzaten abertzaleek estatutua aldarrikatzen, baina negoziazio luzeen ondoren, gerran sartuta iritsi zen onarpena. Handik astebetera eratu zen lehenengo Eusko Jaurlaritza Gernikan. Kontzentrazio-gobernua izan zen, Errepublikaren alde ari ziren hainbat joeretako kideek osatua. EAJko Jose Antonio Agirre izan zen lehendakaria eta honakoak sailbu-

## 15 - Tras la toma de Legazpi, la guerra duró otros dos años y medio más, hasta que finalizó en abril de 1939

Conforme la ofensiva avanzaba por Gipuzkoa, las tropas sublevadas tuvieron que enfrentarse a una resistencia progresivamente mayor. En consecuencia, no pudieron llegar hasta Bilbo, y la nueva línea del frente se estableció cerca de la frontera con Bizkaia en torno a los siguientes enclaves: Ondarroa (en manos de los franquistas), Berriatua (en poder de los republicanos), los montes Kalamua, Kalamendi y Akondia; Eibar (fiel a la República); Elgeta y las cumbres de Intxorta; Udalatx; Memaza, Betsaide, Zabalandi, Urkiola y Saibi.

Uno de los motivos del desenlace de la guerra en Gipuzkoa fue la enorme desigualdad entre los dos bandos enfrentados, ya que mientras los fascistas contaban con un ejército profesional bien armado, el bando republicano contaba sobre todo con grupos de milicianos voluntarios sin apenas armamento ni preparación militar. Por otro lado, la falta de cohesión y organización del bando republicano hizo más difícil, aún si cabe, la lucha contra los sublevados.

Nada más perder Gipuzkoa, el 1 de octubre de 1936 las Cortes españolas aprobaron el Estatuto de Autonomía vasco. Los abertzales llevaban años reivindicando el estatuto, pero la aceptación llegó en plena guerra tras un largo proceso de negociación. Una semana más tarde se constituyó en Gernika el primer Gobierno Vasco. Fue un gobierno de concentración, formado por miembros de diversas tendencias favorables a la República: El lehendakari fue José An-



José Antonio Agirre.



OCTUBRE
2
Viernes
Bilbao, 1936

Euzkadi

Una histórica sesión en las Cortes españolas

# Por aclamación fué aprobado ayer el Estatuto vasco

Un emocionante discurso de nuestro diputado don José Antonio de Agirre, acogido con vivas muestras de respeto y simpatía por todos los parlamentarios

Afirmó en él el cristianismo, el espíritu de libertad y el elevado sentido social de la organización patriótica vasca

Nabarra podría incorporarse al territorio autónomo cumpliendo los requisitos constitucionales oportunos

¡¡ITXARKUNDIA!!

ESTATUTOA LORTU DEGU

Azkatasuna gurekin!!

Nueva responsabilidad

Ante la aprobación del Estatuto

El gobernador de Bizkaya da cuenta de la aprobación del Estatuto vasco

Abando-Bilbao

ruak: Telesforo Monzon (EAJ-PNV), Jesus Maria Leizaola (EAJ-PNV), Heliodoro de la Torre (EAJ-PNV), Ramon Maria Aldasoro (*Izquierda Republicana*), Juan de los Toyos (PSOE), Santiago Aznar (PSOE), Juan Gracia (PSOE), Juan Astigarrabia (PCE), Gonzalo Nárdiz (EAE-ANV) eta Alfredo Espinosa (*Unión Republicana*). Gerra bete-betean zela, Bizkaiko defentsa antolatzea izan zen gobernuaren zeregin nagusia.

Gipuzkoako porrotaren ondoren, defentsa era bateratuan antolatzeko borondatea agerikoa zen faxisten aurka ari ziren talde politiko guztien artean, eta Errepublikaren aldekoak hobe antolatu ziren militarki. Zuzendaritza bateratua eratu zuen Jaurlaritzak eta Euskal Armada antolatu zuten, ordura arte sakabanatuta aritu ziren miliziano eta gudari taldeak koordinatuz. Batailoiak alderdika edo joera politikoka antolatu zeuden eta une batean 60.000 lagun ere aritu ziren Euskal Armadan. Armak lortu zituzten, behar bezainbeste ez ziren arren. Itsas armada ere eratu zuen Jaurlaritzak, eta abiaziorik eza konpontzeko etengabeko ahalegina egin zuen, Madrilgo agintarien aurrean. Gerra beste fase batean sartu zen Euskal Herrian eta erresistentzia askoz ere eraginkorragoa izan zen Bizkaian. Matxinoei Gipuzkoan baino askoz gehiago kostatu zitzaien aurrera egitea, eta bederatzi hilabete behar izan zituzten Bizkaia mendean hartzeko.

Bizkaia menperatzeko ahaleginean, faxistek ez zuten edozein bide hartzeko zalantzarik izan. Aire bidezko bonbardaketak –baita herritar babesgabeen aurkakoak ere— erabili zituzten: 1937ko martxoaren 31n, Durango bonbardatu zuten; apirilaren 26an, Gernika; eta ekainean, burdinazko gerrikoa bonbardatu zuten hainbatetan. 1.000 herritar hil zituzten faxistek Bizkaiko bonbardaketetan: haurrak eta adinduak, emakumeak eta gizonak… Bonbardaketetan hilda-

tonio Agirre del PNV, y los consejeros, Telesforo Monzon (EAJ-PNV), Jesús Maria Leizaola (EAJ-PNV), Heliodoro de la Torre (EAJ-PNV), Ramón Maria Aldasoro (IR -*Izquierda Republicana*), Juan de los Toyos (PSOE), Santiago Aznar (PSOE), Juan Gracia (PSOE), Juan Astigarrabia (PCE -*Partido Comunista de España*), Gonzalo Nárdiz (EAE-ANV) y Alfredo Espinosa (UR -*Unión Republicana*). En plena guerra, el principal cometido del gobierno fue organizar la defensa de Bizkaia.

Después de la derrota de Gipuzkoa, era manifiesta la voluntad de todos los partidos políticos que luchaban contra los fascistas y a favor de la República para organizar la defensa de manera conjunta. Así, de ahí en adelante, la organización militar del bando republicano resultó mucho más efectiva. El Gobierno Vasco organizó una dirección conjunta, y configuró el Ejército Vasco, donde se integraron los grupos de milicianos y gudaris que hasta ese momento habían actuado de manera descoordinada. Los batallones se formaron atendiendo a la adscripción política y de partido y llegaron a alcanzar los 60.000 efectivos. También se consiguieron armas, aunque no todas las necesarias. El Gobierno Vasco formó la marina vasca de guerra y realizó grandes esfuerzos para suplir la falta de aviación tratando de convencer a los dirigentes de Madrid de su necesidad. Se puede afirmar que la guerra entró en otra fase en Euskal Herria y que la resistencia fue mucho más eficaz en Bizkaia. A los sublevados les costó mucho más que en Gipuzkoa avanzar y necesitaron nueve meses para conquistar Bizkaia.

En su afán por tomar Bizkaia, los franquistas no dudaron en utilizar todo tipo de medios, y realizaron incluso bombardeos aéreos contra la población civil indefensa: el 31 de marzo de 1937 bombardearon Durango, el 26 de abril Gernika y en junio bombardearon reiteradamente el cinturón de hierro. Aproximadamente mil personas murieron en los

Euskal tropak Eusko Jaurlaritza sortu berriaren aurrean desfilatzen. Eskuinaldean, Jose Antonio Agirre eta Etxebarria Novoa.
Tropas vascas desfilando delante del recién creado Gobierno Vasco. A la derecha José Antonio Agirre y Etxebarria Novoa.



Euskal Memoria Fundazioa

Batailoi abertzale bat bilboko kaleetan desfilatzen frontera joan baino lehen.
Batallón abertzale, desfilando por Bilbao, antes de partir al frente.



Euskal Memoria Fundazioa



# Tierra Vasca

RESUMEN DE NOTICIAS

## ¡HIJOS DE EUZKADI!

¡POR LA LIBERTAD!

¡A VENCER O A MORIR!

GUERRA A MUERTE AL FASCISMO

Euzko Gudaroste sortu berriko gudarien entrenamendu saioa frontoi batean.
Sesión de entrenamiento de los soldados del recién creado ejercito vasco realizada en un frontón.



Euskal Memoria Fundazioa

Itsasoko gerra. Euskal itsasontziak

Guerra marítima. Barcos vascos.



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa

Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Armada sortutakoan, emakumeek frontea utzi zuten.

Cuando se creó el ejercito vasco las mujeres abandonaron el frente.



Euskal Memoria Fundazioa

koen artean bi legazpiar ditugu: **Juan Alustiza Agirre** gudaria hil zuten Durangoko bonbardaketan eta **Migel Anduaga Unamuno** milizianoa Gernikakoan.

Indarrez aurrera egin zuten faxistek. Horretarako erabakigarria izan zen artilleria astunaren eta abiazioaren erabilera (Eusko Jaurlaritzak ez baitzituen lortu hain beharrezko zituen hegazkinak). 1937ko ekainaren 19an hartu zuten frankistek Bilbo, eta gudariek, milizianoek eta milaka herritarrek mendebaldera egin zuten ihesi, Kantabria aldera. Ia Hego Euskal Herri osoa faxisten esku zen jada.

1937ko udaberrian EAJ errendiziorako ituna sinatzeko aukera aztertzen hasi zen, eta prozesu horretan parte hartu zuten, besteak beste, Juan Ajuriagerra EAJko Bizkai Buru Batzarreko presidenteak, Alberto Onaindia apaizak, Vatikanoak, eta Italiako hainbat militarrek. Hala, 1937ko abuztuaren 24an, Santoñako Ituna sinatu zuten Juan Ajuriagerra EAJko ordezkariak eta Mario Roatta (Manzini) jeneral italiarrak. Akordio horren arabera, Eusko Gudarosteak armak italiarren esku utzi behar zituen eta Santoñan eta Laredon preso zeuzkaten eskuindarren bizitza eta askatasuna ziurtatu behar zuten. Bestalde, italiarrek euskal gudarien eta euskal agintarien bizitza errespetatu behar zuten, erbestera joatea ez zieten oztopatuko, eta Eusko Jaurlaritzaren aldeko jarrera azaldu zutenen aurkako jazarpena ez zuten bultzatuko.




Euskal Memoria Fundazioa

bombardeos sobre Bizkaia, entre ellos, niños, ancianos y mujeres no combatientes. Entre los fallecidos se encuentran dos legazpiarras: el gudari **Juan Alustiza** Agirre fallecido en el bombardeo de Durango y el miliciano **Miguel Anduaga Unamuno** en el de Gernika.

Con esa utilización sin escrúpulos de la violencia y de la fuerza, los sublevados lograron avanzar por Bizkaia. Para inclinar la balanza a su favor resultó decisivo el uso de la artillería pesada y de la aviación (El Gobierno Vasco no consiguió los aviones que tanto necesitaba). El 19 de junio de 1937 los franquistas tomaron Bilbao y los gudaris y los milicianos, así como miles de civiles, tuvieron que huir nuevamente hacia el oeste, hacia Cantabria esta vez. Casi toda Hego Euskal Herria había caído ya en manos de las tropas sublevadas.

Ante el transcurso de la guerra, para la primavera de 1937 el PNV había comenzado a barajar la posibilidad de alcanzar un acuerdo para la rendición. En aquel proceso participaron el presidente del Bizkai Buru Batzar del PNV Juan Ajuriagerra, el sacerdote Alberto Onaindia, el Vaticano, y algunos responsables militares italianos. El 24 de agosto de 1937 el representante del PNV Juan Ajuriagerra y el general italiano Mario Roatta (Manzini) firmaron el Pacto de San-



Euskal Memoria Fundazioa

Bidania inguruan hil zen Mikel Alberdi mendigoizalearen gorpuaren gaubeila.

Velatorio del cuerpo del joven montañero Mikel Alberdi fallecido cerca de Bidania.

# * Hildako lagunak agurtzen

# Despidiendo a los compañeros muertos

Euskal Memoria Fundazioa



Lenago-il batailoiko bi milizianoen ehorzketa, Kalamuko (Eibar) frontean hilak.

Entierro de dos milicianos del batallón Lenago-il fallecidos en el frente de Kalamu (Eibar).



Euskal Memoria Fundazioa



## El general Mola envía a Vizcaya un último aviso, exigiendo una sumisión inmediata

Esta tarde, a la una, nuestra aviación ha arrojado sobre Vizcaya miles de octavillas, en castellano y vascuence, con el siguiente texto:

### ULTIMO AVISO

He decidido terminar la guerra en el Norte de España.

Quienes no sean autores de asesinatos y depongan las armas y se entreguen, serán respetados en vidas y haciendas.

Si vuestra sumisión no es inmediata arrasaré Vizcaya, empezando por las industrias de guerra.

Tengo medios sobrados para ello.

EL GENERAL MOLA.



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa

Bonbardaketetan hildakoak.

Fallecidos en los bombardeos.









SEVILLA 20 DE JUNIO DE 1937. NUMERO SUELTO 15 CENTIMOS

ABC

DIARIO ILUSTRADO. AÑO TRIGESIMO TERCERO. NUMERO 10.615

LA VICTORIA DE LA CRUZADA NACIONAL CORONA SUS ETAPAS

**Bilbao ha sido reconquistada para España por el glorioso Caudillo que restaura la Patria grande, tradicional y unida**





Euzko gudarosteko kideen kontzentrazioa Laredoko portuan, Italiako indarren aurrean amore eman baino lehen.

Concentración de miembros de Euzko gudarostea en el puerto de Laredo, poco antes de rendirse ante las tropas italianas.

Euskal Memoria Fundazioa

Baina, Francoren aldeko italiarrek ez zuten ituna bete, eusko gudarien bila joandako itsasontzi ingelesei ez zieten gudariak eramaten utzi eta eusko gudariak eta agintariak armada espainiarraren esku utzi zituzten, abuztu amaieran. Azaroan, Santoñan hartutako 5.600 euskal herritar zituzten preso, 5.400 bidali zituzten lan batailoietara eta beste 510 laguni heriotza-zigorra ezarri zieten.

Itun horren sinadura hartu da Hego Euskal Herrian gerra bukaera datatzat. Gerraren ondorioz, guztira 25.000 lagun inguru hil ziren Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan eta 55.000 inguru espetxeratu zituzten.

Espainiari dagokionez, Errepublikaren aldekoak apurka-apurka eremuak galtzen joan ziren eta azkenean, 1939ko apirilaren 1ean Francok gerra bukatutzat eman zuen, Estatu osoa mendean hartuta. 1936an faxistek hasitako gerrak, ehunka mila hildako eragin zituen Espainian.

Legazpiar askok bizi izan zituzten bertatik bertara historiako gorabehera horiek: gerrak iraun bitartean miliziano edo gudari aritu zirenek, kartzelan edo lan batailoietan eduki zituztenek, erbesteratuek...

toña, según el cual Eusko Gudarostea debía dejar las armas en manos de los italianos y debía salvaguardar la vida y la libertad de los presos derechistas que tenían en su poder en Santoña y en Laredo. Por su parte, los italianos se comprometían a salvaguardar la vida de los gudaris y los dirigentes vascos, a no entorpecer la huida al exilio de los mismos, y a no perseguir a las personas que habían mantenido una postura favorable al Gobierno Vasco.

Pero los italianos, aliados de Franco, incumplieron el acuerdo y no permitieron que los barcos ingleses llegados para llevar a los gudaris al exilio partieran con ellos a bordo, dejando a los gudaris y dirigentes vascos en manos del Ejército español a finales de agosto. En noviembre, mantenían en la cárcel a 5.600 vascos de los apresados en Santoña, otros 5.400 fueron enviados a batallones de trabajadores y otros 510 fueron condenados a muerte.

Se ha solido considerar la firma de ese acuerdo como fecha final de la guerra en Euskal Herria. En total la guerra civil dejó en torno a los 25.000 muertos y a los 55.000 prisioneros entre la población de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa.

En cuanto a España se refiere, los republicanos fueron progresivamente perdiendo terreno y el 1 de abril de 1939, tras imponerse en todo el territorio español, Franco dio por finalizada la guerra que desde su comienzo en 1936 había causado cientos de miles de muertos.

Muchos legazpiarras vivieron en primera persona todos aquellos hechos y sucesos de la guerra civil española. A continuación vamos a referirnos a los que lucharon como milicianos o gudaris mientras duró la guerra, y más adelante mencionaremos a los que padecieron la prisión, los batallones de trabajo o el exilio.





*

## Herritar xumeen aurkako bonbardaketak

Hitlerren *Condor legioak* eta Mussoliniren *Aviazione Legionariak* Bizkaiko hainbat herri bonbardatu zituzten, Francoren armadarekin elkar lanean. Gutxi gorabehera 1.000 lagun hil zituzten, tartean bi gazte legazpiar: **Miguel Anduaga Unamuno**, Gernikan hil zen, eta **Juan Alustiza Agirre**, Durangon. Gernika bonbardatu ondoren, Francok eta haren aldekoek zabaldu zuten gorriek eta separatistek eman ziotela su hiribilduari.

Herritar babesgabeen aurka airez egindako bonbardaketak ezezagunak ziren munduaren gerra historian eta entsegu modukoak izan ziren Bigarren Mundu Gerrarako. Alemaniako goi mailako arduradun nazien aurka Nurenbergen egindako epaiketan, garaiko *Luftwaffeko* mariskal Herman Göringek honakoa esan zuen bonbardaketa horiei buruz galdetu ziotenean: *"Espainiako Gerra Zibila baliagarria izan zen nire aire indar gaztea probatzeko, eta baita nire gizonek esperientzia hartzeko ere"*. Heriotza-zigorra ezarri zioten eta bere buruaz beste egin zuen exekutatu bezperan. Espainian, ordea, sekula ez da epaiketarik edo ikerketa ofizialik egin gertatutakoa argitzeko.

## Bombardeos masivos contra la población civil

La *legión cóndor* de Hitler y la *Aviazione Legionaria* de Mussolini, bombardearon poblaciones de Bizkaia en estrecha colaboración con el ejército de Franco. Murieron aproximadamente 1.000 personas. Entre ellas estaban dos jóvenes legazpiarras: **Miguel Anduaga Unamuno** falleció en Gernika y **Juan Alustiza Agirre** en Durango. Tras el bombardeo de Gernika, Franco y los suyos difundieron la versión de que habían sido los rojos y los separatistas los que habían incendiado la villa.

Estos bombardeos aéreos realizados contra población indefensa eran prácticamente inéditos en la historia bélica mundial, y sirvieron de ensayo para la Segunda Guerra Mundial. En el juicio de Núrenberg contra altos responsables de la Alemania nazi, el entonces mariscal de la *Luftwaffe* Herman Göring, preguntado acerca de esos bombardeos, respondió: "*La Guerra Civil española dio una oportunidad de poner a prueba a mi joven fuerza aérea, así como para que mis hombres adquirieran experiencia.*" Fue condenado a muerte, y acabó suicidándose la víspera del día en que lo iban a ejecutar. En España, en cambio, nunca se ha realizado juicio ni investigación oficial alguna para aclarar aquellos hechos.








Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa




Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa









Euzkadi

La vesania fascista

# Gernika, en llamas

Como si se tratara de simbolizar la victoria del amor sobre el odio, en la villa foral aparecen intactas la Casa de Juntas y el Arbol de la Libertad

Euskal Memoria Fundazioa




Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa




Euskal Memoria Fundazioa

## 16 - Legazpiarrak gudari, legazpiarrak miliziano

Legazpi faxisten esku erori zenean, Bizkaia aldera joandako 300 legazpiarretatik gehienak gudari edo miliziano aritu ziren gerran, matxinoen aurkako borrokan. Gehienek EAJren batailoietan jardun zuten (*Itxarkundia* batailoian, batez ere), baina izan ziren, halaber, *Izquierda Republicanaren*, EAE-ANVren, eta batailoi komunistetan, sozialistetan eta anarkistetan jardundakoak ere, eta ez gutxi gainera. Guk bildutako informazioaren arabera, gutxienez, honako batailoietan aritu ziren legazpiarrak borrokan: *Araba*, *Ibaizabal*, *Itxarkundia*, *Loiola*, *Amaiur*, *Arana Goiri*, *Saseta* eta *Aralar* (EAJ-PNVko batailoiak); *San Andres* (ELA-STVkoa); *Olabarri* eta *Euzko Indarra* (EAE-ANVkoak); *Capitán Casero* (*Izquierda Republicanakoa*); *Asturias* (*Partido Socialista* eta UGTkoa); *UHP*, *Rusia*, *Dragones*, *Castilla*, *Amuategui* eta *Cultura y Deporte* (*Juventud Socialista Unificadakoak*); *Larrañaga*, *Karl Liebknech*, *Salsamendi* eta *Lenin* (*Partido Comunistakoak*); *Sacco* y *Vanzetti* eta *Malatesta* (CNTkoak).

Legazpiko gudari eta milizianoak Bizkaia inguruko borrokaldietan jardun zuten gehienbat: Legutianoko borrokan, Saibin, Intxortan, Bermeoko guduan, Solluben, Bizkargin, Artxandan… Horrez gain, Kantabria eta Asturias aldean ere aritu ziren legazpiar ugari borrokan, eta beste zenbait baita Katalunian, Valentzian eta Espainiako beste toki batzuetan ere.

Oroimen onik ere gordetzen dute, gerran gudari eta miliziano jardundako legazpiar batzuek: kideen arteko elkartasuna eta giro ona, tarteka umorea ere bai, laguntasun harreman sendoak, irabazitako borrokaldiren bat edo beste,

## 16 - Gudaris y milicianos legazpiarras

La gran mayoría de los 300 legazpiarras que partieron hacia Bizkaia cuando los sublevados tomaron Legazpi, participaron en la guerra como gudaris o milicianos. Gran parte de ellos lo hizo bajo bandera del PNV (en el batallón *Itxarkundia* sobre todo), pero no fueron pocos los que combatieron en los batallones de *Izquierda Republicana*, de EAE-ANV, o en los batallones socialistas, comunistas y anarquistas. Según la información de que disponemos, podemos confirmar la presencia de legazpiarras, por lo menos, en estos batallones: *Araba*, *Ibaizabal*, *Itxarkundia*, *Loiola*, *Amaiur, Arana Goiri*, *Saseta* y *Aralar* (batallones de EAJ-PNV); *San Andrés* (ELA-STV); *Olabarri* y *Euzko Indarra* (EAE-ANV); *Capitán Casero* (*Izquierda Republicana*); *Asturias* (*Partido Socialista* y UGT); *UHP*, *Rusia*, *Dragones*, *Castilla*, *Amuategui* y *Cultura y Deporte* (*Juventud Socialista Unificada*); *Larrañaga*, *Karl Liebknech*, *Salsamendi* y *Lenin* (*Partido Comunista*); *Sacco* y *Vanzetti* y *Malatesta* (CNT).

Los gudaris y milicianos de Legazpi lucharon principalmente en los campos de batalla de Bizkaia: en los combates de Legutiano, en Saibi, en Intxorta, en Bermeo, Sollube, Bizkargi, Artxanda... Además, no fueron pocos los que lucharon en Cantabria y Asturias, y también hay constancia de que algunos pelearon en Cataluña, Valencia y otros lugares.

Paco Barandiaran Zufiaurre lubaki batean. Zumarragan jaio zen, baina txikitan Legazpira etorri zen bizitzera gu-raso eta anai-arrebekin. 16 urte zituela herritik ihes egin eta gudari ibili zen. Carmen Intxaustirekin ezkondu zen.
Paco Barandiaran Zufiaurre en una trinchera. Nació en Zumarraga pero llegó siendo pequeño a vivir a Legazpi con sus padres y hermanos. A los 16 años huyó del pueblo y lucho como gudari. Se casó con Carmen Intxausti.



Familiak utzitako argazkia

Gerrako trintxera batean. Zutik, ezkerretara, Legazpiko Alustiza-Agirre familiako anaietako bat dago.

Trinchera de guerra. El que está de pie a la derecha es uno de los hermanos Alustiza-Agirre de Legazpi.



Artxibo partikularra



Artxibo partikularra

Manuel Segui, Paulino Gordoa eta Cándido Baskaran Legazpiarrak



Itxarkundia batailoiaren ikurriña.
Ikurriña del batallón Itxarkundia.

Milizianoak frentean. Tartean:
1. Candido Baskaran Agirre,
2. Policarpo Garcia Alonso

Milicianos en el frente, entre ellos
1. Cándido Baskaran Agirre,
2. Policarpo Garcia Alonso




Artxibo partikularra

Amaiur batailoia. Ikurrinarekin Miguel Alberdi Garate, gero Legazpira ezkondutakoa.
Batallón Amaiur. Con la ikurriña Miguel Alberdi Garate, que posteriormente se casó a Legazpi.



Artxibo partikularra

norbere printzipioekiko leial jokatu izanak eragindako gogobetetzea… Oroimen gehien-gehienak, hala ere, ilunak dira, gogorrak, mingarriak. Fronteko bizimodua ez zen inolaz ere erraza. Eguneroko bizimodua (lana, ingurunea, ohiturak…) ia egun batetik bestera kolpetik eten behar izan zuten herritar xumeak ziren gehienak. Gerra hasi aurretik baserritarrak, fabrikako langileak, merkatariak, artisauak ziren, eta hantxe zeuden lokatzez betetako lubakietan, armak eskuetan, faxistak noiz etorriko zain, beldurrak jota. Hotza, gosea eta deserosotasuna. Tarteka, etsaien erasoa, eta horrekin batera lagunak eta kideak zaurituta eta hiltzen ikustea. Hildako lagunak lurperatzea. Etxekoen berri ia ez izatea. Legazpi faxisten esku zela jakiteak sortutako egonezina. Gerran ari ziren senide, anaia edo lagunen berririk apenas izatea... eta tarteka horietakoren bat hil egin zutela jakitea. Etsaiaren nagusitasun militarra sumatzeak eragindako etsipena (*"beraiek dituzten armak eta abioiak guk izango bagenitu!"*). Gerra galtzen ari zirelako mina eta amorrua. Etsaiak noiz erasoko zain, beldurra. Faxisten esku erortzearen beldur… Bizimodu gogorra, inondik ere, legazpiar gudariek eta milizianoek gerran (eta baita ondoren ere) sufritu zutena.

Bizkaia faxisten esku eroritakoan, Kantabria aldera jo zuten eta han bukatu zen gerra legazpiar gehienentzat. Beste batzuk, jarraitu egin zuten Kantabrian eta Asturiasen, eta baita ondoren Espainiako beste zonalde batzuetan ere. Santoña inguruan faxistek atzeman zituztenean batzuk kartzelara edo lan batailoietara eraman zituzten, eta beste batzuk gerrara eraman zituzten berriro nahitaez, faxisten alde borrokatzera. Aske utzi zituztenak, herrira itzultzeko aukera izan zuten; galtzaile gisa, jakina.

Varios gudaris y milicianos guardan algún que otro grato recuerdo sobre la guerra: la solidaridad y el buen ambiente entre los compañeros, algunas notas de humor, estrechas relaciones de amistad, alguna batalla ganada o la satisfacción producida por actuar en consonancia con los principios e ideología de uno mismo. Pero la gran mayoría de los recuerdos de los combatientes son oscuros, duros, dolorosos. Y es que la vida en el frente no era fácil. La mayoría eran simples ciudadanos que de un día para otro habían tenido que dejar una vida convencional (trabajo, entorno, costumbres...). Antes de comenzar la guerra eran baserritarras, trabajadores, comerciantes, artesanos, que repentinamente se veían a sí mismos en trincheras llenas de barro, con las armas en la mano, esperando aterrados el ataque de los fascistas. El frío, el hambre y la incomodidad fueron sus compañeros de viaje. De vez en cuando llegaba el ataque enemigo y veían caer a algún amigo o compañero. No llegaban muchas noticias de los de casa, y saber que Legazpi estaba en manos de los fascistas les producía inquietud y angustia. Tampoco tenían muchas noticias de los hermanos o amigos que luchaban en otro lugar, y cuando llegaban noticias, a veces era para decirles que alguno de ellos había muerto. La superioridad militar del enemigo tampoco ayudaba a fortalecer el ánimo (*"¡si tuviésemos las armas y aviones de los que ellos disponen, otro gallo cantaría!"*). Era el dolor y la rabia de los que estaban perdiendo la guerra, el miedo del que espera el ataque enemigo, el miedo a caer en manos de los fascistas. Fue muy dura la experiencia de los gudaris y milicianos durante la guerra, y sus padecimientos no acabarían, además, con el final de la misma.

Cuando Bizkaia quedó en manos de los sublevados, los combatientes republicanos se desplazaron hacia Cantabria, y allí termino la guerra para la mayoría de los legazpiarras. Otros, en cambio, continuaron luchando en Cantabria y Asturias, así como, con posterioridad, en otras zonas de España. Tras la caída de Santoña, de los legazpiarras apresados muchos fueron enviados a la cárcel o a los batallones de trabajo. Algunos fueron llevados forzosamente a la gue-

Ez ziren nolanahikoak izan, gudari eta miliziano aritutakoen artean gerrak utzitako mina eta hondamena. Elkarrizketen bidez jakin dugu ez zirela gutxi izan begia, hanka, besoa edo eskuren bat faltan zutela itzuli zirenak. Hildakoei dagokienez, guk bildutako datuen arabera, 42 izan ziren gerraren eraginez hildako Legazpiko gudari eta milizianoak. Horietako sei, espetxean zirela gaixotuta, espetxetik irten berritan edo erbestean hil ziren (aurrerago aipatuko ditugu horiek). Gainontzeko 36ak gudu-zelaietan bertan, borrokaldietan izandako zaurien ondorioz ospitaleren batean, bonbardaketetan edo etsaiak atxilotu eta fusilatuta hil ziren. Ondorengo orrialdeetan 36 hildako horien zerrenda duzue, hil zituzteneko dataren arabera sailkatuta.



Euskal Memoria Fundazioa

Iñaki San Miguel konpainiako (Ibaizabal batailoia) boluntarioak zauritu bat eramaten Elgetako frontean.

Voluntarios de la compañía Iñaki San Miguel (batallón Ibaizabal) transportando a un herido en el frente de Elgeta.

rra a luchar con el bando nacional. Otros, por último, fueron liberados y pudieron volver al pueblo, eso sí, con el estigma de haber participado en el bando equivocado en la guerra.

El dolor y la destrucción provocada por la guerra entre gudaris y milicianos fueron inmensos. Según hemos escuchado en las entrevistas realizadas, no fueron pocos los legazpiarras que volvieron mutilados, con un ojo, pierna, mano o brazo perdido por efecto de las heridas sufridas. En cuanto a los fallecidos se refiere, según nuestros datos, los gudaris y milicianos legazpiarras muertos durante la guerra en la lucha contra los fascistas fueron 42. De ellos, seis fallecieron por enfermedad en prisión, recién salidos de la cárcel o en el exilio (más adelante nos referimos a ellos). Los 36 restantes murieron en el campo de batalla, en el hospital tras resultar heridos en combate y en bombardeos o fusilamientos. En las páginas siguientes se puede consultar el listado de todos ellos, ordenado cronológicamente según la fecha en que los mataron.



- **Eloy Zufiaurre Garcia**. Donostia, 1936/07/24.
- **Jerónimo Madina Alonso**. Beasain, 1936/08/….
- **Adolfo Alonso Fernández**. Legazpi, 1936/09/19.
- **Julián Pérez Kareaga**. Legazpi, 1936/09/20.
- **Domingo García Alonso**. Zumaia, 1936/09/….
- **Pedro Belasko Otsoa de Alda**. Legazpi, 1936/10/05.
- **Donato Oroz Otxoa**. Bilbo (Bizkaia), 1936/11/30.
- **Damián Alustiza Agirre**. Otxandio (Bizkaia), 1936/12/01.
- **José Mari Intxausti Arozena**. Otxandio (Bizkaia), 1936/12/01.
- **Marcelino Bergaretxe Mantxola**. Elosu (Araba) , 1936/12/04.
- **Florentino Blanco Valdivielso**. Puerto de los Tornos (Kantabria, Espainia), 1936/12/05.
- **Policarpo García Alonso**. Ubidea (Bizkaia), 1936/12/22.
- **José Antonio Elgarresta Zufiaurre**. Asturies (Espainia), 1937/02/22.
- **Pedro Uribarri Galdearra**. Uvieu (Asturies, Espainia), 1937/02/27.
- **Jesús Villalobos Gaona**. Otxandio (Bizkaia), 1937/02/28.
- **Juan Alustiza Agirre**. Durango (Bizkaia), 1937/03/31.
- **Donato Inza Azarola**. Durango (Bizkaia), 1937/04/01.
- **José Martínez de Albeniz García**. Otxandio (Bizkaia), 1937/04/04.
- **Aurelio Ruiz de Arbulo López de Gereñu**. Otxandio (Bizkaia), 1937/04/04.
- **Primitivo González de Langarika Arregi**. Legutiano (Araba), 1937/04/06.
- **Florentino Zubizarreta Aranburu**. Elgeta, 1937/04/24.
- **Miguel Anduaga Unamuno**. Gernika (Bizkaia), 1937/04/26.
- **Doroteo Gibelalde Aranguren**. Larrabetzu (Bizkaia), 1937/05/20.
- **Esteban Madina Aiastui**. Larrabetzu (Bizkaia), 1937/…/….
- **Ciriaco Amilibia Martínez de Osaba**. Urkiola (Bizkaia), 1937/05/22.
- **Isidro Zufiaurre Garcia**. Artxanda (Bizkaia), 1937/06/14.
- **Plácido Iñurritegi Aztiria**. Artxanda (Bizkaia), 1937/06/15.
- **Segundo Arrizabalaga Murgiondo**. Artxanda (Bizkaia), 1937/06/16.
- **Jesús Peña Etxeberria**. Santander (Kantabria, Espainia), 1937/08/30.
- **Vicente Sarasola Odria**. Montes Claros (Kantabria, Espainia), 1937/08/30.
- **Luis Zabaleta Telleria**. Posada de Llanes (Asturies, Espainia), 1937/09/07.
- **Justo Andueza Ugarte**. Xixon (Asturies, Espainia),, 1937/…/….
- **Juan Elorza Guridi**. Ebroko borrokan, 1938/03/12.
- **Alejandro Gordoa Bengoetxea**. Bilbo (Bizkaia), 1939/…/….
- **Pacífico Irastorza Etxeberria**. Valentzia-Alacant inguruan (Herrialde Katalanak), 1939/…/….
- **Jesús Larrea Egino**. Bartzelona (Herrialde Katalanak), 193?/…/….

## 17 - Legazpi faxisten esku, atzeguardian (1936ko irailaren 19tik 1939an gerra amaitu arte)

Legazpi faxisten esku erorita, hantxe hasi zen legazpiarrentzat hamarkada luzetako diktadura. Hurrengo bi urte eta erdian, gainera, gerra ez zen bukatu. Matxinatuen atzeguardian egotea egokitu zitzaion Legazpiri, baina atzeguardian egoteak ez zuen, inondik inora, gerraren itzala Legazpitik uxatu, jarraian ikusiko dugunez.

### Kintoak, gazte legazpiarrak, nahitaez gerrara

Faxisten esku geratutako gainerako herrietan bezala, Legazpin herriko gizonezko gazte ugari gerrara eraman zituzten, armada faxistarekin batera. Udal artxibategiko datuen arabera, ia 100 gazte legazpiar eraman zituzten matxinatuek gerrara. Faxistek deitutakoek nahitaez joan behar zuten, eta eskuratu ditugun testigantzak entzunda, ziurta dezakegu gehientsuenak gogoz bestera eraman zituztela gerrara. Are gehiago, hainbat lekukotasunen arabera, faxistek ahalegin berezia egin zuten Legazpiko familia abertzaleetako edo ezkertiarretako semeak eurekin gerrara eramateko, bereziki, familia horretako beste semeren bat gudari edo miliziano ari bazen.

## 17 - Legazpi en manos de los sublevados, en la retaguardia (desde el 19 de septiembre de 1936 hasta el final de la guerra en 1939)

Con la toma de Legazpi había comenzado para sus vecinos la larga dictadura franquista. Además, la guerra continuaba y pasaron dos años y medio hasta que esta finalizó. En ese período, Legazpi pasó a estar en la retaguardia de los sublevados, pero ello, como veremos a continuación, no despejó las sombras de la guerra en el pueblo.

### Quintos legazpiarras llevados forzosamente a la guerra

Como en todos los pueblos ocupados, el ejército golpista se llevó forzosamente a la guerra a muchos jóvenes legazpiarras, casi 100, según los datos consultados en el Archivo Municipal. Los jóvenes reclutados debían ir obligatoriamente y basándonos en los testimonios recogidos, podemos afirmar, efectivamente, que una amplia mayoría de esos 100 jóvenes, fueron a la guerra en contra de su voluntad. Aún más, según la información recabada en las entrevistas, los franquistas hicieron un esfuerzo especial en llevarse a la guerra con ellos a hijos de familias abertzales o de izquierda, sobre todo si algún otro hijo de esa familia estaba luchando como gudari o miliciano.

Nahitaez eraman zituzten legazpiarrentzat gogorra izan zen hura. Gerraren berezko izugarrikeriaz gain, nahi ez zuten aldearekin egon beharra egokitu zitzaien, euren ideien kontra hain ankerki ari zirenekin, eta parean (frontearen beste aldean) anaiak, lagunak, edo herrikideak zituztela jakiteak ezarritako zama eramatea ez zen erraza.

Faxistek eraman zituzten 100 gazte legazpiar horietatik zazpi ez ziren inoiz itzuli herrira, eta urrutiko gudu-zelaietan hil ziren. Hona hemen haien izenak:

Para los legazpiarras llevados forzosamente la situación fue realmente dura, puesto que a la propia crudeza de la guerra había que añadirle el tener que luchar con un bando al que no pertenecían y que en muchos casos combatía contra las propias ideas del joven llevado obligatoriamente al frente. Además, en el otro lado de la línea del frente, sabían que podían estar sus hermanos, amigos o vecinos… No fue fácil soportar toda esa carga para muchos de los quintos legazpiarras.

De los 100 jóvenes que se llevaron consigo los militares siete no volvieron, ya que murieron en los campos de batalla. He aquí los nombres de los fallecidos:

- **Santos Etxeberria Ibarguren**. Laviana (Asturies, Espainia), 1937/03/13.
- **José Lizarazu Alustiza**. Gasteiz (Araba), 1937/04/09.
- **Teodoro Bidania Ollokieta**. Brunete (Madril, Espainia), 1937/07/24.
- **Francisco Idigoras Inza**. Palentzia (Espainia), 1937/09/14.
- **Tomás Murua Sasieta**. Castello (Herrialde Katalanak), 1938/07/27.
- **Eugenio Murguzur Murua**. Iruñea (Nafarroa Garaia), 1938/08/31.
- **Fernando Irastorza Etxeberria**. Arriondas (Asturies, Espainia), 1938/10/24.

### Patrizio Etxeberriaren fabrika militarizatua

Faxistek Legazpi konkistatu ondoren, Patrizio Etxeberriaren fabrika "*industria militarizatua*" izendatu, eta bertako langileak ere militarizatu egin zituzten, armadako hierarkiaren arabera sailkatuta. Geroztik, Francoren armadak gerrarako behar zituen osagai militarrak ekoitzi ziren bertan.

Bertan egin zituzten, besteak beste, morteroetarako granadak eta bonben eta granaden osagaiak, tartean gerora hegazkinetatik jaurti zituzten bonbetarako osagaiak. Halaber, armamentua eta blindajeetarako gailuak ekoitzi zituzten: kanoietarako, granadetarako, metrailadoretarako… Bestalde, ikerketa militarra ere garatu zuten bertan, eta mortero hegalari bat egiten saiatu ziren, arrakasta handirik gabe.

Gerra hasi zenean, eta Legazpi errepublikanoen esku zegoenean, ia geldirik egon zen Patrizioren fabrika. Faxistak etorritakoan, ordea, berriro hasi zen ekoizpena, indartsu hasi ere, Francoren armadaren mesedetan. Ekoizpena handitu egin zen eta etekinak ere bai.

Hainbat legazpiarrentzat onuragarria izan zen hura, Patriziorenean lanean ziharduten kinto batzuk Legazpin gelditzeko aukera izan baitzuten, gerrara joan gabe. Beste batzuentzat, ordea, ondorio beltzak izan zituen: hainbat langile zauritu ziren Patriziorenean gerra-hondakin arriskutsuekin aritzeagatik, eta legazpiar bat, **Lorenzo Kortazar Gaztañaga**, hil zen bertan, bonba batek eztanda egin zionean.

### Militarización de la fábrica Patricio Echeverria

Tras la conquista de Legazpi la fábrica de Patricio Etxeberria pasó a considerarse "*industria militarizada*", militarizaron a los trabajadores y los clasificaron según la jerarquía militar. A partir de ese momento en la fábrica de Patricio se produjo material militar para el bando nacional.

En la fábrica se fabricaron proyectiles de mortero y piezas para construir bombas y granadas, también para las bombas que se utilizarían posteriormente en los bombardeos aéreos. Además, en la fábrica hicieron piezas para armamento y blindaje: para cañones, granadas, ametralladoras... Igualmente, se dedicaron a la investigación militar e intentaron, sin demasiado éxito, construir un mortero volador.

Cuando comenzó la guerra y Legazpi estaba en manos de los republicanos, la fábrica de Patricio apenas tuvo actividad, pero con la llegada de los nacionales se reanudó la actividad y se incrementaron tanto la producción como los beneficios.

Para algunos legazpiarras ese hecho tuvo efectos positivos, ya que algunos quintos que trabajaban en la fábrica pudieron quedarse en el pueblo sin ir a la guerra. Para otros, en cambio, aquello tuvo consecuencias nefastas, ya que algunos trabajadores resultaron heridos en la fábrica por trabajar con desechos peligrosos de guerra. Otro operario, el legazpiarra **Lorenzo Kortazar Gaztañaga**, perdió la vida al explotarle una bomba mientras introducía una palada de chatarra militar en el horno de la fundición.

Patrizio Etxeberriaren fabrika.




Lucio Vergara- Lenbur

## Legazpiko ospitale militarra

Zaharren egoitza gisa eraikitako *Hogar de la Santa Cruz* ospitale militar bihurtu zuten Francoren aldekoek, Legazpi menpean hartu ondoren, 1937ko urtarriletik aurrera, eta horrela jarraitu zuen 1940ra arte. Frontean zauritutako hainbat eta hainbat falangista, errekete, militar eta kinto ekarri zituzten bertara, gehienak Bizkaiko frontean zaurituta. Horiez gain, inguruko herrietan zauritutako herritarrak eta presoren batzuk ere ekarri zituzten Legazpiko ospitalera. Guztira, gure datuen arabera, Legazpitik kanpoko 25 lagun hil ziren bertan.

Ospitalearekin lotuta, bada aipatu beharreko gertaera latz bat. Udanatik behera Legazpiko ospitalera zaurituak zekartzan kamioi militar batek **Luis Ugarte Elkorobarrutia** harrapatu zuen, 1937ko azaroaren 24an, Telleriarteko San Migeleko errebuelta inguruan. Kolpearen ondorioz, larri zauritu zuten 17 urteko gazte legazpiarra. Senideek zaurituak ospitalera zeramatzan kamioiko arduradunei eskatu zieten Luis ere kamioian sartzeko eta ospitalera eramateko, baina militarrek ez zieten kasurik egin, gaztea lurrean larriki zauritua utzi zuten, eta aurrera jarraitu zuten… Luis handik gutxira hil zen odolustuta, Isabel arrebaren besoetan.

## Hospital militar de Legazpi

A partir de la conquista de Legazpi, los franquistas habilitaron un hospital militar en el edificio de la residencia de ancianos *Hogar de la Santa Cruz*. Así, desde enero de 1937 hasta el año 1940, en dicho centro atendieron a multitud de falangistas, requetés, militares y quintos, heridos la mayoría en el frente de Bizkaia. También fueron atendidos en el hospital algunos heridos de los pueblos de alrededor y algunos presos. Según los datos que hemos recopilado, un total de 25 personas de fuera de Legazpi fallecieron allí.

En relación con el hospital cabe mencionar un dramático suceso acaecido el 24 de noviembre de 1937. Ese día, un camión militar que se dirigía desde Udana al citado hospital para trasladar a algunos militares heridos en el frente, atropelló al joven de 17 años **Luís Ugarte Elkorobarrutia** a la altura de la curva de San Miguel en Telleriarte. El joven quedó tendido en el suelo en estado grave a consecuencia del golpe sufrido. Sus familiares pidieron a los responsables del camión que se dirigía al hospital que trasladaran al joven en el camión, pero los militares hicieron caso omiso, dejaron al joven tendido en la calzada en estado grave y continuaron su camino. Luís moriría desangrado poco después, en brazos de su hermana Isabel.

Ospitale militarra jarri zuten asiloan.
Hospital militar en el asilo.



Lucio Vergara- Lenbur



gerra aurrea

la preguerra

gerra legazpin; legazpiarrak gerran

la guerra en legazpi; legazpiarras en la guerra

## gerraostea: galtzaileen herri bat, irabazleen esku

## la posguerra: un pueblo de vencidos en manos de los vencedores



EL DIARIO VASCO

SAN SEBASTIAN

¡ARRIBA ESPAÑA! - ¡VIVA ESPAÑA!

El glorioso Ejército español, los bravos requetés navarros y las milicias fascistas libertan San Sebastián de la horrenda tiranía a que durante dos meses le habían sometido las hordas de bandidos y asesinos rojos

A VUELA PLUMA

LOOR A LOS VENCEDORES Y GLORIA ETERNA A NUESTROS MARTIRES

EL DIARIO VASCO

SAN SEBASTIAN

Saludo a Franco: ¡¡Arriba España!!

Con la ocupación de Eibar, toda la provincia ha quedado liberada

Nuestras tropas, siguiendo el avance hacia Bilbao, rebasaron ayer la línea de Málaga, Ermua, Mallavia y monte Oiz

GUIPUZCOA REDIMIDA

LA LIBERACION TOTAL DE GUIPUZCOA

EL SALUDO NACIONAL

La industriosa Eibar, víctima de la furia marxista

EL DIARIO VASCO

SAN SEBASTIAN

¡BILBAO ES YA DE ESPAÑA!

Bilbao no se ha rendido. Bilbao ha sido conquistado. Conviene no olvidarlo. ... poco debe olvidarse que ... duría que se han entregado ... han hecho cuando nuestras tropas estaban en Archanda y en Pagasarri y cientos de héroes habían caído para siempre por culpa de los que no quisieron rendirse cuando era la hora de rendirse. Que no se repita la leyenda de que los gudaris salvaron a San Sebastián.

A Bilbao y San Sebastián les ha salvado el Ejército.

En esta gran hora nacional: ¡FRANCO!

EL DIARIO VASCO

Ya para siempre, Madrid es de España

Nuestro Ejército, con su sangre generosa, ha borrado el marxismo del suelo hispano

¡¡¡MADRID!!!

La cumbre de la victoria

Nuestras tropas del Sur prosiguen su avance, conquistando muchos pueblos

Hitler felicita al Generalísimo Franco



# EL DIARIO VASCO

## FRANCO, CAUDILLO VICTORIOSO

Cuártel General del Generalísimo. - Estado Mayor

## PARTE OFICIAL DE GUERRA

correspondiente al día 1.° de abril de 1939. - III Año Triunfal

**En el día de hoy, cautivo y desarmado el Ejército rojo, han alcanzado las tropas nacionales sus últimos objetivos militares.**

# La guerra ha terminado

Burgos 1 de abril de 1939.

**Año de la Victoria**

El Generalísimo. - FRANCO



## 18 - Irabazleak eta galtzaileak

Gerra bukatutakoan, Legazpiko etxe askotan mina zen nagusi. Gerrak hildakoengatik mina; preso edo lan batailoietan zituztenengatik mina; erbestean zeudenengatik mina… Isil-isilik eraman beharreko mina, beti ere. Espainia berrian, izan ere, ez zegoen, galtzaileen bandoan hildakoengatik negar egiterik edo haien senideekiko hurbiltasunik adierazterik.

Beldurrak ere ez zuen alde egin gerrak bukatutakoan. Herritar abertzaleek edo ezkertiarrek kontrol eta errepresio izugarria jasan behar izan zuten. Amorrua ere ez zen nolanahikoa, diktadura ezarri zenetik norberak bere ideiak defendatzeko ezintasunak eta faxisten harrokeriak amorrua eragin zuten, eta egoera iraultzeko aukerak urriak zirela jakiteak etsipena ere sortu zuen. Garai tristeak izan ziren legazpiarrentzat, gerra galdu zuten legazpiarrentzat bereziki, eta horiek ziren gehiengoa. Azken batean, horixe izan zen Legazpi gerraostean: galtzaileen herri bat, irabazleen esku.

## 18 - Vencedores y vencidos

Al finalizar la guerra, el dolor era el sentimiento predominante en muchas familias de Legazpi. Dolor por los muertos en la guerra, por los que estaban presos o en batallones de trabajo, por los que estaban en el exilio… Era un dolor intenso que, no obstante, había que llevar en silencio. En la nueva España, no había lugar para llorar por los muertos del bando perdedor o para mostrar cercanía hacia sus familiares.

El miedo no terminó al finalizar la guerra, puesto que los abertzales e izquierdistas siguieron sufriendo un control y una represión bestial. La rabia también era un sentimiento patente porque desde que se instauró la dictadura no había posibilidad de que nadie defendiera sus propias ideas, y la arrogancia de los fascistas también provocaba rabia. El saber que las posibilidades de cambiar la situación eran más bien escasas provocaba desesperación. Fue una época









Euskal Memoria Fundazioa

Faxisten ikurrek berehala ordezkatu zituzten errepublikanoenak.
Los símbolos fascistas reemplazaron inmediatamente los de los republicanos.

*

## Faxistek Bilbon inposatutako Jose Maria de Areilza alkateak 1937ko uztailaren 8an emandako hitzaldia.

## Extracto del discurso pronunciado por José Mª de Areilza, alcalde impuesto por los fascistas en Bilbao, el 8 de julio de 1937.



Euskal Memoria Fundazioa

José María de Areilza y Martínez de Rodas, Mutrikuko kondea (1909-1998). Monarkikoa zen eta gaztetatik hasi zen politikan, betiere eskuin espainolistaren inguruan. Gerra Zibilean aktiboki parte hartu zuen, faxisten aldean, eta Bilbo hartu zutenean bertako alkate izan zen, 1939 arte. Ondoren, frankismo garaian, beste hainbat ardura postu izan zituen (Industria Ministerioko zuzendari nagusi, Espainiako enbaxadore Argentinan, EABetan eta Frantzian…). Frankismoko azken urteetan orduko printze eta gaur egungo errege Juan Carlos Borboikoaren hurbilekoa izan zen. Franco hil ostean, politikan parte hartzen jarraitu zuen (Pio Cabanillasekin Partido Popular eratu zuen 1976an eta, ondoren, UCDra pasatu zen). Espainiako Trantsizioaren bultzatzailetzat dute.

José María de Areilza y Martínez de Rodas, Conde de Motrico (1909-1998). De ideología monárquica, participó desde joven en política, siempre en la esfera de la derecha españolista. Participó activamente en la Guerra Civil, en el bando fascista, y fue alcalde de Bilbao tras la ocupación de la ciudad por las tropas nacionales hasta 1939. Posteriormente, ocupó varios puestos de responsabilidad a lo largo de todo el franquismo (director general del Ministerio de Industria, embajador de España en Argentina, Estados Unidos y Francia…). En los últimos años del franquismo fue una persona próxima al entonces príncipe y ahora Rey de España, Juan Carlos de Borbón. Posteriormente a la muerte de Franco, siguió participando en política (fundó con Pío Cabanillas el Partido Popular en 1976, y luego pasó a la UCD). Se le considera uno de los artífices de la Transición Española.





¡SOLDADOS DE ESPAÑA! ¡VOLUNTARIOS DE LA PATRIA!

Aquí se congrega el pueblo de Bilbao, en sus más amplias y escogidas representaciones, para rendiros tributo espontáneo de profundo agradecimiento. (…)

Nos habéis salvado por conquista, por la fuerza, a tiros y a cañonazos en una palabra. (…)

Que quede esto bien claro: BILBAO CONQUISTADO POR LAS ARMAS. Nada de pactos y agradecimientos póstumos. Ley de guerra, dura, viril, inexorable. Ha habido ¡vaya que si ha habido Vencedores y Vencidos!; ha triunfado la España, una, grande y libre; es decir, la de la FALANGE TRADICIONALISTA. Ha caído vencida para siempre esa horrible pesadilla siniestra y atroz que se llamaba Euzkadi y que era una resultante del socialismo prietista de un lado, y de la imbecilidad vizcaitarra por otro. (…)

Hasta ahora, amigos, podían discutir los polemistas en dialécticas estériles sobre los supuestos derechos de Vizcaya a su autonomía o gobierno propio. Desde ahora hay una razón que está por encima de todas las argucias históricas y de todos los papeleos abogadescos. La razón de la sangre derramada por Vizcaya es otra vez un trozo de España por pura y simple conquista militar. (…)

¡Atención! Frente Popular francés y Komintern de Moscú. La garra de vuestro dominio sobre el solar de España la hemos coreado a hachazos. Ya no será posible que soñéis en hacer de Euzkadi una colonia y de Cataluña un protectorado para vuestras invasiones criminales. España ha recobrado la plena independencia de su soberanía. En uso de ella proclama bien alto su amistad hacia los grandes países europeos amigos que en estas horas trágicas de cruzada nacional están junto a nosotros, la Alemania de Hitler, la Italia de Mussolini y el Portugal de Oliveira Salazar. (…)

¡Soldados de España! ¡Voluntarios de la Patria! Ante la memoria de los que cayeron para siempre fecundando con su sangre la tierra y los montes de Vizcaya, el pueblo de Bilbao jura lealtad eterna a la nueva España y a su Revolución Nacional.

Saludo a Franco ¡¡¡Arriba España!!!

Irabazleen aldartea oso bestelakoa zen. Irabazleen espiritua ederki asko islatu zuen Jose María Areilzak, Bilbo okupatuko lehen alkate frankistak, hitzaldi batean (ikus ondoko orriko dokumentua). Gerraren irabazleek garaipen militarra aldarrikatu zuten, eurena zen arrazoia eta indarra, eta indarrez irabazi izanak ematen zien galtzaileak menperatzeko eskubidea. Bukatu berri zen gerra "*gurutzada santua*" izan zen, Espainiaren etsaiak zapaltzeko eta Espainia bide onera ekartzeko behar-beharrezkoa. Jainkoak lagundu zien, gainera, komunistak eta abertzaleak garaitzen. Espainia salbatu zuten gerrak eta faxistek. Hortaz, ospatu beharra zegoen gerra eta faxisten garaipena. Bando nazionalean aritutakoak salbatzaileak ziren eta faxisten bandoan hildakoak, martiriak. Errepublikaren alde aritutakoak, berriz, gaizkileak ziren eta mespretxua besterik ez zuten merezi; mespretxua eta egindakoagatik zigorra.

Harro azaltzen ziren irabazleak jendartean. Gerra irabazi izanaz harro, eta hainbat kasutan, gerran egindako hilketez eta izugarrikeriez harro. Legazpin bertan, baziren euren herrikideak tiroz hil zituzten faxistak, egindako "balentria" edonon eta edonoren aurrean (kalean, tabernan…), inolako damurik gabe, kontatzen zutenak. Horietako bati "*Treinta"* esaten zioten, 30 gorri hil zituela zioelako harro. Elkarrizketatu ditugun adinduek ondo gogoan dituzte oraindik hiltzaile haietako batzuen izenak, gutxienez hiruren izen-abizenak bai behintzat.

triste para los legazpiarras, sobre todo para esa mayoría que había perdido la guerra. Al fin y al cabo, eso era Legazpi una vez finalizada la guerra: un pueblo de vencidos en manos de los vencedores.

El talante de los vencedores era bien diferente. El punto de vista de los ganadores lo reflejó de manera nítida el primer alcalde franquista de la ciudad ocupada de Bilbao, José María Areilza (véase el discurso de la página siguiente). Los vencedores reivindicaban la victoria militar, suya era la razón y suya era la fuerza y el haber ganado la guerra les daba derecho a someter a los vencidos. La guerra recién terminada había sido "*una Santa Cruzada*", imprescindible para librar a España de sus enemigos y para llevarla por el buen camino. Además –proclamaban- tuvieron la ayuda de Dios para vencer a comunistas y separatistas. La guerra y el "Alzamiento nacional", pues, habían salvado España del desastre y eso era motivo de celebración. Los que habían luchado en el bando nacional eran salvadores y los muertos de ese bando mártires. Los que habían luchado en el bando republicano, al contrario, eran delincuentes que no merecían más que desprecio y pagar el castigo por los males causados.

Los vencedores se mostraban orgullosos de haber ganado la guerra, y algunos de ellos alardeaban incluso de los asesinatos y atrocidades que habían cometido en su transcurso. En Legazpi había personas que habían matado a algún vecino y lo contaban en cualquier lugar y ante cualquiera (en la calle, en el bar...), sin el más mínimo atisbo de arrepentimiento o de compasión. A uno de ellos le llamaban "*Treinta*", porque se jactaba de haber matado 30 "rojos".Los ancianos entrevistados todavía recuerdan los nombres y apellidos de, al menos, tres de aquellos asesinos.

Irabazleen espiritua argi islatzen duen pasarte ugari dago Legazpin. Kale izenak aldatu zituzten, menpean hartutako gainerako tokietan bezala, gerrako kriminal faxisten ohorez eta armada zapaltzailearen balentrien oroimenez.

Hay muchos sucesos que demuestran claramente el espíritu de los vencedores. Como en muchos otros lugares ocupados, en Legazpi cambiaron la denominación de las calles y sustituyeron los antiguos por nuevos nombres en honor a los criminales de guerra y como recordatorio de las hazañas de los sublevados.

| Kokagunea gaur eguneko ikuspegitik<br>Ubicación | Izena gerra aurrean<br>Nombres anteriores a la guerra | Izena 1937tik aurrera<br>A partir de 1937 | Izena gau egun<br>Nombres actuales |
|---|---|---|---|
| Plaza | Arana Goiri | España | Euskal Herria |
| Txorronea - Apatxo liburudenda | Santa María | José Antonio Primo de Rivera | Aizkorri |
| Iñaki Taberna - Latxartegi | Aguerre-plaza | José Antonio Primo de Rivera | Patrizio Etxeberria |
| Loteria - Aurrera taberna | Nueva vía | General Mola | Kale Nagusia |
| Elizondo - Saturnino Telleriako errotonda | Santa María | Navarra | Nafarroa |
| Gaspar taberna - Etxealai | Almirante Bicuña | Calvo Sotelo | Urola |
| Taxiak - Mirasol | Camino del cementerio | Santa Cruz | Santikutz |
| Andresenea - Etxetorre - Geltokia | Urola | 18 de Julio | Ugalde |
| Azpikoetxe taberna - Mantxola auzoa | Padre Aguirre | Liberación | Azpikoetxe |
| Apaiz etxearen kalea | Santa Cruz | Navarra | Nafarroa |



Lucio Vergara-Lenbur

*

**Uztailaren 18a Urbasan** Gerra bukatu berritan, Patrizio Etxeberriaren fabrikako langileak kamioietan hartu eta Urbasara eramaten zituzten gerra hasi zeneko eguna ospatzera. Argazkiak 1940 urtekoak izan daitezke.

**18 de julio en Urbasa** Celebración en Urbasa del día del “Alzamiento Nacional”. Los trabajadores de Patricio Etxeberria eran transportados en camiones hasta Urbasa para la celebración. Las fotografías pueden ser del año 1940.







Lucio Vergara-Lenbur



Lucio Vergara-Lenbur

Ildo berean, gerra hasi zen eguna (uztailaren 18a) urteko festa nagusi bihurtu nahi izan zuten Espainia osoan eta egun horretan ordaintzen zitzaien langileei ordainsari berezia. Legazpiko Udal berriak, bere aldetik, jai berezia antolatu nahi izan zuen herria "*askatu*" zuteneko irailaren 19 hura gogoratzeko, eta ospakizunak antolatu zituzten lehenengo urteurrenetan. Urte batzuk geroago ospakizuna egiteari utzi zioten, inor gutxi bertaratzen baitzen.

Con los mismos objetivos quisieron convertir el 18 de julio, día en que comenzó la guerra en la fiesta nacional más importante de España, y coincidiendo con esa fecha se pagaba a los trabajadores la "paga extraordinaria". Por su parte el nuevo Ayuntamiento de Legazpi organizó festejos para conmemorar "*la liberación*" del pueblo el 19 de septiembre. A los pocos años dejó de celebrarse el acto, porque muy poca gente participaba en él.




Euskal Memoria Fundazioa

Desfile faxista Donostian. Kapela luzea jantzita, Vicente Laffite, Coalición Contrarrevolucionaria deitutakoaren buruzagia.

Desfile de fascistas en Donostia. Con sombrero largo Vicente Laffite jefe de Coalición Contrarrevolucionaria.

### 19 - Francoren Espainia berria: bakarra, handia eta librea; katolikoa eta antikomunista; eskubide zibil eta politikorik gabea

Francoren Espainia berrian eskubide zibil eta politiko guztiak deuseztatu zituzten. Irabazleek ezarritakoaz bestera pentsatzea edo iritzia ematea debekatuta zegoen. Elkartzea, adieraztea, manifestazioak egitea, greba egitea, elkarteetan parte-hartzea eta abar galarazita zegoen.

Espainiak ez zuen demokrazia behar, baizik eta autoritatean oinarritutako eta gizon indartsu batek gidatutako sistema; eta gizon hori Francisco Franco zen, Espainiako *Kaudilloa*. Erregimen berriak diktadorea gurtzen zuen. Esaterako, Jose Eizagirre Foru Aldundiko ahaldun nagusiak Franco Gipuzkoako seme kutun izendatu zuen, 1939ko uztailaren 12an, eta bost egun lehenago, Donostiako ohorezko alkate izendatu zuten.

Francoren gidaritzapean, Mugimendu Nazionala izeneko mekanismo totalitarioa ezarri zuten, erakundeak zorrotz kontrolatzeko eta zuzentzeko eta Espainiako Estatu osoan jendartea egituratzeko eta doktrinatzeko. Legazpiko Udal Artxibategian aurkitutako dokumentazioaren arabera, 1943 urtean 126 ziren *FET*




### 19 - La Nueva España de Franco: una, grande y libre; católica y anticomunista; sin derechos civiles ni políticos

En la nueva España de Franco todos los derechos civiles y políticos fueron suprimidos. Estaba prohibido pensar y opinar de forma diferente a lo establecido por los vencedores de la guerra. Estaba prohibido reunirse, expresarse, manifestarse, hacer huelga, asociarse y un largo etcétera.

España no necesitaba democracia, sino un sistema basado en la autoridad y guiado con mano de hierro por un hombre fuerte: Francisco Franco, *Caudillo* de España. El culto a la persona del dictador fue otro de los rasgos más notorios del nuevo régimen. Sin ir más lejos, el presidente de la Diputación, José Eizagirre, nombró a Franco hijo predilecto de Gipuzkoa el 12 de julio de 1939; cinco días antes habían nombrado al dictador alcalde honorario de Donostia.

Bajo la dirección del Caudillo se instauró un mecanismo totalitario denominado Movimiento nacional, para controlar y dirigir férreamente las instituciones y para estructurar y adoctrinar a las masas a lo largo y ancho de todo el estado español. Según datos recabados en el Archivo Municipal, el año 1943 eran 126 los legazpiarras afiliados a la *FET y de las JONS* (Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista). El jefe local de la fa-

*

## Gerraondoa Legazpin

Faxisten agurra egiten herriko plazan.

## Postguerra en Legazpi

Saludando al estilo fascista en la plaza.




FRANCO

*y de las JONS* alderdian (Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista) izena emandako legazpiarrak. Legazpin Gaudencio Perez Barandalla izan zen falangeko burua, Espainian bizitza publikoa zuen alderdi bakarreko burua.

Gerra aurretik legazpiar gehienen babesa izan zuten alderdi politikoak eta sindikatuak (EAJ-PNV, Izquierda Republicana, PSOE, EAE-ANV, ELA-STV, UGT, CNT...) debekatu egin zituzten eta egoitzak kendu zizkieten. Batzokia FET y de las JONS erakundeak erabili zuen, lehenik, eta, gerora, Círculo Carlistak. Izquierda Republicanaren Zentroa ere Falangeren esku geratu zen. ELA-STVren egoitza, zeina Euzkaltzaleak Bikuña eta Emakume Abertzale Batzaren egoitza ere izan zen, instrukzio militarrerako erabili zuen Falangeren Flechas y Pelayos atalak.

Debekatutako erakundeek defendatzen zituzten ideiak ere galarazi zituzten. Hala, Espainia berriak gorroto zituen eta baztertu egin zituen errepublikanismoak berezko dituen askatasun eta demokrazia ideiak. Langile mugimenduak eta alderdi ezkertiarrek babestutako burujabetza eta justizia soziala jazarri zituzten. Langileen aldarrikapen guztiak debekatu eta erreprimitu zituen sistema berriak, eta langileek enpresarien aurrean otzan eta esaneko jokatzea bultzatu zuen.

Katolizismoa inposatzea izan zen erregimen berriaren beste ezaugarri bat. Izan ere, Espainiako Eliza, goi mailako hierarkia buru zela, ia osorik lerratu zen matxinatuen alde, lehen unetik bertatik. Oso bestelakoa izan zen euskal eliza-



Lucio Vergara-Lenvur

Falange Española Tradicionalistaren egoitza (lehen batzokia egon zen eraikinean)

Sede de la Falange Española Tradicionalista (donde antes había estado el Batzoki)




lange en Legazpi, único partido en la vida pública de la España de posguerra, fue Gaudencio Pérez Barandalla.

Los partidos políticos y sindicatos que antes de la guerra recogieron el apoyo de la mayoría de legazpiarras (EAJ-PNV, Izquierda Republicana, PSOE, EAE-ANV, PC, ELA-STV, UGT, CNT…), fueron prohibidos y sus sedes fueron requisadas. El batzoki pasó a ser utilizado como local de la FET y de las JONS, en primer lugar, y del Círculo Carlista más adelante. El Centro de Izquierda Republicana también cayó en manos de la Falange. El local de ELA-STV (que había servido a su vez como sede de Euzkaltzaleak Bikuña y de Emakume Abertzale Batza) pasó a utilizarse para hacer instrucción militar por la sección de Flechas y Pelayos de la Falange.

Las ideas defendidas por las organizaciones prohibidas, también fueron proscritas. Así, la ideología oficial de la nueva España aborrecía y repudiaba todas las ideas de libertad y democracia propias del republicanismo. También fueron perseguidos todos los planteamientos de emancipación y justicia social propugnados por el movimiento obrero y los partidos de izquierdas. El nuevo sistema político prohibió y reprimió toda forma de reivindicación obrera e impulsó la docilidad y la sumisión de los trabajadores respecto a los empresarios.

La imposición del catolicismo fue otra de las señas de identidad del nuevo régimen. No en vano la práctica totalidad de la Iglesia española (no puede decirse lo mismo de la iglesia vasca), con su alta jerarquía al frente, había apoyado desde el primer momento a los sublevados y había bendecido como "*Santa Cruzada*" a la guerra iniciada por

ren jokabidea. Baina Espainiako elizak, oro har, "*Gurutzada santutzat*" jo zuen Francok eta haren jarraitzaileek hasitako gerra. Halaber, azken horiek "*nazionalkatolizismo*" gisa definitu zuten euren ideologia, eta harro zeuden Espainia mendebaldeko erreserba espirituala zelakoan.

Nazio ikuspegiari dagokionez, Espainia berriko ideologiak ez zuen zalantzarako tarterik uzten, nazio bakarra zegoen: Espania; *Espainia bakarra, handia eta librea*. Banaezina, jakina. Euzkadi izeneko amesgaiztoa bukatu zen, betiko. Espainia handiaren ikurrak (bandera gorri-horia nagusiki) edonon ezartzearekin eta erakustearekin batera, euskal ikur guztiak debekatu zituzten. Euskaraz hitz egitea aberriaren kontrakoa, iraultzailea eta gustu txarrekoa zen (*hábleme en cristiano!*). Nazio bati, Espainiari, hizkuntza bakarra zegokion, espainiera, eta erregimen frankistak hainbat bide erabili zituen errealitate sozialak ideia horrekin bat egin zezan: legeria, polizia indarrak, epaileak, hezkuntza sistema eta komunikabideak, besteak beste.

Lege eta errepresio amaraun frankista osoak bermatu zuen Mugimendu Nazional garailearen ikuspegi autoritario, eskuindar, katoliko eta espainolista hura nagusi izatea gune publikoetan. Aldi berean, propaganda eta herritarren doktrinamendu sistema oso bat garatu zuten, hezkuntza eta masa komunikabideen kontrolaren bidez. Hala, adibidez, Legazpiko eskolan "Gurutzada Nazionaleko pasarte loriatsuak" irakasten zituzten, Legazpiko haurrek Espainiako bandera jasotzen zuten eskolako mastan, eta *Cara al sol* ereserki falangista kantatzen zuten, militarki lerrokatuta.

Franco y los suyos. Estos, por su parte, denominaban "*nacional catolicismo*" a su orientación ideológica y se vanagloriaban que España fuera la reserva espiritual de Occidente.

La ideología de la nueva España no dejaba lugar a dudas en lo referente al hecho nacional. Sólo había una nación, la española: *España una, grande y libre.* Indivisible, por supuesto. Había terminado para siempre aquella pesadilla que se llamó Euzkadi. Y a la par que se exponían por doquier los símbolos de la gran España (con la bandera roja y gualda al frente) se prohibieron todos los símbolos nacionales vascos. Hablar euskera era antipatriótico, subversivo y de mal gusto ("*¡hábleme en cristiano!*"). A una nación (España), correspondía un solo idioma (el español) y el régimen franquista combinó múltiples medios para que la realidad social se ajustara a esa idea: legislación, cuerpos policiales y judicatura, sistema de enseñanza y medios de comunicación, entre otros.

Todo el entramado legal y represivo franquista garantizaba en última instancia que aquella visión autoritaria, derechista, católica y españolista del triunfante movimiento nacional fuera la única imperante en los espacios públicos. Paralelamente, desarrollaron todo un sistema de propaganda y adoctrinamiento de la población, basado en el control de la enseñanza y de los medios de comunicación de masas. Así, por ejemplo, en la escuela de Legazpi se enseñaban los heroicos episodios de la Cruzada Nacional; los niños y niñas legazpiarras izaban la bandera española en el mástil de la escuela y cantaban el himno falangista *Cara al sol* formados militarmente.

Número: 39

Falange Española Tradicionalista y de las J. O. N. S.
JEFATURA PROVINCIAL DE GUIPUZCOA
**DEPURACION**

Nombre y apellidos Patricio Echeverria Elorza profesión Industrial
edad 57 años estado casado
Naturaleza Legazpia
Ultimo domicilio antes del Movimiento Nacional Legazpia
Domicilio actual Legazpia

*Antecedentes políticos hasta la fecha de su ingreso en F. E. T. y de las J. O. N. S, partido político u organización a que hubiere estado afiliado, cargos oficiales o de confianza desempeñados, aportaciones económicas, trabajos de toda índole o influencias que directa o indirectamente haya llegado a ejercer en la vida política, hubiere estado o no afiliado a partido político.*

Antes de su ingreso en la F.E.T. y de las J.O.N.S. no perteneció a partido politico alguno , pero actuó siempre en forma destacada y publica a favor de las candidaturas de derechas , aconsejando a sus obreros las favorecieran con su votos, y ayudandolas economica-mente en cuantas ocasiones fuere necesaria su colaboracion.

Su actuacion en este aspecto fué tenida como ejemplar en esta provinci

Hizo grandes aportaciones a la Causa Nacional, tanto en numerario como en prendas de abrigo, como mantas etc. , llegando a costear a sus expensas el sostenimiento de un Hospital de Sangre en esta localidad desde 1º de Enero de 1937 a 1º de abril de 1939, instalado en un edificio destinado a Asilo de Ancianos erigido por el mismo para este pueblo.

*¿Ha pertenecido a la Masonería o alguna secta secreta?*

No Sr.

*Si evacuó a la liberación y por qué razones. Peripecias recorridas hasta su reintegración a la zona Nacional. Servicios prestados con los rojos, con expresión de si fué voluntario o forzado.*

No Evacuó ni prestó servicio alguno a los rojos.

---

*Si ha sido sancionado administrativa o gubernativamente.*

No Sr.

*Cargos desempeñados en las Organizaciones unificadas en ... en el Estado, Provincia o Municipio o empresas y conducta obse...*

No ha desempeñado cargo alguno

*Conducta político social y privada con expresión de los hechos d... formule, indicios vehementes o fama pública.*

Ha observado en todo tiempo una conducta e...

*...razonado sobre su espíritu de identificación con el Movimiento...*

...sideró un ferviente defensor de la Caus...

Legazpia 14 de abril de 1943.

El Alcalde

Legazpiko udal artxibategia

Legazpiko udal artxibategia

Komunikazioaren arloan, adierazpen askatasuna erabat desagertu zen. Gipuzkoan, esaterako, egunkari abertzale, ezkertiar edo demokrata guztiak itxi zituzten, eta argi eta garbi erregimen berriaren alde egin zutenak baino ez zituzten mantendu (*El Diario Vasco*, *La Voz de España* eta *Unidad*).

Laburbilduz, giro politikoa eta soziala itogarria zen. Inork ezin zituen erregimenak ezarritako mugak gainditu, eta saioa egiten zuenak zain izaten zuen Espainia berriko errepresio-aparatu nonahikoa, gupidagabea eta izugarria.




En el ámbito de la comunicación desapareció por completo la libertad de expresión. En Gipuzkoa, en concreto, se clausuraron todos los periódicos abertzales, izquierdistas o simplemente demócratas existentes con anterioridad, y solamente prosperaron los manifiestamente favorables al nuevo régimen (*El Diario Vasco*, *La Voz de España* y *Unidad*).

En resumidas cuentas, el clima político y social era asfixiante. Nadie podía rebasar los límites impuestos por el régimen. Y para el que lo intentara, ahí estaba el omnipresente, implacable y terrorífico aparato represivo de la nueva España.

## 20 - Errepresio-aparatu faxista

Errepresio-aparatu frankista ez zuten hutsetik eraiki. Gerra hasi zen unetik bertatik, bando faxistako arduradunek argi utzi zuten EDOZER egiteko prest zeudela euren helburuak lortzeko. 1936ko uztaila bukaeran, gerra hasi eta egun gutxira, kazetari atzerritar batek elkarrizketa egin zion Francisco Francori, eta bertan esan zuen aurrera joko zutela etsaia zapaldu arte: "*Espainia marxismoaren atzaparretatik salbatuko dut, kosta ahala kosta*." Horretarako Espainia erdia hiltzeko prest ote zegoen galdetu zion kazetariak. Franko jeneralak burua mugitu eta, irribarre eszeptikoa ahoan, erantzun zion: "*Berriro diot, kosta ahala kosta*."

Eta, jakina, emandako hitza bete zuten. Gerran eskura zituzten bitarteko guztiak erabili zituzten, baita inor bereizi gabe jendetzaren aurka egindako bonbardaketak ere, etsaia ikaratzeko eta zapaltzeko. Halaber, herriak edo hiriak mendean hartu ahala, argi utzi zuten haien jarrera: fusilamenduak, atxiloketak, miaketak, torturak, espetxeratzeak, inposizioak, suteak, txikitzeak, lapurretak, kolpeak, laidoak, bortxaketak...

Gerra bukatutakoan, irabazleek botere osoa zutela, errepresioak ez zuen etenik izan. Epaileek, militarrek eta hainbat polizia indarrek hartu zuten hori bideratzeko ardura. Legazpin, Guardia Zibilak udaletxepean hartu zuen egoitza, eta bertan egon zen 40ko hamarkadan, 1951n kuartelera joan ziren arte.

## 20 - El aparato represivo franquista

El aparato represivo franquista no partía de la nada. Desde el propio inicio de la guerra, los responsables del bando fascista habían dejado bien claro que estaban dispuestos A TODO con tal de conseguir sus objetivos. A finales de julio de 1936, a los pocos días de comenzar la guerra, un periodista extranjero realizó una entrevista a Francisco Franco donde éste manifestó que iban a seguir avanzando hasta aplastar al enemigo: "*Salvaré España del marxismo, cueste lo que cueste*." El periodista en cuestión le preguntó si estaría dispuesto, para ello, a matar a la mitad de España. El general Franco sacudió la cabeza con sonrisa escéptica, y respondió: "*Repito, cueste lo que cueste*."

Y, desde luego, cumplieron con su palabra. Durante la guerra utilizaron todos los medios a su alcance, incluidos bombardeos masivos e indiscriminados contra la población civil, para amedrentar y aplastar al enemigo. Asimismo, a medida que conquistaban un pueblo o ciudad, desde el primer momento exhibían claramente cuál era su talante: fusilaban, detenían, registraban, torturaban, encarcelaban, imponían, depuraban, quemaban, rompían, robaban, golpeaban, humillaban, violaban…

Terminada la guerra y con el poder absoluto en manos de los vencedores, la represión no cesó. Jueces, militares y fuerzas policiales varias se encargaban de ello. En Legazpi, la Guardia Civil se instaló en los bajos del propio Ayuntamiento y estuvo allí durante toda la década de los años 40, hasta que en 1951 se trasladó al cuartelillo.

Errepresio molde zuzenez gain (atxiloketak, espetxeratzeak...), beste zigor molde batzuk ere ezarri zituzten gerra galdu zutenen aurka. Hala, funtzionario publikoen eta irakasleen artean garbiketa egin zuten, eta frankisten artean zalantza izpia eragiten zuten guztiak zigortu eta lanetik baztertu zituzten (ikus ondorengo orrialdeko zerrenda).

Además de las formas de represión más directas (detenciones, encarcelamientos, etc.) establecieron otras formas de castigo contra los perdedores de la guerra. Así, los funcionarios públicos y maestros fueron depurados, y todos aquellos que despertaran la mínima desconfianza de los franquistas fueron castigados y apartados de sus funciones (ver listado en página siguiente).



Lucio Vergara-Lenbur

Goardia Zibilen Legazpiko koartela

Cuartel de la Guardia Civil en Legazpi

## IRAKASLEEN ETA FUNTZIONARIO PUBLIKOEN ARTEAN EGINDAKO GARBIKETAREN BIKTIMAK (BEHIN BEHINEKO ZERRENDA)

## MAESTROS Y EMPLEADOS PÚBLICOS DEPURADOS (LISTADO PROVISIONAL)

Oharra: zerrenda hau Legazpiko Udal Artxibategian, Iñaki Egañaren "1936, Gerra Zibila Euskal Herrian" liburuan, eta Jose Mari Urcelayren "Legazpi siglo XX: hitos en el camino hacia la modernidad" liburuan jasotako informazioaren arabera egin dugu. Jakitun gara ez dela zerrenda osoa. Zuzenketak egin nahi izanez gero, ikus kontrazala.

Nota: este listado lo hemos elaborado en base a la información recabada en el Archivo Municipal de Legazpi, en "1936, Gerra Zibila Euskal Herrian" de Iñaki Egaña y en "Legazpi siglo XX: hitos en el camino hacia la modernidad" de Jose Mari Urcelay. Somos conscientes de que se trata de un listado incompleto. Para correcciones ver contraportada.

| **Maisu-maistrak / Maestros** | |
|---|---|
| Sebastiana Akutain | |
| Bittori Astigarraga Elorza | Deserriratua/ desterrada |
| Magdalena Aierbe | |
| Arantza Estibal Egaña | |
| José Quilez | Behin behingoz lanetik baztertua/ Suspensión temporal |
| Avelino Sánchez Isasi | |
| Pedro Sobrino de la Pinta | Behin betiko irakasle jardutea galarazi zioten/ Se le separó definitivamente del servicio |
| Josefa Imaz Galatas (haur eskolako irakaslea/ maestra municipal de párvulos) | Galdeketa egin zioten, baina ez zioten postua kendu/ Fue interrogada, pero no la apartaron del servicio |
| **Udal langileak / Empleados municipales** | |
| Alejo Albisu Astaburua (botikaria / farmacéutico) | Hiru hilabetez soldatarik gabe kaleratua (eta esanak zuzendu behar izan zituen)/ Tres meses despedido y suspendido de sueldo (y retractación) |
| Juan Galfasoro Lergoburu (administraria / administrativo) | Lanpostua galdu zuen/ Pérdida de empleo |
| Florentino Iturbe Apaolaza (txistularia / chistulari) | Lanpostua galdu zuen/ Pérdida de empleo |
| Bernardo Legorburu Iñurritegi (postaria / cartero) | Lanpostua galdu zuen/ Pérdida de empleo |
| Julián Ojanguren Etxeberria (gauzaina / sereno) | Galdeketa egin zioten, baina ez zioten postua kendu/ Fue interrogado, pero no la apartaron del servicio |
| Facundo Urzelai Elorza (txistularia eta danbolin-jotzaile/ chistulari y tamborilero) | Lanpostua galdu zuen/ Pérdida de empleo |

Legazpiar askori jabetzak kendu zizkieten eta isun gogorrei egin behar izan zieten aurre gerra aurrean adierazitako iritziengatik edo izandako jarduera politikoengatik (ikus ondorengo orrialdeko zerrenda). Familia batzuek miseria gorria jasan zuten isun haiengatik, eta ez dugu ahaztu behar gosete garaia zela. Legazpiko zenbait familia dirudunek negozioak galdu zituzten desjabetzeen eta isunen ondorioz.

También fueron numerosos los legazpiarras que tuvieron que hacer frente a las expropiaciones y a las cuantiosas multas consecuencia de sus opiniones o actividades políticas anteriores a la guerra (ver listados en página siguiente). Algunas familias pasaron verdaderas penalidades a consecuencia de aquellas multas. No olvidemos que eran los tiempos del hambre. También hubo familias legazpiarras adineradas que a causa de las expropiaciones y multas vieron arruinados sus negocios.

### ISUNA JASO ZUTEN LEGAZPIARRAK (BEHIN BEHINEKO ZERRENDA)
### LEGAZPIARRAS MULTADOS (LISTADO PROVISIONAL)

| | |
|---|---|
| José María Agirrezabal Etxeberria | 5.000 pezeta. |
| Laureano Bastida Garitagoitia | 25.000 pezeta. |
| Antonio Elorza Mugika | 30.000 pezeta. |
| Félix Elorza Mugika | 30.000 pezeta. |
| Ramón Espina Zapata | 25.000 pezeta. |
| Estanislao Gisasola Artamendi | 25.000 pezeta. |
| Juan Manuel Ibarguren Pagola | 25.000 pezeta. |
| Juan Iturbe Apaolaza | 50.000 pezeta. |
| José María Lardizabal Balentziaga | 30.000 pezeta. |
| Catalina Segura Makibar | 30.000 pezeta. |
| Eugenia Segura Makibar | 30.000 pezeta. |
| Jesús Segura Makibar | 30.000 pezeta. |
| Ubaldo Segura Makibar | 50.000 pezeta. |

Oharra: zerrenda hau Legazpiko Udal Artxibategian eta Bergarako Epaitegian (ardura politikoen aktak) jasotako informazioa kontuan hartuta osatu dugu. Jakitun gara ez dela zerrenda osoa. Zuzenketak egin nahi izanez gero, ikus kontrazala.

Nota: Archivo Municipal de Legazpi y Juzgado de Bergara (actas de responsabilidades políticas). Somos conscientes de que se trata de un listado incompleto. Para correcciones ver contraportada.

## JABETZAK KENDU ZIZKIETEN LEGAZPIARRAK (BEHIN BEHINEKO ZERRENDA)
## LEGAZPIARRAS EXPROPIADOS (LISTADO PROVISIONAL)

| | **Kendutako ondasunak/ Bienes expropiados** |
|---|---|
| Estanislao Agirre | Ibilgailuak (Vehículos): Autobusa |
| José María Agirrezabal Etxeberria | Jabetzak /Propiedades |
| Carlos Amilibia Martínez De Osaba | Jabetzak /Propiedades |
| José Aparicio Errasti | Jabetzak /Propiedades |
| José Antonio Aztiria Mendizabal | Jabetzak /Propiedades |
| Elorza-Mujika familia (alarguna eta semeak / viuda e hijos) | Ibilgailuak (Vehículos): 3 kotxe |
| Francisco Emery Arozena | Jabetzak /Propiedades |
| Andrés Fernández Almandoz | Jabetzak /Propiedades |
| Fermín Garin Ugarte | Ibilgailuak (Vehículos): Kamioneta |
| Román Gaztelumendi Almandoz | Jabetzak /Propiedades |
| Francisco Goia Legorburu | Eman zuen mailegu baten interesak / Intereses de un crédito que había concedido |
| Francisco Iñurritegi Guerra | Jabetzak /Propiedades |
| Domingo Iñurritegi Inza | Jabetzak /Propiedades |
| Juan Iruretagoiena Zugasti | Jabetzak /Propiedades |
| Juan Iturbe Apaolaza | Jabetzak /Propiedades |
| Bonifacio Landa Guridi | Jabetzak /Propiedades |
| José María Lardizabal Balentziaga (Segura) | Jabetzak /Propiedades |
| Ana María Lardizabal Balentziaga (Segura) | Jabetzak /Propiedades |
| Bernardo Legorburu Iñurritegi | Jabetzak /Propiedades |
| José María Lopetegi Olaizola | Jabetzak /Propiedades |
| Luis Murua Lasa | Jabetzak /Propiedades |
| Isidro Olabide Zangitu | Jabetzak /Propiedades |
| Joakin Oruezabal Yustede | Jabetzak /Propiedades |
| Luis Salis Landa | Jabetzak /Propiedades |
| Ubaldo Segura Makibar | Jabetzak /Propiedades |
| Ignacio Sola Galarregi | Jabetzak /Propiedades |
| Facundo Urzelai Elorza | Jabetzak /Propiedades |
| Anselmo Zabaleta Urzelai | Jabetzak /Propiedades |

Oharra: zerrenda hau Legazpiko Udal Artxibategian jasotako informazioa kontuan hartuta osatu dugu. Jakitun gara ez dela zerrenda osoa. Zuzenketak egin nahi izanez gero, ikus kontrazala.

Nota: este listado lo hemos elaborado en base a la información recabada en el Archivo Municipal de Legazpi. Para correcciones ver contraportada.





GOBIERNO CIVIL GENERAL DE GUIPÚZCOA Y VIZCAYA

Provincia de Guipúzcoa

Revisión total en el personal de Instrucción Pública

por la

COMISIÓN D

nombrada por el

Excmo. Señor Presidente de la Junta Técnica del Estado,

a propuesta de la Comisión de Cultura y Enseñanza

EXPEDIENTE

DE DEPURACIÓN

incoado a D. Josefa Imaz Galatas

que ocupa el cargo de Maestra Municipal de párvulos

Legazpia.

según se ordena en el Decreto número 66 del Gobierno del Estado de 8 de Noviembre de 1936

DOCUMENTOS

1 Información

2 Guardia Civil

3 Párroco (1 informe)

4 Alcaldía (2 informes)

5 Padres de Familia



Euskal Memoria Fundazioa

Guardia zibilen kontzentrazioa Gasteizko Plaza Berrian, 1938an.

Concentración de guardia civiles en la Plaza Nueva de Gasteiz en 1938.

## 21 - Legazpiko Udaleko zerrenda beltza

Errepresio sistema frankistak herritarren kontrol zorrotza zuen ardatz. Errepresio-aparatu frankistak informazio eta kontrol sistema zabala ezarri zuen, batetik, jomugak aukeratzeko eta, bestetik, bakoitzari zegokion zigorra erabaki ahal izateko.. Legazpiko Udal Artxibategian zerrenda beltz ugari topatu ditugu, eta horietan ehunka herritarren joera politikoa ageri da. Halaber, ehunka legazpiarrei buruzko txostenak azaldu dira, eta horietan agertzen da hau edo beste abertzalea edo sozialista zela, beste hark Batzokiak antolatutako ekitaldietan parte hartu zuela, halakok ez zuela mezetara joateko ohiturarik, honakok faxisten aurkako borrokan parte hartu zuela edo ez zela altxamenduaren aldekoa... Finean, irabazleen sinesbide politikoaren alde egiten ez zuen oro susmagarria zen.

Legazpin informazio-sistema horrek udal kargu publikoen, funtzionario publikoen eta FET y de las JONS erakundeko arduradunen eta militanteen parte-hartzea zuen oinarri. Herritar askok gogoan dute udal idazkariak erregimenarekin bat egin ez zuten legazpiarren informazioa jasotzen eta sistematizatzen egindako lana.

Herritarren arteko salaketak bultzatzeko ere esfortzu handia egin zuen aparatu frankistak. Erregimen berriak "*gorri-separatisten*" aurkako edozein salaketa onartzeko joera zuen, sinestezina izan arren. Auzokideen arteko mendeku garaia ere izan zen, eta gerra aurreko inbidia eta tirabira askok eztanda egin zuten.

## 21 - Listas negras en el Ayuntamiento de Legazpi

El sistema represivo franquista se sustentaba sobre un control exhaustivo de la población. Para ello, se articuló un amplio sistema de información y control de los vecinos, de cara a seleccionar los objetivos de la represión y ajustar los castigos a los disidentes. En el Archivo del Ayuntamiento de Legazpi hemos hallado listas negras de personas, en las que se recoge la filiación política de cientos de vecinos del municipio. Igualmente han aparecido cientos de informes sobre legazpiarras, donde se detalla que éste o aquél era nacionalista o socialista, que aquella participaba en los actos del batzoki y que aquél no solía ir a misa, que el otro participó en la lucha contra los fascistas o no era proclive al alzamiento nacional… En definitiva, era sospechosa toda persona que no fuera manifiestamente favorable al credo político de los vencedores.

Este sistema de información se desarrollaba en Legazpi, con la participación de cargos públicos municipales, funcionarios públicos y responsables y militantes locales de la FET y de las JONS. Muchos vecinos recuerdan todavía la especial dedicación del secretario municipal en la labor de recoger y sistematizar la información sobre los vecinos no adeptos al régimen.

El aparato franquista hizo, además, un esfuerzo especial para impulsar la delación entre los propios vecinos. El nuevo régimen, tendía a aceptar habitualmente cualquier denuncia contra los considerados "*rojoseparatistas*", por

Don Tomás Echeverría, Alcalde de esta villa de Legazpia en la provincia de Guipúzcoa.

CERTIFICO : Que consultados los antecedentes que obran en poder de la Comision de informes de mi presidencia, resulta : que CARLOS AMILIBIA MARTINEZ DE [illegible], de [illegible] años, natural de Sopuerta (Vizcaya) y vecino de esta villa, residió en esta villa hasta el 19 de Sepbre último pasado, observando buena conducta moral , durante su permanencia en esta localidad.

Era de filiacion política nacionalista vasco, desempeñó cargos directivos en los Solidarios Vascos y en Octubre del 1934, siendo Presidente de dicha organización impuso en esta villa la primera huelga revolucionaria que conoce la historia industrial de este pueblo, obrando desde luego al dictado de la organizacion provincial, y esforzandose para que aquella fuese totalmente efectiva.

Durante el dominio del Frente popular, al principio estuvo alejado de los Comités, limitándose a efectuar alguna guardia forzosa, pasando luego a ejercer el cometido de repartidor de municiones a los que prestaban guardias y por último tuvo algun cargo secundario en algun Comité, habiéndose distinguido el día en que huyeron del pueblo los rojo-separatistas , ante la proximidad de las fuerzas nacionales, organizando con pistola en mano la salida de vehiculos del pueblo y obligando en actitud amenazadora a salir del pueblo a algun chofer y jóvenes que se mostraran remisos en abandonar la localidad, no constando nada relativo a su actuacion posterior.

Para que así conste [...] Julio de mil novecientos [...]

Legazpiko Udal Artxibategia

INFORME

Antecedentes : De buena conducta moral y social, de filiacion Nacionalista Vasco, habiendo desempeñado cargos directivos en los Solidarios siendo Presidente de dicha organizacion y cumpliendo ordenes de los directivos provinciales impuso el año 1934 la primera huelga revolucionaria que conoce la historia industrial de esta villa, laborando con ahinco por su efectividad.

Actuacion durante el dominio del F.P.
Al principio estuvo alejado de los Comites , limitándose a efectuar guardias forzozas , pasando a efectuar el cargo de repartidor de municiones a los que prestaban guardias y por último tuvo algun cargo secundario en algun Comite , no consta intervención en ningun acto de despojo ni detencion de personas de derecha, siendo uno de los organizadores de la evacuacion de los rojo-separatistas de la villa al aproximarse a ella las fuerzas nacionales , labor que llevó a cabo armado de pistola.

3 Febrero 1938

Legazpiko Udal Artxibategia

*

Ehunka herritarrei buruzko zerrenda eta txostenak Legazpiko Udalean.

Listas e informes sobre cientos de vecinos en el Ayuntamiento de Legazpi.

Testuinguru itogarri horretan, gerra aurretik alderdi abertzaleetako eta ezkertiarretako kide izandako batzuek uko egin zioten ordura arteko ikuspegiari eta Mugimendu Nazional irabazlearekin bat egin zuten. Baina ezin esan daiteke gerra galdu zutenen artean joera hori nagusi izan zenik, ezta gutxiagorik ere.

muy inverosímil que ésta fuera. Fueron, también, momentos de revancha entre vecinos, donde estallaron muchas de las envidias y rencillas anteriores a la guerra.

En este contexto ciertamente atosigante, hubo personas que habiendo pertenecido antes de la guerra a los partidos abertzales o de izquierdas, renunciaron a sus anteriores planteamientos, y se acercaron al triunfante movimiento nacional. No cabe decir, sin embargo, que ese fuera un comportamiento generalizado entre los perdedores de la guerra.





Francok Donostia bisitatzen zuenean ehunka gipuzkoar atxilotzen zituzten "badaezpada". Tartean, frankismoko azken urteetan, atxilotuak izan arte itxaron beharrean Donostiako Bulebarrean hitzordua egin eta elkarrekin Martuteneko espetxera joaten zen legazpiar talde bat. Argazkietan, Franco Donostian.

Cuando Franco visitaba Donostia cientos de gipuzkoanos eran detenidos “preventivamente”. Entre ellos, un grupo de legazpiarras que durante los últimos años del franquismo en vez de esperar a ser detenidos, quedaban en el Boulevard de Donostia para ir juntos a entregarse a la prisión de Martutene. En las fotografías, Franco en Donostia.

## 22 - Legazpiarrak espetxean eta lan batailoietan

Gerra amaitutakoan legazpiarren sufrimendua ez zen bukatu. Legazpiar asko espetxeratu zituzten edo ia esklaboak bailiran izan zituzten lan batailoietan (ikus zerrenda ondorengo orrialdeetan). Gure kalkuluen arabera, 240 legazpiar inguru izan ziren egoera horiek bizi behar izan zituztenak. Kideren bat preso edo lan batailoietan zuten familia askok, gainera, sakabanaketa jasan behar izan zuten, hainbat presok ehunka kilometrora zeuden Espainiako espetxeetan bete baitzuten zigorra.

Espetxe frankistetan bizitza ez zen erraza: gosea, egarria, jende pilaketa, zikinkeria, gaixotasunak, laidoak eta zigorrak. Espetxe frankisten bizi-baldintza gogorrei presoen fusilamenduek eragiten zuten egonezina eta larritasuna gehitu behar zaio.

Bizi-baldintza gogor horiek, nolabait, arintzen zituen alde positibo bakarra presoen arteko elkartasuna eta errepresaliatuen senideek eta lagunek osatutako babes sareak ziren.

Lan batailoiak beste zigor molde bat ziren. Bizi-baldintzak latzak ziren, eta atxilotuek gogor egin behar zuten lan, nahitaez, ia esklaboen moduan. Frankistek gerran erabili zuten formula hori lehenik, lan jakin batzuk egiteko gerrafrontean: lubakiak, garraio lanak, hilotzak jasotzea... Gerra bukatutakoan, lan batailoiak gerrak hondatutako hiriak eta

## 22 - Legazpiarras en prisión y en batallones de trabajadores

Los padecimientos de los legazpiarras supervivientes a la guerra no finalizaron con ésta. Muchos legazpiarras, unos 240 según nuestras estimaciones, fueron enviados a prisión o a los batallones de trabajadores (ver listados provisionales en páginas siguientes). Una parte de las familias con algún miembro encarcelado o en batallones de trabajadores tuvieron que sufrir además la dispersión a que fueron sometidos los presos legazpiarras, muchos de los cuales cumplieron condena en cárceles a cientos de kilómetros de distancia de su localidad, diseminadas por toda la geografía española.

La vida en las prisiones franquistas no era fácil: hambre, sed, hacinamiento, suciedad, enfermedades, humillación y castigo. A las ya de por sí duras condiciones de vida, hay que añadir la incertidumbre y angustia provocada por los fusilamientos de presos.

Quizás el único aspecto positivo que amortiguaba esas duras condiciones de vida, fuera la solidaridad entre los reclusos y el apoyo de las redes familiares y de amigos a las personas represaliadas.

Los batallones de trabajadores eran otra modalidad de castigo. Las condiciones de vida eran duras, y además se obligaba a las personas detenidas a trabajar en condiciones de sobreexplotación, cercanas a la esclavitud. Los fran-

## PRESO EGONDAKO LEGAZPIARRAK (BEHIN BEHINEKO ZERRENDA)

## LEGAZPIARRAS EN PRISIÓN (LISTADO PROVISIONAL)

Oharra: zerrenda hau Legazpiko Udal Artxibategian topatutako agiriak eta elkarrizketetan jasotako informazioa kontuan hartuta osatu dugu. Jakitun gara ez dela zerrenda osoa. Zuzenketak egin nahi izanez gero, ikus kontrazala.

Nota: este listado lo hemos elaborado en base a la documentación encontrada en el Archivo Municipal de Legazpi y a la información recabada en las entrevistas. Somos conscientes de que se trata de un listado incompleto. Para correcciones ver contraportada.

| | |
|---|---|
| Tomás Agirre Aldasoro [1] | Madril (Espainia) |
| Julián Agirre Gaston [1] | Santander (Espainia) |
| Buenaventura Agirre Itziar [1] | |
| José Miguel Agirre Itziar [2] | Burgos (Espainia) |
| Teodoro Agirre Zaldua [2] | Gurseko kontzentrazio-esparrua (Frantzia) |
| Antonio Agirreburualde Zabaleta [2] | Bilbo (Bizkaia) |
| Luis Alberdi Arbide [1] | |
| José Miguel Aldabaldetreku Mantxola [1] | Soria (Espainia) |
| Pedro Altuna Bengoetxea [1] | Gasteiz (Araba) |
| Fausto Alustiza Agirre [1] | |
| Nicolás Alustiza Agirre [1] | Zaragoza (Espainia) |
| Sebastián Alustiza Agirre [1] | Bilbo (Bizkaia) |
| Marcos Alustiza Arakama [1] | |
| Carlos Amilibia Martínez De Osaba [3] | Murgia (Araba) |
| José Luis Aramendi Astola [1] | Zaragoza (Espainia) |
| José Areizaga Azurmendi [2] | Kantabria (Espainia) |
| Antonio Arizaga Azurmendi [1] | Logroño (Espainia) |
| Paulino Arrazola-Aiastui Galdos [2] | Burgos (Espainia) |
| Andrés Arrizabalaga Murgiondo [2] | |
| Carmen Arzak Larrañaga [2] | Rodez (Frantzia) |
| José Arzuaga Etxezarreta [1] | |
| Roberto Aseginolaza Aranburu [3] | Ourense (Galizia) |
| Florencio Aztiria Intxausti [1] | Palentzia (Espainia) |
| José Barandiaran Iturbe [2] | Miranda de Ebro (Espainia) |

| | |
|---|---|
| Juan Berasategi Navarro [3] | Santander (Espainia) |
| Santiago Berasategi Zabala [1] | |
| Julián Bermejo [1] | Gaztela-Mantxa (Espainia) |
| Fernando Díaz Espinosa [1] | Burgos (Espainia) |
| Juan Elorza Guridi [1] | Kantabria (Espainia) eta Bilbo (Bizkaia) |
| José Etxeberria Aranburu [2] | |
| Demetrio Etxeberria Guridi [1] | |
| Domingo Etxeberria Iñurritegi [2] | Alanis de la Sierra (Sevilla, Espainia) |
| Agapito Etxeberria Iñurritegi [1] | Madril (Espainia) |
| Lucas Etxeberria Murgiondo [3] | Burgos (Espainia) |
| Sixto Ezeolaza Egino [1] | Santander (Espainia) |
| Francisco Gainza Iguran [2] | |
| Juan Mª Galfarsoro Balerdi [2] | Guadalajara (Espainia) |
| Eluterio Galparsoro Urtzelai [3] | Kantabria (Espainia) |
| Aurelio Garate Albizu [3] | El Dueso (Espainia) |
| Julián Garate Arbizu [2] | Santander eta Zaragoza (Espainia) |
| José Antonio Gaztañaga Zangitu [1] | Bilbo (Bizkaia) |
| Bixente Gibelalde Aranguren [2] | Burgos (Espainia) |
| José Gine Okaranza [1] | Gasteiz (Araba) |
| Alejandro Gordoa Bengoetxea [2] | Bilbo (Bizkaia) |
| Francisco Gordoa Bengoetxea [2] | |
| Joxe Gordoa Bengoetxea [3] | Kantabria (Espainia) |
| Martín Gordoa Bengoetxea [2] | |
| Paulino Gordoa Bengoetxea [3] | |
| Toribio Iartza Erostarbe [1] | Kantabria (Espainia) |
| Jesús Ibarnia Sagasti [2] | Burgos (Espainia) |
| Faustino Iñurritegi Gerra [1] | Burgos (Espainia) |
| Urbano Iturbe Apaolaza [1] | Burgos (Espainia) |
| Arantzazu Iturbe Arzak [2] | Rodez (Frantzia) |
| Garbiñe Iturbe Arzak [2] | Rodez (Frantzia) |
| Bernardo Legorburu Iñurritegi [3] | |
| Juan Cruz Lizarralde Sarasola [2] | Burgos (Espainia) |

| | |
|---|---|
| Martín López De Gereñu Saez de Zuazola [2] | Madril (Espainia) |
| Lorenzo Lopez Sabando [3] | Kantabria (Espainia) |
| Donato Luko Alaiza [1] | Valladolid (Espainia) |
| Jesús Madina Alonso [3] | Gurseko kontzentrazio-esparrua (Frantzia) |
| Leandro Makibar Guerra [1] | Iruñea (Nafarroa) |
| Francisco Martínez de Albeniz García [1] | Murgia (Araba) |
| Antonio Mendinueta Flores [2] | Salamanca (Espainia) |
| Juan Mari Mujika Elkorouribe [2] | Burgos (Espainia) |
| Ángel Murua Alkorta [2] | |
| Angel Murua Manterola [3] | Zaragoza (Espainia) |
| Martzelino Olabide Eizmendi [3] | Burgos (Espainia) |
| Félix Ostoaga Zubiola [2] | Cadiz (Espainia) |
| Jesús Peña Etxeberria [2] | |
| Félix Perea Okarantza [1] | Palentzia (Espainia) |
| Tomás Perea Okarantza [1] | Cadiz (Espainia) |
| José Joaquin Sagastume [2] | |
| Hipólito Sarasola Odria [2] | Burgos (Espainia) |
| Jesús Segura Arregi [3] | |
| Julián Txabarri Txasko [2] | |
| José Ugarte Arregi [2] | Donostia (Gipuzkoa) |
| Tomás Urkizu Odriozabala [1] | Santander (Espainia) |
| Lorenzo Urtzelai Gabiria [3] | Salamanca (Espainia) |
| Juan Urtzelai Zabaleta [3] | Castello (Herrialde Katalanak) eta Lesaka (Nafarroa) |
| Juan Zabaleta Idigoras [2] | |
| Martín Zabaleta Idigoras [3] | Teruel (Espainia) |
| Eusebio Zabaleta Oiarbide [1] | |
| Antonio Zalduendo Zufiaurre [1] | Kantabria (Espainia) |
| Cosme Zalduendo Zufiaurre [2] | Gurseko kontzentrazio-esparrua (Frantzia) |
| Andrés Zeberio Fernandez [2] | Miranda de Ebro (Espainia) |
| Félix Zeberio Fernandez [2] | Bilbo (Espainia) |

Iturriak: (1) Legazpiko Udal Artxibategia, (2) Legazpi 1936ren informatzaileak, (3) Artxibategiak eta Legazki 1936ren informatzaileak.

Fuentes: (1) Archivo Municipal de Legazpi, (2) Informantes de Legazpi 1936, (3) Archivos e informantes de Legazpi 1936.

Euskal Memoria Fundazioa



Preso errepublikanoak Irunen, nahitaez faxisten agurra egiten.

Presos republicanos en Irun realizando forzosamente el saludo fascista.

Euskal presoak Burgosko kartzelan.

Presos vascos en la cárcel de Burgos.



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa

Euskal presoak Burgosko kartzelan, Euskal Herrian gerra amaitutakoan.

Presos vascos en la cárcel de Burgos cuando la guerra terminó en Euskal Herria.

Euskal Memoria Fundazioa



Fusilatuko dituzten atxilotuen zerrenda irakurtzen.
Lectura de la lista de detenidos que se disponían a fusilar.

Ondarretako kartzela txiki geratu zen hainbeste atxilotu hartu ahal izateko, 1936 amaieran ateratako irudi honetan ikus daitekeenez.

En la cárcel de Ondarreta los presos estaban hacinados como se puede apreciar en la imagen tomada a finales de 1936.



Euskal Memoria Fundazioa

Bilboko Eskolapioen ikastegian zeuden preso errepublikazaleak.
Presos republicanos en el colegio de los escolapios de Bilbao.



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa

Martuteneko kartzela 1954an.

Cárcel de Martutene en 1954.



Emakume presoak Saturrarango kartzelan.

Mujeres presas en la cárcel de Saturraran.



Euskal Memoria Fundazioa

1938an, euskal presoak Espainiako kartzeletara sakabanatu zituzten. Irudian Utrerako (Sevilla) kartzela.

En 1938 los presos vascos fueron dispersados por cárceles españolas. En la imagen la cárcel de Utrera (Sevilla).

azpiegiturak berreraikitzeko eta beste lan batzuk egiteko (errepideak, trenbideak, tunelak...) erabili zituzten. . Milaka galtzailek osatutako lan batailoiek eraiki behar izan zuten Eroritakoen Harana (Valle de los Caídos); gerraren oroimenezko eta bando nazionaleko hildakoen omenezko faxisten ikur nagusia.

quistas utilizaron esta fórmula primero, durante la guerra, para realizar ciertas labores en los frentes de batalla: cavar trincheras, transporte, recogida de cadáveres, etc. Una vez concluida la guerra, los batallones de trabajadores fueron empleados para reconstruir las ciudades e infraestructuras destrozadas por la guerra y para realizar obras de todo tipo (carreteras, vías férreas, túneles…). Fueron también los batallones de trabajadores formados por miles de perdedores de la guerra los que fueron obligados a construir el Valle de los Caídos, epicentro del imaginario fascista de recuerdo de la guerra y homenaje a los muertos en el bando nacional.



Artxibo partikularra

Terueleko langileen batailoietan. (Zutik) 2. Emilio Zabaleta Telleria / (Behean) 7. Jose Zangitu Arsuaga / 10. Bitor Andueza Zangitu

Batallones de trabajo de Teruel. (De pie) 2. Emilio Zabaleta Telleria / (Behean) 7. José Zangitu Arsuaga / 10. Bitor Andueza Zangitu

Terueleko lan-batailoietan. (Zutik) 3. Lazaro Muñagorri (Bergara) / (Pikotxean) 4. Bitor Andueza Zangitu / 5. Jose Zangitu Arsuaga / 6. Emilio Zabaleta Telleria

Batallones de trabajo de Teruel. (De pie) 3. Lazaro Muñagorri (Bergara) / (Pikotxean) 4. Bitor Andueza Zangitu / 5. Jose Zangitu Arsuaga / 6. Emilio Zabaleta Telleria



Artxibo partikularra

## LAN BATAILOIETAN IZANDAKO LEGAZPIARRAK (BEHIN BEHINEKO ZERRENDA)

## LEGAZPIARRAS EN BATALLONES DE TRABAJADORES (LISTADO PROVISIONAL)

Oharra: zerrenda hau Legazpiko Udal Artxibategian topatutako agiriak eta elkarrizketetan jasotako informazioa kontuan hartuta osatu dugu. Jakitun gara ez dela zerrenda osoa. Zuzenketak egin nahi izanez gero, ikus kontrazala.

Nota: este listado lo hemos elaborado en base a la documentación encontrada en el Archivo Municipal de Legazpi y a la información recabada en las entrevistas. Somos conscientes de que se trata de un listado incompleto. Para correcciones ver contraportada.

| | |
|---|---|
| Facundo Agirre Aztiria [1] | Castello (Herrialde Katalanak) |
| Valentín Agirrezabal Guridi [1] | Guadalajara (Espainia) |
| Andrés Agirrezabal Ormazabal [1] | Soria (Espainia) |
| Pedro Joxe Andueza Loiarte [1] | Amaiur (Nafarroa) eta Bartzelona (Herrialde Katalanak) |
| Víctor Andueza Zangitu [2] | Teruel (Espainia) |
| Cirilo Arbulu Perez [3] | Burgos (Espainia) |
| Lázaro Arizti Altzola [1] | Sevilla (Espainia) |
| Tomás Aspiazu Mendizabal [1] | Castello eta Valentzia (Herrialde Katalanak) |
| Florencio Aztiri [2] | Palentzia (Espainia) |
| Justo Barriola Villabona [2] | Palentzia (Espainia) |
| Cándido Baskaran Agirre [1] | Bartzelona (Herrialde Katalanak) |
| Segundo Baskaran Gereño [1] | Bilbo (Bizkaia) |
| Francisco Beitia Uribeetxeberria [1] | Valladolid (Espainia) |
| Saturnino Bengoetxea Etxeberria [1] | Lleida (Herrialde Katalanak) |
| Luis Biteri Larrea [3] | Castello (Herrialde Katalanak) |
| Fernando Diaz Espinosa [1] | Madril (Espainia) |
| Iñaki Errekabide Irala [1] | Oiartzun (Gipuzkoa) eta Galizia |
| Bernardo Etxeberria Aranburu [2] | Lizarra (Nafarroa) |
| José Etxeberria Garmendia [2] | Lizarra (Nafarroa) |
| Marcos Etxeberria Ibarguren [1] | Irun (Gipuzkoa) |
| Joaquín Galarza Iñurritegi [1] | Castello (Herrialde Katalanak) |
| Carlos Galarza Iñurritegi [1] | Huesca (Espainia) eta Castello (Herrialde Katalanak) |

| | |
|---|---|
| Leandro Galarza Iñurritegi [1] | Bilbo (Bizkaia) eta Zaragoza (Espainia) |
| Francisco Gordoa Bengoetxea [2] | |
| Toribio Iartza Erostarbe [1] | Sevilla (Espainia) |
| Isidro Ibarnia Sagasti [2] | Zaragoza (Espainia) |
| Restituto Ibeas Ibeas [2] | Ondarreta (Donostia) |
| Patricio Idigoras [1] | Jaen (Espainia) |
| Evaristo Intza Azarola [1] | Madril (Espainia) |
| Felipe Iñurritegi Galartza [1] | Lleida (Herrialde Katalanak) |
| Bernardo Iturbe Apaolaza [2] | Merida (Espainia) |
| José Landa Larrea [1] | Bartzelona (Herrialde Katalanak) |
| Nicolás Larrea Egino [1] | Castello (Herrialde Katalanak) |
| Simón Madina Alonso [1] | Soria (Espainia) |
| Leandro Makibar | Almazan (Espainia) |
| Eduardo Mendinueta Flores [2] | Santander (Espainia) |
| Elías Mendinueta Flores [3] | Girona (Herrialde Katalanak) |
| Ángel Murua Manterola [3] | Zaragoza (Espainia) |
| Julián Nunces Lacalle [2] | Burgos (Espainia) |
| Martzelino Olabide Eizmendi [3] | Castello (Herrialde Katalanak) |
| Félix Perea [2] | Palentzia (Espainia) |
| Germán Sagastizabal [1] | Tarragona (Herrialde Katalanak) |
| Bautista Salinas Odena [1] | Zaragoza (Espainia) |
| Santiago Sarasola Odria [1] | Zaragoza (Espainia) |
| Ángel Senpere Santxo [1] | Bartzelona (Herrialde Katalanak) |
| Pedro Sobrino Parra [1] | Algeciras (Espainia) |
| Pedro Sologaistoa Elorza [2] | Gaztela-Leon (Espainia) |
| Luis Sologaistua Elorza [3] | Madril (Espainia) |
| Jesús Urtzelai Gabiria [3] | Girona (Herrialde Katalanak) eta Zaragoza (Espainia) |
| Agustín Urtzelai Zabaleta [1] | Castello (Herrialde Katalanak) |
| Juan Urtzelai Zabaleta [3] | Castello (Herrialde Katalanak) eta Lesaka (Nafarroa) |
| Pedro Urtzelai Zabaleta [1] | |
| Emilio Zabaleta Telleria [2] | |
| Juan Zabaleta Telleria [1] | Cádiz (Espainia) |

| | |
|---|---|
| Pedro Zabaleta Zabaleta [1] | Gasteiz (Araba) |
| Secundino Zaldua Galarza [1] | |
| Isidro Zangitu Arzuaga [2] | Palentzia (Espainia) |
| Juan Zangitu Arzuaga [2] | Teruel (Espainia) |
| Anbrosio Zumarraga Makibar [1] | Madril (Espainia) |
| Antonio Zumarraga Makibar [1] | Castello (Herrialde Katalanak) |

Iturriak: (1) Legazpiko Udal Artxibategia, (2) Legazpi 1936ren informatzaileak, (3) Artxibategiak eta Legazki 1936ren informatzaileak.

Fuentes: (1) Archivo Municipal de Legazpi, (2) Informantes de Legazpi 1936, (3) Archivos e informantes de Legazpi 1936.





"Valle de los caídos" ere lan batailoiek eraiki zuten.

El Valle de los caídos también fue construído por los batallones de trabajadores.

Espetxeetako eta lan batailoietako bizi-baldintza gogorrek eraginda zazpi legazpiar hil ziren espetxean bertan edo espetxetik atera berritan:

Las duras condiciones de vida en las cárceles y batallones de trabajadores se saldaron con siete legazpiarras muertos bien estando en prisión o en batallón de trabajadores, o bien poco después de salir. He aquí sus nombres:

- **Jesús Peña Etxeberria**. Santander (Kantabria, Espainia), 1937/08/30.
- **Domingo Etxeberria Iñurritegi**. Alanis de la Sierra (Sevilla, Espainia), 1937/11/19.
- **José Etxeberria Garmendia**. Lizarra (Nafarroa), 1938/03/23.
- **Félix Zeberio Fernandez**. Legazpi, 1939/08/14.
- **Alejandro Gordoa Bengoetxea**. Bilbo (Bizkaia), 1939/…/….
- **José Barandiaran Iturbe**. Legazpi, 1941/06/05.
- **Cosme Zalduendo Zufiaurre**. Legazpi, 1949/05/30.

Zerrenda horretako **Jesus Peña** eta **Alejandro Gordoa** fusilatu egin zituzten; **Jose Etxeberria** gaixotasun baten ondorioz hil zen lan batailoian zegoela; **Jose Barandiaran** eta **Cosme Zalduendo** espetxetik eta Gurseko kontzentrazio-esparrutik atera ondoren hil ziren, hurrenez hurren, espetxean hartutako gaixotasunengatik; **Domingo Etxeberria** preso zegoela izandako istripu baten ondorioz hil zen; eta azkenik, **Felix Zeberio** preso ohiak bere buruaz beste egin zuen, zantzu guztien arabera, Legazpira itzulitakoan jasan zuen presioagatik.

De esta lista, los presos **Jesús Peña** y **Alejandro Gordoa** fueron fusilados; **José Etxeberria** murió víctima de una enfermedad estando en los batallones de trabajadores; **José Barandiaran** y **Cosme Zalduendo** murieron tras salir de prisión y del campo de concentración de Gurs respectivamente, por las afecciones contraídas en su cautiverio; **Domingo Etxeberria** murió a consecuencia de un accidente que sufrió cuando estaba preso; el ex-preso **Félix Zeberio**, por último, se quitó la vida condicionado, según todos los indicios, por la presión que sufrió al regresar a Legazpi.

## 23 - Legazpiarrak erbestean

Frankisten mendekuaren beldur, galtzaileen bandoko pertsona askok erbesterako bidea hartu zuen. Hainbat kalkuluren arabera, 36ko gerraren ondorioz, 70.000 euskaldunek jo zuten erbestera, gehienek Frantziara. Errefuxiatu askok oso bizi-baldintza gogorrak jasan behar izan zituzten, eta horien gogortasuna areagotu egin zen Bigarren Mundu Gerra hasi zenean. Europan gerra hasitakoan, erbesteratu askok (batez ere buruzagi politikoek eta Euskal Armadako erdi mailako agintariek) Ameriketara jo zuten (Mexikora, Venezuelara eta Argentinara, batez ere). Gehienak ez ziren itzuli.

Dakigunez, gutxi-gutxienez, 21 legazpiarrek alde egin zuten erbestera, eta batzuk familiarekin joan ziren (ikus zerrenda ondorengo orrialdean). Ziurrenik kopuru horrek adierazten duena baino dezente gehiago izango dira erbestera joandako legazpiarrak. Ihes egin zutenen artean, Legazpiko Udalbatza demokratikoko kide ia guztiak ditugu, baita Ubaldo Segura alkatea bera ere. Gehienak urte gutxiren buruan itzuli ziren Legazpira. Daniel Aranguren Mendizabal alkate abertzale izandakoa eta haren familia, ordea, Kuban geratu ziren, eta Daniel bertan hil zen 1981ean. Agirre lehendakariaren prentsa bulegoko kide Juan Iturbe Apaolaza legazpiarra ere erbestean hil zen (Paris, 1947). Alabak aita hil eta bost urtera itzuli ziren Legazpira.


Artxibo partikularra

Juan Iturbe

## 23 - Legazpiarras en el exilio

Ante las posibles represalias que los franquistas pudieran tomar contra ellos, muchas personas del bando perdedor tomaron el camino del exilio. Se calcula que pudieron ser unos 70.000 los vascos que se exiliaron a consecuencia de la guerra del 36, la mayoría de ellos en Francia. Una gran parte de los refugiados, padecieron inicialmente duras condiciones de vida, que se agravaron al iniciarse la Segunda Guerra Mundial. Con la contienda bélica europea, muchos exiliados (líderes políticos y mandos intermedios del Ejercito Vasco principalmente) emigraron a América (México, Venezuela y Argentina, sobre todo). La mayoría no volvió.

Tenemos constancia de 21 legazpiarras que marcharon al exilio, así como de que algunos de ellos lo hicieron acompañados por sus familias (ver lista en página siguiente). Probablemente serán bastantes más los exiliados legazpiarras. Entre los huidos estaba prácticamente toda la corporación municipal democrática de Legazpi, incluido el alcalde Ubaldo Segura. La mayoría de ellos volvieron a Legazpi a los pocos años. El que fuera alcalde nacionalista Daniel Aranguren Mendizabal y su familia, en cambio, fijaron su residencia en Cuba, donde Daniel falleció en 1981. También murió en el exilio el legazpiarra Juan Iturbe Apaolaza (París, 1947), miembro del gabinete de prensa del lehendakari Agirre. Sus hijas retornaron a Legazpi cinco años después del óbito.

ERBESTERA JOANDAKO LEGAZPIARRAK (BEHIN BEHINEKO ZERRENDA)

LEGAZPIARRAS EXILIADOS (LISTADO PROVISIONAL)

Oharra: zerrenda hau elkarrizketetan jasotako informazioa kontuan hartuta osatu dugu. Jakitun gara ez dela zerrenda osoa. Zuzenketak egin nahi izanez gero, ikus kontrazala.

Nota: este listado lo hemos elaborado en base a la información recabada en las entrevistas. Somos conscientes de que se trata de un listado incompleto. Para correcciones ver contraportada.

| | **Nora / Destino** | **Oharrak / Notas** |
|---|---|---|
| Ignacio Agirre Montegi (Bankaria) | Ipar Euskal Herria | |
| Daniel Aranguren Mendizabal (Alkate ohia) | Ipar Euskal Herria eta Kuba | Emaztearekin eta alabarekin joan zen / Se exilió con su esposa e hija |
| Juan Aranguren Mendizabal (Apaiza) | Ipar Euskal Herria | |
| Eugenio Elorza Guridi (Zinegotzia) | Ipar Euskal Herria | |
| Iñaki Errekabide Irala | Ipar Euskal Herria | |
| Elías Etxeberria Murgiondo | Ipar Euskal Herria eta Ingalaterra | |
| Juan Manuel Ibarguren Pagola | Argentina | |
| Restituto Ibeas Ibeas | Frantzia | Familiarekin joan zen / Se exilió con la familia |
| Lucio Irastorza Etxeberria | Ipar Euskal Herria eta Argentina | |
| Juan Iturbe Apaolaza | Ipar Euskal Herria, Ingalaterra eta Frantzia | Familiarekin joan zen / Se exilió con la familia |
| Andrés Lizarazu Alustiza | Venezuela | |
| Pablo Lizarazu Bengoetxea | Irlanda | |
| Pablo Lizarazu Iñurritegi | Ipar Euskal Herria | |
| Martín López De Gereñu Elorza | Argentina | |
| Tomás López de Gereñu Saez de Zuazola | Ipar Euskal Herria eta Argentina | |
| Juanito Mantxola Agirre (Zinegotzia) | Ipar Euskal Herria | |
| Isidro Olabide Zangitu (Zinegotzia) | Ipar Euskal Herria | |
| Ubaldo Segura Makibar (Alkatea eta diputatua) | Ipar Euskal Herria eta Ingalaterra | |
| Lucrecia Valdivielso Blanco | Frantzia | Seme-alabekin joan zen, senarra preso zuen. / Se exilió con los hijos, su marido estaba preso. |
| Juan Zabaleta Telleria | Mexiko | |
| Anselmo Zabaleta Urzelai (Zinegotzia) | Ipar Euskal Herria | |



†

**DANIEL ARANGUREN MENDIZABAL**

**Legazpiko Udaleko alkate ohia Kubako Santa Clara-n hil zen, 76 urte zituenean.**

Legazpiko Udalak ohore egin nahi dio haren izenari eta, bide batez, gaur, larunbata, hilaren 5ean, ilunabarreko 8etan Legazpiko Andre Mariaren parrokian haren arimaren alde izango den hiletara herritar guztiei deitzen die.

**LEGAZPI, 1981eko Abenduaren 5a.**

Daniel Aranguren (1910-1981) Legazpiko alkate izan zen 1931ko apiriletik 1933ko urtarrilera bitarte. Alkate zen bitartean, besteak beste, Legazpi ordezkatu zuen estatutuaren aldeko euskal alkateen batzarretan. Gerra hasitakoan, erbestera jo behar izan zuen familiarekin; lehenengo, Ipar Euskal Herrira eta, gero, Kubara. Han hil zen 1981. urtean. Argazkian, Daniel Aranguren eta Emilia Etxeberria, andre-gizonak, Laubide jatetxean. Bixitan etorrita Legazpin zelarik, Kubara itzuli aurretik, Legazpiko EAJk omenaldia egin zion 1980ko uztailaren 30ean eta egun horretan atera zuten argazkia.

Daniel Aranguren (1910-1981) fue alcalde de Legazpi entre abril de 1931 y enero de 1933. Representó a Legazpi en las reuniones de alcaldes a favor del estatuto vasco de autonomía. Con la guerra, tuvo que partir al exilio con su familia. Primero acudieron a Ipar Euskal Herria y posteriormente a Cuba, donde falleció el año 1981. En la fotografía, con su esposa Emilia Etxeberria, en el restaurante Laubide, en un homenaje que le organizó el PNV de Legazpi el 30 de julio de 1980 durante una visita que realizó a Legazpi.



Artxibo partikularra

Erbestearen ezaugarria urruntasuna zen, baina, askotan, baita deserrotzea ere. Hainbatetan gainera, egoera horri erbesteratuen eta iheslarien bizi-baldintza tamalgarriak gehitu behar zaizkio. Bildutako informazioaren arabera, errefuxiatu legazpiarren bi alaba txiki hil ziren erbeste tragikoan hartutako gaitzen ondorioz: **Magdalena Faustina Martinez de Albeniz Valdivieso** eta **Avelina Madina Zufiaurre**. Lehena Santandergo errefuxiatuen ospitalean hil zen, 1937ko uztailaren 21ean, 2 urte zituela, eta bigarrena, Macônen (Frantzia), 1938an, urtebete edo 2 urte zituela.

Erbestean hildako legazpiarren zerrendan gudari aritutako **Joaquin Etxeberria Murgiondo** aipatu behar dugu, oraingoz, zehazki nola hil zen argitzerik izan ez dugun arren.

Azken unean eskuratu dugun informazioaren arabera, azkenik, Mantxolan jaiotako **Micaela Agirre Villar** legazpiarra ere Bartzelonan hil zen, errefuxiatu zegoela, kamioi batetik gerra errefuxiatuen artean janaria banatzen ari zirela gertatutako iskanbila batean.

La experiencia del exilio estuvo marcada por la lejanía y, a menudo, también por el desarraigo. En no pocos casos, hay que sumar a esas circunstancias las penosas condiciones de vida de exiliados y huidos. Según la información recabada, dos niñas de corta edad, hijas de refugiados legazpiarras, fallecieron a consecuencia de enfermedades contraídas en aquel trágico destierro. Se trata de **Magdalena Faustina Martínez de Albeniz Valdivieso**, que murió con dos años en un hospital para refugiados en Santander el 21 de julio de 1937, y de **Avelina Madina Zufiaurre**, fallecida en Macôn (Francia) el año 1938 cuando tenía 1 o 2 años.

Entre los legazpiarras fallecidos en el exilio hay que incluir también al gudari **Joaquín Etxeberria Murgiondo**, cuyas circunstancias de muerte no hemos podido aclarar por el momento.

Por último, según una información que nos ha llegado en el último momento, la legazpiarra **Micaela Agirre Villar** nacida en Mantxola también habría fallecido estando refugiada en Barcelona en un tumulto sucedido cuando distribuían alimentos desde un camión entre los refugiados de guerra.



Haur euskaldun bat, atzerrira eramango zuen ontziaren zain.

Un niño vasco esperando el barco que ha de transportarle al éxilio.

Euskal Memoria Fundazioa

Asturiasetik ihes egindako milizianoak Pauillacen lurreratzen.
Milicianos huidos desde Asturias aterrizando en Pauillacen.



Euskal Memoria Fundazioa

Santandertik ebakuatuak, Bordelera iristen.
Evacuados desde Santander llegando a Burdeos.



Euskal Memoria Fundazioa

Lehenengo irundarrek abuztu amaieran zeharkatu zuten muga, gerraren izutik ihesi.
Los primeros irundarras cruzaron la frontera a finales de agosto huyendo de la guerra.



Euskal Memoria Fundazioa



Euskal Memoria Fundazioa

Euskal Memoria Fundazioa



Euskal errefuxiatuak, Bizkaitik joan ondoren.

Refugiados vascos después de huir de Bizkaia.

Ebakuatutako neska-mutilak.
Niños evacuados.



Euskal Memoria Fundazioa

Zenbait errefuxiatu Hendaian.
Refugiados en Hendaia.



Euskal Memoria Fundazioa

## 24 - Errepresaliatuen itzulera

Erbestean, lan batailoietan edo espetxe frankistetan izandako legazpiar batzuk herrira itzuli ziren, pixkanaka. Batzuk faxistek atzeman eta gutxira itzuli ziren, berehala askatu zituztelako; beste batzuk hilabete edo urte batzuen buruan bueltatu ziren. Espetxetik ateratzen azkena, ziurrenik, Faustino Iñurritegi Gerra Legazpiko Izquierda Republicanako burua izan zen; 1945ean atera zen kartzelatik.

Itzuli zirenean oso bestelako herria topatu zuten; haiek 1936ko irailaren 19a baino lehen alde egin zutenean utzitakoarekin antza handirik ez zuena. Hasteko, hutsunez betetako herria zen Legazpi. Jende asko falta zen. Espetxean, lan batailoietan edo erbestean zeuden herrikideak falta ziren. Gerraren ondorioz hildako legazpiarrak betiko joanak ziren. Eta falta ziren horietako asko itzulitakoen hurbilekoak ziren: senitartekoak, lagunak, lankideak, gerra aurreko proiektu politikoetako eta sozialetako kideak, lubakietako kideak... Herrira itzulitakoan, gainera, hildako edo errepresaliatutako pertsona horien guztien emazteekin, andregaiekin, gurasoekin, anai-arrebekin... egin zuten topo. Maite zituzten pertsonen galera edo hutsunea etengabe soma zitekeen, irabazleek ezarritako nahitaezko isiltasunaren gainetik. Dolu garaia zen Legazpin.

Itzuli zirenek garaileek mendean hartutako herria aurkitu zuten. Galtzaileek gorri, separatista edo gorri-separatista izatearen estigmari egin behar izan zioten aurre.

## 24 - El retorno de los represaliados

Algunos de los legazpiarras exiliados, los que padecieron el rigor de los batallones de trabajadores o los que conocieron las cárceles franquistas, regresaron paulatinamente al pueblo. Algunos pudieron regresar al poco de caer en manos de los fascistas, ya que fueron prontamente liberados; otros volvieron a los meses o a los años de su detención. Faustino Iñurritegi Gerra, dirigente de Izquierda Republicana en Legazpi, fue probablemente el último en salir de prisión, en 1945.

A su regreso, encontraron un pueblo que había cambiado profundamente; muy diferente al que ellos habían dejado cuando partieron, poco antes de aquel 19 de septiembre de 1936. Para empezar, Legazpi era un pueblo de ausencias. Faltaban muchos y muchas. No encontraron a todos los vecinos que seguían todavía en prisión, en batallones de trabajadores o en el exilio. Faltaban, y faltarían para siempre, todos los legazpiarras muertos como consecuencia de la guerra. Y todos aquellos ausentes eran a menudo gente muy cercana a los que retornaban: familiares, amigos, compañeros de trabajo, en los proyectos políticos y sociales anteriores a la guerra, de trinchera... Volver al pueblo era, además, reencontrarse con las esposas, las novias, las madres, los padres, los hermanos y hermanas… de todas esas personas fallecidas o represaliadas. El dolor por la pérdida o ausencia de los seres queridos, a pesar del obligado manto de silencio impuesto por los vencedores, estaba ahí, rabiosamente presente. Eran tiempos de duelo en Legazpi.


"VIVA ESPAÑA"

AYUDANTIA MAYOR
DEL
ARSENAL DE LA CARRACA
JEFATURA

Ruego a V. S. tenga a bien extender y remitir a esta Jefatura un certificado acreditativo de la conducta observada por el PRISIONERO DE GUERRA, Juan Zabaleta Tellerías, que forma parte de la Compañía de Trabajadores de este Arsenal, cuyo individuo manifiesta en el 18 de Julio de 1.936 tenía su domicilio en esa población, Caserio Olabarría.

Dios guarde a V. S. muchos años.

Carraca, 12 de Junio de 1.939,
Año de la Victoria.
El Ayudante Mayor,

José de Dueñas

Sr. Alcalde Presidente del Excmo. Ayuntamiento de LEGAZPIA (Guipuzcoa).



Goseak eta miseriak jotako herrira itzuli ziren. Urte gogorrak izan ziren denontzat, baina, bereziki, gerra galdu zutenentzat. Desjabetzeek, isunek, errazionamendu-sistemak... eragin zuten gerra galdu zutenentzat bizi-baldintzak are zailagoak izatea. Aparteko aipamena merezi du itzuli ziren askok lana lortzeko eta euren familiak mantentzeko garai zail haietan izan zituzten zailtasunak. Patrizio Etxeberriaren, Joaquin Bereziarturen eta Gaspar Alustizaren enpresetan langileak baztertzeko *koarentena* (*Registro de Colocación Obrera* zuen izen ofiziala) izeneko sistema jarri zuten eta, horren ondorioz, espetxetik edo lan batailoitatik itzulitako langile ohiak ez zituzten epe batean lanerako hartzen, "*gorri-separatista*" izan zirelako, hain zuzen. Kasu gehienetan, *koarentena* 6 hilabete eta 2 urte artekoa izan zen.

Aitzitik, Legazpiko zenbait enpresariok herrira itzulitako gudariak, milizianoak eta galtzaileak hartu zituzten haien lantokietan, ahal izan zuten neurrian behintzat. Elkarrizketatutako

Los retornados encontraron un pueblo totalmente dominado por los vencedores. Y ellos, los perdedores, debieron hacer frente al estigma de haber sido rojos, separatistas o rojoseparatistas.

Regresaron, además, a un pueblo de hambre y miseria. Fueron años duros para casi todos, especialmente para los perdedores de la guerra. Las expropiaciones y multas que sufrieron algunos de ellos, el sistema de racionamiento, etc., provocaron, por añadidura, que las condiciones de vida fueran aún más difíciles para los que habían perdido la guerra. Mención especial merecen las dificultades que padecieron muchos de los retornados para reiniciar su vida laboral y poder sacar adelante a sus familias en aquellos difíciles tiempos. En las empresas de Patricio Etxeberria, Joaquín Bereziartu y Gaspar Alustiza, se habilitó un sistema de exclusión laboral conocido como *cuarentena* (*Registro de Colocación Obrera* en su denominación oficial), consistente en no readmitir de inmediato a todos los antiguos trabajadores que volvían de prisión o de batallones de trabajadores, precisamente por el hecho de haber sido "*rojoseparatistas*". La duración de la *cuarentena* oscilaba entre los 6 meses y los 2 años en la mayoría de los casos.

Al contrario, hubo empresarios legazpiarras que en la medida de sus posibilidades colocaron en sus fábricas a los gudaris, milicianos y perdedores de la guerra que retornaron al pueblo. Los protagonistas entrevistados recuerdan es-

protagonistek bereziki gogoan dituzte paper-fabrikako Elorza anaiak, fabrikan gudariak eta milizianoak hartu baitzituzten, baita beso edo hankaren bat faltan itzulitakoak ere, alegia, lana lortzeko zailtasun gehien zutenak. Are gehiago, elkarrizketatuek kontatutakoaren arabera, fabrikan lanpostu huts gehiago ez zituztenean, Antonio Elorzak gestioak egin zituen beste enpresa batzuetan lanerako har zitzaten. Besteak beste, Antonio Aztiriaren (Bengoleako Aztiria zerrategia, gerora Urretxura eraman zutena), Julian Zabaletaren (Elbarrenako Urola Teileria) eta Jose Mari Elgearen (Elguea Altzariak) enpresetan hartu zituzten gudari eta miliziano ohiak.

Elkarrizketatutako lekuko batzuek diotenez, gerraostean, zoritxarrak eta frankismoaren aurkako jarrerak elkartuta, familia politikoen (ezkertiarrak eta abertzaleak) arteko elkartasun sareak osatu ziren, Errepublika garaian elkarren artean aldenduta egon ziren joerak elkartuz.

Itzuli zirenek, azkenean, etxekoen berotasuna eta lagunen eta auzokideen elkartasuna aurkitu zuten. Halaber, herritar askoren maitasuna eta konplizitatea jaso zuten, haiek bezala gerrako galtzaile sentitzen zirenena.

pecialmente el caso de los hermanos Elorza de la papelera, que aceptaron en su fábrica a gudaris y milicianos, también a los mutilados, que eran los que más difícil lo tenían a la hora de encontrar trabajo. Es más, los entrevistados recuerdan que cuando ya no dispuso de más puestos en su fábrica, Antonio Elorza hizo gestiones para que otras empresas los admitieran. Así, también aceptaron a represaliados, cuando menos, las empresas propiedad de Antonio Aztiria (Serrería Aztiria en Bengolea, más tarde se trasladó a Urretxu), Julián Zabaleta (Tejería Urola en Elbarrena) y José Mari Elguea (Muebles Elguea).

Algunas de las personas entrevistadas afirman que fue precisamente en la posguerra cuando, unidos por las adversidades y por su oposición al franquismo, se tejieron redes de solidaridad entre las distintas familias políticas (izquierdistas y nacionalistas) que habían estado muy alejadas entre sí en los tiempos de la república.

Los retornados pudieron, por fin, encontrarse con el calor de los suyos y con la solidaridad de amigos y convecinos. Igualmente, recibieron el cariño y la complicidad de una gran parte del pueblo que, como ellos, también se sentía en el bando perdedor de la guerra.

Legazpiko Kale Nagusia, 1940ko hamarkadan, ofizialki General Mola izena zuen garaian. Etxepeetan: Moraza okindegia, Paco Barandiaranen bizartegia, Juanito Etxeberriaren harategia, estankoa, Mixto taberna, Feliperen aroztegia eta Santa Kruz kooperatiba.

Actual Kale Nagusia en la década de los 40, cuando oficialmente se denominaba c/ General Mola. En los bajos: panadería Moraza, barbería de Paco Barandiaran, carnicería de Juanito Etxeberria, estanco, bar Mixto, carpintería de Felipe y cooperativa Santa Cruz.



Artxibo partikularra

## 25 - Legazpi 1936-2011: memoria eta ahaztura

Hemen bukatzen da gure kontakizuna. Gerra Zibilaren ostean, 40 urteko frankismo garai luzea etorri zen. Gerrak eta ondorengo errepresio frankistak lortu zuten matxinatuen epe laburreko eta ertaineko helburu nagusia betetzea: haien ereduarekin bat ez zetorren gizarte eta elkarbizitza politiko eredua planteatzen zuten pertsonak eta taldeak isilaraztea eta zapaltzea.

Frankismoko lehen urteetan, oposizioko erakunde guztiak debekatuta, jazarrita eta buruzagi eta militante gehienak hilak, espetxean edo erbestean zeudela, erakunde politikoek eta sindikatuek jarduera bertan behera uztea edo klandestinitatera jotzea erabaki behar izan zuten. Faxisten konkistara arte Legazpin hegemonikoa izandako mugimendu abertzalea ia erabat desegina geratu zen. Ideia abertzaleen sua gune pribatuenetan baino ez zuten bizirik mantendu. Beste hainbeste esan daiteke langile mugimenduari eta ezkerreko erakundeei buruz. Bi kasuetan, 40ko eta 50eko noizbehinkako gertaera zehatz batzuk salbu, 60ko hamarkadara arte ez ziren Legazpin aldarrikapen abertzaleak eta sozialak indarrez sumatu. Gerrako galtzaileen seme-alaben belaunaldiak bultzatuta hasi ziren, eta haiek ere jasan zituzten errepresio frankistaren ondorioak.

1975ean diktadorea hil ostean, trantsizio prozesua hasi zen, eta boterea kontrolatzen zuten sektore frankistek diktaduraren aurkako indar gehientsuenekin negoziatu eta gaur egungo Espainiako Estatuaren egitura juridiko-politikoa

## 25 - Legazpi 1936-2011: entre la memoria y el olvido

Aquí termina nuestro relato. A la Guerra Civil le siguieron 40 largos años de franquismo. La guerra y la brutal represión franquista que le siguió consiguieron a corto y medio plazo el que probablemente constituía el principal de los objetivos de los sublevados: acallar y aplastar a las personas y grupos que planteaban una forma de organizar la sociedad y la convivencia política diferente a la suya.

Durante el primer franquismo, con todas las organizaciones opositoras prohibidas, duramente perseguidas y con una gran parte de sus dirigentes y militantes muertos, encarcelados o en el exilio, las organizaciones políticas y sindicales fueron abocadas a elegir entre la inactividad y la clandestinidad. El movimiento nacionalista, hegemónico en Legazpi hasta la conquista de los fascistas, quedó prácticamente desarticulado. Tan solo en los ámbitos más privados se mantuvo encendida la llama de los ideales abertzales. Lo mismo cabe decir del movimiento obrero y de las organizaciones de izquierda. En ambos casos, y salvo episodios más bien esporádicos de los años 40 y 50, hubo que esperar hasta la década de los 60 para volver a atisbar en Legazpi un despertar de las reivindicaciones nacionales y sociales, protagonizado por la generación de los hijos de los perdedores de la guerra. Ellos también sufrirían las consecuencias del implacable sistema represivo franquista.

adostu zuten. Erreforma prozesu horretatik jaiotako estatu berrian ez zituzten krimen frankistengatik ardurak argitu eta ez zituzten krimen horien biktimak onartu eta konpentsatu.

2011n 75 urte beteko dira orri hauetan kontatu ditugun gertakizunak izan zirenetik. Gerra Zibila haustura tragikoa izan zen, Legazpiren historian mugarria. Oraindik bizirik daude gertaera haiek bertatik bertara bizi izan zituzten legazpiar batzuk. Oraindik jaio gabe geundenontzat ere ez dira hain urrutiko kontuak, gure gurasoen, aitona-amonen edo birraitonen belaunaldiek pairatutako sufrimendua gugan baitago oraindik, nolabait.



Urte hauetan guztietan, Legazpin ez da gerrari buruz asko hitz egin. Frankismoan ez zegoen aukera handirik, eta gehienez ere, etxeko sukaldean aipatzen ziren gerra kontuak, baina etxe askotan hori ere ez. Jasandako sufrimendu izugarri hura ahaztu egin nahi zuten askok, min hori guztia ondorengoei pasatu gabe.

Tras la muerte del dictador en 1975, se inició un proceso de transición, en el que los estamentos franquistas que controlaban el poder del estado negociaron y acordaron con una gran parte de las fuerzas opositoras a la dictadura la actual configuración jurídico-política del Estado Español. En el nuevo estado nacido de ese proceso de reforma, no se depuraron las responsabilidades por los crímenes franquistas, y tampoco se reconoció o reparó a las víctimas de aquellos crímenes.

En 2011 se cumplen 75 años de los hechos relatados en estas páginas. La Guerra Civil constituyó una fractura dramática, que marcó un antes y un después en la historia de Legazpi. Todavía viven algunas personas que sufrieron aquellos acontecimientos en primera persona. Para los que en aquella época no habíamos nacido, aquellos hechos no pueden resultarnos ajenos, ya que el sufrimiento que padecieron las generaciones de nuestros padres, abuelos o bisabuelos nos ha marcado, de una u otra manera.



En todos estos años no se ha hablado mucho en Legazpi acerca de la guerra. Durante el franquismo no se podía, y sólo en algunos casos se mencionaba la guerra en la intimidad del hogar, pero ni



Lucio Vergara - Lenbur

Euskal Memoria Fundazioa



Fusilatutakoen senitartekoek hamarkada luzez jardun zuten etxekoen gorpuen bila. Irudian, hobi komunetan aurkitutako gorpuzkinak.

Los familiares de los fusilados han pasado décadas buscando los cuerpos de sus allegados. En la imagen, restos humanos encontrados en una fosa común.



Euskal Memoria Fundazioa

Gainera, hezurretaraino sartuta zuten legazpiarrek beldurra.

Urte asko joan dira, baina zauriak ez dira itxi, eta 1936ko Gerrak eragindako sufrimendua eta mina ez da guztiz itzali. Elkarrizketatu ditugun protagonisten artean eta hildakoen senideen artean, askok ezin izan diote negarrari eutsi duela hainbeste denbora gertatutakoari buruz hitz egiterakoan. Testigantza gogorrak entzun ditugu, eta agerian utzi dute familia askok oraindik izugarrizko mina sentitzen dutela gertaera haiengatik, gainditu gabeko traumak dira, eta hainbatetan oraindik gaiari buruz hitz egiteko beldurra sumatu dugu. Frankismoaren biktimen bakardadea, ezagutza eza, erakunde publikoen babes eza ere hauteman dugu kasu batzuetan.

Horregatik, isiltasuna hautsi eta Legazpin 1936an gertatu zena ezagutzen laguntzeko informazio baliagarria eman diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Gure arbasoek jasan zutena ez dezagun ahaztu eta ez dadin errepikatu.

Lan hau izan dadila gure iragana ezagutzeko ekarpen xumea. Eta izan dadila, era berean, omenaldi bero bat faxismoaren biktima legazpiar guztiei, gerra galdu zuten guztiei, eta hainbat hamarkadatan mina isilpean gorde behar izan duten hildakoen, espetxeratuen, torturatuen, zapalduen… senide guztiei.

tan siquiera esa forma de transmisión era habitual. Muchos preferían olvidar el sufrimiento padecido, en lugar de trasladarlo a las generaciones venideras. Además, los legazpiarras tenían el miedo metido en el cuerpo.

A pesar de los años transcurridos, no parece que las heridas abiertas hayan terminado de cicatrizar, y el sufrimiento y el dolor que causó la Guerra de 1936 no han desaparecido del todo en muchas casas. En efecto, nosotros hemos sido testigos de cómo numerosos protagonistas y familiares de las personas fallecidas no han podido contener las lágrimas cuando nos han contado lo sucedido hace 75 años. Hemos escuchado testimonios duros, donde frecuentemente ha aflorado el profundo dolor que todavía siguen padeciendo muchas familias a causa de aquellos hechos. Algunos de aquellos traumas siguen sin ser superados, y en algunos casos todavía hemos percibido el miedo a hablar sobre estos temas. También hemos advertido el sentimiento de abandono, de no reconocimiento, de falta de apoyo por parte de las instituciones públicas que sienten no pocas víctimas del franquismo.

Con todo, queremos acabar agradeciendo a todas esas personas que, rompiendo su silencio, nos han facilitado información valiosa para conocer qué es lo que sucedió en Legazpi en 1936. Para que lo que pasaron nuestros antepasados no caiga en el olvido y no se vuelva a repetir.

Sirva este trabajo como una humilde aportación en el conocimiento de nuestro pasado. Y sirva también como un sentido homenaje a todas las víctimas legazpiarras del fascismo, a todos los perdedores de la guerra y a todas las familias de los muertos, encarcelados, torturados, reprimidos… que durante décadas han tenido que llevar su dolor en silencio.



hildakoak gogoan

muertos pero no olvidados



## Metodologiari dagokion **oharra**

Atal honetan Gerra Zibilaren ondorioz hildako 58 legazpiarrak aurkeztuko ditugu. **Legazpiar hildakotzat jo ditugu zuzenean gerraren ondorioz hildako Legazpin jaiotako pertsonak edota gerra hasi zenean herrian bizi zirenak.**

Definizio horretatik abiatuta, lan honetan ez ditugu kontuan hartu **nolabait Legazpirekin lotura** zuten **beste hildako batzuk**. Hala, ikerketatik kanpo geratu dira Legazpin bizi ez baina Legazpin lan egiten zutenak eta gerran hil zirenak. Gerran hildako gaur egungo legazpiarren arbasoak ere ez ditugu kontuan hartu, haiek Legazpin bizi ez ziren kasuetan. Aitzitik, ikerketa honetan kontuan hartu ditugu Legazpin jaio eta bizi ez arren Gerra Zibilaren ondorioz herrian bertan hil zirenak (“Gerraren ondorioz Legazpin hildako kanpoko herritarrak” atalean).

### Balizko akatsak edo hutsegiteak

Ikertu ditugun gertaeretatik pasatutako denbora eta erabilitako metodologia kontuan hartuta (ikus sarrera), litekeena da gerraren ondorioz hildako legazpiar batzuen berri eman ez izana. Horrelako hutsegiteren bat balego, erabat nahi gabekoa jakina, barkamena eskatu nahi diegu hildakoaren senitartekoei aldez aurretik. Litekeena da ere irakurleak hildakoren baten kasuan akatsak edo hutsegiteak topatzea. Norbaitek horrelako kasuren bat ezagutuko balu, gurekin harremanetan jartzea eta informazioa helaraztea eskertuko genioke (ikus kontrazala).

**Doala lerro hauen bidez gerran hildako guztiei eta haien senitartekoei gure errespetua, aitortza eta maitasuna.**

## **Nota** metodológica

En este apartado haremos una reseña de los 58 legazpiarras fallecidos a consecuencia de la Guerra Civil. **Hemos considerado como muertos legazpiarras a todas las personas que habiendo nacido en el municipio o residiendo en el mismo en el momento de iniciarse la Guerra Civil, fallecieron como consecuencia directa de la contienda.**

Partiendo de esa definición, no hemos incluido en nuestro trabajo a **otros muertos** en la guerra también **relacionados con Legazpi**. Así, han quedado fuera de nuestra investigación los fallecidos en la guerra que, sin llegar a vivir en Legazpi, trabajaban en el municipio. Tampoco hemos incluido a los antepasados de los actuales legazpiarras que fallecieron en la guerra pero que, en aquel momento, no residían en Legazpi. Al contrario, sí hemos incluido, en el apartado “Personas foráneas muertas en Legazpi a consecuencia de la guerra”, a los fallecidos no nacidos ni residentes en el pueblo que fallecieron a consecuencia de la Guerra Civil en nuestro municipio.

### Posibles errores u omisiones

Debido tanto al tiempo transcurrido desde los hechos investigados como a la metodología utilizada (ver introducción), es posible que existan **fallecidos legazpiarras a consecuencia de la guerra que no hayamos podido localizar**. Si hubiera alguna omisión de ese tipo, totalmente involuntaria por supuesto, queremos pedir perdón de antemano a sus familiares y allegados. Es posible que el lector encuentre también errores u omisiones en los datos referidos a algún fallecido. Si alguien tuviera conocimiento de algún caso de esas características, le agradeceríamos se pusiera en contacto con nosotros (ver contraportada) y nos facilitara esa información.

**Vaya nuestro respeto, reconocimiento y cariño a todas las víctimas mortales de la guerra y a sus familias.**

# Gerran hildako legazpiarrak

## Legazpiarras muertos en la guerra



Gerra garaian Legazpitik Aztirira joateko Motxorroko tunel honetatik pasa beharra zegoen nahitaez. Oraingo bidea geroago egin zuten.

En  la guerra del 36 este túnel de Motxorro era paso obligado para llegar al barrio de Aztiri. El camino actual es posterior.

*Argazkia: JLU*

## ADOLFO ALONSO FERNANDEZ

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Portiño (Valladolid, Espainia), 1909/09/27 - Legazpi, 1936/09/19*



Valladolideko Portiño herrian jaioa, Legazpira etorri zen bizitzera eta lanera. Egungo Kale Nagusian bizi zen apopilo, eta Patriziorenean egiten zuen lan. Ideia errepublika zaleak eta ezkertiarrak zituen. Gerra piztu zenean, Legazpiko defentsan parte hartu zuen, herri milizietan. Faxistak Legazpi konkistatzeko saioa hasi zutenean, Aztirin izandako tiroketetan hil zuten Adolfo, tiro batek lepoan jota, 1936ko irailaren 19an, 26 urte zituela. Behor baten gainean jaitsi omen zuten herrira Adolforen gorpua.

Nacido en el pueblo vallisoletano de Portiño, llegó a Legazpi para trabajar y se asentó aquí. Vivía como huésped en una casa de la actual Kale Nagusia, y trabajaba en la fábrica de Patricio. Era republicano e izquierdista, y al estallar la guerra participó en la defensa de Legazpi en las milicias populares. Al comenzar los fascistas la conquista de Legazpi, a Adolfo lo mataron en los tiroteos que hubo en Aztiri, de un tiro en el cuello, el 19 de septiembre de 1936, cuando tenía 26 años. Al parecer, el cuerpo de Adolfo fue transportado hasta el pueblo a lomos de una yegua.




# DAMIAN ALUSTIZA AGIRRE

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Legazpi, 1917/09/27 - Otxandio (Bizkaia), 1936/12/01*

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** José Antonio Alustiza Egaña (1876, Legazpiko kalea) eta Francisca Agirre Telleria (1877, Ibarrola, Legazpi).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Justina, Juan, Nicolás, Sebastián, Fausto, Damián eta Inés.*

Abertzalea zen, dantzaria eta pilotaria. Gerra aurretik, *El Día* egunkaria saltzen zuen Legazpiko kaleetan. Gudari aritu zen gerran, eta Legutianoko frontean hil zuten, 1936ko abenduaren 1ean, 19 urte zituela. Egun eta toki berean, beste legazpiar bat ere hil zen, Jose Mari Intxausti Arozena, hain zuzen.

Alustiza-Agirretar familiari nahigabe handiak eragin zizkion gerrak. Izan ere, familia horretako bost anaiak aritu ziren gudari gerran. Bi hil zituzten (Damian bera eta Juan) eta beste hirurak (Nicolas, Fausto eta Sebastian) preso hartu zituzten.

Era abertzale, pelotari y dantzari. Antes de la guerra vendía el diario *El Día* en las calles de Legazpi, pero al comenzar la guerra se unió a la lucha y murió con 19 años en el frente de Legutiano el 1 de diciembre de 1936. El mismo día y en el mismo lugar también murió otro legazpiarra: José Mari Intxausti Arozena.

La familia Alustiza-Agirre sufrió mucho en la guerra. Los cinco hermanos fueron gudaris. Dos murieron en la guerra (el propio Damián y Juan) y los otros tres (Nicolás, Fausto y Sebastián) estuvieron presos.

Gerra aurrean El día egunkaria saltzen zuen kalez kale horrela ohikatuz: “Se vende *El Día*, Damián de la droguería”.
Antes de la guerra vendía el diario *El Día* por las calles de Legazpi gritando “Se vende El día, Damián de la droguería”.



Artxibo partikularra






Legazpiko Kale Zaharrean.
(Zutik) 1. Bitor Andueza /2. Damián Alustiza / 3. Damián Andueza / 4. Justina Alustiza / 5. Inés Alustiza / 6. Juanito Alustiza / (Eserita) 7. Alejo Andueza / 8. Jesús Etxeberria "Jesús Turbina".

*Agur, anai…!!*

*Agur Damen agur betiko*
*Agur, ta itxaron or goian*
*itzaz ez nauk beñere aztuko…*
*bizi naizean bitartean*

*Guda zantzua entzun orduko*
*Aberri aldez jagi intzanian,*
*noski, ez uan asko-uzteko*
*laister izango ukala amaia*

*Gurasoak urruti utzita*
*bost anai irten giñuken*
*bañan itzat ludiko izatea*
*ordutik zearo amaitu uken*

*Bost anai, ta i, gazteena*
*luditik lenen igoztu aizena.*
*Ta nork zekik ire ondoren*
*zein juango geran urrena.*

*Txikitandik nabari oi-nian*
*Aberri-ametsa biotz barnean.*
*Ta berari bizia eskeintzean*
*Poz diat ¡anai! Biotz-erdian.*

*¿Zer egingo ote dik gure amak*
*izpar tamal au jakitean…?*
*¿Zer, gu ludiratu giñuzen ark*
*ire utsunea nabaritzean…?*

*Samin aldi gogorra zemaiguk*
*i gutzaz aldendutzeaz*
*ta beraz saminkor ama kutunak…*
*egingo ditu negar sotiñak*

*Euzkadi gaitik il aiz bai,*
*etxean maite itzan anaia.*
*Ta aberri ziñope izan aizela*
*esango ziot… amai!*

*Agur Damen, agur betiko.*
*Agur ta itxaron or goian*
*itzaz ez neuk beñere aztuko*
*bizi naizen bitartean!*

*Sebastian Alustiza Agirrek ("Ilintxa") bere anaia zenari idatzitako poema.*
*Poema escrito por Sebastián Alustiza Agirre "Ilintxa" a su hermano Damián, muerto en la guerra.*



# JUAN ALUSTIZA AGIRRE

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Legazpi, 1908/11/23 - Durango (Bizkaia), 1937/03/31*

***Gurasoak** [Padre y madre]: José Antonio Alustiza Egaña (1876, Legazpiko kalea) eta Francisca Agirre Telleria (1877, Ibarrola, Legazpi).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Justina, Juan, Nicolás, Sebastián, Fausto, Damián eta Inés.*



*Artxibo partikularra*

Txoferra zen lanbidez, eta txofer gisa aritu zen gerran ere, "loturak eta transmisioak" alorrean. 1937ko martxoaren 31n hil zen, Durangoko bonbardaketen ondorioz, eta Gernikan lurperatu zuten. 28 urte zituen, abertzalea zen, eta haren familiak izugarri sufritu zuen gerran, Juan ez ezik, anaia Damian ere hilabete batzuk lehenago hil baitzen gerran eta beste hiru anaiak —Nikolas, Fausto eta Sebastian— gudari ibili ziren eta preso hartu zituzten.

Era chofer de profesión y en la guerra también trabajó como chofer en "enlaces y trasmisiones". Murió el 31 de marzo de 1937 a consecuencia del bombardeo que sufrió Durango y fue enterrado en Gernika. Tenía 28 años, era abertzale y su familia sufrió con crudeza la guerra, ya que otro hermano, Damián, también murió en la guerra unos meses antes y sus otros tres hermanos (Nicolás, Fausto y Sebastián) fueron gudaris y estuvieron presos.

Hilotzak Durangoko hilerrian, Italiarrek Bizkaiko herria bonbardatu ondoren.
Cadáveres en el cementerio de Durango, tras el bombardeo realizado por los italianos en el pueblo de Bizkaia.



"1936 Gerra Zibila Euskal Herrian" obratik hartuta (Aise Liburuak)

Bonbardaketa batek suntsitutako Durangoko Andra Mari elizako arkupea.
Pórtico de la iglesia Andra Mari de Durango destrozado durante un bombardeo.



"1936 Gerra Zibila Euskal Herrian" obratik hartuta (Aise Liburuak)



## CIRIACO AMILIBIA MARTINEZ DE OSABA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Arrazola (Bizkaia), 1903/12/20 - Urkiola (Bizkaia), 1937/05/22*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Juan Amilibia Etxabe (Zarautz) eta María Martínez de Osaba Beobide (Arakaldo, Bizkaia).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Eufemia Zubimendi Mz. de Osaba (aita Arroakoa zuen eta ama, bigarrenez, Juanekin ezkondu zen) (su padre era de Arroa, y su madre se casó en segundas nupcias con Juan), Carlos Amilibia Mz. de Osaba "Durango", Antonio Amilibia Mz. de Osaba, Urbano Amilibia Mz. de Osaba, Ciriaco Mz. de Osaba, María Amilibia Mz. de Osaba eta Juanito Amilibia Mz. de Osaba.*

Ordiziatik etorri zen Ciriaco Legazpira Carlos eta Juanito anaiarekin eta Carlosen familiarekin. Guztiak ere Santa Maria kalean jarri ziren bizitzen. Abertzalea zen, eta gerra hasitakoan Legazpiko defentsan parte hartu zuen. Faxistak herrira etorri zirenean, Bizkaira ihesi joan eta ertzain lanetan aritu zen. Urkiolako frontean (Saibi mendian) zauritu zuten, 1937ko apirilaren 6an. Zaurien eraginez, hanka moztu behar izan zioten, eta 1937ko maiatzaren 22an hil zen, 33 urte zituela. Santurtziko hilerrian lurperatu zuten.

Ciriaco llegó a Legazpi desde Ordizia, con sus hermanos Carlos y Juanito y la familia de Carlos. Se instalaron en la calle Santa Maria. Era abertzale, y cuando comenzó la guerra participó en la defensa de Legazpi. Al llegar los fascistas al pueblo, huyó a Bizkaia y fue ertzaina. Lo hirieron en frente de Urkiola (en el monte Saibi), el 6 de abril de 1937. A consecuencia de las heridas le cortaron una pierna y murió el 22 de mayo de 1937, a los 33 años de edad. Fue enterrado en el cementerio de Santurtzi.

*Lehenengo laurak Arrazolan jaio ziren, Bizkaian. Hurrengo biak, Berastegin. Ordizian ere bizi izan ziren. 1932. urtean, CAFetik, langile mordoska, lanetik bota zituzten (batez ere abertzaleak) eta Amilibiatar hiru anaia Legazpira etorri ziren: Carlos, Ciriaco eta Juanito.*

*Los cuatro primeros nacieron en Arrazola, en Bizkaia. Los dos últimos, en Berastegi. Más tarde se fueron a vivir a Ordizia. En el año 1932 despidieron a muchos trabajadores de la CAF (sobre todo abertzales) y tres hermanos Amilibia vinieron a vivir a Legazpi: Carlos, Ciriaco y Juanito.*



Ciriaco Amilibia Martínez de Osaba.

Familiak utzitako argazkiaK



Carlos Amilibia Martínez de Osaba.

Ciriacoren anaia, Carlos, mugimendu abertzaleko kide aktiboa zen Legazpin gerra aurretik. Carlos bera ere gerran ibili zen eta kartzela ezagutu zuen; Loiola batailoiko sargentoa izan zen ("Guardia personal del Presidente José Antonio Agirre").

Uno de los hermanos de Ciriaco, Carlos, fue militante abertzale activo en Legazpi antes del inicio de la guerra. El propio Carlos participó en la guerra y conoció la cárcel; fue sargento del Batallón Loiola (Guardia Personal del presidente José Antonio Agirre).

Familiak utzitako argazkia



Ciriaco Amilibia Martinez de Osaba eta
Edurne Amilibia Donnay,
Legazpiko kale zaharrean.

Ciríaco junto con su sobrina
Edrune Amilibia Donnay en la calle
Santa María, actual calle Nafarroa

Familiak utzitako argazkia


1937 ENERO

15. Viernes. S. Pablo.

Delegacion de Euskadi
en Burdeos
Ciriaco Amilibia fue

16. Sábado. S. Marcelo.

herido de metralla el
dia 6 de abril 1.937 a las 4.30
de la tarde en el monte
Sibigan sector de Urkiola
y fallecio el dia 21 Mayo

17. Domingo. S. Antonio.

a las 10 de la noche
despues de haberle corta
do la pierna habiendo
sido enterrado en el
Cementerio de Santurtze
con el nº 186 frente

Notas

a la Capilla a la mano
izquierda

Ciriaco Amilibia Martinez de Osaba hil zenean, honako hau idatzi zuen bere anaia Carlosek Bordeletik: “Delegación de Euskadi en Burdeos. Ciriaco Amilibia fue herido de metralla el día 6 de abril de 1937 a las 4:30 de la tarde en el monte de Sibigan [Saibigan], territorio de Urkiola, y falleció el día 21 de mayo a las 10 horas de la noche, después de haberle cortado la pierna, habiendo sido enterrado en el Cementerio de Santurtze con el nº 186 frente a la capilla, a la mano izquierda”.

Cuando murió Ciriaco Amilibia Martínez de Osaba su hermano Carlos escribió el siguiente texto desde Burdeos: “Delegación de Euskadi en Burdeos. Ciriaco Amilibia fue herido de metralla el día 6 de abril de 1937 a las 4:30 de la tarde en el monte de Sibigan [Saibigan], territorio de Urkiola, y falleció el día 21 de mayo a las 10 horas de la noche, después de haberle cortado la pierna, habiendo sido enterrado en el Cementerio de Santurtze con el nº 186 frente a la capilla, a la mano izquierda”.



## MIGUEL ANDUAGA UNAMUNO

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Oñati, 1916/09/20 - Gernika (Bizkaia), 1937/04/26*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Faustino Anduaga (Oñati) eta Rosa Unamuno (Oñati). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Juanita, Gerónima, Urbana, Miguel, Ángel, José, Julita, Milagros, Mercedes eta María.*

Oñatiko Zubillaga auzoko Baketxe baserrian jaio zen Miguel. 18 urte zituela, Brinkolako Errementeria baserrian hasi zen lanean. Gerra hasi eta berehala, miliziano egin zen, eta buru-belarri aritu zen Legazpiren defentsan. Aztiriko postuan guardiak egiten aritu zen, Aztiria-Ormakioko liskar armatuetan parte hartu zuen, eta baita Korostiagako ondorengo tiroketetan ere. Bertatik ihes egitea lortu zuen, eta UHPko batailoian aritu zen (Uníos Hermanos Proletarios) Intxorta-Elgetako borroketan besteak beste. Azkenik, Gernikako bonbardaketan, zauritu bat esku-ohean eramaten ari zela, bonba batek eztanda egin eta hil egin zuen, 1937ko apirilaren 26an, 20 urte zituela.

Miguel nació en el caserío Baketxe del barrio Zubillaga de Oñati. A los 18 años empezó a trabajar en el caserío Errementeria de Brinkola, y al comenzar la guerra se unió a los milicianos. Luchó activamente en la defensa de Legazpi: realizó guardias en el puesto de Aztiria, participó en los enfrentamientos armados de Aztiria-Ormakio y en el posterior tiroteo de Korostiaga. Consiguió huir de la zona y luchó en el batallón UHP (Uníos Hermanos Proletarios) en Intxorta-Elgeta. Finalmente, murió cuando una bomba le explotó durante el bombardeo de Gernika mientras trasportaba a un herido en camilla, el 26 de abril de 1937, a los 20 años de edad.



Uníos Hermanos Proletarioseko miliziar sozialistak. 20. zenbakiarekin Migel Anduaga Unamuno.
Milicianos socialistas de Uníos Hermanos Proletarios. Con el nº 20, Miguel Anduaga Unamuno.




Kamioi blindatua UHP (Uníos Hermanos Proletarios) siglekin.
Camión blindado con las siglas UHP (Uníos Hermanos Proletarios)

*"1936 Gerra Zibila Euskal Herrian" obratik hartuta (Aise Liburuak)*



# JUSTO ANDUEZA UGARTE

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Legazpi, 1909-02-29 - Xixon (Asturies, Espainia),1937/…/…*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Santiago Andueza Lasa (Legazpiko kalea) eta Eulalia Ugarte Unanue (Zestoa). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Justo, Isabel, Damián, Luis, Bitor, Mariatxo, Ángel, Juanito, Alejo, Nati eta Felisa.*

*Aita Santiago Andueza Legazpiko alkate izan zen 1934ko azarotik 1936ko otsailera arte.*

*Santiago Andueza fue alcalde de Legazpi entre noviembre de 1934 y febrero de 1936.*

Legazpiko kalean jaio eta bizi zen, eta bulegari lanetan jarduten zuen. Abertzalea zen eta Legazpiko defentsan parte hartu zuen. EAJren batailoietan aritu zen gudari. Frontean zauritu eta Asturiesko Xixongo ospitalean hil zen, 28 urte zituela.

Nació y vivió en el pueblo de Legazpi y trabajó como oficinista. Era abertzale, participó en la defensa de Legazpi y formó parte de los batallones del PNV. Murió en el Hospital de Xixon, a consecuencia de las heridas sufridas en el frente los 28 años de edad.



Justo Andueza eta Laureano Bastida, Errezilen.

*Familiak utzitako argazkia*

## SEGUNDO ARRIZABALAGA MURGIONDO "MERENGUE"

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Legazpi, 1913/03/29 - Bilbo, Artxanda (Bizkaia), 1937/06/16*



Legazpiko Kontseju-etxean jaio zen. Izan ere, familia bertan bizi zen, aita aguazila zelako. Patriziorenean egin zuen lan. Gudari jardun zuen gerran, EAJren Loiola eta Itxarkundia batailoietan. Artxandan hil zuten, 1937ko ekainaren 16an, 24 urte zituela.

Nació en la casa del Ayuntamiento de Legazpi donde vivía la familia, porque su padre era alguacil. Trabajaba en la fábrica de Patricio. Luchó en los batallones Loiola e Itxarkundia del PNV, y lo mataron en Artxanda el 16 de junio de 1937, a los 24 años de edad.

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Francisco Arrizabalaga Gabiria (Legazpi) eta María Murgiondo Berasategi (Mutiloa). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Cruz, Andresa, Carmen, Florentino eta Segundo.*



# CELESTINO AZURMENDI ARRONDO

FUSILATUA - FUSILADO

*Legazpi, 1904/04/06 – Aizpurutxo 1936/09/23*

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Bernabé Azurmendi Azurmendi (Zegama, mikeletea) eta Margarita Arrondo Enparantza (Agerregoikoa, Telleriarte Legazpi). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Gregorio, Leoncia, Tiburcio, Celestino, Dionisia eta Xegundo. **Emaztea** [Esposa]**:** Joanita Azpiri Aldazabal. **Alaba** [Hija]**:** Arantxa Azurmendi Azpiri.*

Brinkolakoa zen Celestino eta 32 urte zituen gerra piztu zenean. Ikasketak egindakoa zen, eta abertzalea bazen ere, inoiz ez zuen politika kontuetan gehiegi parte hartu. Markina-Xemeingo Joanita Azpiri Aldazabalekin ezkondua zegoen eta urtebeteko alaba zuten, Arantxa izenekoa. Otsaurten bizi ziren Celestino, emaztea eta alaba, bertako Mikeleteen kaboa baitzen Celestino.

Faxistak Otsaurtera iritsi zirenean (irailaren 18an), falangistek atxilotu egin zuten. Celestinoren emazteak beti pentsatu izan zuen atxiloketa horren atzean inbidia zegoela; inbidia eta senarrak betetzen zuen lanpostua besteren batek beretzat nahi izatea.

Atxilotu eta Oñatira eraman zuten. Hiruzpalau egunez bertan izan eta gero, Legazpiko parrokoarengana ekarri zuten, gauez, konfesatzera. Hari eman omen zizkion eraztuna eta erlojua, emazteari eramateko, eta emazteari esan beharreko azken hitzak ere esan omen zizkion.

Nacido en Brinkola, Celestino tenía 32 años cuando estalló la guerra. Tenía estudios y aunque era nacionalista vasco, nunca participó activamente en política. Estaba casado con Joanita Azpiri Aldazabal, natural de Markina-Xemein, y tenía una hija de un año de edad llamada Arantxa. Los tres vivían en Otsaurte, donde Celestino era el cabo de Miqueletes local.

Al llegar los fascistas a Otsaurte (el 18 de septiembre), los falangistas detuvieron a Celestino. Su mujer siempre pensó que fue la envidia la que provocó la detención de su marido; la envidia y quizás la intención de alguno de hacerse con el puesto que ocupaba su marido.

Después de detenerlo lo trasladaron a Oñati,  donde permaneció tres o cuatro días, hasta que lo llevaron de noche ante el párroco de Legazpi, para confesarse. Celestino entregó al párroco el anillo y el reloj, para que este se los diera a su mujer, y también le trasmitió sus últimas palabras para ella.



Mikeleteak desfilatzen. Eskuinetik hirugarrena, Celestino Azurmendi Arrondo.
Miqueletes desfilando. Celestino Azurmendi Arrondo es el tercero por la derecha.

Bertatik, Aizpurutxuko Larregi harrobira eraman eta fusilatu egin zuten, irailaren 23an. Gorpua Urretxuko hilerrira eraman zuten, baina familiak ezin izan zion hiletarik edo antzekorik egin. Alarguna, Joanita Azpiri, jaiotetxera itzuli zen, Markina-Xemeinera, urtebeteko alabarekin. Hara itzulitakoan ere ez ziren baretu Joanitaren minak: bi ahizpak erbestean zeuden, ihes eginda, eta bi anaiak kartzelan.

Gaineratu beharra dago, Celestinoren anaia bat, Xegundo Azurmendi Arrondo, gerran faxisten kontra borrokatu zela eta Iparraldera ihes egin zuela.

De allí lo trasladaron a la cantera Larregi de Aizpurutxo, y lo fusilaron el 23 de septiembre. El cuerpo fue trasladado al cementerio de Urretxu, pero no permitieron a la familia organizar el funeral ni nada parecido. La viuda Joanita Azpiri volvío a su casa natal en Markina-Xemein, con su hija, pero el panorama que encontró allí no aplacó su dolor, puesto que sus dos hermanas habían huido y estaban en el exilio, y sus dos hermanos en la cárcel.

Por otro lado, un hermano de Celestino, Xegundo Azurmendi Arrondo, luchó en la guerra contra los fascistas y después se exilió en Iparralde.

Arantxa Azurmendi Azpiri eta Joanita Azpiri Aldazabal; ama alarguna alabarekin.
Arantxa Azurmendi Azpiri y Joanita Azpiri Aldazabal; la madre viuda con su hija.





Daniel Aranguren, Joxe Gaztañaga eta Xegundo Azurmendi. Xegundo, Celestinoren anaia, gudari ibili zen gerran.
Daniel Aranguren, Joxe Gaztañaga y Xegundo Azurmendi. El hemano de Xegundo, Celestino, luchó como gudari en la guerra.

## JOXE BARANDIARAN ITURBE

GERRAREN ONDORIOZ HILA / MUERTO A CONSECUENCIA DE LA GUERRA

*Eibar, 1920/11/13 - Legazpi, 1941/06/05*



Familia oso abertzalea eta kristaua zuen Joxek; EAJkoak ziren. 15 urte zituen Joxek gerra hasi zenean, eta musika ikasten ari zen. Ordurako Legazpin bizi zen. EAJko Itxarkundia batailoian aritu zen gerran, besteak beste, Jose Etxeberria Garmendiarekin. Bizkaian borrokan jardun ondoren, preso hartu zuten Joxe, Santoñako errendizioa gertatutakoan, eta Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrura eraman zuten. Tuberkulosia harrapatu zuen espetxean. 1939 amaieran aske utzi zuten alargunaren semea zelako, baina 1941ko ekainaren 5ean hil zen Legazpin, 21 urte zituela.

Joxeren anaia, Migel, herriko parrokoa izan zen gerora, eta hark ere hainbat arazo izan zituen, frankisten nahiei aurre egin zielako.

Joxe nació en el seno de una familia muy abertzale y cristiana, del PNV. Cuando comenzó la guerra Joxe tenía 15 años, estaba estudiando música y para esa época ya vivía en Legazpi. Luchó en el batallón Itxarkundia del PNV, con José Etxeberria Garmendia, entre otros. Después de luchar en Bizkaia, lo apresaron cuando se firmó la rendición de Santoña y lo trasladaron al campo de concentración de Miranda de Ebro. En prisión, contrajo la tuberculosis, y a pesar de que fue puesto en libertad a finales de 1939 por ser hijo de viuda, murió en Legazpi el 5 de junio de 1941, a los 21 años de edad.

El hermano de Joxe, Miguel, fue posteriormente el párroco del pueblo y tuvo problemas, por no someterse a los deseos de los franquistas.

***Gurasoak** [**Padre y madre**]: José Barandiaran Zurutuza (Urrutxu, Ataun; mikeletea) eta Eustasia Iturbe Albizuri (Azkoitia). **Anai-arrebak** [**Hermanos-hermanas**]: Joxe, Miguel (apaiza) eta Mertxe.*

*Zaharrena Eibarren jaio zen eta hurrengo biak Mendaron.*

*El hijo mayor nació en Eibar y los otros dos en Mendaro.*



## PEDRO MARIA BELASKO OTSOA DE ALDA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Ametzaga-Asparrena (Araba), 1914/06/09 - Legazpi, 1936/10/05*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Rodolfo Belasko López de Gereñu (Ametzaga, Araba) eta María Ángeles Otsoa de Alda Pérez de Arenaza (Alaitza, Araba).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Ana Mari, Pedro Mari, Rosa Mari eta María Teresa. Denak Ametzagan jaio ziren.*
*Todos nacieron en Ametzaga.*

Pedroren familia Arabako Ametzagakoa zen eta gerra aurrean Legazpiko Etxealain bizi ziren. 22 urteko gazteak Patrizio Elorzaren paper-fabrikan egiten zuen lan. Faxistak herrira etorritakoan alde egin zuen, antza, faxistei aurre egiteko asmoz. Diotenez, bi aste geroago (urriaren 4aren eta 5aren arteko gauean), faxisten aurkako talde armatu bat etorri zen Legazpira, sabotaje bat egin asmoz: Patrizio Etxeberriaren fabrikari argindarra ematen zion Bengoleako turbina elektriko bat apurtu nahi zuten. Dirudienez, Pedro talde horrekin etorri zen, gidari lana egitera, baina militarrak Takolokoa inguruan zeuden kanpatuta, eta taldea tiroka hartu zuten. Tiroketa gogorrak izan ziren gau horretan, bi ordu edo iraun zutenak. Bertan hil zuten Pedro. Eguna argitu zenean, Pedroren gorpu odoleztatuaren inguruan militarrak zeuden. Herrian zaborra biltzeko erabiltzen zen gurdian eraman zuten Pedroren gorpua Legazpiko kanposantura.

La familia de Pedro era de Ametzaga (Alava), pero antes de la guerra vivían en Etxealai de Legazpi. El joven de 22 años trabajaba en la papelera de Patricio Elorza. Cuando los fascistas llegaron al pueblo huyó, al parecer, con intención de hacer frente a los fascistas. Según cuentan, dos semanas más tarde (la noche del 4 al 5 de octubre) un grupo armado antifascista llegó a Legazpi con intención de realizar un sabotaje contra la turbina eléctrica de Bengolea que suministraba electricidad a la fábrica de Patricio Etxeberria. Según parece, Pedro vino como guía del grupo, pero los militares acampados en Takolokoa los recibieron a tiros y el enfrentamiento duró alrededor de dos horas. En los tiroteos mataron a Pedro y al amanecer su cuerpo ensangrentado yacía rodeado de militares. El cadáver de Pedro fue trasladado al cementerio de Legazpi en el carro que se utilizaba para recoger la basura del pueblo.

# MARCELINO BERGARETXE MANTXOLA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Legazpi, 1915/04/20 - Elosu (Araba) , 1936/12/04*





Marcelino, Plácida eta Julio Bergaretxe Mantxola

*Familiak utzitako argazkia*

Legazpiko Mantxola baserrian jaio zen, baina txikitan, gurasoak galdu ondoren, Brinkolako Kortaazpikoa baserrira joan zen bizitzera. Fabrikan egiten zuen lan, baina baserriko lanak ere egiten zituen. CNTko Malatesta batailoian aritu zen miliziano. Elosun (Araban) hil zuten, 1936ko abenduaren 4an, 21 urte zituela.

Nació en Mantxola, pero de niño, al morir sus padres, se trasladó al caserío Kortaazpikoa de Brinkola. Trabajaba en una fábrica aunque también realizaba los trabajos del caserío. Formó parte del batallón Malatesta del CNT y murió en Elosu (Araba) el 4 de diciembre de 1936, a los 21 años de edad.

***Gurasoak:** [Padre y madre]: Gaspar Bergaretxe Berasategi (Mantxola, Legazpi) eta Francisca Mantxola Arabaolaza (Urtatzaazpikoa, Legazpi).*

***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Marcelino, Julio eta Plácida.*

*Gurasoak gazterik hil ziren eta Kortaazpiko osaba-izebekin (Jose Mari Legorburu Iñurritegi eta Francisca Bergaretxe Berasategi) hazi ziren. Kortaazpiko lehengusuak Isabel, Periko, Maurixio eta Felix ziren.*

*Los padres murieron siendo jóvenes y los hijos se criaron con los tíos del caserío Kortaazpikoa (José Mari Legorburu Iñurritegi y Francisca Bergaretxe Berasategi). Los primos de Kortaazpikoa eran Isabel, Periko, Maurixio y Félix.*



## TEODORO BIDANIA OLLOKIETA

FAXISTEK GERRARA NAHITAEZ ERAMANA ETA HILA / RECLUTADO FORZOSAMENTE Y FALLECIDO

*Antzuola,1907/…/… - Brunete (Madril, Espainia) , 1937/07/24*

Antzuolan jaio eta Legazpiko Olaetxe baserrian bizi zen Teodoro. Kintoa izanik, derrigorrezko soldaduskara deitu eta gerrara eraman zuten faxistek. Batallón Montaña Sicilia nº8 izenekoan eduki zuten, eta 1937ko uztailaren 24an hil zen Bruneten, 30 urte zituela.

Nació en Antzuola y vivía en el caserío Olaetxe de Legazpi. Como era quinto fue llamado al servicio militar obligatorio y llevado a la guerra por los fascistas. Estuvo en el Batallón Montaña Sicilia nº8 y murió en Brunete el 24 de julio de 1937, a los 30 años de edad.



Teodoro Bidania Olaetxe baserrian bizi zen. Argazki honetan Takolokoa eta Bengolea ikus daitezke aurrean, atzean Olaetxe.
Teodoro Bidania vivía en el caserío Olaetxe. En esta fotografía se aprecian las casas de Takolokoa y Bengolea y, al fondo, Olaetxe.

## FLORENTINO BLANCO VALDIVIELSO

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Andoain, 1914/04/22 - Puerto de los Tornos (Cantabria, Espainia), 1936/12/05*



Andoainen jaio zen, eta Legazpira etorri zen familiarekin. Kale Nagusiko Elizondo etxean bizi ziren, eta Florentinok eraikuntza arloan egiten zuen lan (pintore-eskaiolista). Legazpiren defentsan parte hartu zuen, besteak beste, Ormakion. Faxistak herrira sartu zirenean, familia osoak ihes egin zuen Bizkaira. Faxistak euren etxera sartu ziren, eta guztia lapurtu omen zieten (koltxoiak, arropak, mantak...). Bizkaia aldean, miliziano jardun zuen Florentinok, Karl Liebknecht batailoi komunistan. Frontean hil zuten, Puerto de los Tornosen (Kantabrian), 1936ko abenduaren 5ean, 22 urte zituela.

Nacido en Andoain, llegó a Legazpi con el resto de su familia. Vivían en la actual Kale Nagusia, en la casa Elizondo, y Florentino trabajaba en el sector de la construcción, como pintor-escayolista. Participó en la defensa de Legazpi, tanto en Ormakio como en otros lugares, y cuando los fascistas tomaron el pueblo, toda la familia huyó a Bizkaia. Según parece, los fascistas entraron en la casa familiar y robaron todo lo que había (colchones, ropa, mantas…). Lucho como miliciano en Bizkaia en el batallón comunista Karl Liebknecht. Falleció en el frente, en Puerto de los Tornos (Cantabria), el 5 de diciembre de 1936, a los 22 años de edad.

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Manuel Blanco Carreras (1880, Torre de Bierzo, Leon) eta Vicenta Valdivielso Abendaño (1877, Los Balbases, Burgos). **Anai-arrebak [Hermanos-hermanas]:** Agapito, Dionisio, Florentino, Víctor.*
*Anai arreba bakoitza leku batean jaio zen: Agapito Zallan, Dionisio Portugalen, Florentino Andoainen, Victor Frantzian.*
*Cada hermano nació en un lugar: Agapito en Zalla, Dionisio en Portugal, Florentino en Andoain, y Víctor en Francia.*



## JOSE ANTONIO ELGARRESTA ZUFIAURRE

DESAGERTUA / DESAPARECIDO

*Urretxu,1910/…/… - Asturies (Espainia), 1937/02/22*

Urretxun jaio zen, baina Legazpin bizi zen, ostatu batean apopilo, eta Patriziorenean egiten zuen lan. EAJren aldekoa zen, eta gudari aritu zen euskal milizietan. Asturiasko frontean desagertu zen, 1937ko otsailean, 27 urte zituela.

Nació en Urretxu, pero vivía en Legazpi, en un hostal, y trabajaba en la fábrica de Patricio. Era seguidor del PNV, luchó en las milicias vascas, y desapareció en el frente asturiano en febrero de 1937, a los 27 años de edad.

## JUAN ELORZA GURIDI "LAKA"

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Legazpi, 1901/06/22 - Ebroko borrokan, 1938/03/12*



Legazpiko Bikuñanea auzunean jaioa. Doitzailea zen lanbidez, eta Laka goitizena jarri zioten, Atletikeko izen bereko futbolariaren zale zelako. Abertzalea zen, eta Eugenio Elorza Legazpiko zinegotzi jeltzalearen anaia. Gudari aritu zen gerran, EAJren Loiola eta Aralar batailoietan; zehazki, gudarien kapitain aritu zen, faxistek atxilotu zuten arte. Epaitu eta heriotza-zigorra ezarri zioten, baina, azkenean, truke baten zati izan zen, beste 40 euskal ofizialekin batera. Behin aske zela, berriro lotu zitzaion faxismoaren aurkako borrokari, eta Ebroko batailan hil zuten, Levanteko frontean, 1938ko martxoaren 12an, 36 urte zituela.

Nació en la barriada de Bikuñanea de Legazpi, era ajustador de profesión y el apodo Laka se lo pusieron porque era seguidor del jugador del Athletic del mismo nombre. Era abertzale y hermano del concejal del PNV de Legazpi Eugenio Elorza. Durante la guerra luchó en los batallones Loiola y Aralar del PNV como capitán hasta que los fascistas lo detuvieron. Lo juzgaron y condenaron a la pena de muerte, pero la pena le fue conmutada porque fue parte de un trueque junto con otros 40 oficiales vascos. Una vez recobró la libertad, volvió a luchar contra el fascismo y lo mataron en la Batalla del Ebro, en el frente de Levante, el 12 de marzo de 1938, a los 36 años de edad.

***Gurasoak** [Padre y madre]: Silvestre Elorza Plazaola (1864, Plazaola, Legazpi) eta Isidra Guridi Zabaleta (1862, Bikuñanea, Legazpi). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Isidro, Pedro, Eugenio, Krexen eta Juan.*





# JOSE ETXEBERRIA GARMENDIA

PRESO ZEUKATELA HILA / MUERTO EN PRISION

*Legazpi, 1905/01/20 - Lizarra (Nafarroa Garaia), 1938/03/23*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Faustino Etxeberria Telleria (Ariztigoikoa, Brinkola) eta Juana Garmendia Artola (Ernialde).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Joxe, Axun, Felisa eta Julia.*
*Aita "Faustiño enterradorea" ezaguna zen.*
*Su padre era conocido como "Faustino el enterrador".*

Legazpiko Laxaronea baserrian jaio zen eta gudari aritu zen gerran, EAJren batailoietan. Preso hartu zuten. Lizarrako kuartela eraikitzen ari zirenean, Jose gaixotu egin zen, eta bertako ospitale militarrean hil zen pneumoniak jota, 1938ko martxoaren 22an, 19 urte zituela. Aste horretan bertan gorpua Legazpira ekarri zuten, Antonio Sarasola apaizari esker.

Nació en el caserío Laxaronea de Legazpi y fue gudari en varios batallones del PNV. Lo apresaron y mientras construían el cuartel de Lizarra, José enfermó y murió de neumonía en el hospital militar de la localidad el 22 de marzo de 1938, a los 19 años de edad. Esa misma semana trajeron el cadáver a Legazpi, por mediación del sacerdote Antonio Sarasola.

## SANTOS ETXEBERRIA IBARGUREN "TXARRANPION"

FAXISTEK GERRARA NAHITAEZ ERAMANA ETA HILA / RECLUTADO FORZOSAMENTE Y FALLECIDO

*Legazpi, 1910/03/27 - Laviana (Asturies, Espainia), 1937/03/13*



Legazpiko Mendiaspe baserrian jaioa, baserritarra zen lanbidez. 26 urte izan arren, gerrarako mobilizatu zuten, Marcos anaiarekin batera, eta faxistekin joan beharra izan zuen. Asturiaseko Laviana herrian zauritu zuten, eta zaurien ondorioz hil zen, 1937ko martxoaren 13an, 26 urte zituela.
Marcos anaiak esku bateko hatz batzuk galdu zituen eta, horregatik, Zumarragako tren-geltokian zaindari lanetan ibili zen gerra ostean.

Nació en el caserío Mendiaspe y trabajaba como agricultor. Aunque tenía 26 años, lo reclutaron para la guerra y tuvo que ir forzosamente con los fascistas, junto con su hermano Marcos. Lo hirieron en el pueblo asturiano de Laviana, y murió a causa de las heridas el 13 de marzo de 1937, a los 26 años de edad.
Su hermano Marcos perdió algunos dedos de la mano y por eso en la posguerra trabajó como guarda en la estación de tren de Zumarraga.

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** José Ramón Etxeberria Zaldua (Mendiaspe, Legazpi) eta Petra Ibarguren Gallastegi (Bergara). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** José Esteban, Eulogia, Gregoria, Jos´r Miguel, Valentín, Santos eta Marcos.*

# DOMINGO ETXEBERRIA IÑURRITEGI

PRESO ZEUKATELA HILA / MUERTO EN PRISIÓN

*Legazpi, 1917/07/07 - Alanis de la Sierra (Sevilla, Espainia), 1937/11/19*



***Gurasoak** [Padre y madre]: Manuel Ignacio Etxeberria (Makatzagaetxeberri, Legazpi) eta Antonia Iñurritegi (Sanmigeletxeberri, Legazpi). **Anai-arrebak [Hermanos-hermanas]:** Agapito, Carmen, Jesusa, Mª Gloria, Balentiña, Julián, Domingo eta Martín.*

Legazpiko Makatzagaetxeberri baserrian jaioa, baserritarra zen lanbidez. Gerran EAJko Ibaizabal batailoian aritu zen faxisten aurkako borrokan. Atxilotu, preso hartu eta Sevillara eraman zuten. Bertako Alanís de la Sierra herrian trena erraileti atera zen eta preso politiko ugari (200 inguru, hainbat iturriren arabera) hil ziren, tartean, Txomin Etxeberria legazpiarra. 1937ko azaroaren 19an hil zen, 20 urte zituela. Alanís de la Sierrako hobi komun batean lurperatu zuten, beste hainbat presorekin batera.

Nació en el caserío Makatzagaetxeberri de Legazpi y trabajaba en el caserío. Luchó contra los fascistas en el batallón Ibaizabal del PNV, pero lo detuvieron, encarcelaron y enviaron a Sevilla. El tren descarriló en el pueblo sevillano de Alanís de la Sierra y murieron muchos presos políticos (alrededor de 200, según algunas fuentes), entre ellos el legazpiarra Txomin Etxeberria. Murió el 19 de noviembre de 1937, a los 20 años de edad, y fue enterrado en una fosa común en Alanís de la Sierra, junto con otros presos.

# JOAQUIN ETXEBERRIA MURGIONDO

GERRAREN ONDORIOZ HILA / MUERTO A CONSECUENCIA DE LA GUERRA

*Mutiloa, 1915/12/07 - Luchon (Frantzia), 1937/10/05*



21 urteko legazpiarra, abertzalea, EAE-ANVko kidea. Legazpitik ihes egin zuen faxistak iristear zirela, eta gudan jardun zuen Gipuzkoan eta Bizkaian. Faxistek Bizkaia hartu zutenean, Ipar Euskal Herrira eta handik Frantziara ihes egitea lortu zuen, Legazpiko beste sei mutilekin batera. Ondoren gertatutakoaz bi bertsio jaso ditugu. Bataren arabera, Frantzian baso lanetan ari zela istripuz hil zen Joakin. Beste bertsioaren arabera, beste lagun batzuekin batera, Aragoi-Kataluniako fronte aldera joatea erabaki zuen, berriro borrokarako prest. Frontera eraman behar zituen ibilgailuak, ordea, istripua izan zuen izotza zela eta, eta Joakin hil egin zen. Edozein kasutan, 1937ko urriaren 5ean hil zen, 21 urte zituela.

El joven legazpiarra de 21 años era abertzale, miembro de ANV. Cuando los fascistas estaban a punto de tomar el pueblo huyó y luchó en Gipuzkoa y Bizkaia. Posteriormente, cuando los fascistas entraron en Bizkaia, huyó a Ipar Euskal Herria y a Francia, junto con otros seis jóvenes legazpiarras. Sobre lo sucedido a continuación hay dos versiones. Según una de las versiones, murió en Francia en un accidente mientras trabajaba en el bosque. Según la otra versión, decidió ir a luchar al frente de Aragón-Cataluña junto con otros compañeros, pero el vehículo que los trasportaba tuvo un accidente a consecuencia del hielo y Joakin murió. Lo cierto es que Joaquín murió el 5 de octubre de 1937, a los 21 años de edad.

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** José Lucio Etxeberria Aranburu (1877, Makatzagaetxeberri) eta Dolores Murgiondo Barrenetxea (1888, Mutiloa). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Joaquín, Juan, Emilia, Lucas eta Mariatxo. Anai-arrebak Mutiloko Olamuño izeneko kantinan jaio ziren, Ergoena auzoan. 1920ko hamarkadan Legazpira etorri ziren bizi izatera.*

*Los hermanos nacieron en la cantina Olamuño de Mutiloa. La familia vino a vivir a Legazpi en la década de 1920.*



## AURELIANO FERNANDEZ RUIZ DE LARREA

FUSILATUA - FUSILADO

*Zalduendo (Araba), 1917/10/08 – Legazpi, 1936/09/20*

Zalduondotik etorri zen Legazpira, familiarekin batera. 18 urte zituen faxistak Legazpira sartu zirenean. Aranzadiren arabera, faxistak herrira sartu ziren egunean edo biharamunean atxilotu zuten Aureliano, "Gora Errusia" oihukatzeagatik. Ondoren, "paseatu" eta fusilatu egin zuten Sagastiberriko zubian, Takolokoa eta Bengolea bitartean.

Llegó a Legazpi desde Zalduondo junto a su familia, y teñía 18 años cuando los fascistas tomaron Legazpi. Según los datos recopilados por Aranzadi, fue detenido el mismo día en el que los fascistas entraron al pueblo o al día siguiente, por haber gritado “viva Rusia”. Fue “paseado” y seguidamente fusilado en el puente de Sagastiberri, entre Takolokoa y Bengolea.

## DOMINGO GARCIA ALONSO “BELTZA”

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Ezkarai (Errioxa, Espainia), 1913/05/12 - Zumaia, 1936/09/…*





(Zutik) 1. Josefa Zufiaurre Garcia / 2. Alberto Garcia Alonso / 3. Julia Garcia Solas / (Eserita) 4. Domingo Garcia Alonso

*Artxibo partikularra*

Ezkarain jaioa (Errioxa), 9 urte zituenean etorri zen familiarekin Legazpira. Gerran Karl Liebknech batailoi komunistan aritu zen borrokan. Zumaian hil zuten 1937ko irailean, 23 urte zituela. Bere anaia Policarpo ere gerran hil zuten.

Nació en Ezcaray (La Rioja), y vino con su familia a Legazpi a los nueve años de edad. En la guerra luchó en el batallón comunista Karl Liebknech. Lo mataron en Zumaia en septiembre de 1937, a los 23 años de edad. Su hermano Policarpo también murió en la guerra.

*Aita Santos Garcia Solas, “Beltza” gaitzizenez, Errioxako Valgañon herrian jaio zen eta bitan ezkondu zen. Su padre Santos García Solas, alias “Beltza”, nació en la localidad riojana de Valgañón y se casó dos veces.*

***Anai-arrebak [Hermanos-hermanas]:*** *Alberto García Alonso, Policarpo García Alonso, Domingo García Alonso, Ignacio García Markina, Maria Ignacia García Markina (moja) eta Julio García Markina.*



## POLICARPO GARCIA ALONSO

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Ezkarai (Errioxa, Espainia), 1912/01/26 - Ubidea (Bizkaia), 1936/12/22*

*Aita, Santos García Solas, "Beltza" gaitzizenez, Errioxako Valgañon herrian jaio zen eta bitan ezkondu zen. Su padre Santos García Solas, alias "Beltza", nació en la localidad riojana de Valgañon y se casó dos veces.*

***Anai-arrebak [Hermanos-hermanas]:*** *Alberto García Alonso, Policarpo García Alonso, Domingo García Alonso, Ignacio García Markina, Maria Ignacia García Markina (moja) eta Julio García Markina.*

Hamar bat urte zituela etorri zen bere familiarekin Legazpira Ezkaraitik (Errioxa). Patriziorenean egiten zuen lan, mekanikari. Gerran gudari jardun zuen, EAE-ANVko Euzko Indarra batailoian. Ubidean zauritu zuten, eta Bilboko ospitalera eraman. Bertan hil zen Policarpo, 1936ko abenduaren 22an, 24 urte zituela. Bere anaia Domingo ere gerran hil zuten.

Llegó con su familia de Ezcaray (La Rioja) cuando tenía diez años. Trabajaba como mecánico en la fábrica de Patricio. En la guerra luchó en el batallón Euzko Indarra de ANV. Lo hirieron en Ubidea y fue trasladado al hospital de Bilbao. Policarpo murió en el hospital el 22 de diciembre de 1936, a los 24 años de edad. Su hermano Domingo también murió en la guerra.


# Tierra Vasca

ÓRGANO DE ACCIÓN NACIONALISTA VASCA

BILBAO

RESUMEN DE NOTICIAS

## ¡Gudaris de Acción Nacionalista Vasca!

Habéis pasado a formar parte del Ejército regular, donde quedáis encuadrados sin color político. Vuestras autoridades, nuestro Partido, vuestros ideales os ordenan en este momento que sigáis comportándoos como hasta ahora lo habéis hecho: con el mayor arrojo, con toda serenidad, con absoluta disciplina.

Euzkadi necesita en estos momentos de todo vuestro esfuerzo. Luchad con el mayor entusiasmo y depositad vuestra confianza en los mandos que os dirigen. ¡Obediencia absoluta! ¡Disciplina de hierro! ¡El valor de siempre!

Gudaris de Acción:

¡Gora Euzkadi azkatuta! ¡Viva la República! ¡¡Aurrera, mutillak!!

### HOMBRES CON VERGÜENZA, O ESCLAVOS

### DECLARACIONES DEL PRESIDENTE DEL GOBIERNO DE EUZKADI

### LA INMENSA VILEZA DEL ENEMIGO



Euzko Indarra batailoiko gudariak.
Gudaris del batallón Euzko Indarra.



**DOROTEO GIBELALDE ARANGUREN**
BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE
*Azkoitia, 1916/03/25 - Larrabetzu (Bizkaia), 1937/05/20*

***Gurasoak** [Padre y madre]: José Gibelalde Malkorra (Ibarra, mikeletea) eta Juana Aranguren Mujika (Azpeitia).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Bixente, Doroteo, Pedro eta Francisco.*
*Bixente eta Doroteo Azkoitian jaio ziren eta Pedro eta Francisco Tolosan.*
*Bixente y Doroteo nacieron en Azkoitia y Pedro y Francisco en Tolosa.*

Azkoitian jaioa, Legazpin bizi zen (Brinkolako Patxinea etxean) eta Paper fabrikan egiten zuen lan. Salsamendi eta Lenin batailoi komunistetan aritu zen borrokan. Borrokaldi batean, Larrabetzu-Bizkargi inguruan hil zuten 1937ko maiatzaren 20an, 21 urte zituela. Bixente anaia ere gerran ibili zen eta besoa galdu zuen.

Nació en Azkoitia, vivía en la casa Patxinea de Brinkola y trabajaba en la papelera. Luchó en los batallones comunistas Salsamendi y Lenin y falleció en una de las batallas en los alrededores de Larrabetzu-Bizkargi, el 20 de mayo de 1937, a los 21 años de edad. Su hermano Vicente participó igualmente en la guerra y perdió un brazo en la misma.



Lenin konpainia Ermuan.
La compañía Lenin en Ermua.

## PRIMITIVO GONZALEZ DE LANGARIKA ARREGI

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Araia (Araba), 1900/11/28 - Legutiano (Araba), 1937/04/06*



Araian jaio zen eta Ajurian egiten zuen lan, baina, gero, Patriziorenera etorri zen lanera, Mantxola baserrian ostatu hartuz. CNTko Sacco y Banzetti batailoian aritu zen miliziano. Legutianon hil zuten, 1937ko apirilaren 6an, 36 urte zituela.

Nació en Araia y trabajó en la fábrica de Ajuria al principio. Luego vino a trabajar a la fábrica de Patricio Etxeberria, residiendo en el caserío Mantxola de Legazpi. Luchó como miliciano en el batallón Sacco y Banzetti de la CNT y murió en Legutiano el 6 de abril de 1937, a los 36 años de edad.



1924-09-12, Ondarreta, Donostia. 1. Julián Gurrutxaga / 2. Pedro Cuñado / 3. Primitivo González de Langarika / 4. Felipe Alegría

*Familiak utzitako argazkia*

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Benito González de Langarika (Araia) eta Saturnina Arregi Lizarralde (Azpilleta, Oñati).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Nicolás, Pedro, Bienvenida, Mª Jesús, Primitivo, Andrés, Román eta Tomás.*
*Benito aitak Araiako Ajuria lantegitik tren-geltokira minerala garraiatzen zuen eta horregatik Araiakoentzat "karromateroa" zen.*
*El padre, Benito, transportaba mineral desde la fábrica Ajuria de Araia hasta la estación de tren y por eso los habitantes de Araia le llamaban el "carromatero".*



# ALEJANDRO GORDOA BENGOETXEA

FUSILATUA / FUSILADO

*Araia (Araba), 1913/02/26 - Bilbo (Bizkaia),1939/.../...*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Francisco Gordoa Mujika (Zalduondo, Araba) eta Patricia Bengoetxea Idigoras (Ziordia, Nafarroa Garaia).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Paulino, Miguel, Martín eta Alejandro.*
*Denak Araian jaio ziren.*
*Todos nacieron en Araia.*

Alejandro umea zela etorri zen haren familia Araiatik Legazpira. Kale Berrian (oraingo Kale Nagusia) bizi ziren. 23 urte zituen Alejandrok gerra piztu zenean, eta eraikuntza arloan egiten zuen lan. Legazpiren defentsan parte hartu zuen, besteak beste, Aztirin, Ormakion eta Korostiagan aritu zen. Faxistak Legazpira sartu zirenean, familia osoa joan zen ihesi Bizkaira. Bertan, Alejandro miliziano aritu zen borrokan, CNTko batailoietan. Azkenean, Bilbo aldean, preso hartu zuten faxistek eta kartzelan sartu. 1939 urtean, Larrinagako presondegian zutela, falangistek fusilatu egin zuten Alejandro gaztea. Derion lurperatu zuten.

Gordoa-Bengoetxea familiak izugarri sufritu zuen gerran. Alejandroren beste hiru anaia ere borrokan aritu ziren, eta preso izan zituzten; horietako bat denbora luzez. Legazpira itzuli zirenean, etxea irekita zegoela eta faxistek gauza asko kendu zizkietela ikusi zuten. Patriziorenean lanean hasteko aukera izan zuten, baina aldez aurretik "koarentena" pasatu behar izan zuten. Bestalde, Alejandroren aitari 200 pezetako isuna jarri zioten.

Alejandro llegó siendo niño a Legazpi junto a su familia desde Araia. Vivían en la Calle Nueva (actual Kale Nagusia). Alejandro tenía 23 años cuando comenzó la guerra y trabajaba en la construcción. Participó en la defensa de Legazpi, tanto en Aztiri como en Ormakio y Korostiaga. Al tomar las tropas fascistas Legazpi, toda la familia huyó a Bizkaia, donde Alejandro lucho como miliciano en los batallones de la CNT. Los fascistas lo apresaron en las inmediaciones de Bilbao, y lo llevaron a la cárcel de Larrinaga, donde los falangistas lo fusilaron en 1939. Fue enterrado en Derio.

La familia Gordoa-Bengoetxea sufrió lo indecible en la guerra, ya que otros tres hermanos de Alejandro lucharon en la contienda y estuvieron presos, uno de ellos una larga temporada. Al volver a Legazpi vieron como los fascistas habían entrado en la casa familiar y se habían llevado muchas cosas. Con el tiempo, pudieron empezar a trabajar en la fábrica de Patricio, pero antes tuvieron que pasar la "cuarentena". Además, al padre de Alejandro le impusieron una multa de 200 pesetas.

## FRANCISCO IDIGORAS INZA

FAXISTEK GERRARA NAHITAEZ ERAMANA ETA HILA/ RECLUTADO FORZOSAMENTE Y FALLECIDO

*Oñati, 1912/07/26 - Palentzia (Espainia) , 1937/09/14*



**Gurasoak** [Padre y madre]: *Antonio Idigoras (Oñati) eta Francisca Inza (Araotz).* **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: *Petra, Eustaxi, Eugenio, Francisco eta Lorentxa.*



Lehenengoa, Francisco Idigoras Inza.

*Familiak utzitako argazkia*

Oñatiko Araotz auzoan jaioa, Brinkolako Etxeaundin bizi zen. Baserritarra zen lanbidez. Kintoa izanik, derrigorrezko soldaduskara deitu eta gerrara eraman zuten faxistek. Infanteriako Regulares Irache batailoian izan zuten, eta gerra zaurien ondorioz hil zen Palentziako Gurutze Gorriaren ospitalean, 1937ko irailaren 14an, 25 urte zituela. Legazpin lurperatu zuten.

Nació en el barrio Araotz de Oñati, vivió en la casa Etxeaundi de Brinkola y era agricultor. Como era quinto fue reclutado forzosamente y los fascistas lo llevaron a la guerra. Estuvo en el batallón de infantería Regulares Irache y murió a consecuencia de heridas de guerra en el hospital de la Cruz Roja de Palencia el 14 de septiembre de 1937, a los 25 años de edad. Fue enterrado en Legazpi.



## JOSE MARI INTXAUSTI AROZENA “GABIRI”

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Gabiria, 1911/07/04 - Otxandio (Bizkaia), 1936/12/01*

***Gurasoak** [Padre y madre]: José Mateo Intxausti Irazusta (Belauntza) eta Mª Francisca Arozena Mendiola (Urrestilla).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Juliana, Pedro, José Martín, Anastasia, Inazio, Carmen eta José Mari.*

Gabiriako Igeribarrazpikoa baserrian jaio zen Joxe Mari, baina Legazpira etorri zen bizitzera gerra hasi baino urte batzuk lehenago. Oso famili abertzaleko semea zen. Gudari aritu zen gerran, eta Legutianoko frontean hil zuten, 1936ko abenduaren 1ean, 25 urte zituela. Diotenez, Damian Alustiza Agirre gudari legazpiarraren besoetan hil zen. Handik gutxira, egun berean, Damian bera hil zuten. Bestetik, aipatzekoa da Iloba Resu Arozena ere gerrara joana zela osabarekin batera. Bada, familiakoek tren-makinista baten bidez jakin zuten bietakoren bat hil zela, baina zehazki zein zen jakin gabe. Denbora luzean egon ziren baieztatu ezinik.

José Mari nació en caserío Igeribarrazpikoa de Gabiria, pero llegó a vivir a Legazpi unos años antes de que empezara la guerra. Era hijo de una familia muy abertzale. Luchó como gudari y murió en el frente de Legutiano el 1 de diciembre de 1936, a los 25 años de edad. Dicen que murió en brazos del gudari legazpiarra Damián Alustiza Agirre. El mismo Damían murió unas horas más tarde. El sobrino de Jose Mari, Resu Arozena, luchó también en la guerra, y la familia tuvo conocimiento de la muerte de uno de los dos por mediación de un maquinista de tren, pero sin saber exactamente quién. Pasó un tiempo largo hasta confirmar la identidad del fallecido.



Lehenengo ilaran, hirugarrena, eserita: Jose Mari Intxausti. Bosgarrena, pikotxean, Rexu Arozena Intxausti. Osaba-ilobak gerran ibili ziren.
El tercero sentado en la primera fila: José Mari Intxausti. El quinto en cuclillas Rexu Arozena Intxausti. El tío y el sobrino lucharon en la guerra.

*Guregipuzkoa.net*



## PLACIDO IÑURRITEGI AZTIRIA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Legazpi, 1916/10/11 - Artxanda (Bizkaia), 1937/06/15*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Ramón Iñurritegi (Laxaronea, Legazpi) eta Mikaela Aztiria (Urzelaikoa, Legazpi).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Marcial, Plácido eta Teresa.*
*1927. urtean, Ramon Iñurritegik eta Francisco Larreategik "Larreategui e Iñurritegui" forja lantegia sortu zuten Urretxun, gerora Irimo bilakatu zena.*
*Ramón Iñurritegi y Francisco Larreategi crearon el taller de forja "Larreategui e Iñurritegui" en Urretxu, que posteriormente se convirtió en Irimo.*

Legazpiko Laxaronea edo Zubiandia baserrian jaioa. Urretxun bizi zen gerra piztu zenean, eta bertan egiten zuen lan, Aranguren garraio-etxean. Ezker erradikalaren aldekoa zen, eta gerra hasiera-hasieratik milizietara jo zuen. Azkenean, Artxandako frontean hankan zauritu eta gangrenak hartu zuen. Ondorioz, hanka moztu behar izan zioten, baina inguruko ospitaleren batean hil zen, 1937ko ekainaren 15ean, 20 urte zituela.

Nació en el caserío Laxaronea o Zubiandia de Legazpi, pero cuando estalló la guerra vivía y trabajaba en Urretxu, en la empresa de transportes Aranguren. Era de tendencia izquierdista radical y se unió a las milicias en cuanto se inició la guerra. Lo hirieron en un pie en el frente de Artxanda, se le engangrenó la pierna y se la tuvieron que amputar, pero pese ello murió en el hospital el 15 de junio de 1937, a los 20 años de edad.



Marcial Iñurritegi Aztiria, goian, eta Placido Iñurritegi Aztiria, behean, 1924-25 ikasturtean, Legazpiko plazan ateratako argazkia.
Marcial Iñurritegi Aztiria (arriba) y Plácido Iñurritegi Aztiria (abajo). Fotografía tomada el curso 1924-25 en la plaza de Legazpi.

# DONATO INZA AZAROLA

DESAGERTUA / DESAPARECIDO

*Legazpi, 1908/02/09 - Durango (Bizkaia), 1937/04/01*



Telleriarteko San Migel baserrian jaioa. Patrizioren lantegian eta baserrian egiten zuen lan. EAJko Itxarkundia batailoiko gudaria izan zen. Elorrio-Durango inguruan desagertu zen, 1937. urtean, 29 urte zituela.

Nació en el caserío San Miguel de Telleriarte. Compaginaba el trabajo en Patricio con el del caserío. Fue gudari en el batallón Itxarkundia del PNV, y desapareció en los alrededores de Elorrio-Durango en el año 1937, a los 29 años de edad.

***Gurasoak** [Padre y madre]: José Joaquín Inza Aranburu (Zelandabekoa, Legazpi) eta Celedonia Azarola Etxeberria (Sanmigeletxeberri, Legazpi).*

***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Dolores, Donato, Evaristo eta Tomasa.*



San Migel ermita eta baserria.
La ermita y el caserío de San Miguel.

*Argazkia: JLU*



## FERNANDO IRASTORZA ETXEBERRIA

FAXISTEK GERRARA NAHITAEZ ERAMANA ETA HILA/
RECLUTADO FORZOSAMENTE Y FALLECIDO

*Legazpi, 1914/05/29 - Arriondas (Asturies, Espainia), 1938/10/24*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Joxe Irastorza Etxeberria (Urkiztegi, Gabiria) eta Juana Etxeberria Telleria (Ariztigoikoa, Brinkola).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Valentina, Pacífico, Tomás, Julio, Fernando eta Ángeles.*
*Denak Telleriarteko Lopetegi etxean edo "Estankoan" jaio ziren.*
*Todos nacieron en la casa Lopetegi (el Estanco) de Telleriarte.*

Telleriarteko Lopetegi etxean jaio eta bizi zen. Familiak bertako estankoa zeukan. Fernandok forjan lan egiten zuen eta familiako estankoan lagundu. Abertzalea zen, baina gerra piztu zenean, derrigorrezko soldaduskan zeukaten, eta faxistek eurekin hartu eta gerrara eraman zuten, infanteriako Regimiento América nº23 batailoian. Bonba batek zauritu, eta Arriondaseko (Asturies) ospitale militarrean hil zen 1938ko urriaren 24an, 24 urte zituela. Fernandoren heriotza ez ezik, sufrimendu gehiago ere pairatu behar izan zuen bere familiak: handik hilabete gutxira, bere anaia Pacifico hil zuten faxistek.

Nació y vivió en la casa Lopetegi de Telleriarte. La familia tenía el estanco de Telleriarte, pero Fernando trabajaba en la forja, aunque ayudaba a la familia en el estanco. Era abertzale, pero cuando empezó la guerra estaba realizando el servicio militar obligatorio y los fascistas lo llevaron forzosamente a la guerra con ellos, al batallón de infantería Regimiento América nº23. Una bomba lo hirió y murió en el hospital militar de Arriondas (Asturias) el 24 de octubre de 1938, a los 24 años de edad. La familia no solo sufrió la perdida de Fernando, porque unos meses más tarde los fascistas mataron a su hermano Pacífico.



Irastortza Etxeberriatarrak.
(Zutik) Fernando, Tomás, Ángeles, Pacifico eta Balentina /
(Eserita) Joxe eta Juana

## PACIFICO IRASTORZA ETXEBERRIA

DESAGERTUA / DESAPARECIDO

*Legazpi, 1907/09/25 - Valencia-Alicante (Espainia),1939/…/…*



Telleriarteko Lopetegi etxean jaioa. Familiak estankoa (denetariko denda ere bazena) zuzentzen zuen auzoan. Paxifikok, berriz, arotz tailerra zuen etxe parean. Republikanoa zen. Gerran miliziano jardun zuen eta Asturias inguruan desagertu zen, 1937 urtean, gerra amaitzear zela, 31 urte zituela.

Gogor astindu zuen gerrak Paxifikoren familia: beste anaia bat ere hil zen gerran (Fernando), faxistek eurekin derrigor eramanda.

Nació en la casa Lopetegi de Telleriarte. La familia regentaba el estanco (también era una tienda que vendían de todo) en el barrio; pero Pacífico trabajaba en una carpintería enfrente de casa. Era republicano y luchó en las milicias. Desapareció en las inmediaciones de Asturias en el año 1937, cuando la guerra estaba a punto de terminar, a los 31 años de edad.

La guerra golpeó duramente a la familia de Pacífico, ya que otro hermano (Fernando) también falleció en la guerra, después de que los fascistas se lo llevaran por la fuerza a luchar junto a ellos.

***Gurasoak** [Padre y madre]: Joxe Irastorza Etxeberria (Urkiztegi, Gabiria) eta Juana Etxeberria Telleria (Ariztigoikoa, Brinkola).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Balentiña, Pacífico, Tomás, Julio, Fernando eta Ángeles.*



Urbian egunpasa. En Urbia
(Atzean) 1.Joxepa Andueza Zangitu /
2. Doroteo Arrazola /
(Eserita) 3. Isidro Zangitu Arsuaga /
4. Francisca Beain Barrena /
5. Isabel Legorburu Agirrezabal /
6. Paxifiko Irastorza Etxeberria



## LORENZO KORTAZAR GAZTAÑAGA

GERRAREN ONDORIOZ HILA / MUERTO A CONSECUENCIA DE LA GUERRA

*Aretxabaleta, 1905/11/14 - Legazpi, 1940/04/22*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Juan Kortazar (Aretxabaleta) eta María Gastañaga (Aretxabaleta).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Lorenzo, Claudio eta Concepción.*
***Emaztea** [Esposa]: Dolores Irazola (Legazpi).*
***Seme-alabak** [Hijos-hijas]: Vicenta, María, Paula eta Blas.*

Lorenzo aita alargunarekin eta bi anai-arrebekin etorri zen Aretxabaletatik Legazpiko Lakiolaetxeberri baserrira. Patriziorenean lanean hasi zen eta ez zuen arazo berezirik izan, inoiz ez baitzen politika kontuetan sartu. Gerra hasi zenean, herria Errepublikaren aldekoen menpe egon zen garaian, guardiak egin zituen Lakiola aldean. Faxistak herrira sartzekotan zirenean, ezkutura jo zuen (herriko gizonezko gehienek bezala), baina egun gutxiren buruan itzuli zen herrira.

Patrizioren fabrika militarizatua zegoen garaian, besteak beste, militarren txatarra asko jasotzen zuten. Txatarra artean, gerran erabilitako materialaren artean nahastuta, balak eta bonbak ere izaten omen ziren tarteka, eta horrek ezbehar ugari eragin zituen Patrizioren enpresako langileen artean. 1940ko apirilaren 22an, Lorenzo lanean ari zen, eta txatarra palakada bat fundizioko labera sartu zuenean, bonba bat (granada bat) lehertu eta bete-betean harrapatu zuen. Legazpiko ospitale militarrera eraman eta bertan hil zen Lorenzo, odolustuta, 34 urte zituela, lau seme-alaba txiki umezurtz utzita.

Lorenzo llegó de Aretxabaleta al caserío Lakiolaetxeberri de Legazpi con su padre viudo y sus dos hermanos. Comenzó a trabajar en la fábrica de Patricio y no tuvo problemas, porque nunca se metió en política. Al estallar la guerra y estando todavía Legazpi en manos de los que defendían la República, realizó guardias en Lakiola. Cuando los fascistas estaban a punto de llegar, Lorenzo se escondió (como la mayoría de hombres de pueblo), pero volvió pasados unos días.

En aquella época la fábrica de Patricio estuvo militariza y recogió mucha chatarra militar. Mezclada con esa chatarra había balas y bombas, y eso provocó varios accidentes entre los trabajadores de la empresa de Patricio. El 22 de abril de 1940 Lorenzo metió una palada de chatarra al horno para fundirla y una bomba (una granada) explotó y dio de lleno a Lorenzo. Lo llevaron al hospital militar, pero murió allí desangrado, a los 34 años, dejando cuatro hijos pequeños huérfanos.

## JOSE LARRAÑAGA LIZARRALDE

FUSILATUA/ FUSILADO

*Azkoitia, 1903/09/12 - Legazpi, 1937/05/04*



Azkoitiarra zen jaiotzez, baserritarra, baina azken hamar urteak Legazpiko Goenaga baserrian eman zituen. Bertan lan egiten zuen, morroi. EAJko afiliatua zen, eta gerra hasi ondoren ezkutatu egin zen, baina aurkitu egin zuten, eta buruan tiro emanda hil zuten falangistek Legazpin, Pisuzarren, 1937ko maiatzaren 4an, 33 urte zituela.

Nació en Azkoitia, pero pasó los últimos diez años trabajando de morroi en el caserío Goenaga de Legazpi. Era afiliado del PNV y cuando comenzó la guerra optó por esconderse, pero dieron con él y los falangistas lo mataron de un tiro en la cabeza el 4 de mayo de 1937, en Legazpi, en Pisuzar, a los 33 años de edad.



*Argazkia: JLU*



# JESUS LARREA EGINO "JESUS ARAIA"

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Araia (Araba), 1904/01/16 - Bartzelona (Herrialde Katalanak), 193?/…/…*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Ramón Larrea eta Felisa Egino, Araiakoak.*
***Anaiak** [Hermanos]: Eusebio, Nicómenes, Nicolás, Prudencio eta Jesús.*

Araian jaioa, beste hainbat herritarrek bezala, 1932. urtean jaioterria utzi eta Legazpira etorri zen lanera, Patriziorenera. Republikarra zen eta faxistak altxatu zirenean, borroka egitea erabaki zuen. Bartzelonan hil zen "eraso guardiako" kidea zela (ez dugu datarik lortu).

Nació en Araia, pero como muchos otros vecinos, en el año 1932 vino a Legazpi a trabajar a la fábrica de Patricio. Era republicano y cuando la sublevación fascista decidió luchar. Murió en Barcelona siendo miembro de la "guardia de asalto" (no hemos conseguido la fecha exacta).




Jesús Larrea Egino

*Familiak utzitako argazkia*

## JOSE LIZARAZU ALUSTIZA

FAXISTEK GERRARA NAHITAEZ ERAMANA ETA HILA/
RECLUTADO FORZOSAMENTE Y FALLECIDO

*Legazpi, 1916/11/22 - Gasteiz (Araba), 1937/04/09*



Pastain baserrian jaioa, Patriziorenean egiten zuen lan. Abertzalea zen, baina kintoa izanik, derrigorrezko soldaduskara deitu eta gerrara eraman zuten faxistek. Batallón Montaña Sicilia nº 8 izenekoan eduki zuten, Otxandioko frontean zauritu zuten, eta astebetera hil zen, 1937ko apirilaren 9an, Gasteizko ospitale militarrean, 20 urte zituela. Legazpin lurperatu zuten.

Nació en el caserío Pastain y trabajaba en la fábrica de Patricio. Era abertzale, pero como era quinto los fascistas lo llevaron forzosamente al servicio militar y a la guerra. Estuvo en el Batallón Montaña Sicilia nº 8, lo hirieron en el frente de Otxandio y murió una semana más tarde, el 9 de abril de 1937, en el hospital militar de Gasteiz, a los 20 años de edad. Fue enterrado en Legazpi.

***Gurasoak** [Padre y madre]: Tomás Lizarazu Telleria (Pastain, Legazpi) eta Josefa Alustiza Lekuona (Mutiloa).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: José Mari, Andrés, Margarita eta José.*



Pastaingo Lizarazutarrak: Andres, Margarita, Joxe eta aita, Tomas.
Los Lizarazu de Pastain: Andrés, Margarita, Joxe y el padre Tomás.

*Familiak utzitako argazkia*



## ESTEBAN MADINA AIASTUI

FUSILATUA / FUSILADO

*Legazpi, 1915/07/27 - Larrabetzu (Bizkaia),1937/…/…*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Vicente Madina Kortaberria (Oñati) eta Lorenza Lasa Zabaleta (Huitzi, Nafarroa Garaia). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Esteban, Juana, Pedro eta Bonifacio.*

Legazpiko Urtatzagarakoa baserrian jaioa, Patriziorenean eta baserrian lan egiten zuen. Legazpiko defentsan parte hartu zuen, eta faxistak herrira sartu zirenean, ihes egiten azkenetakoa izan zen. EAJko Amaiur batailoian aritu zen gudari, eta Bizkargiko borrokan hil zuten, Larrabetzun (Bizkaia), 21 urte zituela. Bertan zaurituta hartu zuten, eta “grazia-tiroa” eman zioten.

Nació en el caserío Urtatzagarakoa de Legazpi y compaginaba los trabajos del caserío con el de Patricio. Participó en la defensa de Legazpi y cuando los fascistas tomaron el pueblo fue uno de los últimos en abandonarlo. Fue gudari del batallón Amaiur del PNV y lo mataron en la batalla de Bizkargi, Larrabetzu (Bizkaia), a los 21 años de edad. Lo hirieron en dicha batalla y le dieron el “tiro de gracia”.



Amaiur batailoia.
Batallón Amaiur.

*“1936 Gerra Zibila Euskal Herrian” obratik hartuta (Aise Liburuak)*

## JERONIMO MADINA ALONSO
FUSILATUA/ FUSILADO
*Legazpi, 1906/09/30 - Beasain,1936/08/…*





Jesús Madina Alonso

*Familiak utzitako argazkia*

Legazpin jaioa eta hazia. Ezkertiarra zen, eta fabrikan egiten zuen lan. Ez dugu informazio askorik Jeronimoren heriotzari buruz, baina informatzaile batek aipatutakoaren arabera, 1936ko abuztuan fusilatu zuten Beasain inguruan.

Jeronimoren familiak izugarri sufritu zuen gerran. Jesus Madina "Txori" anaia Fronte Popularreko burua zen. Elkarrizketatu batek aipatu duenez, faxistak armaz altxatu zirenean, Errepublikaren aldeko batzuek Patricio Etxeberria hiltzeko asmoa izan zuten, baina Jesus Madinak ez zuen hori gerta zedin utzi. Ordainetan, Jesus Madina espetxeratu eta heriotza-zigorra ezarri ziotenean, Patriciok bizia salbatu ziola esaten dute.

Nació y creció en Legazpi. Era izquierdista y trabajaba en la fábrica. No tenemos mucha información sobre la muerte de Jeronimo, pero según un informante, lo fusilaron en las inmediaciones de Beasain en agosto de 1936.

La familia de Jerónimo sufrió mucho en la guerra. Su hermano Jesús Madina "Txori" era jefe del Frente Popular. Según una de las personas entrevistadas, cuando los fascistas tomaron las armas, algunos partidarios de la República quisieron matar a Patricio Etxeberria, pero Jesús Madina no permitió que eso sucediera. Según dicen, cuando Jesús Madina fue apresado y condenado a la pena de muerte, Patricio le salvó la vida.

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Félix Madina Agirre "Txori" (1873, Bergaretxe, Legazpi) eta Avelina Alonso Tudor "Txorixea" (1876, Matalebreras, Soria-Espainia).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Jesús "Txori", Hilario, Pilar, Jerónimo, Petra, Benedicto, Simón, Trinidad eta Bibiana.*
*Frontoiko etxean bizi ziren. Jesus eta Hilario kanpoan jaio ziren, baina Pilar eta ondorengoak, Legazpin.*
*Vivían en la casa del frontón. Jesús e Hilario nacieron fuera de Legazpi, pero Pilar y el resto de hermanos nacieron en Legazpi.*



## AVELINA MADINA ZUFIAURRE

GERRAREN ONDORIOZ HILA / MUERTA A CONSECUENCIA DE LA GUERRA

*Legazpi, 1936/06/03 - Macôn (Frantzia), 1938/…/…*

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Jesús Madina Alonso (Legazpi) eta Josefa Zufiaurre García (Altsasu, Nafarroa Garaia). **Anai-arrebak (amaren aldetik)** [Hermanos-hermanas]**:** Antonio, Cosme eta Amparo.*

Gerra hasi baino hilabete lehenago jaio zen. Jesus Madina Alonso legazpiarra eta Josefa Zufiaurre Garcia altsasuarraren alaba zen. Josefa Jesusekin bigarrenez ezkondu zen. Aurretik, Cosme Zalduendo Arce nafarrarekin, bederatzi seme-alaba izan zituen, baina sei txikitan hil ziren. Jesusekin Avelina alaba izan zuten, baina erbestean hil zen, 1938. urtean, Frantziako Mâcon hirian, bi urte zituela, meningitisak jota. Apur bat lehenago, 1937an, bikiez haurdun izan zen, baina obus baten eztandagatik galdu zituen.

Ez zuen ez zorte handirik izan Josefa Zufiaurrek bere bizitzan zehar, izan ere, aipatutako guztiari gaineratu behar diogu, seme Cosme, bere bi anaia, Eloy eta Isidro eta bigarren senarraren anaia, Jeronimo, gerran hil zirela.

Nació un mes antes de que estallara la guerra. Era hija del legazpiarra Jesús Madina Alonso y la alsasuarra Josefa Zufiaurre García. Josefa se casó en segundas nupcias con Jesús. Anteriormente estuvo casada con el navarro Cosme Zalduendo Arce, con el que tuvo nueve hijos, de los cuales seis murieron de pequeños. Jesús y Josefa tuvieron a Avelina, pero murió en el exilio, en la ciudad francesa de Mâcon, en 1938, a los dos años de edad, de meningitis. Un poco antes, en 1937, Josefa estuvo embarazada de gemelos, pero los perdió a consecuencia de la explosión de un obús.

Josefa Zufiaurre no tuvo mucha suerte en esta vida, puesto que a todas las desgracias mencionadas hay que añadir que perdió en la guerra a su hijo Cosme, a dos hermanos, Eloy e Isidro, y a un hermano de su marido, Jerónimo.







Goian: Josefa Zufiaurre eta Jesus Madina.
ezkerrean: Avelina Madina Zufiaurre.

*Familiak utzitako argazkiak*



## JOSE MARTINEZ DE ALBENIZ GARCIA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Albeiz (Araba), 1909/01/01 - Otxandio (Bizkaia), 1937/04/04*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Gregorio Martínez de Albeniz (Albeiz, Araba) eta Magdalena García (Araia, Araba).*
***Anaiak** [Hermanos]: Francisco eta José. Francisco Donemiliagan jaio zen; José, Albeizen.*

Albeizen (Araba) jaio zen, baina Legazpin bizi zen gerra hasi zenean eta trenbideetan egiten zuen lan. “Izquierda Republicana”-ko alderdikidea zen eta Legazpiren defentsan aritu zen. Faxistek herria menpean hartu zutenean Bizkaia aldera jo eta komunisten Larrañaga batailoian ibili zen. Otxandioko frontean hil zen, 1937ko apirilaren 4an, 28 urte zituela.

Gerrak gogor astindu zuen Joseren familia: Francisco anaia preso izan zuten eta Magdalena 2 urteko iloba Santanderren hil zen.

Nació en Albeniz (Araba), pero cuando empezó la guerra vivía en Legazpi y trabajaba en el ferrocarril. Estaba afiliado a “Izquierda Republicana” y participó en la defensa de Legazpi. Cuando los fascistas conquistaron el pueblo huyó hacia Bizkaia y participó como miliciano en el batallón comunista Larrañaga. Murió en el frente de Otxandio el 4 de abril de 1937, a los 28 años de edad.

La guerra golpeó con crudeza a la familia de José, ya que su hermano Francisco estuvo preso y su sobrina Magdalena de 2 años falleció en Santander.



Ezkerretik bigarrena eta hirugarrena, Jose Martinez de Albeniz eta Aurelio Ruiz de Arbulo.
El segundo y el tercero por la izquierda, José Martínez de Albéniz y Aurelio Ruiz de Arbulo.



## MAGDALENA FAUSTINA MARTINEZ DE ALBENIZ VALDIVIESO

GERRAREN ONDORIOZ HILA / MUERTA A CONSECUENCIA DE LA GUERRA

*Legazpi, 1935/06/04 - Santander (Cantabria, Espainia), 1937/07/21*

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Francisco Martínez de Albéniz García (Donemiliaga, Araba) eta Lucrecia Valdivielso Santamaria (Los Balbases, Burgos).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Jesús Martínez de Albéniz Onzoño (anaiordea), Magdalena Faustina, José Esteban, Julián eta Fernando. Jesus Araian jaio zen; gainerakoak, Legazpin.*
*Jesús nació en Araia; el resto de los hermanos, en Legazpi.*

Francisco Martinez de Albeniz eta Lucrecia Valdiviesoren alaba Legazpiko Olazabal baserrian jaio zen, 1935eko ekainaren 4an. 1936an gerra hasi zenean urtea bete berri zuen. Gurasoek Legazpiren defentsan parte-hartze aktiboa izan zuten, eta faxistek Francisco aita harrapatu eta preso sartu zuten Mungian (Joxe Etxeberria Aranburu legazpiarrarekin batera). Amak hiru seme-alabekin (ondoren beste bi izan zituen) ihes egitea erabaki zuen, eta erbesteko bidea hartu zuen. Frantzian izan ziren, Maçonen, errefuxiatuak hartzen zituzten herri batean eta, bizi-baldintzak tamalgarriak zirenez, itzultzea erabaki zuen. 1937ko ekainean, Bilbora itzuli zen itsasontziz, baina ordurako faxistak Bizkaia mendean hartzen ari ziren, eta Kantabriara alde egin behar izan zuten. Jasan behar izan zituen bizi-baldintza txarren ondorioz, Magdalena txikia bi urte bete berritan hil zen, Santandergo errefuxiatuen ospitalean, 1937ko uztailaren 21ean.

Hija de Francisco Martínez de Albéniz y Lucrecia Valdivieso, nació en el caserío Olazabal de Legazpi el 4 de junio de 1935. Cuando en 1936 estalló la guerra tenía un año recién cumplido. Sus padres tomaron parte activa en la defensa de Legazpi. Su padre, Francisco, fue apresado y estuvo preso en Mungia (con otro legazpiarra, Joxe Etxeberria Aranburu). La madre de Magdalena optó por escapar con sus tres hijos (más tarde tuvo otros dos) y exiliarse en Francia, donde estuvieron en Maçon, un pueblo donde acogían refugiados, en unas condiciones de vida penosas. Decidió volver, y regresó en barco a Bilbao en junio de 1937. Precisamente entonces, los fascistas avanzaban sobre Bizkaia, y tuvieron que huir hacia Cantabria. Debido a las más que precarias condiciones de vida que tuvo que soportar, la pequeña Magdalena murió cuando tenía dos años recién cumplidos, en el hospital de refugiados de Santander, el 21 de julio de 1937.

Martinez de Albeniz-Valdivieso familiak izugarri sufritu zuen gerran: Magdalenaren aitaren anaia (Jose Martinez de Albeniz) Otxandioko frontean hil zen eta amaren lehengusua (Florentino Blanco Valdivieso) Kantabrian. Senideek diotenez, Lucrecia Valdevieso ama 1977an hil zen, Magdalena alabaren heriotzak eragin zion trauma gainditu gabe.

La familia sufrió mucho durante la guerra: el hermano del padre de Magdalena (José Martínez de Albéniz) murió en el frente de Otxandio y el primo de la madre (Florentino Blanco Valdivieso) murió en Cantabria. Los familiares cuentan que la madre (Lucrecia Valdivieso) murió en 1977, sin haber superado el trauma que le supuso la muerte de su hija Magdalena.



*Familiak utzitako argazkia*



## EVARISTO MENDIA ZABALO

FUSILATUA / FUSILADO

*Legazpi, 1882/10/27 – Beasain, 1936/07/28*

***Gurasoak** [Padre y madre]: José Mari Mendia Urzelai (Ezkibeleta, Legazpi) eta Dominica Zabalo Agirre (Korosterratzu, Legazpi).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Hilario, Evaristo, Micaela eta Simón.*
*Evaristo Mendia Beasaingo Barrendain baserriko Bernarda Elizegirekin ezkondu zen eta bederatzi seme-alaba izan zituzten: Florencio, Emilia, Rafaela, Lucía, Bene, Mari Cruz, Victoria, Mª Dolores eta Martín José.*
*Evaristo Mendia se casó con Bernarda Elizegi del caserío Barrendain de Beasain y tuvieron nueve hijos: Florencio, Emilia, Rafaela, Lucía, Bene, Mari Cruz, Victoria, Mª Dolores y Martín José.*

Legazpiko Ezkibeleta baserrian jaioa, Beasainen bizi zen gerra piztu zenean eta 53 urte zituen. Ezkonduta zegoen eta bederatzi seme-alaba zituen. Evaristo karlista zen, baina karlisten artean batzuek ez zuten begi onez ikusi faxisten altxamendua, batez ere euskal nazionalistengandik hurbil zeudenek, eta joera horretako Beasaingo karlisten buruetako bat zen Evaristo. Faxistek ez zioten jarrera hori barkatu, eta Beasainera sartu zirenean (uztailaren 27ren eta 28ren arteko gauean), fusilatu egin zuten, Beasaingo Albisu-Enea etxe parean, beste hamarnaka lagunekin batera (tartean, Errepublikarekiko leial izan ziren hainbat guardia zibil eta karlista). Evaristo fusilatzea nahikoa ez, eta haren seme zaharrenari aita lurperatzeko zuloa eginarazi zioten.

Nació en el caserío Ezkibeleta de Legazpi, pero cuando estalló la guerra vivía en Beasain y tenía 53 años. Estaba casado y tenía nueve hijos. Evaristo era carlista, pero algunos carlistas no vieron con buenos ojos la sublevación fascista, sobre todo los más cercanos al nacionalismo vasco, y precisamente Evaristo era uno de los responsables de ese sector en Beasain. Los fascistas no se lo perdonaron, y cuando entraron en Beasain (la noche del 27 al 28 de julio) lo fusilaron frente a la casa Albisu-Enea de Beasain, junto a otras decenas de personas (entre ellos algunos guardia civiles y carlistas que se mantuvieron fieles a la República). Fusilar a Evaristo no debió parecerles suficiente y obligaron a su hijo mayor a cavar la tumba de su padre.



Eskuinean: Evaristo eta Bernarda Elizegiren arteko ezkontza eguneko argazkia.
Derecha: Fotografía del día de la boda de Evaristo y Bernarda Elizegi.

*Familiak utzitako argazkia*

Behean: Frankistak Beasainen sartzen, 1936ko uztailaren 27an.
Abajo: Franquistas entrando en Beasain, el 27 de julio de 1936.



*“1936 Gerra Zibila Euskal Herrian” obratik hartuta (Aise Liburuak)*



## JOSE MARI MENDIOLA GUTIERREZ DE LA CONCHA "JESUITILLA"

FUSILATUA / FUSILADO

*Madril (Madril, Espainia), 1915/08/05 - Urretxu/Zumarraga inguruan,1936/09/…*

Madrilen jaioa, Legazpira etorri zen bizitzera. Apaizgai izana, oso elizkoia zen etorri berritan, eta horren ondorio zen bere goitizena (El jesuitilla). Patriziorenean egiten zuen lan, erreminta biltegian. Izquierda Republicana alderdiko afiliatua zen, eta faxistak Legazpira sartu eta egun berean atxilotu zuten, 1936ko irailaren 19an. Egun batzuk udaletxean preso izan ondoren, fusilatu egin zuten beste hainbat ezkertiarrekin batera, Urretxu eta Zumarraga inguruan (ezin izan dugu fusilamendu data eta toki zehatza jakin), 21 urte zituela.

Nació en Madrid, pero se traslado a Legazpi. Había sido seminarista, y como al llegar al pueblo era muy devoto, le pusieron de apodo El Jesuitilla. Trabajaba en el almacén de herramientas de la fábrica de Patricio, era afiliado de Izquierda Republicana y los fascistas lo detuvieron el día que tomaron Legazpi, el 19 de septiembre de 1936. Después de permanecer preso unos días en el ayuntamiento, fue fusilado junto a otros militantes de izquierda en los alrededores de Urretxu y Zumarraga (no hemos podido concretar el día y el lugar exactos), a los 21 años de edad.



## EUGENIO MURGUZUR MURUA

FAXISTEK GERRARA NAHITAEZ ERAMANA ETA HILA /
RECLUTADO FORZOSAMENTE Y FALLECIDO

*Legazpi, 1917/02/17 - Iruñea (Nafarroa Garaia), 1938/08/31*

Legazpiko Txokolateronea etxean jaioa, Kontseju Zaharrean. 1927. urtean, ordea, etxea bota zutenean Zurrantegi baserrira joan ziren bizitzera. Kintoa izanik, derrigorrezko soldaduskara deitu eta gerrara eraman zuten faxistek. Infanterian jardun zuen eta Kataluniako frontean zauritu zuten. Iruñeko ospitalera eraman zuten eta bertan hil zen, 1938ko abuztuaren 31n, 21 urte zituela. Legazpin lurperatu zuten.

Nació en la casa Txokolateronea de Legazpi, pero cuando en 1927 derribaron la casa se fueron a vivir al caserío Zurrantegi. Como era quinto los fascistas lo reclutaron forzosamente y lo llevaron a la guerra. Estuvo en infantería, fue herido en el frente de Cataluña y lo llevaron al hospital de Iruñea. Allí murió el 31 de agosto de 1938, a los 21 años de edad. Fue enterrado en Legazpi.



*Argazkia: JLU*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Julián Murguzur Urzelai (Oñati) eta Jacinta Murua Letamendia (Oñati).*
***Anaiak-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Bautista eta Juan Salvias Orena (Jacintaren lehenengo ezkontzako semeak) (hijos del primer matrimonio de Jacinta), Nicasio, Lorenzo, Hipólito, María, Eugenio eta José Murguzur Murua.*
*Bautista eta Juan Bergaran jaio ziren; Nicasio, Lorenzo, Hipolito eta Maria, Oñatin; eta Eugenio eta Jose, Legazpin.*
*Bautista y Juan nacieron en Bergara; Nicasio, Lorenzo, Hipólito y María, en Oñati; y Eugenio y José, en Legazpi.*



## TOMAS MURUA SASIETA

FAXISTEK GERRARA NAHITAEZ ERAMANA ETA HILA/
RECLUTADO FORZOSAMENTE Y FALLECIDO

*Ordizia, 1915/12/28 - Castellon (Espainia), 1938/07/27*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Ángel Murua Alkorta "Kabo Xaharra" (Zumarraga) eta María Sasieta Jauregi (Urretxu).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Ángel Murua Manterola eta Sebastian, Tomás, Saturnina, Juan, Alberto eta Elías Murua Sasieta.*

Gerra piztu zenean, gudari aritu zen Tomas, EAJkoekin, baina faxistek harrapatu eta urtebete preso eman zuen. Legazpira itzuli zenean, soldaduska egiteko garaia zuen eta faxistek gerrara eraman zuten eurekin. Castelloneko frontean hil zen, obus batek harrapatuta. Bera eta beste lau kide hil ziren. Bertan lurperatu zuten, baina, gerra amaitu ondoren, Angel anaiak Legazpira ekarri zuen, lurperatzeko. Hatz batean zuen zauriagatik identifikatu ahal izan zuten haren gorpua.

Tomasen aita Angel Murua zen, Legazpiko mikelete kaboa, eta Legazpiko defentsan parte-hartze esanguratsua izan zuen. Angel milizianoak entrenatzen aritu zen, miliziano talde batekin Beasainera eta Tolosara joan zen eta faxistak iristear zirela Legazpiko ebakuazioaren buru izan zen.

Cuando empezó la guerra Tomás fue gudari con el PNV pero los fascistas lo apresaron y pasó un año preso. Cuando volvió a Legazpi tenía edad de realizar el servicio militar y los fascistas lo llevaron a la guerra forzosamente. En el frente de Castellón les alcanzó un obús y murieron Tomás y cuatro compañeros más. Lo enterraron allí mismo, pero al finalizar la guerra su hermano Angel lo trajo a Legazpi para enterrarlo en el pueblo. El cadáver fue identificado por una herida que tenía en el dedo.

El padre de Tomás, Angel Murua, era cabo de miqueletes de Legazpi y participó de manera significativa en la defensa del pueblo. Angel entrenó a milicianos, se desplazó a Beasain y Tolosa con un grupo de milicianos y fue el responsable de la evacuación de Legazpi cuando los fascistas estaban a punto de llegar.



# DONATO OROZ OTXOA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Legazpi, 1907/02/24 - Bilbo (Bizkaia), 1936/11/30*

Telleriartekoa zen, arotza lanbidez. Larrañaga batailoi komunistan ibili zen gerran. Borrokan ari zela zauritu zuten, eta Bilboko zezen plazako ospitalean hil zen, 1936ko azaroaren 30ean, 29 urte zituela, "suzko armak eragindako septizemiagatik".

Era de Telleriarte, carpintero de profesión, y luchó en el batallón comunista Larrañaga. Lo hirieron en el frente y murió en el hospital de la plaza de toros de Bilbao, el 30 de noviembre de 1936, a los 29 años de edad, por "una septicemia provocada por arma de fuego".

***Gurasoak** [Padre y madre]: José Miguel Oroz Uria (Martintxokoa, Telleriarte, Legazpi) eta Isabel Otxoa Lacalle (Agurain).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Donato, Justa, Emilia, Ramona eta Juliana. Aita Jose Miguel Udanako alemanen "kotxeroa" izan zen.*
*El padre José Miguel fue el "cochero" de los alemanes de Udana.*



Martintxokoa eta Lopetegi etxeak Telleriarten.
Las casas de Martintxokoa y Lopetegi, en Telleriarte.



## JESUS PEÑA ETXEBERRIA

FUSILATUA - FUSILADO

*Legazpi, 1914/12/25 – Santander (Kantabria, Espainia) 1937/08/30*

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Nicolás Peña Irizar (Aretxabaleta) eta Luisa Etxeberria Aldanondo (Igeraldeazpikoa, Brinkola, Legazpi).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Jesús, Joxe, Lorenzo, Mª Cristina, Nati, Rufino eta Conchita.*

Haurtzaroa Brinkolan pasatu ostean, 6-7 urte zituela Aretxabaletara joan zen Jesus. Kazetaria zen eta abertzalea, EAJkoa. Gerran EAJko Saseta batailoian aritu zen gudari. Reinosako mendietan zauritu eta preso hartu zuten. Santanderreko ospitalera eraman zuten, eta han zegoela, ohetik altxarazi eta fusilatu egin zuten. Jesusen anaia gaztea ere, Joxe, gerran hil zen; faxistek eurekin eraman zuten eta frontean hil zen.

Después de pasar su niñez en Brinkola, a la edad de 6-7 años Jesús se fue a vivir a Aretxabaleta. Era periodista, nacionalista, del PNV, y en la guerra luchó en el batallón Saseta del PNV. Lo hirieron y apresaron en los montes de Reynosa, y lo trasladaron al hospital de Santander, pero estando allí, lo sacaron de la cama y lo fusilaron. El hermano menor de Jesús, Joxe, también murió en la guerra; los fascistas lo llevaron por la fuerza al frente y allí murió.

## JULIAN PEREZ KAREAGA

FUSILATUA / FUSILADO

*Sestao (Bizkaia), 1916/04/25 - Legazpi, 1936/09/20*



Legazpi konkistatu eta biharamunean, Oñatitik milizianoz eta gudariz betetako kamioia iritsi zen, faxistei aurre egiteko asmoz, eta bertan zihoan Julian gazte legazpiarra. Udana inguruan erreketeak azaldu ziren eta tiroketa izan zen. Tiroketa hartan, kamioi gidaria, Paciano Ituarte, zauritu zuten. Julian hari laguntzen ahalegindu omen zen, baina lortu ez zuenez, ihes egitea erabaki zuen; ez zuen lortu, ordea, tiroz zauritu baitzuten. Taldeko gainerakoek ihes egin zuten, baina Julian harrapatu egin zuten faxistek, eta Udanan bertan fusilatu zuten, 1936ko irailaren 20an, 20 urte zituela.
Julianen aita Gaudencio Perez Barandalla zen, Legazpiko falangisten burua. Julian berari dagokionez, batzuek diote EAJko kidea zela, eta beste batzuek, miliziano ezkertiarra zela.

Al día siguiente de la conquista de Legazpi, un camión lleno de milicianos y gudaris llegó desde Oñati con intención de hacer frente a los fascistas, y en el viajaba el joven legazpiarra Julián. En las inmediaciones de Udana aparecieron los requetés y comenzó el tiroteo. En aquel tiroteo hirieron al conductor del camión Paciano Ituarte y Julián quiso ayudarle, pero como su intento fue infructuoso trató de huir, sin éxito, porque lo hirieron de bala. El resto del grupo consiguió escapar mientras Julián fue apresado por los fascistas y fusilado allí mismo, el 20 de septiembre de 1936, a los 20 años de edad.
Julián era hijo del jefe de los falangistas de Legazpi, Gaudencio Pérez Barandalla. Sobre el propio Julián algunos dicen que era del PNV y otros que era miliciano izquierdista.

***Gurasoak*** ***[Padre y madre]:*** *Gaudencio Pérez Barandalla (Reinosa, Cantabria) eta Eustaquia Kareaga (Sestao).*
***Anai-arrebak*** ***[Hermanos-hermanas]:*** *Pascual, Asun, Gaudencio eta Julián.*



# AURELIO RUIZ DE ARBULO LOPEZ DE GEREÑU

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Zalduondo (Araba), 1907/09/25 - Otxandio (Bizkaia), 1937/04/04*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Froilán Ruiz de Arbulo (Zalduondo, Araba) eta Cayetana López de Gereñu (Ilarduia, Araba).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Ángela, Flora, Aurelio, Ildenfonso, Hermenegildo, Celestina.*
***Andrea** [Mujer]: Guillerma Zeberio Fernández.*
***Semea** [Hijo]: Ascensio Ruiz de Arbulo Zeberio.*

Zalduondotik etorria, Telleriarteko Karabineroen etxean bizi zen. Patrizioren fabrikan egiten zuen lan, baina baserriko zereginak ere betetzen zituen. Guillerma Zeberio Fernandezekin ezkonduta zegoen, eta Ascensio izeneko seme bat zuten. Otxandioko frontean zauritu eta Durangora eraman zuten. Bertan hil zen, 1937ko apirilaren 4an, 29 urte zituela, Ascensio semetxoak 11 hilabete besterik ez zituela.

Aurelioren alarguna, Guillerma, gurasoen etxera itzuli zen lehenengo eta gero Araiara joan zen, han biltegi batean lan egiteko aukera izan baitzuen beste emakume batzuekin batera. Guillermak anaia ere galdu zuen gerraren ondorioz (Felix Zeberio); beste anaia bat (Andres Zeberio) gudari ibili zen eta, ondoren, 5 urte egin zituen preso; eta anaiorde bat (Iñaki Errekabide) ere gudari ibili zen eta, gerora, lan batailoietan eta erbestean. Guillermaren aitari, gainera, isuna jarri zioten.

Llegado desde Zalduondo, vivía en la casa de los carabineros de Telleriarte y trabajaba en la fábrica de Patricio, pero también se hacía cargo de las labores del caserío. Estaba casado con Guillerma Zeberio Fernández, tenían un hijo llamado Ascensio. Lo hirieron en el frente de Otxandio y lo trasladaron a Durango, donde falleció el 4 de abril de 1937, a los 29 años de edad, cuando su hijo Ascensio no tenía más que 11 meses.

Guillerma, la viuda de Aurelio, volvió con sus padres al principio y más tarde se trasladó a Araia, donde pudo trabajar en un almacén con otras mujeres. Guillerma también perdió a un hermano a consecuencia de la guerra (Felix Zeberio), otro hermano (Andres Zeberio) luchó en la guerra y pasó cinco años preso, y un hermanastro (Iñaki Errekabide) fue gudari en la guerra y posteriormente estuvo en los batallones de trabajo y en el exilio. Además, el padre de Guillerma fue multado.

## BIXENTE SARASOLA ODRIA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Gabiria, 1914/04/07 - Montes Claros (Kantabria, Espainia), 1937/08/30*



***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Francisco Ignacio Sarasola Matxain (Itsasondo) eta Ramona Odria Gabiria (Baztarretxe, Gabiria).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Justa, Juana, José Mari, Bittori, Bixente, Hipólito eta Santiago.*

Aztiriko Baztarretxe baserrian jaioa, Legazpiko Uztagillenea baserrian bizi zen 10 urte zituenetik. Baserriko lanetan jarduten zuen eta abertzalea zen. Dantzaria ere bazen, eta besteak beste, Legazpiko EAJren batzokiaren inaugurazioan dantza egin zuen, Telesforo Monzonen aurrean. Gerra piztu zenerako, ordea, EAJrekiko aldenduta zegoen. Gerra piztu zenean soldaduskan zegoen Bixente eta errepublikaren aldekoen artean gelditu zen. Soldaduska bukatuta, berriz, EAJko batailoi batean ibili zen osasun arloko lanetan (esku-oheak garraiatzen eta). Montes Clarosen (Kantabrian) zauritu bat zeramatenean, tiro egin zioten faxistek eta bertan hil zen 1937ko abuztuaren 30ean, 23 urte zituela. Lagunek lurperatu zuten, tartean Joxe Ibarnia legazpiarrak. Herrira itzuli zenean, Joxek kontatu zion familiari gertatutakoa.

Anaia Hipolito ere gudari aritu zen EAJrekin eta preso hartu zuten. Bere etxean ikurrina aurkitu zuten faxistek eta erre egin zuten. Hipolitoren koinatua ere, Florentino Zubizarreta Aranburu, gerran hil zen.

Nació en el caserío Baztarretxe de Aztiri, pero vivió desde los 10 años en el caserío Uztagillenea de Legazpi. Trabajaba en el caserío y era abertzale. Era aficionado a las danzas vascas y, entre otros eventos, bailó en la inauguración del batzoki del PNV de Legazpi, delante de Telesforo Monzón. Pero para cuando comenzó la guerra se había alejado del PNV. Al estallar la guerra estaba realizando el servicio militar y se quedó con los que defendían la República. Al terminar el servicio militar realizó trabajos relacionados con la sanidad (camillero…) en un batallón del PNV. El 30 de agosto de 1937, mientras transportaban a un herido en Montes Claros (Cantabria), los fascistas le dispararon y murió allí mismo, a los 23 años de edad. Sus amigos lo enterraron, entre ellos el legazpiarra Joxe Ibarnia. Cuando volvió al pueblo fue el propio Joxe el que contó a los familiares de Bixente lo sucedido.

Su hermano Hipolito también fue gudari con el PNV y estuvo preso. En su casa los fascistas encontraron una ikurriña y la quemaron. El cuñado de Hipolito, Florentino Zubizarreta Aranburu, también murió en la guerra.

Ezkerrean, goian: (Zutik) Baselides Izarra, Jose Goiburu, Vicente Sarasola eta Jose Ibarnia. (Eserita) Antonio Arbizu, Jose Alberdi, Victoriano Lopez de Gereñu eta Blas Gordomendi. Bilbo 1937. Legazpiarrak afaltzeko elkartu ziren batean.
Izquierda, arriba: (De pie) Basélides Izarra, José Goiburu, Vicente Sarasola y José Ibarnia. (Sentados) Antonio Arbizu, José Alberdi, Victoriano López de Gereñu y Blas Gordomendi. Bilbao 1937, un día que se juntaron los legazpiarras para cenar.
Ezkerrean, behean: (Ezkerretik eskuinera) Pedro Zabaleta "Xaldu", Iñaki Aseginolaza, Iñaki Etxaleku "Txaleko" eta Bixente Sarasola.
Izquierda, abajo: (De izquierda a derecha) Pedro Zabaleta "Xaldu", Iñaki Aseginolaza, Iñaki Etxaleku "Txaleko" y Bixente Sarasola.
Eskuinean: (Zutik) Hipólito Sarasola eta Manuel Agirre / (Eserita) Lucio Agirre eta Jose Antonio Aztiria.
Derecha: (De pie) Hipolito Sarasola y Manuel Agirre / (Sentados) Lucio Agirre y José Antonio Aztiria.










Hirugarren ilaran, zazpigarrena: Vicente Sarasola Odria.
El septimo de la tercera fila es Vicente Sarasola Odria.

*Familiak utzitako argazkia*



# LUIS UGARTE ELKOROBARRUTIA

GERRAREN ONDORIOZ HILA / MUERTO A CONSECUENCIA DE LA GUERRA

*Oñati,1920/…/… - Legazpi, 1937/11/24*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Nicolás Ugarte Arzuaga (Oñati) eta Juana Elkorobarrutia Zugasti (Oñati).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Norberto, Isabel, Luis, Vicenta, Pilar, Juan eta Luxio.*

Oñatin jaioa, baina zazpi urte zituela Legazpiko Azpikoetxe errotara etorri zen bizitzera aita-ama eta anai-arrebekin. Gerra hasi zenean Brinkolako Bergaretxe baserrian bizi zen 17 urteko Luis gaztea. Faxistek Legazpi konkistatu ondoren, ospitale militarra jarri zuten zahar etxea izateko eraikitako eraikinean, eta bertara eraman ohi zituzten zaurituak. 1937ko azaroaren 24an, Udanatik behera Legazpira zaurituak zekartzan ejertzitoko kamioi batek Luis Ugarte Elkorobarrutia harrapatu zuen, Telleriarteko San Migeleko errebuelta inguruan. Kolpeak larri zauritu zuen gaztea. Senideek zaurituak ospitalera zeramatzan kamioi militarreko arduradunei eskatu zieten Luis ere kamioian sartzeko eta ospitalera eramateko, baina militar faxistek ez zieten kasurik egin eta, gaztea lurrean larriki zaurituta utzita, aurrera jarraitu zuten. Denbora gutxira, odolustuta hil zen Luis, Isabel arrebaren besoetan.

Nació en Oñati, pero a los siete años de edad vino a vivir al molino Azpikoetxe de Legazpi junto con sus padres y hermanos. Cuando comenzó la guerra el joven Luis de 17 años vivía en el caserío Bergaretxe de Brinkola. Cuando los fascistas conquistaron Legazpi convirtieron en hospital militar la residencia de ancianos y solían llevar allí a los heridos. El 24 de noviembre de 1937 un camión del ejército que bajaba desde Udana transportando hacia el hospital a varios heridos atropelló a Luis Ugarte Elkorobarrutia en los alrededores de la curva de San Migel en Telleriarte. Los familiares del joven herido pidieron a los responsables del camión militar que llevaran al herido al hospital en el camión, pero los militares hicieron caso omiso y continuaron su camino dejando a Luis tumbado en el suelo. El joven murió desangrado poco después, en brazos de su hermana Isabel.



Luxio, Norberto, Luis eta Juanito Ugarte Elkorobarrutia

*Familiak utzitako argazkia*



## PEDRO URIBARRI GALDEARRA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Tolosa, 1915/…/… - Uvieu (Asturies, Espainia), 1937/02/27*

Jaiotzez tolosarra, Legazpiko Etxealain bizi zen, eta Patrizio Etxeberriarenean egiten zuen lan. EAJren Amaiur batailoian aritu zen gudari. Oviedon hil zuten, Asturiasen, 1937ko otsailaren 27an, 22 urte zituela.

Nació en Tolosa, pero vivía en Etxealai de Legazpi, y trabajaba en la fábrica de Patricio Etxeberria. Luchó en el batallón Amaiur del PNV y lo mataron en Oviedo, Asturias, el 27 de febrero de 1937, a los 22 años de edad.

## JESUS VILLALOBOS GAONA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Altsasu (Nafarroa), 1913/04/08 - Otxandio (Bizkaia), 1937/02/28*





Jeronimo Madina eta Jesus Villalobos, lehenengoa eta bigarrena, hurrenez hurren.
Jerónimo Madina y Jesús Villalobos, primero y segundo, respectivamente.

***Familiak utzitako argazkia***

Altsasun jaio zen, baina Legazpin bizi zen, Brinkolan. Mekanikaria zen eta Compañia del Norteren trenbidean egiten zuen lan. CNTren Malatesta batailoian aritu zen borrokan. Otxandio-Ubideako frontean hil zuten, 1937ko otsailaren 28an, 23 urte zituela.

Nació en Altsasu, pero vivía en Legazpi, concretamente en Brinkola. Era mecánico y trabajaba en el ferrocarril de la Compañía del Norte. Luchó en el batallón Malatesta de la CNT y murió en el frente de Otxandio-Ubidea el 28 de febrero de 1937, a los 23 años de edad.

***Gurasoak** [Padre y madre]: Roberto Villalobos Mendibil (Altsasu, Nafarroa Garaia) eta María Concepción Gaona García (Olatzagutia, Nafarroa Garaia).*

***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Pablo, Sara, Miguel, Jesús, Antonia, Emilia, Manuel eta Josefa.*

*Lehenengo hirurak Olatzagutian jaio ziren; hurrengo bostak, Altsasun.*

*Los tres primeros nacieron en Olatzagutia; los cinco siguientes en Altsasu.*



## LUIS ZABALETA TELLERIA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Legazpi, 1911/05/09 - Posada de Llanes (Asturies, Espainia), 1937/09/07*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Anselmo Zabaleta Guridi (Olaberri, Legazpi) eta Leandra Telleria Galfarsoro (Santurunea, Legazpi). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Juan, Luis, Carmen, Romualdo, Inés, Cristina, Emilio eta Juanita.*

Legazpin jaio zen, Olaberrin. Argiketaria zen eta Compañia del Norteren trenbidean egiten zuen lan, mantenu lanetan. Dantzaria eta pilotaria ere bazen Luis. Familia oso politizatu bateko semea zen; anaia zaharrena (Juan) preso izan zuen errepublika garaian. Pentsaerari dagokionez, ezkertiarra omen zen. Gerra piztutakoan, UGTren milizietan jardun zuen, hainbat frontetan, harik eta 1937ko irailaren 7an, 26 urte zituela, Asturiaseko Posada de Llanesen hil zuten arte.

Hori ez zen izan gerrak Zabaleta-Telleria familiari eragindako arazo bakarra: Luisen aitari eta osabari 200 pezetako isun bana jarri zieten; Luisen beste bi anaiak ere miliziatan jardun zuten eta ondoren, anaietako bat (Emilio) preso hartu zuten; beste anaia (Juan), Mexikon erbesteratu zen; Romualdo anaiari sei urtez soldaduska eginarazi zioten.

Nació en Legazpi, en Olaberri, era electricista y realizaba trabajos de mantenimiento en el ferrocarril de la Compañía del Norte. Era dantzari y pelotari. Provenía de una familia muy politizada, y el hermano mayor (Juan) estuvo preso en tiempo de la República. Ideológicamente era de izquierdas. Al empezar la guerra participó en las milicias de UGT en varios frentes, hasta que el 7 de septiembre de 1937 lo mataron en la localidad asturiana de Posada de Llanes, a los 26 años de edad.

La familia Zabaleta-Telleria tuvo más problemas durante la guerra, puesto que tanto al padre como al tío de Luis les impusieron sendas multas de 200 pesetas, dos hermanos de Luis lucharon en las milicias y uno de ellos (Emilio) estuvo preso, otro hermano (Juan) se exilió en México y a otro hermano (Romualdo) le obligaron a realizar seis años de servicio militar obligatorio en el ejército.



## COSME ZALDUENDO ZUFIAURRE

GERRAREN ONDORIOZ HILA / MUERTO A CONSECUENCIA DE LA GUERRA

*Ordizia, 1922/…/… - Legazpi, 1949/05/30*



Ordizian jaioa, baina 4 urte zituela Legazpira etorri zen ama eta hiru anai-arrebekin (arrebetako bat, Carmen, gerra aurretik hil zen). Itxura denez, faxistek altxatu zirenean alde egin zuen Cosmek. Europara ihes egitea lortu zuen eta Gurseko kontzentrazio-esparruan bukatu zuen eta bertan denbora dezente eduki zuten preso. Etxekoek hiltzat eman zuten, baina, halako batean, Legazpin azaldu zen. Ordurako, ordea, gaisorik zegoen eta handik gutxira hil egin zen.

Nació en Ordizia, pero vino a Legazpi cuando tenía 4 años, con su madre y tres hermanos (su hermana Carmen murió antes de la guerra). Según parece, Cosme huyó tras la sublevación fascista. Logró escapar a Europa pero terminó en el campo de concentración de Gurs y allí estuvo largo tiempo preso. Sus familiares lo dieron por muerto, pero apareció en Legazpi. Sin embargo, estaba muy enfermo y murió poco después.

Cosme Zalduendo Zufiaurre eta Juan Ignacio Zufiaurre. Cosme Juan Ignacioren iloba zen.
Cosme Zalduendo Zufiaurre y Juan Ignacio Zufiaurre. Cosme era sobrino de Juan Ignacio.

*Familiak utzitako argazkia*

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Cosme Zalduendo Arce (San Adrián, Nafarroa Garaia) eta Josefa Zufiaurre García (Altsasu, Nafarroa Garaia). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Antonio Zalduendo Zufiaurre, Carmen Zalduendo Zufiaurre, Amparo Zalduendo Zufiaurre eta Avelina Madina Zufiaurre.*

*Lehenengo ezkontzan jaiotako beste bost anai-arreba umetan hil ziren eta Abelina gerraren ondorioz hil zen bi urte zituela. Cosmeren aita gazterik hil zen eta ama, Josefa, bigarrenez ezkondu zen Jesus Madina Alonsorekin.*

*Otros cinco hermanos del primer matrimonio murieron siendo muy pequeños, y Avelina murió a consecuencia de la guerra a los dos años de edad. El padre de Cosme murió joven y Josefa contrajo matrimonio en segundas nupcias con Jesús Madina Alonso.*



# FELIX ZEBERIO FERNANDEZ

GERRAREN ONDORIOZ HILA / MUERTO A CONSECUENCIA DE LA GUERRA

*Lazkao, 1920/05/02 - Legazpi, 1939/08/14*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Fermín Zeberio Aramendia (Ataun) eta Paula Fernández Fernandez (Alaitza, Araba).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Guillerma, Andresa, Maria, Andrés, Félix, Juan eta Iñaki Errekabide.*
*Lehenengo bostak Lazkaon jaio ziren; Juan, Telleriarten; eta Iñaki, etxean jaso zuten. Fermin Ataunen jaioa bazen ere, gaztetan Altsasun ibili zen ikazkin eta, horregatik, "Fermin naparra" deitzen zioten.*
*Los cinco hermanos mayores nacieron en Lazkao; Juan, en Telleriarte; y a Iñaki lo acogieron. El padre, aunque nació en Ataun, paso su juventud en Altsasu, de carbonero, y por eso le llamaban "Fermín naparra".*

Familia abertzale batekoa zen Felix. Lazkaotik etorritakoak ziren, eta Telleriarten bizi ziren, Kristobalenea etxean (gerora Naparrenea izenez ezagutua, Felixen aitari "Fermin naparra" esaten ziotelako). Gerrak gogor astindu zuen Zeberiotarren familia. Felixen arreba Guillermaren senarra (Aurelio Ruiz de Arbulo) Otxandioko frontean hil zen, Guillerma seme txiki batekin alargun utzita. Felix bera, Andres anaia eta Iñaki anaiordea gudari aritu ondoren, preso hartu zituzten. Andres anaia Bizkaiko frontea erori eta gero hartu zuten, eta 5 urtez izan zuten espetxean. Iñaki Errekabide anaiordea gudari aritu zen, eta lan batailoietan izan zuten, ondoren. Urte batzuen buruan, erbesterako bidea hartu zuen. Felixek sei hilabete egin zituen preso. Aitari (Fermin Zeberiori) 1.000 pezetako isuna jarri zioten… Gauzak horrela, estutasunen ondorioz, familiaren etxea saldu behar izan zuten (Albako dukesari saldu zioten). Eta Patriziorenean ere ez zuten lanean hartu Fermin, zorigaiztoko "koarentena" zela-eta. Ez ziren garai errazak izan Zeberio-Fernandeztarrentzat.

Era miembro de una familia abertzale llegada de Lazkao que vivía en la casa Kristobalenea de Telleriarte (conocida más adelante como Naparrenea, por el apodo de su padre) y que la guerra golpeó duramente. El marido de su hermana Guillerma (Aurelio Ruiz de Arbulo) murió en el frente de Otxandio, dejándola viuda con un niño pequeño. El propio Félix, su hermano Andrés y su hermanastro Iñaki fueron gudaris y estuvieron presos. Su hermano Andrés cayó en el frente de Bizkaia y estuvo en la cárcel 5 años, su hermanastro Iñaki Errekabide estuvo en los batallones de trabajo y posteriormente tomó el camino del exilio. Felix pasó seis meses preso. Al padre Fermín Zeberio le impusieron una multa de 1.000 pesetas y a consecuencia de las penalidades, tuvieron que vender la casa familiar (se la compró la duquesa de Alba). Tampoco logró trabajar en la fábrica de Patricio, por la dichosa "cuarentena". No fue una época fácil para la familia.

Lucia Zeberio Fernandez, Guillerma Zeberio Fernandez eta Paula Fernandez Fernandez. Guillermaren lehenengo gizona Aurelio Ruiz de Arbulo Lopez de Gereñu izan zen; gerran hil zen.
Lucia Zeberio Fernández, Guillerma Zeberio Fernández y Paula Fernández Fernández. El primer marido de Guillermo fue Aurelio Ruiz de Arbulo López de Gereñu que murió en la guerra.



*Familiak utzitako argazkia*

Donostiako kartzelatik irten zenean, Felix ez zuten lanean berehala hartu Patriziorenean, abertzalea eta preso ohia zelako. “Koarentena” delakoa pasatuta, Patriziorenean hasi zen lanean, baina arazo larriak izan zituen. Bertako arduradunak falangistak ziren, eta ez zuten Felix bakean utzi. Gero eta arazo eta liskar gehiago zituen lantokian eta, halako batean, eztabaida gogor baten ondoren, arduradun batek mehatxu egin zion, lanetik botako zutela esanez, “gorria eta separatista” izateagatik. Familiak dionez, Felixek ezin izan zuen hainbesteko presioa jasan, eta bere burua trenbidera bota zuen, 1939ko abuztuaren 14an, 19 urte zituela.

Al salir de la cárcel de Donostia Félix no fue admitido inmediatamente en la fábrica de Patricio, porque era abertzale y ex preso. Después de pasar la “cuarentena” comenzó a trabajar donde Patricio, pero tuvo muchos problemas ya que los responsables de la fábrica eran falangistas y no dejaron en paz a Félix. Tuvo innumerables encontronazos con los encargados de la fábrica, cada vez más graves, y un día después de una agria discusión uno de ellos lo amenazó con despedirlo, “por rojo y separatista”. Según la familia, Félix no pudo soportar tanta presión y se lanzó a las vías del tren al paso de un convoy; murió el 14 de agosto de 1939, a los 19 años de edad.



# FLORENTINO ZUBIZARRETA ARANBURU

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Azkoitia, 1914/01/06 - Elgeta, 1937/04/24*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Prudencio Zubizarreta Zabalo (Azkoitia) eta Micaela Aranburu Muñoz (Azkoitia).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Florentino, Cándido, Sebastián, Manuela, María, Marcelino, José eta Miguel.*
*Aita Prudencio ikatz saltzailea zen Azkoitian eta Legazpin. Legazpi eta Zumarragako errekaduak ere hark egiten zituen zalgurdiarekin.*
*El padre, Prudencio, vendía carbón en Azkoitia y Legazpi y realizaba recados con el coche de caballos en Legazpi y Zumarraga.*

Azkoitiko Martirieta auzoan jaioa, Legazpin bizi zen eta mekanikari lanean jardun zuen Patrizioren fabrikako galdategian. EAJren Itxarkundia batailoian aritu zen gudari. Elgeta inguruan hil zen 1937ko apirilaren 24an, 23 urte zituela.

Nació en el barrio Martirieta de Azkoitia, vivía en Legazpi y trabajaba como mecánico en la fundición de la fábrica de Patricio. Luchó como gudari en el batallón Itxarkundia del PNV. Murió en las inmediaciones de Elgeta el 24 de abril de 1937, a los 23 años de edad.



(Zutik) 2. Pedro Zabaleta “Xaldu” / 3. Florentino edo Cándido Zubizarreta / 4. Iñaki Etxaleku “Txaleko” / 5. Iñaki Aseginolaza / (Eserita) 6. Luis Sologaistoa

*Familiak utzitako argazkia*

# ELOY ZUFIAURRE GARCIA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Altsasu (Nafarroa Garaia), 1912/02/08 - Donostia, 1936/07/24*



Altsasuarra jaiotzez, Brinkolan bizi zen eta trenbidean egiten zuen lan. Pilotaria zen. Gerra piztu zenean, herriko lehenengotako boluntarioa izan zen eta Donostian hil zuten gerra piztu eta aste betera, 1936ko uztailaren 24an, 24 urte zituela. Gerran hildakoetako Legazpiko herritarren zerrenda luzeko lehenengoa dugu Eloy. Haren anaia ere, Isidro Zufiaurre Garcia, gerran hil zen.

Nació en Altsasu, pero vivían en Brinkola y trabajaba en el ferrocarril. Era pelotari. Cuando comenzó la guerra fue uno de los primeros voluntarios que partió hacia Donostia y fue precisamente allí donde lo mataron una semana después del comienzo de la guerra, el 24 de julio de 1936, a los 24 años de edad. Eloy fue el primero en la larga lista de legazpiarras muertos en la guerra. Su hermano Isidro Zufiaurre García también murió en la contienda.



Eloy Zufiaurre García basoan, beste batzuekin batera.
Eloy Zufiaurre García en el bosque con otros compañeros.

*Familiak utzitako argazkia*

***Gurasoak** [Padre y madre]**:** Antonio Zufiaurre (Altsasu, Nafarroa Garaia) eta Casiana García (Olatzagutia, Nafarroa Garaia).*
***Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]**:** Josefa, Martín, Juan Ignacio, Adelaida, Jesús, Jesusa, Eloy eta Isidro. Josefa, arreba zaharrena, Legazpiko Zentro Republikanoko burua Jesus Madina Alonsorekin ezkondu zen bigarrenez. Josefa, la hermana mayor, se casó en segundas nupcias con Jesús Madina Alonso, presidente del Centro Republicano de Legazpi.*



# ISIDRO ZUFIAURRE GARCIA

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Altsasu (Nafarroa Garaia), 1914/04/18 - Artxanda (Bizkaia), 1937/06/14*

***Gurasoak** [Padre y madre]: Antonio Zufiaurre (Altsasu) eta Casiana García (Olatzagutia). **Anai-arrebak** [Hermanos-hermanas]: Josefa, Martín, Juan Ignacio, Adelaida, Jesús, Jesusa, Eloy eta Isidro. Josefa, arreba zaharrena, Legazpiko Zentro Republikanoko Jesus Madina Alonsorekin ezkondu zen bigarrenez.*

*Josefa, la hermana mayor, se casó en segundas nupcias con Jesús Madina Alonso del Centro Republicano de Legazpi.*

Altsasun jaio zen, baina gerra hasi zenean Legazpin bizi zen eta industria metalurgikoan egiten zuen lan. CNTko sindikalista izan zen eta gerran Capitan Casero batalojan borrokatu zen. Artxandan hil zen faxistek Bilbo hartu baino egun batzuk lehenago, 1937ko ekainaren 14an, 23 urte zituela. Anaia Eloy ere gerran hil zuten.

Nació en Altsasu, pero vivía en Legazpi cuando estalló la guerra y trabajaba de metalúrgico. Fue sindicalista de la CNT y en la guerra luchó en el batallón Capitán Casero. Murió en Artxanda pocos días antes de caer Bilbo, el 14 de junio de 1937, cuando tenía 23 años. Su hermano Eloy también murió en la guerra.



*Familiak utzitako argazkia*



Isidro eta Eloy Zufiaurre Garcia *Familiak utzitako argazkia*

# Gerraren ondorioz
# Legazpin hildako kanpoko herritarrak

## Personas foráneas muertas en Legazpi
## a consecuencia de la guerra

Alberdi Iturbe, Pedro - Alonso Fernandez, Adolfo - Alustiza Agirre, Damian - Alustiza Agirre, Juan - Amilibia Martinez de Osaba, Ciriaco - Anduaga Unamuno, Miguel - Andueza Ugarte, Justo - Arce Salazar, Victoriano - Argintxena Zendoki, Serapio - Arrizabalaga Murgiondo, Segundo - Azurmendi Arrondo, Celestino - Barandiaran Iturbe, Jose - Basogarai Azalbide, Leon - Bergaretxe Mantxola, Marcelino - Berrade Iturbide, Jose - Bidaburu Aranburuzabala, Pako - Bidania Ollokieta, Teodoro - Blanco Valdivielso, Florentino - Cia Sadaba, Benito - Crespi Coll, Joaquin - Dominguez De la Torre, Francisco - Elgarresta Zufiaurre, Jose Antonio - Elorza Guridi, Juan - Etxaniz Astigarraga, Angel - Etxeberria Garmendia, Jose - Etxeberria Ibarguren, Santos - Etxeberria Iñurritegi, Domingo - Etxeberria Murgiondo, Joaquin - Fernandez Ruiz de Larrea, Aureliano - Franco Blanco, Andres - Garcia Alonso, Domingo - Garcia Alonso, Policarpo - Gibelalde Aranguren, Doroteo - Gordoa Bengoetxea, Alejandro - Hernandez Rodriguez, Teodoro - Idigoras Inza, Francisco - Igarza Loidi, Juliana - Inda Gomez de Segura, Alfredo - Intxausti Arozena, Jose Mari - Iñurritegi Makibar, Placido - Inza Azarola, Donato - Irastorza Etxeberria, Fernando - Irastorza Etxeberria, Pacifico - Irusta Leibar, Martin - Ituarte Corres, Paciano - Kortazar Gastañaga, Lorenzo - Langarika Escobar, Primitivo - Larrañaga Lizarralde, Jose - Larrea Ziordia, Jesus - Lazkanoiturburu Urzelai, Eusebio - Lizarazu Alustiza, Jose Mari edo Jose Joaquin - Madina Aiastui, Esteban - Madina Alonso, JeronimoMartinez de Albeniz Garcia, Jose - Matinez de Albeniz, Magdalena - Mena Diez, Eugenio - Mendia Zabalo, Evaristo - Mendiola Gutierrez de la Concha, Jose Mari - Monton Zurbano, Miguel - Murguzur Murua, Eugenio - Murua Sasieta, Tomas - Nuñez Mediavilla, Jose - Oiarzabal Zenekorta, Concepcion - Oneka Asin, Marcelino - Ormazabal Amiano, Jose Mari - Oroz Otxoa, Donato - Pelaez Potallo, Galdino - Peña Etxeberria, Jesus - Perez Kareaga, Julian - Ramos Aceituno, Constantino - Rodriguez Veiga, Hilario Ruiz de Arbulo Lopez de Gereñu, Aurelio - Sarasola Garai, Lucio - Sarasola Odria, Vicente - Savin Prieto, Antonio - Solatxi Iriondo, Ignacio - Tapiones Llamas, Maximino (Zapioles genuen baina oker zegoen) - Ugarte Berasategi, Felix - Ugarte Elkorobarrutia, Luis - Uribarri Galdearra, Pedro - Usin Artolazabal, Timoteo - Vazquez Espina, Juan - Velasco Otxoa de Alda, Pedro - Villalobos Gaona, Jesus - Zabaleta Telleria, Luis - Zeberio Fernandez, Felix - Zubia Egizabal, Severiano - Zubizarreta Aranburu, Florentino - Zufiaurre Garcia, Eloy - Zufiaurre Garcia, Isidro



## PAKO BIDABURU ARANBURUZABALA

FUSILATUA / FUSILADO

*Arrasate, 1914/…/… - Legazpi, 1936/10/04*

Arrasatearra zen Pako, eta taxilaria lanbidez. Abertzalea zen, eta Arrasateko zinegotzi karlista baten mendekuz atxilotu zuten faxistek. Tolosara edo Donostiara omen zeramaten, galdekatzera, baina Udana inguruan zain zituen erreketeak.

Pixuzarren, Legazpiko kanposantu inguruan, fusilatu zuten, 1936ko urriaren 4an, 22 urte zituela. Legazpiko karlista batek eman omen zion “grazia-tiroa”. Fusilatu aurretik, Legazpiko parrokoarengana eraman zuten, konfesatzera. Hari eman omen zizkion bere gauza pertsonalak, familiari emateko. Parrokoak protesta egin omen zuen faxisten aurrean; “Errugabeak hiltzen ari zarete”, esanez.

Pako era de Arrasate, taxista de profesión y abertzale. Fue detenido por venganza personal de un concejal carlista de Arrasate. Cuando lo trasladaban a Tolosa o Donostia para ser interrogado, los requetés lo esperaban en los alrededores de Udana.

Lo fusilaron en Pixuzar, en las inmediaciones del cementerio de Legazpi, el 4 de octubre de 1936, a los 22 años de edad. Según algunas fuentes el “tiro de gracia” se lo dio un carlista de Legazpi. Antes de fusilarlo lo llevaron ante el párroco del pueblo, para que se confesara, y le dio al cura sus objetos personales para que se los hiciera llegar a sus familiares. Al parecer el párroco protestó ante los fascistas: “Estáis matando a inocentes”, les dijo.

## PACIANO ITUARTE CORRES

FUSILATUA / FUSILADO

*Oñati,1905/…/… - Legazpi, 1936/09/21*



Paciano Ituarte 30 urteko oñatiarra, arotza zen, ezkonduta zegoen eta 14 hilabeteko alaba baten aita zen. Faxistek Legazpi konkistatu eta biharamunean, Oñatitik faxistei aurre egiteko zetorren kamioiko gidaria genuen Paciano. Erreketeek zauritu zuten irailaren 20an, kamioitik atera eta ostikoka gogor jo zuten. Handik, Legazpiko kartzelara eraman zuten. Ziurrenik bertan galdekatu eta torturatu egin zuten. Biharamunean, irailaren 21ean, berriro Udanara eraman eta fusilatu egin zuten. Dirudienez, biharamunera arte egon zen Pacianoren gorpua Udanan, odol putzu baten erdian, harik eta Oñatiko hilerrira eraman zuten arte.

Paciano Ituarte, oñatiarra de 30 años de edad, era carpintero, estaba casado y era padre de una niña de 14 meses. Paciano era el chofer del camión que salió desde Oñati para hacer frente a los fascistas al día siguiente de la conquista de Legazpi. Los requetés lo hirieron el 20 de septiembre, lo sacaron del camión a patadas, lo llevaron a la cárcel de Legazpi y seguramente lo interrogaron y torturaron. Al día siguiente, el 21 de septiembre, lo trasladaron nuevamente a Udana y lo fusilaron. Al parecer el cadáver de Paciano estuvo en Udana, en medio de un gran charco de sangre, hasta que al día siguiente se lo llevaron al cementerio de Oñati.



## MAXIMINO TAPIOLES LLAMAS

BORROKAN HILA / MUERTO EN COMBATE

*Barcial del Barco (Zamora, Espainia), 1907/06/04 - Legazpi, 1936/09/18*

Zamorako Barcial del Barco herrian jaio zen Maximino, baina gerra hasi zenerako Bizkaiko Trapagaran herrian bizi zen. Bertan egiten zuen lan meatzari gisa. Gerra piztu zenean, herri milizietan sartu zen, azkar asko, eta Gipuzkoa aldera etorri zen, faxistei aurre egitera. Legazpi inguruan borrokatzea egokitu zitzaion. 1936ko irailaren 18an (faxistek Legazpi konkistatu bezperan), borrokak izan ziren Atagoitin. Gabiria faxisten esku zen jada, eta handik iritsi ziren Atagoiti ingurura, falangistak eta erreketeak buru zirela. Bertan zeuden milizianoak zain, Maximino tartean, eta faxistak gelditzen ahalegindu ziren, gutxienez, Legazpiko ebakuazioa ondo egin ahal izateko. Tiroketak izan ziren, eta horietan hainbat zauritu eta hildako bat izan ziren: Maximino Tapioles Llamas izan zen hildakoa, 29 urte zituen eta ezkondua zegoen. Legazpiko kanposantuan lurperatu zuten.

Nació en el pueblo zamorano de Barcial del Barco, pero cuando comenzó la guerra vivía en Trapagaran (Bizkaia), donde trabajaba como minero. En cuanto estalló la guerra se sumó a las milicias populares, vino a Gipuzkoa para hacer frente a los fascistas y le tocó luchar en las inmediaciones de Legazpi. El 18 de septiembre de 1936 (día anterior a la conquista de Legazpi) hubo enfrentamientos armados en Atagoiti, ya que los fascistas habían tomado Gabiria y habían llegado a Atagoiti con los falangistas y requetés a la cabeza. Los milicianos, Maximino entre ellos, esperaban a los fascistas para intentar detenerlos, por lo menos hasta evacuar debidamente Legazpi. En los tiroteos hubo varios heridos y un muerto: el fallecido fue Maximino Tapioles Llamas, tenía 29 años y estaba casado. Lo enterraron en el cementerio de Legazpi.

## FELIX UGARTE BERASATEGI

FUSILATUA / FUSILADO

*Oñati, 1906/10/05 - Legazpi, 1936/09/29*



Felix Ugarte Berasategi 30 urteko oñatiarra abertzalea zen, EAJkoa, eta faxisten aurkako borrokan aritu zen. Faxistek Legazpi konkistatu eta biharamunean, gudariz eta milizianoz osatutako talde bat Udana aldera joan zen faxistei aurre egiteko asmoz. Bertan falangistak azaldu eta tiroka hasi zitzaizkien. Felixek Udanako tiroketatik ihes egitea lortu zuen, eta Korostiaga aldera joan zen ihesi, gudari talde batekin. Faxistak haiek zeuden lekura iritsi ziren. Bertan atxilotu zuten Felix irailaren 20an, eta kartzelatu egin zuten. Espetxean izan zuten 9 egunez (galdekatu eta torturatu egin zuten, ziurrenik), harik eta irailaren 29an berriro Udanara eraman eta bertan fusilatu zuten arte.

El oñatiarra de 30 años de edad Felix Ugarte Berasategi era abertzale, del PNV, y luchó contra los fascistas. Al día siguiente de la conquista de Legazpi un grupo de gudaris y milicianos llegó a Udana para hacer frente a los fascistas, pero allí aparecieron los falangistas y comenzó un tiroteo. Félix logró huir del tiroteo de Udana y huyó hacia Korostiaga con otros gudaris. Los fascistas llegaron a donde estaban ellos y allí detuvieron a Felix el 20 de septiembre y lo encarcelaron. Lo mantuvieron en prisión nueve días (seguramente, sufrió interrogatorios y torturas), hasta que el 29 de septiembre volvieron a llevarlo a Udana y lo fusilaron.





Goian: Bergarako Aiskar baserriko Juliana Igarzak tiroa jaso zuen hankan, baserriko balkoian zegoela. Gangrenak jota hil zen Legazpiko ospitalean, 17 urte zituela.

Arriba: Juliana Igarza fue alcanzada en una pierna por una bala perdida cuando estaba en el balcón del caserío Aiskar de Bergara. Murió a causa de la gangrena en el hospital de Legazpi, a los17 años de edad.

Ezkerrean: Bixente Sarasola

Izquierda: Bixente Sarasola

# Legazpiko ospitale militarrean hildakoak
## Fallecidos en el hospital militar de Legazpi

**LEGAZPIKO OSPITALEAN HILDAKO PRESOAK:**
**PRESOS FALLECIDOS EN EL HOSPITAL DE LEGAZPI:**

Argintxena Zendoki, Serapio / Gernika (Bizkaia), 1905/03/29 - Legazpi, 1937/04/29
Irusta Leibar, Martín / Oñati, 1881 - Legazpi, 1937/06/26
Solatxi Iriondo, Ignacio / Lemoa (Bizkaia), 1913 - Legazpi, 1938/05/22
Zubia Egizabal, Severiano / Aretxabaleta, 1896 - Legazpi, 1937/07/18

**LEGAZPIKO OSPITALEAN GERRAREN ONDORIOZ HILDAKO HERRITAR XUMEAK:**
**POBLACIÓN CIVIL FALLECIDA A CONSECUENCIA DE LA GUERRA EN EL HOSPITAL DE LEGAZPI:**

Igarza Loidi, Juliana / Bergara, 1920 - Legazpi, 1937/03/04
Oiartzabal Zenekorta, Concepción / Zumarraga, 1915 - Legazpi, 1937/04/02

**LEGAZPIKO OSPITALEAN HILDAKO MILITARRAK, SOLDADUAK, FALANGISTAK, ERREKETEAK…:**
**MILITARES, SOLDADOS, FALANGISTAS, REQUETES… FALLECIDOS EN EL HOSPITAL DE LEGAZPI:**

Arce Salazar, Victoriano / Veriana (Burgos, Espainia), 1911 - Legazpi, 1937/04/03
Berrade Iturbide, José / Uxue (Nafarroa Garaia), 1913 - Legazpi, 1937/05/26
Cia Sadaba, Benito / Mañeru (Nafarroa Garaia), 1911 - Legazpi, 1937/04/28
Crespi Coll, Joaquín / Palma de Mallorca (Balear Irlak, Espainia), 1901 - Legazpi, 1937/04/23
Domínguez De la Torre, Francisco / Sevilla (Sevilla, Espainia), 1902/09/08 - Legazpi, 1938/07/27
Franco Blanco, Andrés / Bembibre del Bierzo (Leon, Espainia), 1912 - Legazpi, 1937/04/28
Hernández Rodríguez, Teodoro / El Oso (Avila, Espainia), 1913 - Legazpi, 1937/05/13
Inda Gómez de Segura, Alfredo / Oteitza (Nafarroa Garaia), 1908 - Legazpi, 1937/04/21
Lazkanoiturburu Urzelai, Eusebio / Oñati, 1908 - Legazpi, 1939/03/28
Mena Díez, Eugenio / , 1913 - Legazpi, 1938/08/04
Montón Zurbano, Miguel / Mendaza (Nafarroa Garaia), 1916 - Legazpi, 1937/05/11
Núñez Mediavilla, José / Astudillo (Palencia, Espainia), 1915 - Legazpi, 1937/05/01
Oneka Asín, Marcelino / Luzaide (Nafarroa Garaia), 1900 - Legazpi, 1937/05/30
Peláez Potallo, Galdino / Oves (Asturies, Espainia), 1914 - Legazpi, 1937/02/24
Ramos Aceituno, Constantino / Jarandilla de la Vera (Caceres, Espainia), 1913 - Legazpi, 1937/05/18
Rodríguez Veiga, Hilario / Tintores (Ourense, Espainia), 1918 - Legazpi, 1939/02/18
Savin Prieto, Antonio / Morrias del Rio (Ourense, Espainia), 1914 - Legazpi, 1937/04/18
Usin Artolazabal, Timoteo / Soraluze, 1919/05/18 - Legazpi, 1937/03/25
Vázquez Espina, Juan / Almonte (Huelva, Espainia), 1912 - Legazpi, 1937/04/24

## Jakitun gara

argitalpen honetan 1936ko gerran eta gerra inguruan gertatutako alderdi batzuk besterik ez ditugula argitaratu. Aurkeztutako informazioa ahalik eta modu kontrastatuenean osatzen ahalegindu garen arren, badakigu gure lanak hutsuneak eta akatsak ere izan ditzakeela. Hori dela eta, benetan eskertuko genuke, zuzenketak edo gerra inguruko informazio gehiago (datuak, argazkiak, pasadizoak...) izango bazenitu, irakurle, guri helaraziko bazenigu. Horrek guztiak oinarri sendo bat izaten lagunduko digu, gero argitalpen hobeak ateratzeko eta, bide batez, gure iragana hobeto ezagutzeko. Mila esker, aldez aurretik.

## Somos conscientes

de que solamente hemos publicado una pequeña parte de lo acaecido en la guerra de 1936 y de los años que la rodearon. Hemos procurado trabajar con rigor y contrastar la información que llegaba a nuestras manos. Aun así somos conscientes de que puede haber omisiones o errores en el trabajo que aquí presentamos. Por dicho motivo, agradeceríamos muchísimo que, en el caso de que detectes algún error u omisión nos lo hagas saber. Agradeceremos, asimismo, que nos facilites más información de que puedas disponer (datos, fotografías, anécdotas...). Servirá para crear una base sólida de cara a futuras publicaciones y, de paso, conocer mejor nuestro pasado. Muchas gracias, por adelantado.

Helbide elektronikoa: Legazpi1936@gmail.com
Telefonoa: 943 737030 (Legazpiko Udala)

Argitaratzailea:

LEGAZPIKO UDALA

Babeslea:

ISBN 978-84-606-5274-8

9 788460 652748